

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Hernani



Aurkibidea

Udalerria: Hernani

Sarrera



Hernaniko udalerria Gipuzkoako ipar-ekialdean dago, Donostiak eta Astigarragak, Aranok eta Elduainek, Errenteriak eta Lasarte-Oriak eta Urnietak inguratzen dute. Santa Barbara mendiaren magalean dago Hernaniko hirigunea (Kultura Ondasun gisa Monumentu Maltza izendatua), eta handik begiratuta Urumea ibarraren alderdi handi bat ikus daiteke. Menditsua eta malkartsua da. Jaietan egiten diren ospakizunen artean "Azeri dantza" nabarmentzen da (inauterietan ere egiten da dantza hori). Urtean zehar beste hainbat ospakizun eta ekitaldi kultural ere egiten dira. Bertako euskara erdialdeko euskararen aldaera bat da.

- **Biztanleak:** 19.354
- **Euskaldunak:** %54,3

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **82**
- Zintak: **88**
- Pasarteak: **1.342**
- Transkribatutakoak: **5**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **1.342**

Proiektuak

- 101L - DSS2016 Donostialdea
- Beterriko kantak
- Burbunak eta etsayak
- Dialektologia-EHU
- EibarOrg blog komunitateak 10 urte
- Erditzea erdigunera: begirunea eta indarkeria gorpuzten dituzten bizipenak
- Euskal Herriko Ahotsak
- Gazte gara gazte
- San Ignacio ikastetxea. Ahozko ondarea jasotzen

Hizlariak

Manolo Adarraga Elizaran Txokolo (1932)



Hernaniko Kale Nagusiko 46.ean jaio zen, Adarraga-enean. Aita eta ama, biak Hernanikoak zituen. Birraitona kontrabandista omen zuen eta andregaiari ezkontzeko eskatu zionean, hark zuen ofizioa uzten ez zuen artean ez zela ezkonduko esan ondoren, gozogile izateko ikastera joan zen bere birraitona Toledora. Berak sortu zuen Hernaniko Adarraga gozotegi famatua, oraindik ere horretan diharduena. Manolok Portalez kanpoko eskolan ikasi zuen eta Biterin ere bai geroago. Batxilergoa egitera Donostiara ere joan zen eta ingeniari industrialak izateko ikasketak egin zituen Madrilén. Gazte garaian familiatik zetorkion kiroletako afizioa garatu zuen eta korrika, futbolean, eta batez ere errugbian ibili zen. Ezkondu eta bi alaba zituela, Santo Domingon lan egiteko aukera sortu zitzaion eta han bizi izan ziren denak bost urtez. Hirugarren alaba han jaio zen eta handik itzuli zirelarik, geroztik Hernanin bizi izan dira.

Genobeba Aginaga Ortega (1937)



Goizuetakoa da, baina Hernanin bizi izan da oso gaztetatik. Aitarik ez zuen ezagutu, bera jaio aurretik hila suertatu baitzen gerrako soldadu batzuen okerragatik. Bere amona zenak hazi zuen Goizuetako Kusiñenea baserrian eta Hernanira ezkondu zen gero.

Pepi Agirre Perurena (1938)



Hernaniko Iyolabekoan jaio zen eta han bizitu gaztaroan. Bost senidetan 4. zen bera. Aita zuen Iyolakoa eta ama, berriz, Errekaldekoa. Berak 6 urte besterik ez zituenean hil zitzaion ama eta gogoan du komunio txikia beltzez jantzita egin behar izan zutela. Hamabost urterekin Agirreberrira etorri zen eta bertara ezkondu 23rekin.

Juanita Agirrezabalaga Lete

Ama Astigarragakoa zuen eta aita, berriz, oiartzuarra. Ezkondu ostean Oialumera (Hernanira) joan ziren bizitzera eta 9 seme-alaba izan zituzten. Baina hiru bakarrik bizi izan ziren: Juanita, ahizpa eta anaia. Anaia ere oso gazterik hil zen, soldadu zegoela. Eta ama ere handik laster hil zen, Juanitak 8 urte inguru zituela. Orduan, bi ahizpak geratu ziren aitarekin. Taberna txiki bat zuten etxean, Oialumen, eta bestelako gauzak ere (abarketak, jatekoa...) saltzen zituzten bertan. Etxeak Lizartxueta omen zuen izena, baina beti Oialume esaten zioten. Garai batean etxearen erdian omen zegoen Astigarraga eta Hernani banatzen zituen mugarria. Apustu baten ondorioz, jaiero erromeria edo dantzaldia jartzen hasi ziren Oialumen eta urte askoan iraun zuen ohitura horrek.



Iñaxi Altuna

Joakina Altuna Gastesi (1932)



Hernaniko Ereñozu auzoko Saratsain baserrian jaio zen. Bederatzi senide jaio eta zortzi hazi ziren baserrian (bi anaia eta sei ahizpa). Bi bizitza omen zituen garai batean baserriak. Etxeko lanetan aritu behar izan zuen txikitatik. Tximistaenea baserrira ezkondu zen.



Abel Apaolaza Olaizola



Emilio Apaolaza Salaberria



Julian Apaolaza Salaberria (1932)



Antonio Aranburu Xanxonatei



Maritxu Aranburu (1948)

Hernanin jaioa. Ereñotzuko eskolara joan zen 12 urtera arte. Gero josten ikasi zuen.

Enriketa Aranburu Garaiar (1926)



Ereñozuko Pikuetxeberri baserrian jaio zen. Bost ahizpa eta bi anai zituen eta zortzi senidetan 5.a zen bera. Aita Askatsu baserrikoa zuen eta ama Pikuetxeberrikoa bertakoa. Zazpi hilabete egin zituen ume kontu eta gero beste zenbait etxetan ere ibili zen lan berean, baina bizitza gehiena etxean laguntzen egin du. Ezkondu eta 52 urte daramatza egungo etxebizitzan.

Eulalia Aranburu Urkizu (1932)



Hernaniko Limoi baserrian jaio zen eta lau senideren artean zaharrena zen bera. Agerren bizitu ziren eta sei urte besterik ez zituela aita hil zieten gerran. Sei urterekin, Hernanin kaleko "Atxietas"en ikasi zuen. Geroztik Biteriko eskola publikoan, Oronoz-Mugaireko "umezurtzen eskolan", Principe de Vianan eta Peñaflozidan ikasi zuen eta Donostiak Magisteritza ikasketak burutuz itxi zuen ikasketa zikloa. Ordutik aurrera irakasle izan da bizitza osoan, honako ikastetxe hauetan aritu delarik lanean batez ere: Hernaniko Pagoagan, Biteri eskolan, Mojen ikastetxean, Urumean, Flozidan eta azkenik Donostiako Santo Tomas Lizeoan. Jubilatu denetik batez ere, Hernaniko eskolen bilketa egin du, Hernaniko urtekarian idatzi du, Ahizpa misiolariaren historia idatzi du, Santa Barbarako eskopeteroen historia idatzi du, Askagintzan ibili da, eta oraindik ere Dobera euskara elkarteko kide da. Sei seme-alabaren ama da.

Pepi Arbide Garaiar (1922)



Hernanin jaio zen kalean eta hilabete besterik ez zuela Santa Barbara auzora joan ziren bizitzera. Ama Donostian jaioa izanagatik, betidanik Hernanin bizi izandakoa zuen, eta aita ere azken herri honetakoa zuen. Aitak uda Donostiako Kontxan pasatzen zuen, bainularia baitzen. Potrokillo deitzen zioten aitari eta oso ezaguna zen herritarrentzat eta Donostiara hurbiltzen ziren kanpotarrentzat bere lana ongi egiten zuelako. Aitari laguntzen uda batzuetan ibili zen Pepi behin hamalau urte zituenetik aurrera. Tranbian joaten zen eta eguna han pasatuta eta hondartzan pixka bat goxatuta bueltatzen zen Hernanira. Amak ganaduen lanak egin behar izaten zituen beste lan guztiez gainera. Pepi Hernaniko gizon batekin ezkondu eta bi alaba izan zituzten. Hernanin bizi izan da beti.

Hipolito Arregi Iraola (1916-2016)



Hernaniko Osinaga auzoko Oieneder baserrian jaio zen. Hamar senide izan ziren eta gazteena zen bera, Aitona eurekin bizi zenean hamahiru lagun izatera heldu ziren etxean. Aita eta ama, biak Hernanikoak zituen eta baserritik ateratzen zutena salduz ateratzen zuten bizimodua aurrera. Afrikan egon zen soldadu eta gerra lehertu zenean, Espainiara bidali zituzten. Han kamillero ibili zen bera. Hogeita lau urterekin irin fabrian sartu zen eta zortzi urte eman zituen bertan lanean. Hogeita hamahiru urterekin ezkondu zen Hernaniko emakume batekin eta bi alaba izan zituzten. Zikuñagako Biyak bat enpresan atezain hartu zuten eta handik erretiratu zen. Hernanin bizi izan dira beti.

Margari Arrue Amunarraiz (1923)



Hernaniko "Tilosetan" zegoen etxe batean jaio zen. Geroztik Goiarro-enean bizi izan ziren baina Portu auzora egin zuten berehala. Han, hasieran, "mataburros" zeritzan etxean jarri ziren, baina gaixotasun batek etxez aldatzera behartu zituen. Orduan erosi zuten Loidi baserria eta obra egin bizitzen han jartzeko. Hiru ahizpa ziren, bi aitenak, eta bera erdikoa zen. Ama andoaindarra zuen eta aita, berriz, Hernanikoa.

Maitere Azpiolea Olarra (1926)



Hernaniko Pittikar baserri esanguratsuan jaio zen, bi bizitzetako batean. Aita zuen Pittikarrekoa eta ama bertara ezkontuta, bederatzi seme-alaba izan zituzten, bi gazteenak oso txikitan hil baziren ere. Jauregiko eskolan ibili zen hamaika urte bete zituen arte, gutxi gorabehera. Eskolatik atera zenean hasita, Maiterek urte asko egin izan ditu Donostiako San Martingo merkatuan aurrena eta Hernanin gero barazkiak eta, batez ere, esnea saltzen. Urnietara ezkondu zen, baserrira, eta bertan bizi izan da geroztik.

Tere Bakedano Altamira (1925)



Arantzan jaio zen eta lau seme-alabetan zaharrena zen bera. Aita Mendigorriakoa zuen, botikaria. 13 urterekin Valladolidera joan zen ikastera eta Donostian eta Zaragozan Magisteritza ikasketak egin zituen gero. 19 urterekin Hernanira joan zen eta denboraldi bat aritu zen farmazia baten lanean. Farmazia ondoko harakinarekin ezkondu zen 22 urterekin. Biteriko eskoletan ibili zen irakasle bi urtez eta geroztik bizitza osoa eman du Urumea ikastolan irakasle.

Jose Antonio Barandiaran Pagola (1935)



Adunako Bordaburu baserrian jaio zen 1935ean. Aita Olaberrikoa zuen eta ama Amezketakoa. Hernanira joan ziren bizitzera umea zela eta bertan Zabalegi baserrian bizi izan ziren urte gutxi batzuetan. Gero, Añua baserrira sartu ziren maizter. Añuatik Ergobiko eskola gertuago zuen eta han eta Donostian ibili zen ikasten. Hamazortzi urterekin pinu zuloak egiten hasi zen lanean zuloko erreala kobratuz. Egunean 400 bat zulo egingo zituen. Geroago Epeleko elektrokimikan hasi zen lanean. [Pilar Lizarralde](#) donostiarrarekin ezkondu zen.



Jose Luis Beasain



Gorka Bereziartua Mitxelena Boligorria

Argia-ko kazetaria eta blogaria.

Anttoni Egaña (1918)



Hernaniko kale nagusian jaio zen. Gurasoak bertakoak zituen eta sei senide izan ziren. Txikitan mojetan ibili zen eskolan eta ongi bizi izan zela aitortzen zuen. Gerra garaian bi anaiak preso eraman zizkieten, bata Villanueva de la Reinara eta bestea Miranda de Ebrora. Etxean aurrera egiteko taberna ireki zuten etxe azpian. Jende asko etortzen zen haienera jatera, batez ere feria egiten zen egunetan. Han ederki ikasi zuen lan egiten Anttonik. Ezkondu eta bost seme alaba izan zituzten. Anttoni Hernanin bizi izan da beti.

Estitxu Eizagirre Kerejeta (1979)



Hernanin jaioa, bertso eskolan ibili zen eta plazan ere bai aldi batez. Historiako emakume bertsolariei buruzko hainbat azterlan egin ditu, eta horri buruz elkarrizketatu dugu. Kazetaria da, Argia astekariko zuzendaria.



Joxe Gabriel Elizondo

Esteban Elorza Aranburu (1928)



Hernaniko Fagollagako Arbelaitzenea baserrian jaio zen. Zortzi senide ziren; bost arreba eta 3 anai. Bera 2.a zen. 9 urte zituela morroi joan zen Hernaniko Portu auzoko Lonjara. Bere lana, batez ere, enkarguak egitea izaten zen. 13 urterekin tifusarekin gaixotu zen eta gogoan du etxetik atera gabe denbora luzean egon zela. Ereñozuko Txilibita baserrira bere osabari laguntzera joaten zen eta bertako alabarekin ezkondu zen gero. 40 urte egin zituen plastiko fabrikan lanean.

Antonio Errazkin Beldarrain (1932)



Hernaniko Martindegi auzoko Telleri baserrian jaio zen. Etxe ondoan zuen teila fabrikak emana izango zuen izena etxeak seguruenik. Ama zuen bertakoa eta aita Otsuanea sagardotegitik bertara ezkondua. Txikitatik mekaniko ikasi nahi izan zuen eta hartarako egin zituen, ahal izan zuen neurrian, ikasketa guztiak. Maestria industrial karrera egin zuen eta irakasle ere aritu zen Hernaniko Karmelo Labaka Lanbide Eskolan. Soldaduskan ere irrati tekniko lan egin zuen eta irrati asko saldu zituen berak muntatuta. Legazpiko emaztearekin Hernanin bizi izan da ezkondu eta gerora ere.

Amaia Etxarri Erize (1934)



Hernaniko Kale Nagusian jaio zen. Bost senidetan bigarrena zen bera, eta emakumezkoetan zaharrena. Txikia zela gurasoek denda kozkor bat jarri zuten kalean. Aita Sakanakoa zuen eta ama, berriz, Iruñean jaioa, Irunen bizitua eta errefuxiatu Frantzia ibilia bigarren mundu gerran. Aitak euskaraz hitz egiten zuen, baina amak gutxi, horregatik, berak euskaraz ikasi izana urnietarra zuen senarrari eta Urumea errekarari zor ziela zioen. Urumea errekan gora, etxez etxe saltzen zituzten dendako gaiak izan ere. Hemezortzi urte betetzean gidatzeko baimena atera zuen eta lanerako ongi etorri zitzaion. Kale Nagusiko dendaren parean beste lokal txiki bat ere ireki zuten eta azkenean, arrandegia ere jarri zuten.

Julian Ezeiza Landa Aterpe (1929-2014)



Hernanitik Galarreta aldera dagoen Balantxa baserrian jaio zen Julian. Aita Hernialdetik etorria zen eta ama Albizturdik. Bi senide baino aurrera atera ez baziren ere, garai hartan arrazoi bategatik edo besteagatik gertatu ohi zen bezala, senide asko zituen hilak txikiak zirela. Bertsozale eta bertsolari amorratua izan da Julian eta ehiztari ere ibili izan da afizio handiz.



Juan Galdeano

Antton Garin Etxenike (1942)



Hernaniko Andre-kalean jaio zen, egun Kardaberaz deitzen dioten horretan. Kirol zalea izan da beti eta mendiriz mendi elkarteko kidea. Herri mailako kultur bultzadan ere eragileetako bat izan da, batez ere bertso eskolen inguruko mugimenduan.

Ebaristo Genbelzu Sansinenea (1925)



Hernaniko Martindegi auzoko Tabla-enea baserrian jaio zen. Tabla-enea baserria "Peio-enea" bezala da ezaguna inguruan, Ebaristoren aitaren izenari men eginez. Aita bertakoa zuen eta ama, berriz, Donostiakoa. Sei senide ziren eta bera hirugarrena zen. Biteri eskoletan ibili zen ikasten. Soldaduska, berriz, Nafarroa eta Iparraldeko mugan egin zuen eta kontrabandoan ibili ez bazen ere, gertutik ezagutu zuen horretan zebilen jendea. Etxean upeletik sagardoa saldu zuten hamarren bat urtetan eta baserrian hazitako ganadua harategietara saltzetik atera izan du bizimodua gehienbat.



Batista Goikoetxea

Antonio Goikoetxea Beobide (1917-2011)



Hernaniko Osinaga auzoko Altzueta baserrian jaio zen. 11 senidetatik gazteena zen bera eta aurreneko biak Iparragirre baserrian jaio omen zirela kontatzen du. Lau arreba eta 7 anai ziren. Bere bizitzako lana mekanika izan da. Bere tailer propioa izan aurretik ere beste tailer batzuetan aritu izan da lanean eta mota askotako motorrak zehatz ezagutzen ditu. Hala ere, bide egiten eta beste lan askotan ere aritu izan da. Anaia zenari (Florentino Goikoetxea mugalari izandakoari) laguntzen ere frankotan tokatu izan dela adierazi du, jendea leku batean hartu eta bestera eramanez etab. Erlezaintzaz asko daki, txikitatik bizitu izan duelako etxean.

Teresa Goikoetxea Errazkin (1930)



Osinaga auzoko Elorrabi-Etxeberri baserrian jaio zen. Bost senidetan zaharrena, atzetik zituen guztiak gizonezkoak ziren. Etxean eta kanpoan ere lan asko egitea tokatu izan zaio eta, horregatik, eskolara gutxitan bidali zuten gurasoek. Bere osaba bati esker, eskola pixka bat ikas zezan, eskola partikularrak hartzera bidali zuten gurasoek. Ikastetik irakastera berehala pasatu zen, ordea. Auzoko umeei laguntzeagatik hasi zen eta bere inguruko ume eta gaztetxoei eskola ematen ikusi zuen bere burua ustekabea. Etxean ematen zituen klaseak eta horretan aritu zen 21 urte zituenetik 27 bete arte. Gero, titulurik gabe klaseak ematen ari zelako, inguruko apaizen bat kexatu omen zela eta, lan hori uztea erabaki zuen. 28 urte arte baserrian bizi izan zen eta gero Villabonan okindegi bat hartu zuen 12 urterako.

Batixta Goikoetxea Izagirre (1935)



Hernaniko Elorrabi auzoan (orain Osinaga deitzen diotenean) jaio zen, izen bereko baserrian. Ama zuen bertakoa eta aita ere urrutikoa ez, Altxueta baserritik etorritakoa baitzen. Bederatzi senideren artean zaharrena izan zen Batixta eta auzoko etxeetan baserriko lanetan laguntzen ibili zen gaztetatik. Ibarluzeko zeramika tailerrean hasi zen hura eraikitzen. Gero paper-lantegian ere ibili bazen ere, Ibarluzera pasatu zen berriro hango labeak eraikitzen. Hura itxi zenean, Eziagon hasi zen eta kontramaestre izatera ere iritsi zen. Ehiza zale amorratua izan da Batixta eta horretaz gainera, sagardotegi moduan lan egin izan du Elorrabik urteetan.

Roxarito Goikoetxea Ormazabal (1929)



Hernaniko Eziagoko paper-fabrian eman zuen haurtzaroa. 12 senide ziren bere etxean eta aita, ama eta amonarekin bizi ziren lantegiko langileentzat eginiko etxeetan. Bera zen senideen artean zaharrena. Arriatxuko eskolan ibili zen 5 urterekin hasi eta 14 urtera arte. 14 urterekin lantegian bertan hasi zen lanean eta hor eman zituen 12 urte. 26 urterekin ezkondu eta Hernanira joan zen bizitzera. Kale Nagusian eman zituen hiru urte eta erdi eta gero, Onddi taberna ingurura pasatu ziren. Egun Hernaniko Portu auzoan bizi da.



Luis Gorrotxategi Artola (1929)

Regina Gorrotxategi Miranda (1921)



Hernanin jaio zen eta gurasoak ere bertakoak zituen. Lau senideren artean bera gazteena zen eta etxean sagardotegia zutenez, lan egin izan zuen bertan. Gazteleraz hitz egiten ohitu zen eta euskara ia ahazteraino atzendu zuen. Hernaniko udaletxean lan egin zuen hogeitau urte zituela horretarako beharrezko ikasketak egin eta gero. Aurrenekotako emakumea izan zen lan horietan ibili zena. Gero, 25 urte zituela, Donostiakoa zen senarrarekin ezkondu zen eta Iradi drogeria zabaldu zuten Hernanin bertan.

Iñaxi Imaz Etxeberria (1932)



Aita Martindegi auzoan jaio zen eta ama, berriz, Epelekoa zuen. Telleri Zahar baserrian jaio zen bera eta zortzi senideren artean gazteenetakoa zen. Zortzi urte zituenerako, auzora etortzen zen Goierriko artzain batengana bidaltzen zuten neguan ardiak zaintzen laguntzeko. Hamabi urte zituenean, berriz, ondoan zuten Txandre Enea baserrira bidaltzen zuten neskame lanetara. Eskolan ez omen zen behin ere ibili. Hernanin, ordea, josten ikasten ibili zen eta oroitzapen politak ditu ordukoaz. 26 urterekin ezkondu eta Hernaniko Martindegi auzoan bizi izan da.

Maria Rosario Iradi Abalabide (1933)



Hernanin jaio zen Argindegi baserrian. 12 senide ziren eta gazteena zen bera. 12 senideko familia amona eta gurasoekin bizi zen. Gurasoak ere hernaniarrak zituen. 12 urtetan eskolatik atera eta gero, 16 urtetan neskame joan zen Donostiara. 20 urterekin senarra izango zuenaren harategian lanean hasi zen. Ezkondu eta senarra eta biok engrase tailer bat ireki zuten Hernanin bertan. Senarra taxi-gidaria zuen (Joxe Ansa) eta gerora Ansa autobusak izango zirenen sortzailea. Engrase tailerrean kontuak eramaten aritu eta gero, jostailu denda bat jarri zuten eta ondoren drogeria.

Mari Carmen Iradi Miner (1942)



Argindegin, aitaren jaiotetxean, jaio eta bizi izan zen 22 urtera arte. Gazte denboran, eskolara joaten zen, gurasoei baserriko lanetan laguntzen zien eta etxeko sagardotegian bola- eta toka-jokoan ari ziren bezeroekin hartu-emanen aritzen zen. 22 urterekin, [Ramon Iturbe Odriozola](#)rekin ezkondu zen Irurara. Geroztik, babarrunaren inguruan eman izan du bizimodua. Tolosako babarrunaren elkarteko partaide da hura sortu zenetik, 1994tik; eta, 2002az geroztik, bertako lehendakaria da. Bi aldiz garaile atera da Tolosako babarrun-lehiaketan; eta, behin, bigarren postua lortu zuen. Lur-lan elkartearen sortzailetako bat ere bada. Babarruna gerra denboran Ameriketatik ekarri zutela gogorarazi digu. Babarrunaren gainean mintzatu zaigu; baita baserriaren lehenaz, orainaz eta geroaz ere.



Karmen Irazusta Goikoetxea

Salustiana Irazusta Iraola (1939)



Gurasoak biak Abaltzisketakoak zituen baina bera Landarbason jaio zen izen bereko etxean. Hamabost senide izan ziren eta bera zazpigarrena izan zen. Hernani zuten gertu eta eskolara Ereñozura ibili zen. Hernanira, berriz, gereziak saltzera etorri ohi zen behorra hartuta. Gero, hamabi urte bete zituenean, Ataunera joan zen izeba bati laguntzera. Hamazortzi urterekin, berriz, Hernanira joan zen Egaña enea tabernan laguntzeko neska bat behar zutela jakinda. Han bi urte egin zituen eta gero etxera itzuli zen. Orduan jaio zen bere anai gazteena eta laguntza ongi etorri zitzaien etxekoei. Hernanira ezkondu zen 21 urterekin eta geroztik han bizi izan da.

Ihintza Iturriotz Perez (1991)

Ihintza 1991ean jaio zen eta yogan formakuntza jaso du. Haur bat dauka eta etxean jaioa.

Juanita Izagirre Loiarte (1921)



Hernaniko Aparrain baserrian jaio zen eta 10 senideren artean gazteena zen bera. 12 urtera arte eskolan ibili zen. Etxean, berriz, enkarguak egiten eta ahal zuen guztian laguntzen ibili zen harik eta 25 urterekin ezkondu zen arte. Lutoa urte askoan eraman behar izan zuela du gogoan, baita ezkontza egunean ere.

Irene Karrera Etxeberria (1929)



Zaldibiako Saturdi auzoko Izarbekoa baserrian jaio bazen ere, bere familia handik atera eta Hernani aldera etorri zen. Gerrak harrapatu zituen bertan. Hamahiru urterekin jostailu fabrikari hasi zen lanean, eskolarako ez baitzuen gogo handirik. Kirolzalea izan da bere ahizpa bezalaxe.

Xatur Karrera Etxeberria (1930)



Zaldibian jaioagatik, Hernanin bizi izan da bost urte zituenetik. Portalez kanpoko eskolan ikasi zuen eta hogeita hiru urte zituenean Frantziara joan zen han lan egiteko asmoz. Kirolzalea izan da eta ikasle ona zenez, ladrillo fabrikari ere lan egin zuen bulegoan.

Paxkuala Kortadi Ormaetxea (1923-2018)



Antziolako Etxearre baserrian jaio zen. Bost senide izan ziren baina haietako bat gazterik hil zen, beraz, lau hazi ziren. Gaztetatik Donostiako San Martin merkatura joaten zen etxeko gaiak saltzera. Eskola publikoetan ibili zen eta frantsesa ere ikasi nahi izan zuen, nahiz eta etxean ez zioten horretarako biderik jarri. Hamasei urterekin josten ikasten ere ibili zen eta enkarguz jende askori josi izan zion arropa. Gerra Zibilaren garaian, fusilatzeak burutu eta hildakoak uzten zituzten "cuesta de la muerte" bezala ezagutzen den aldaparen aurrean bizi izateak, oroitzapen gogorrak utzi zizkion. Paxkuala Hernanin bizi izan da beti.

Maria Lekuona Maioz (1926)



Zarautzen jaio zen, kalean eta mojen eskolan ibili zen ikasten han. Ama Urnietakoa zuen baina ez zuen ezagutu. Aita, berriz, oso txikia zela hil zitzaien. Haurtzaro gogorra izan zuela kontatzen zuen. Aita hil zenean, Hernaniko Olazar baserrira etorri ziren bere amandrearengana. Epeleko Etxeberrira ezkondu zen eta sei hilabete haurra hartuta Hernaniko Lizeaga Ferreteriara joan ziren hangoek eskatuta, lanean laguntzera. Hernanin bizi izan da geroztik ere.

Anttoni Leonet Bikandia (1917-2011)



Epele auzoko Borda baserrian jaio zen 1917an eta 9 senideren artean 3.a zen bera. Oso txikia zela Koiattiki baserrira joaten zen bertako etxeko andreari laguntzera. Gero Bordara ezkondu zen eta azkenik, Epele auzoan bertan dagoen Añua Berrira joan zen bizitzera. Bertan bizi izan zen azken urteetan.

Pilar Leonet Bikandia (1923)



Bederatzi senideko familian 5.a zen Pilar. Bost anai eta 4 arreba ziren guztira. Epele auzoko Borda baserrian jaio zen eta 8 urterekin neskame joan. Bordara bertara ezkondu zen gero eta egun 3 seme eta alaba ditu. Beti bizi izan da Hernaniko Epele auzoan.

Iñixio Lete Tolosa (1921-2018)



Astigarragako Oiarbi bordan jaio bazen ere, txikia zela Hernaniko Martindegi Mayor deitutako etxera joan ziren bizitzera. Aita gazterik hil zitzaien eta etxeko lanetarako ardura beregain gelditu zen. Harrobitik harria garraiatzen egin zuen lan urte askoan. Zazpi idi pare aritzen omen ziren lan horretan eta tartean Iñixiorena ere bai. Inguruko baserrietan ere lurra lantzeko egin beharreko lanetan hamaika saio egin izan du Iñixiok bere idi parearekin. Azken aldian Oiartzunen bizi izan da.

Kristina Lete Tolosa (1927-2011)



Astigarragako Oiarbi bordan jaio zen, baina haurra zela Hernaniko Martindegi Mayorrera joan ziren bizitzera. Ez zen jaiotetxeko kontuez asko gogoratzen, baina txikitako jolasez kontu politak kontatu zituen. Lau senidetan gazteena zen bera, eta azken urteetan Oiartzunen bizi izan da.

Emilio Lizeaga Aranburu (1936)



Hernaniko Pagoaga auzoko Pagoaga-errotan jaioa. Bere jaiotetxea errota izan zen baina baita zentrala ere. Ama eta aita ere Pagoagakoak bertakoak zituen. Hiru senide ziren eta izeba zuten maistra, Pagoagan bertan zen eskolan. Eskoltatik 13 urtetan atera eta morroi sartu zen 26 urte arte Pagoaga baserrian. Egurra eta ikatza menditik jaitsi eta banatu egiten zuten. Mugimendu handia zela orduan gogoratzen du, langile asko ibiltzen zela inguruan. Kamioiarekin egurra partitzen ere ibili zen, eta azkeneko 40 urteak, berriz, esnea biltzen eta banatzen. Ezkondu eta Pagoaga errotan bizi izan zen.

Lorentxo Lizeaga Aranburu (1932)



Hernaniko Pagoaga auzoan jaio zen. Zazpi senideren artean 2.a da bera. 3 urte besterik ez zituela etxea erre zitzaien. Etxeak auzoko taberna moduan funtzionatzen zuen. Mandazai hasi zen 14 urterekin eta ikatza garraiatzen ibili zen 23 urtean. Gero, kamioi batekin garraiolarari aritu zen 2 urtez, baina ez zitzaion lan hori gehiegi gustatu. Ondorengo urteetan, harik eta erretiratu den arte, egurra prestatzen jardun du bai erretzeko eta baita hesoletarako ere. Añarbe urtegia eraikitzen hasi zirenean ere berak eramandako egurrak sartu zituzten horma eusteko.

Antonio Lizeaga Arrieta *Epele* (1932-2010)



Hernaniko Epeleko Etxeberri jatetxean jaio zen eta txikia zenetik ikusi zuen hura bere garairik onenean. Bost anai-arreba baziren, bera zen denetan gazteena. Aita Epeleko Etxeberrikoa zuen eta ama Astigarragako Gartziategi sagardotegi famatutik Epelera ezkondua. Epeleko Etxeberri garai hartarako hotel jatorra zela zioen, garai hartarako nahikoa. Lauzpabost behi ere bazituzten eta baserri moduan funtzionatzen zuen oraindik. Epelen bertan bazuten harrobi bat eta hura ustiatzeko lanetan ibili zen hogeita bi urterekin hasi eta hogeita hamazazpi bete zituen arte. Orduan, harrobia akitu zela eta beste lan batean hasi behar izan zuen, komertzial moduan. Antoniok emaztea Oiartzungoa du eta Hernanin bizi izan da ezkondu eta gerora ere.

Juani Lujanbio Etxabe (1927-2020)



Hernaniko Ibarluze baserrian jaio zen. Aita bertakoa zen, tratularia, eta ama ondoko beste baserri batekoa, Lastolakoa. Sei senide ziren. Umetatik trebatu zen baserriko lanetan. Errioari oso lotuta bizi ziren; txikitik ikasi zuen igerian. Mojen ikastetxean ibili zen, Milagrosan. Altzako Akular baserrira ezkondu zen, Anjel Elizalderekin, eta gida-baimena atera zuen segituan, Bretxara tratua eramateko. Lore denda ere izan zuen Mamut merkatalgunean. Zortzi seme-alaba izan zituzten.

Kattalin Miner Perez (1988)



Donostian jaioa, sei urte zituenean Hernanira joan ziren bizitzera. Langile ikastolan ikasi zuen, eta ondoren Hernaniko institutuan. Kazetaritza ikasketak egin zituen Leioan, eta Literatura Konparatuko masterra Bartzelonan. Gaztetxotatik murgildu zen mugimendu feministan, Medeak taldean besteak beste, eta arlo horretan lan handia egin du; Eihera kooperatibaren sortzaileetako bat da. Idazlea ere bada: bi nobela eta bi saiakera idatzi ditu.



Maria Rita Miranda

Iñaxi Oiarbide Aranburu (1936)



Orain "Txilibita" deitzen dioten baserrian jaio zen. Bere aitona zenak txilibitua jotzen omen zuelako hartu omen zuen baserriak izen hori, baina baserriaren benetako izena "Ereñozu" omen zen. 13 senidetan zaharrena zen bera (8 ahizpa eta 5 anai ziren). Zaharrena izanda, etxeko lanetan amari laguntzea tokatu zitzaion, baina kanpoko lanetan ere asko aritua da. 12 urte arte etxetik gertu duten Fagollaga eskolan ibili zen eta etxean lanean jarraitu zuen geroztik. Baratze lur handia izan dute beti eta "ingalatierra" izeneko errebera lurra ere ustiatu izan dituzte erreka ondoko lur emankorretan. Baratzeko gaiak Bretxako merkatuan saldu izan dituzte betidanik. Txilibita baserriko festetaz ere hitz egin du. Ereñozuko jaietan baserrian jendea hartzen zuten, otorduak eman eta dantzarako aukera jarri. 60 urtetan zehar, 1971. urtera arte, izan da Txilibita dantzarako eta festarako toki ezagun, beste herri batzuetatik etortzen zen jendearentzat ere.

Joxe Oiarbide Elorza *Ttanttua* (1919)



Hernaniko Ereñozu auzoan jaio zen, eta Ereñozun erdialdean dagoen zentrolean bizitu. Zortzi senide ziren, bi neska eta sei mutil, eta bera zen guztietan zaharrena. Hamar urte bete gabe zituela gogoan du bere aita zenarekin Arano, Goizueta eta inguruko mendietara joaten zela txilar biltzera, Donostian saltzeko erratzak egiteko. Mendian lanean ibili zen gaztea zela eta Irati ingurura (etxetik urrutiago) joatea proposatu ziotenean, hura nahi ez eta beste lan bat bilatu zuen. Ezagun baten bitartez, Hernaniko aguazil izateko eman zuen izena eta hartan hasi zen. Hernaniko aguazil eta sereno ere ibili zen urte askoan, eta 43 urte zituela Makinetxe zentralera ezkondu zen. Zortea izan zuen eta hango enkargatu plaza lortu zuen. Zentral hori elektrokimikak erosi zuenean, 17 urtez han jarraitu zuen. Hernanin bizi izan da beti.

Telesforo Oiarbide Zabaleta (1923)

Hernanin jaio zen Txabolategi baserrian. Gurasoak ere inguruko baserrietakoak zituen; ama Itxola-Berrikoa eta aita Larregain baserrikoa. Bost senideko familia zen: bi anai eta hiru arreba. 12 urterekin, eskolatik atera eta berehala, Hernanitik Goizueta bitarteko argi indarraren linea pasatzen egin zuen lan. Idien laguntzaz eramaten zuten kablea postetik postera. 13 urterekin mendian hasi zen lanean eta 15 urterekin etxetik gertu zuen Ubarreto baserrian hasi zen morroi lanetan. Behiak jeztera joaten zen batez ere



Ubarretora eta bi urte egin zituen lan honetan. 17 urte zituela ikazkin hasi zen eta hainbat menditan egin zuen lan Oiartzungo "trumoitarekin" (Añarben, Aizgorrin...). 20 urterekin soldadu joan zen. 22 urte zituela Epeleko fabrikak eraikitzen egin zuen lan eta, hauek bukatu ostean, langileak hartzeko prest zeudenean, bertan hasi zen lanean kloroa egiten. 35 urte egin zituen fabrika honetan eta bertatik erretiratu zen. Txabolategi baserrian "Txabolategi" bertsolaria jaio zela badaki, baina ez da erraza bere ibilbidearen gaineko berri jakitea. Inork ez daki oso ongi nondik nora ibili zen. Orain Txabolategi baserri zaharraren hondakinen gainean eraikitako izen bereko baserrian bizi da bere familiarekin.

Manuela Olano Garaia (1919-2013)

Hernanin jaio zen, alde zaharreko lehen "Andre kale" deituriko kalean (egun Kardaberaz deitzen zaio). Ama Donostiakoa zuen eta aita, berriz, Hernanikoa bertakoa. Biteri eskolan ibili zen ikasten eta hamazazpi urte zituenerako lanean zebilen. Lana utzi behar izan zuen ezkondu zenean, garai hartan horrela izan behar zuela asimilatuta. Bere etxean errepublikaren aldekoak ziren. Hernanin bizi izan da beti.



Mari Karmen Olazagirre Amilibia (1931)

Aita Urnietakoa zuen eta ama, berriz, Zarauzkoa. Bera Hernanin jaio zen eta bi senidetan zaharrena zen. Portalez kanpoko eskolan ibili zen ikasten aurrena, gero Biterin eta hurrena mojetan. Josten ikasten ere ibili zen kalean eta Karreron lan egin zuen puntu fabrian, harik eta 1960an ezkondu zen arte. Hernanin bizi izan da beti.



Ainara Ortega Barrenetxea (1980)



Hernanin jaioa, guraso biak bertakoak ditu, biak musikariak. Gurasoek Ainara eta bere ahizpa umetatik bultzatu zituzten musikagintzara. Donostiako Axular lizeoan ibili ondoren, Ainarak bibolin ikasketak egin zituen Donostiako Kontserbatorioan. Hango giroa hertsiegia egin zitzaion, eta Psikologia ikasketak egiten hasi zen; hirugarren urtean zegoela, Musikeneko I. Jazz promozioa sortu zen, eta hantxe sartu zen. 2000. urtetik 2004. urtera Mac Jearas's Band taldeko abeslaria izan zen, eta ondoren Iñaki Salvadorrekin emanaldiak egiten hasi zen. Hainbat musikarirekin jardun du elkarlanean, batik bat jazzaren alorrean. Bakarka 2015ean "Scat" diskoa plazaratu zuen eta 2019an "Onin". Aktore moduan ere aritu da hainbat urtean, antzerkigintzan bereziki. Elkarriketan besteak beste genero-ikuspegia jorratu dugu.

Luix Otxotorena Ollokiegi (1928)



Hernaniko Epele auzoko Epelekotorre baserrian jaio zen. 5 senide hazi ziren bertan, eta guztien artean 4.a zen bera. 7 urtetik 12ra bitartean eskolan ibili zen eta 13 urterekin gogoan du Hernanin ospatu zen korrika saio batean parte hartu eta postu oso ona egin zuela. 14 urterekin lanean hasi zen. Soldaduskan 17 hilabete egin zituen Logroñon. Epelekotorrera ezkondu zen eta orain Hernanin kalean bizi da.



Migel Mari Roteta

Maria San Sebastian (1926)



Hernaniko Telleri baserrian jaio zen. Hiru senide izan ziren; bi anai eta bera erdian. Hemeretzi urte zituela Fagollagako Usategieta baserrira joan ziren bizitzera. Fagollagako eskolan ibili zen ikasten hamahiru urte bete zituen arte eta esnea banatzen askotan ibili zen Hernanin amarekin batera. Hogeita hamabi urte zituela ezkondu zen eta Hernanin bizi izan da geroztik ere.

Pedro Maria Santa Cruz Oiartzabal (1925-2018)



Aita Adunatik Hernaniko Alkatxuin baserrira etorri zen txikitan eta ama Hernaniko Akola baserrikoa zuen. Azken honetan jaio zen bera ere. Eskolan ibili zen Fagollagako eskolan 11 urtera arte, eta urte horiekin morroi joan zen Oialumera. Handik Lasarteko Susperregira joan zen morroi eta gero Zikuñagako baserri batetara. Soldaduska baino lehen Celofan fabrika sartu zen. Soldaduska Loiolan egin zuen eta bere lana egurra txikitzea izaten zen. Soldaduskatik aterata "Papelera del Norten" sartu zen lanean. Jubilatu aurreko azken 18 urteak, berriz, Udaletxearentzat lanean pasatu zituen. Larre gain baserrira ezkondu zen eta bertan bizi da orain ere. 1991. urtean sagardotegia ireki zuten etxean.



Antonio Santa Cruz



Margari Santa Cruz



Joxe Susperregi

Rufina Telletxea Ollokiegi (1931)



Santanderren jaio zen Rufina, bere gurasoak aitaren lanarengatik han zeudelako bizitzen. Lau senidetan 3.a zen bera eta gerra hasi zenean, aita nazionalen kontra joan zen borrokara. Bere bi izeba joan ziren haurrak Hernanira ekartzera eta ordutik bertan bizi izan da. Lehen aldiz orduan entzun zuen euskaraz hitz egiten, aita eta ama hernaniarrak izanagatik inoiz ez baitzien euskaraz hitz egin etxean. Karabel auzoan bizi izan ziren izebekin eta amarekin bederatzi urte bete zituen arte eta gero Ospitalera joan ziren bizitzera gerran kaltetutako haur gehiagorekin batera. Han eskola ona ikasi zuten mojekin eta baita solfeo eta piano pixka bat ere. Handik Lizeagara joan ziren urte batzuen burura bere senarra izango zenaren pisura maizter. Urte batzuetara ezkondu eta Hernanin bizi izan ziren bost seme-alabako familia osatuz.

Valentina Ugalde Ugalde (1937)



Hernaniko Lastaolabekoa etxean jaio zen. Aita zuen Lastaolakoa eta ama Epelekoa. Lau senide izan ziren eta aitona eta osaba ere eurekin bizi ziren baserrian. Ereñozun ibili zen eskolan eta doña Kasilda irakasleak arratsaldetan bordatzen ere irakasten zien. Hamabi urtera arte eskolan ibili zen eta gero Hernanin partikular ere bai. Orduan, sukaldean eta josten zerbait ikastea zeinen garrantzitsua zen kontatzen zuen, gero ezkontzeko. Amak ere horretan asko erakutsi zien, ez baitzuen nahi izan bi alabak inora neskame alde egiterik.

Mari Karmen Urdangarin Letamendia (1926)



Hernaniko Santa Barbara azpiko Mari Luz Berri baserrian jaio zen. Ama Mari Luz Txiki baserrikoa zen eta aita, berriz, Urnietako Barkaiztegi baserrikoa. 7 senidetan zaharrena da bera. Hasieran jaiotetxean bertan bizitu baziren ere, 1933an Hernaniko Karkabara joan ziren bizitzera, Rezola etxera. Portalez kanpoko eskolan hasi zen 4-5 urte zituela eta berehala Biteri eskoletara pasatu zen. Bere amak eskola garbitzen zuen orduan eta hari laguntzen ibiltzen zen bera eskolatik aterata, eta eskolatik atera zenean ere bai. Hernaniko paper-lantegian lan egin zuen 7 urtez eta Zinkoenea tabernan zerbitzatzen beste bi urtez. 20 urte zituela ezagutu zuen gero bere senarra izango zen Antonio Goikoetxea, eta gau eskoletan hasi zen kontabilitate pixka bat ikasten. Han ikasitakoa Antoniorekin tailerrean lan egin zuenean baliatu zuen. Karmenek 25 urte zituela ezkondu ziren Antonio eta biak. 17 urtez bizitu ziren Akarregin eta gero tailerra eta etxe berria egin zituzten Orbegozon. Han egin zituzten 3-4 urte eta azkenik orain bizi diren etxera etorri ziren. Karmenek Matian zaharrekin lanean egin zituen 12 urte, 63 urterekin erretiratu zen arte.

Migel Urdanpilleta Otegi (1935-2012)



Ereñozun jaio zen 4 senideko familia batean (gazteena zen bera). Ama Santamañakoa zuen eta aita Urkizukoa. Ama gazterik gelditu zen alargun. Migel 11 urte zituenerako pinu zulatzen hasi zen lanean, zuloko zentimoa kobratuz. 19 urterekin elektrokimikan hasi zen lanean eta 37rekin pakete banatzen hasi zen kamioi bat erosita. Aranoko Benta Berri auzora ezkondu zen eta han bizi izan zen geroztik.

Milagros Zeberio Aranburu (1921)



Aita Elduaiengoa zuen eta ama, berriz, Hernanikoa. Biki-lagunarekin batera, senideetan zaharrena zen, baina bere ahizpa alperrak azpian hartuta hil zen hiru urte zituela. Bere ama zaldi karroarekin ibiltzen zen merkatura, eta gidatzeko baimena atera zuen kotxe txiki bat erosiz. Hamazortzi urte zituela Donostiara joan zen bere izeba-osaben etxera, La Estrella zeritzon okindegian laguntzera. Handik Hernanira itzuli zenean, jada ezkontuta, Esnal gozotegia ireki zuen. Geroztik Hernanin bizi izan da.

Joxe Mari Zelaia Olano (1934)



Akarregi bailarako Aristegi baserrian jaio zen. Aita Legorretakoa zuen eta ama Orendaingoa eta hiru seme-alaba izan zituzten. Aitak diputazioarentzat egiten zuen lan Hernaniko muntegian eta aitaren ondoan, bertan lan egiteko hartu zuten bera ere. Lurra maneatzeko egiten zuen lan eta behar zen guztian laguntzen. Hamahiru urterekin sartu zen ama hil eta gutxira, eta hamazazpi urte arte han aritu zen. Gero, auzoko kontratista batekin hasi zen obran lanean eta baserriko lanekin uztartuz aurrera atera zen. Ezkondu ere bere jaiotetxera egin zen eta, beraz, han bizi izan da beti.

Iñaki Zubeldia

Axun Zubiarrain Arruti (1928)



Aita Belauntzakoa zuen eta ama hernaniarra. Zortzi senide izan ziren eta familia handi hori "Karkulonian" bizi izan zen. Bertan jaio zen Axun ere eta Julian Ezeiza "Aterpe" deitutakoarekin ezkontuta Hernanin bizi izan da Zikuñagan.

Inazio Zubiarrain Otxotorena (1929)



Epeleko Telleri baserrian jaio zen. Ama Epelekoa zuen eta aita 9 urterekin Beasaindik Hernanira etorritakoa. Zortzi senideren artean gazteena zen bera. Gaztetxo zela morroi egon zen Ziordiko artzain batekin. Mendian lanean ikasi zuen, pinu aldatzen, txondorak egiten... eta gero "kurtidoran" sartu zen lanean. Azkenik, elektrokimikan egin zuen lan. Hiru anai zaharrenak gerrara joan behar izan zuten soldadu eta aita Lasartera eraman zuten Belodromoan lan egitera.

Ixabel Zubillaga Huici (1930)



Hernaniko Plaza berriaren ondoan jaio zen, Portalondo etxean. Etxe esanguratsua izan da Portalondo, kokapena eta arkitekturari erreparatuz. Aita bertakoa zuen eta ama Aranoko Enazti baserrikoa. Lau senidetan hirugarrena zen bera. Estankoa bazuten Portalondon eta horretaz gain, taberna eta baratzea ere bazituzten. Ixabelek eta bere senarrak estankoa uztea erabaki zuten eta dinamita saltzeko zuten negozioarekin jarraitzea. Aita berak sei urte zituenean hil zitzairen. Ordutik lana egiten ederki ikasi zuten.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Baserria

1.1. Emakumeek astelehenetan gobara egiten zuten

- **Hizlaria(k)**: Aranburu Garaiar, Enriketa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: HER-020/007
- **Iraupena**: 0:03:46. **Hasi**: 00:04:57. **Bukatu**: 00:08:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- **Laburpena**: Gizonen eta emakumeen baserriko lanak antzekoak ziren. Baina gobara emakumeek, astelehenetan. Hango giroa: bezperako kontuak esaten zituzten, Benta Berriko ibilerak, arropa garbitzen. Hankak uretan sartuta, udan; neguan, iturrira. Zeintzuk eta non elkartzen ziren.

Transkripzioa

-Ze lan esango zenuke, hola, diferentziak izaten zianak, gizonak eta emakumiak in beharreko lanak berdiñak al zian?
-Berdiñak, berdiñak... bueno, geo emakumiak arropa garbitzen, gobara itten, astian behin; astian behin ta geo zerbait baldin bazan, baiño jeneralian astian behin itten zan haundina, Gobara deitzen zitzaion.
-Nola izaten zan gobara ittia?
-Denak: maindiriak, arropa ttikiya, kolorezko arropa, ta denak itten zian. Geo tartian zeozer izaten zan beti garbitzeko baiño... astelehenetan behiñik behin hoi.
-Astelehenetan?
-Bai, astelehena izaten zan, asteartian igual iten genun baiño...
-Ta ze juntatzen ziñaten baserri askotako jendia o zuek bakarrik?
-Ez, ez gu bakarrik. Bi bizitza giñan ta bi bizitzakuk askotan igual batea baiño gaiñeakuk...
-Ta han salsa izango zen ba e? kontua ta...

-Bai, bai! kontuk bai! hasitakun e!
 -Ta ze kontu kontatzen zian han o?
 -Eozein kontu. Igandian izaten zan ateatzen giñan, Bentaberria juten giñan. Eta geo hango kontuk bata ta beste ta... Jesus Maria!
 -Izaten zen ordun han igandian pasatakuan zea.
 -Bai, bai, nola ibili giñan ta bata ta beste ta... bueno! Hue izaten zan gure [ateera].
 -Ordun aisa itten zenittuzten zuek astelehenetan e, igandeko kontuk...
 -Bai, bai! juntatu ezkeo elkarrekin, bi bizitzako zeak.
 -Nola akordatzen zea ziala harriyak eta ba al zian o errekan hankak sartuta o nola ibiltzen ziñaten?
 -Baita ´re. Udaran presan, presapian esaten geniyon, presan azpin, han mahai koxkor bat jarri urian ta han askotan, Jesus Maria!
 -Ordun presan hankak sartuta, ez? Udaran bai, ta neguan?
 -Ta negun zean gendun itturriyan, esto, Pauako parian, jun bihar izaten gendun bidia prankun e! eta han genun aska bat arropa garbitzeko indakua, ta han aitzen giñan.
 -Han, Pagoako hartan jende gehiyo ere juntatuko zan.
 -Pagua parian? Paguako parian, urez beste aldetik gu, Pagua parian bi bizitzak, bi bizitzakuk, bi bizitzakuk ibiltzen giñan.
 -Ta Pagua errotakuak ta Pagua bertakuak...
 -Ez, hoik, zea, urez beste aldetik zian, hoik...
 -Egokiraxio e...? Bidian juten ziñaten ba. Eta arropa nola eramaten zenuten?
 -Bai... arropa zea, barriñun o... hartuta eamaten giñun ta...
 -Burun gaiñian akordatzen zea?
 -Ez, buruan gaiñian nik ez nun /enun/ abildadeik. Bestela, eamaten nun eskun hartuta.
 -Galtzarbian o nunbait hartuta ta...
 -Bai.

2. Aisia

2.1. Logroñoko Adarraga frontoiari izena eman ziona

- **Hizlaria(k)**: Adarraga Elizaran, Manolo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: HER-038/005
- **Iraupena**: 0:02:24. **Hasi**: 00:07:30. **Bukatu**: 00:09:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 Aisia » Kirola » Pilota
- **Laburpena**: Etxean kirolari handiak izan dira. Logroñoko Adarraga frontoiari izena eman zion osabaren biografia kontatzen du.

Transkripzioa

- Aizu, zuen etxia, Adarragaenea, nahiko berexiya izango zan? Edo ez? Inportantia...
 - Bai, bai, bai, bai, bereziya zan, bereziya zan. Bueno, ordun, ez dakit, [...] gutxi zan. Geo, kirolelan-ta asko ibiltzen zan ta... osea, hor kirolak beti familiyan izan deu, jo, asko. Ba, hara: bat, Logroño frontoia Adarraga izena du, eta hoi ni jaio nintzan etxian jaio zan, hernaniarra. Karrera ingeniero bukatu zun ta jua zan Logroñora lanea. Ta hango nere izeba Matildekin ezkondu zan. Ta nik ez nekin! Nik uste nun Logroñokua zala. Bueno, nik

uste nun Donostiakua zela, baiño ez, Hernanin jaiyua da, jaiyua zan. Eta, bueno, oain bi seme izan zuten, Javier Mari ta Matilde, ta bueno. Horrek... pelotan-ta ibiltzen zan, bueno pelotan, bizikletan ta danetan. Eta Pariseko olinpiadetan -ez dakit ze urtetan, mila ta [bederatziehun] ta hamabi, hamabigarren urtean o, uste det, bueno, gutxi gorabehera- joan zan harea. Eta ordun zan nola... kirol... olinpadetan -ez dakit ze izena dute-, exhibizio bezala, baiño txapelketa egiten zan, eta txapeldun gelditu zan. E? Txapeldun gelditu zan, munduko txapeldun. Bueno. Baiño... Horrek... joan zan gero, bueno, han Logroñon, Logroñon, fundatu zun hor txirindularien federaziyoa, Errioxakoa, eta baita ere pelotakoa. Ta oain, ba, hil zanian, egin zioten izena jarri frontoiyai, eta, han, ni ez naiz frontoi hartara jun, baiño han bere estatua bat o badauka.

- Osaba hala?

- Osaba, nere aittaren anaia.

- Lehengusuk eta [...].

- Bai, puf, pillla, bai...

2.2. Inauteriak eta San Juanak Hernanin

- **Hizlaria(k)**: Ezeiza Landa, Julian; Garin Etxenike, Antton
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: HER-046/012
- **Iraupena**: 0:04:43. **Hasi**: 00:19:04. **Bukatu**: 00:23:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- **Laburpena**: Gerra aurrean inauteri handia egiten zen. Udaberriko jaiaren izenpean inauteriak ospatzen hasi ziren frankismoan. Axeri dantza inauterietako dantza da berez eta mantendu egin da San Juan bigarrenera aldatu zelako. Sokamuturra inauterietakoa zen eta San Juanetako festetara pasatu zuten.

Transkripzioa

- Antton: Gaiñea Hernanik, aittua dakat -bueno, pixkat aldatu iten gea bidetik baiño-, Hernanik esaten zuen -nere aittak-eta aittua eta, gaiñea, argazki batzuk badare- oso iñauteriya haundiya ta oso politta zula. Bai. Baiño kriston iñauteriya omen zan Hernanin denboa haitan, e. Ze karrozak-eta itten omen zian Hernanin ta ze desfiliak eta ze zeak eta. Lo ke pasa ke, frankismuan denboan, Francok esan zun, batian in bihar dala ta ordun in zuen Tolosan jarri. Ta Hernanii Tolosak kendu emen ziyon iñauteriya Plaza Torosa zalako. Nere aittak beti hoi esaten zian: "Hernanin ez zeon plaza torosik, zezanak-ta kalia ibiltzen zian, ta Tolosak plaza torosa euki ta horregatik eman ziyeken hara". Baiño ordun´e -honek esaten duna- udaberriko jaia, osea, "fiesta de primavera" jarri zuen, "iñauteriya" ez. Ya hoi debekatua zeon, izena.

- Ta udaberriko festa horren... izen horren azpin edo...

- "Fiesta de primavera" jarri zuen ta...

- Julian: Bai hoi jarri zuen. Horrekin tapatzen zan. Horrekin tapatzen zan.

- A.: Ta ordun Hernanik ee... ordun´e batenbat bazan nahiko burua nahiko zuzen zekana udaletxian denboa haitan eta ordun iñauteriya Hernanikua, diximulukin pasa zuen dana San Juan biagarrenea. San Juan biagarrenian itten dian gauzak oain, ez hainbeste, oain karrozak-eta ez dia itten. Nik ezautu dittut, honek´e igual bai...

- Bai.

- Karrozak Hernanin kuadrillak eta... eta zan iñauterin iten zianak. Axeri dantza da iñauterikua, Hernanikua. Ez da San Juanetakua ta. Da... berdaderamente da iñauterin... Ta Axeri dantza, gaiñea, esaten due... zala... Gu ibili gea hor, ta pixkat hola ibili giñan estudiantzen zeoze nunbait ´e ateatzen giñun ta ez giñun eze ateatzen. Baiño esaten zuen zala “Uno de los siete juegos que tenía el carnaval de Hernani”. “Juegos” uste det nahi zuela esan... zenbat gauza dian. Igual Axeri dantza maxkuriyakin. Igual beste joku bat izango zan, ez dakit, igual sokatira o beste joku bat izango zan. O... ez dakit. Ta beste zazpin jokua o seiana ez omen due arrastoik bilatzen ´e. Bakarrikan Axei Dantza geatu da, ta Axei dantza geatu da San Juan bigarrenian sartu dalako. Bestela galduko zan, e.

- Ta Axeri dantza, ordia, zuek ttikiyak ziñatela, Julian, Axeri dantza San Juanetan itten al zan ordun?

- J.: Nik ez nun ezautu.

- A.: Ez?

- J.: Nik ez nun ezautu, nik ez nun ezautu.

- San Juanetan.

-J.: Eske gu San Juan egun... San Juanetan... puf... txikitan gu... eske guk kumuniyua in arte, bueno... [kolegioa etorri] alde arte, gu ez giñan, ez Portugeseta ta herri-joera ´re ez.

-Baiño behin gaztia ziñala ta ordun akordatzen zea San Juanetan Axeri Dantza itten zana?

- J.: Gero bai ya gu soldadu sartu giñan garaiyian o hola.

- A.: Bai, hortxe ibiliko [naiz]. Nik badakit aldatu zuela hoi, diximulukin in zuela “bueno, bai? Ordun San Juan bigarrena...” Eske San Juan lehen zan meza, prozesiyua... gauzak... errespetoko eguna izaten zan. Banda musikan kontziertua ta holako zeak. Geo gabian dantza, Tilosetan, ta ez dakit ze. Ta bigarrena zan ya bueno... ez zan iya... bigarrenan zeozer, baiño in zuen hoi: iñauteriya bigarrenean sartu. Zezenak, sokamuturra, Axeri dantza, Salida de txarangak, irteerak, gero... puf, karrozak ateatzen zian... bueno! tragantuan ta... Ni gogoatzen naiz mutil koxkorra ta ze karrozak ateatzen zuen! Hernaniko kuadrillak.

- J.: Korrida-ta izandu zan “el año cuarenta y cinco”.

- A.: Bai, korrikaiyak ta holako zeak. Osea, “participativo” herriyana oso gutxi. San Juana zan beti espektakulua ekarri, in eta denak ikusi. Su artifizialak o luminarik. Nik etxian ikasi dittut izenak luminarik. Oain esaten due... beste izen batzuk. Bueno, su artifizialak esaten da; lehen luminarik. “Hamaiketan luminarik dia, e!”, bueno! luminarik ikustea!

- Ta sokamuturra?

- A.: Sokamuturra ´re karnabaletakua, iñauteritakua, baiño horregatik pasa due... Dago bigarren... San Juan bigarrenen ta hirugarrenen; uste det laugarrenen itten dutela ya. Bueno, ni bi-hiru [bider] eendu naiz, baiño...

- Sokamuturrak badauka hemen...

- J.: Bai.

- A.: Bai.

-... Indarra.

- A.: Badaka bai. Ta oain, gaiñea, ez da lehen bezela itten. Lehen -ni ibili izandu naiz ta- zezena atzetik igual sokakin ibiltzen giñan sei-zortzi bat. Beti, gaiñea, soka utzi gabe. Oain, sasoia ordun korrika itteko, bai kalian gora ta behera ta... mekauden sos! Bueno....! Oain askotan zezena suelto uzten due ta benga!

3. Ohiturak eta bizimodua

3.1. Trabuko eta Berdabio

- **Hizlaria(k)**: Zubiarrain Otxotorena, Inazio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: HER-062/029
- **Iraupena**: 0:01:09. **Hasi**: 01:08:46. **Bukatu**: 01:09:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- **Laburpena**: Trabuko eta Berdabio. Bertso bat errezitutzen du.

Transkripzioa

- Berdabion aitzia ez al dezu zuk? Dirua itten zuna, Berdabio. - Trabuko? - Trabukok galdu zun hua. - Bai, hoi da, hoi da. - Berdabio afusilatu in zuen. - Hoi da. Arrazoi dezu. - Bai; o Trabuko beak gizona hil ta errotazpin Elaman sartu [izan] lehen. Ta Berdabiok jakin harek gizona nola sartua zun. Gero, afusilatzeko zeola, Berdabiok –bertsotan puxkat eitten zuna izango zan ta– harek bertsok jarri ba hari: Aizak Trabuko, ez al dakik hik zer egin yuken Elaman: kulpik gabeko gizona hilda errotazpira eraman. Orain bezela gizon jatorrak izan bazian Lesakan, ni baño leno egon bihauken ni orain nagon atakan. Ta harek bertsok jarri. Ordun... ordun´e bazian ta oain´e bai ta geo´re bai ta geoz ta haundiyo. - Hoixe. Holaxe. Holaxe geldittuko da. - Bai.

4. Familia eta harremanak

4.1. Antonio Zabalaren "Auspoa" bilduma

- **Hizlaria(k)**: Eizagirre Kerejeta, Estitxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: HER-092/004
- **Iraupena**: 0:01:49. **Hasi**: 00:08:09. **Bukatu**: 00:09:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
Aisia » Kultura » Bertsolaritza
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
Aisia » Kultura » Idaztea
- **Laburpena**: Antonio Zabalak "Auspoa" bildumarako bilketa egin zuen garaian bertsolaritza oso ondo ikusia ez zegoela uste da. Hala ere, elizak eta frankismoak baldintzatutako iritzia iruditzen zaio. Emakume zein gizonen era batekoak izan behar zuten eta alferkeria, mozkorkeriarekin lotzen zen bertsolaritza. Noiz, nork eta zein garaitan gutxietsi zen bertsolaritza. Zergatik eragin zien gizonzkoiei eta zergatik emakumezkoiei are gehiago. Jaso dugun bertsolaritzaren ondarea, aipatutako iragazki hauek guztiak pasa osteko emaitza litzateke.

Transkripzioa

- Antonio Zabalak bilketa hori egin zuen garaian bertsolaritza ez zegoen oso... bueno, ondo ikusita. Ez dakit, baina bai pixka bat baserritarren kontu moduan ikusten zela edo...
-Bai, bai. Bueno, beharbada ez da... beharbada ez da horrela. Nik hau

pentsatzen det, baina beharbada ez da horrela. Baino pentsatzen det lehen esan dudan berdina, ez? Ba filtro berdin hoiek: eliza, frankismoa, eskola... Emakumeak era batekoak izan behar zuten eta gizonak ere izan behar zuten era batekoak. Eta hor ez zan kabitzen bertsolaritza. Eta emakumeentzat kabitzen ez zan bezela, ba, gizonak ere berdin. Bertsolaritza lotzen zan alferkeriarekin, mozorkeriarekin, ez dakit zerekin. Pentsatu daiteke ere, ez dakit, aisialdia txarra al dan; edateak zergatik hain urduri jartzen zitun hori batere gustuko ez zutenak. Ez? Eta inkulturarekin lotzen zan baserri mundua eta arlotekeria. Eta hori dena zer zan ere? Beharbada beraiek nahi ez zituzten mezuak ondo ikusita zeuden giro bat? Ordun, zergatik gutxietsi izandu da bertsolaritza? Noiz eta nork eta zein estamentuk gutxietsi dute? Ze garaitan? Eta, ordun, gizonen hori eragin zien eta emakumeen are gehiago, ba, are konnotazio okerragoak zeuzkalako emakumeen kasuan. Ez? Ordun, jaso degun bertsolaritzaren ondarea da hori dena, filtro edo zigor hoiek denak jaso ostean iritsi zaiguna. Ordun, ba, gauza gutxi esan dezakegu. Eta beti esaten da: "Bai, eske emakumetaz oso gutxi dago". Bueno, eta gizonetaz asko dago, edo? Ez det uste ere asko daukagunik iraganari buruz bertsolaritzari buruzko gizonena ere ez det uste asko jaso dagoenik.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Hernanin bizi den mongoliarra (101-037/002)

Bere burua aurkezten du. Mongoliarra da eta sei urte daramatza Euskal Herrian. Hernanin bizi da.

2. Mongolierari buruz (101-037/004)

Mongolierari buruz. Ez dakite jatorria zein duen... euskara bezalaxe bertan sortua dela uste dute.

3. Mongoliako hizkuntzak (101-037/005)

Mongolian hitz egiten diren hizkuntzak. Idazkera berezia du mongolierak.

4. Austriatik Euskal Herrira (101-037/006)

Nolatan iritsi zen Euskal Herrira. Bost urte igaro zituen Austrian, baina ez zuen han geratzerik lortu. Bere ahizpa Urnietan bizi zen; ilobak hemen jaio ziren.

5. Mongolia oso eguzkitsua (101-037/008)

Mongolia oso eguzkitsua da eta Espainia ere hala zela esan zioten, baina Euskal Herrian euri asko egiten du.

6. Bizimodu hobearen bila, Europara (101-037/009)

Nolatan joan zen Mongoliatik Austriara. Ez zen erraza izan. Txekiar Errepublikara joan zen lehenengo. Bizimodu hobearen bila abiatu zen.

7. European bizitzeko, eragozpenak (101-037/010)

Txekian atxilotu egin zuten, muga igarotzeagatik. Austrian errefuxiatu zentro batean egon zen; poza sentitu zuen, ez zutelako exportatu, eta beldurra ere bai.

8. Mongoliarrak inprobisatzen onak (101-037/012)

Mongoliarrak nomadak dira, eta ohituta daude inprobisatzera eta egoera guztietara egokitzea. Geneetan dutela dio.

9. Bost urte Austrian lanean (101-037/013)

Austrian lana aurkitu zuen, alemaniera ikasi zuenean. Bost urtez bizi izan zen han, hoteletan lanean eta adinekoak zaintzen.

10. Gaztelania ikastea errazagoa gertatu zaio alemaniera baino (101-037/015)

Hona etorri zenean, berriz hasieratik hasi behar izan zuen: hizkuntza ikasten... baina hemen aukera gehiago izan zuen. Austrian, berriz, "legez kanpoko" etorkina zenez, telebista ikusiz ikasi zuen alemaniera. Gaztelania EPAn ikasi zuen (Donostiako hizkuntza eskola ofizialean ere bai, gero). Klean ere praktikatu du.

11. Dakizkien hizkuntzak (101-037/017)

Dakizkien hizkuntzak: mongoliera, alemaniera eta gaztelania. Errusiera ulertzen du. Bere ustez, inork ez daki bere hizkuntza ehuneko ehunean.

12. Euskarari buruz dakiena (101-037/019)

Euskarari eta euskaldunei buruz dakiena. Mendez mende iraun duela euskarak. Badu gogoia euskara ikasteko, baina zaila iruditzen zaio. Mongolieraz ere ez dute generorik, eta badu antzekotasunik. "Bertsolari" dokumentala asko gustatu zaio: bere herrialdean ere badaude inprobisatzaileak.

13. Mongoliatik faltan ematen duena (101-037/021)

Mongolia eta hau konparatzen ditu: hura biziagoa dela dio, hau lasaiagoa. Hango natura ere faltan ematen du. Herrimina dauka; Mongoliara bueltatu nahiko luke hiltzera.

14. AHMER elkartean dago (101-037/023)

Hernanin bizi da, eta bertako elkarte batean dago: AHMER elkartean (SOS Arrazakeria). Toki askotako jendea elkartzen da han. Etxe garbitzaileen taldea osatu dute, eta jarduera asko egiten dituzte elkar laguntzeko.

15. Arrazakeriari buruz (101-037/024)

Bera ez da baztertuta sentitu, baina neska musulmanak bai, zapia daramatenak, ez dituztelako lanetan hartzen. Ez du arrazakeriarik jasan, baina mina ematen dio hemen down sindromedunei "mongoliko" edo "mongol" esaten diegula entzuten duenean.

16. Euskara eta gaztelania batera ikasi nahi zituen (101-037/026)

Euskarari buruz mintzo da. Azkar konturatu zen Euskal herrian zegoela, duela bost urte etorri zenean: dena euskaraz idatzita ikusten zuen kalean. Hernaniko EPAn biak ikasi nahi zituen: gaztelania eta euskara. Lehenengo gaztelania ikastea gomendatu zioten, eta gero euskara; pena du ez zituelako biak batera ikasi.

17. Hemengoa ere sentitzen da (101-037/027)

Hernanin euskaldun asko dagoela eta kanpotik ere parrandan joaten da jende asko. Lagun eta ezaguna euskaldunak ditu, eta gustatzen zaizkio. Hitzekoak direla dio eta laguntzeko prest daudela beti. Hemengoa ere sentitzen da pixka bat, nomada delako.

18. Oinarrizko hitz batzuk mongolieraz (101-037/029)

Hiztegia. Oinarrizko hitz batzuk mongolieraz.

19. "Zerua" mongolieraz (101-037/030)

"Tingir" hitza gustatzen zaio mongolieraz: zerua esan nahi du.

20. Hitz batzuk euskaraz (101-037/032)

Hitz batzuk esaten ditu euskaraz.

21. Abesti bat mongolieraz (101-037/034)

Abesti bat kantatzen du mongolieraz.

22. Ukrainan jaioa (101-043/002)

Eugene Ukrainan jaio zen. Ukrainera du ama hizkuntza, eta Euskal Herrira iristean Donostian bizi izan da; orain Hernanin bizi da.

23. Hizkuntza eslabiarra da ukrainera (101-043/004)

Ukraineraren inguruko informazioa: hizkuntza eslabiarra da, idazkera zirilikoa du, inguruko herrialdeko hizkuntzen antzekoa da... Errusiera ere hitz egiten da Ukrainan, baina ofiziala ukrainera da.

24. Ukrainer gehiagorekin badu erlazioa hemen (101-043/005)

Hemen bere emaztearekin hitz egiten du ukraineraz, baita EPAn eta Hizkuntza Eskola Ofizialean ezagutu zituzten beste ukrainiarrekin ere; ondo etortzen da zure herriko jendearekin kontaktua edukitzea.

25. Lehenik oporretan egon ziren hemen (101-043/006)

Bertara bizitzera etorri baino lehen, oporretan egon ziren Donostialdean bi astez, eta horren ondorioz hona etortzea erabaki zuten, polita delako eta ezagun batzuk esan zitelako bertan bizitzea ondo dagoela.

26. Hasieran ez zuten deus ulertzen (101-043/007)

Hasierako egunak zailak izan ziren hizkuntzarengatik, ulertu ahal izateko soilik ingelesa baitzuten, eta batzuetan gaizki-ulertuak izaten zituzten kalean

gauzak galdetzeko momentuan. Behin gaztelania ikasten hasita, dena askoz hobeto eta errazago dihoakie.

27. Harremana beste atzeritar batzuekin (101-043/008)

Beste atzeritarrekin zein erlazio duen kontatzen du; bera bezalako ukrainarrekin, frantses batzuekin, estatubatuar batzuekin... eta egiten dituzten planak zeintzuk diren.

28. Bertakoekin harreman gehiegi ez (101-043/009)

Bertako jendearekin ez du erlazio gehiegi. Euskaldunak itxiak garen galdetuta, hainbesterako ez dela dio. Izan ere, ukrainarrak ere nahiko serioak dira.

29. Lau hizkuntza dakizki (101-043/010)

Ukrainera, errusiera, ingelesa eta gaztelania hitz egiten ditu. Ukrainan zegoela, ingeles majisteritza ikasi zuen.

30. Hobe lehenengo hizkuntza bat eta gero bestea (101-043/011)

Euskararen inguruan ez zekiten ezer, etorri zirenean. Orain, hizkuntza bat ikastearekin nahikoa du hasteko; agian etorkizun batean ikasiko du.

31. Donostiako hizkuntzak ezberdintzeko zailtasuna (101-043/013)

Donostian zenbat hizkuntza hitz egiten diren ez daki ziur, asko ez baititu ezberdintzen; baina proiektu honen izenari jaramon egiten, 100 badira, sinesten duela dio.

32. Gauzak ondo azaltzeko gaitasuna faltan (101-043/014)

Ukrainatik gehien faltan ematen duena sentitzen/pentsatzen duena transmititu ahal izatea da, hemen, askotan, ezin baitu nahi duena ondo azaldu.

33. Kaleko bizitza Ukrainan ezberdina (101-043/015)

Ukraina eta Euskal Herriko ezberdintasun handietako bat kaleko bizitza da; han ez dago ohitura kalean geratzeko edo poteatzeko, jendeak nahiago du etxeetan geratu; hori izan da gehien harritu duena.

34. Bertako sagardoa naturalagoa da (101-043/016)

Hemendik zer ez duen gustuko galdetuta, ez daki zer erantzun. Sagardoa asko gustatzen zaiola deskubritu du, eta Hernani inguruetan dauden baserri askok sagardoa egiten dutenez, pozik dago.

35. Ez da gutxietsia sentitu (101-043/017)

Etorkin bezala, ez da inoiz arrotza edo gutxietsia sentitu.

36. Lana aurkitzeko arazoak (101-043/018)

Lana bilatzeko zailtasunak ditu. Izan ere, turista bisarekin dago, eta horrek ez du egoera errazten. Hala ere, hilabete pare bat ibili zen lanean txirrindu denda batean, eta turistekin, batez ere australiarrekin, harremana izan zuen.

37. Irakasle izateko asmorik ez (101-043/019)

Irakasle izateko izan zuen arren, irakasle izateko gogorik ez du; izan ere, ez du haurrei irakasteko pazientziarik. Agian helduei emango lieke.

38. Ezagutzarik ez euskararen inguruan (101-043/020)

Euskarari eta euskaldunei buruz ez dakie gehiegi.

39. Errusiarrei buruzko esaera, ukraineraz (101-043/023)

Ez du ukraineraz kantatu nahi, eta esaldi bat esaten du, neskei zuzendua: "Egin maitasuna guztiekin, errusiarrekin izan ezik".

40. "Askatasuna" hitza ukraineraz (101-043/025)

Gustuko hitza: ez daki zein aukeratu eta "askatasuna" hitza esan zaio.

41. Euskaraz lau hitz (101-043/027)

Hitz gutxi batzuk euskaraz.

42. Ghanako Fadilu (101-134/002)

Fadilu Ghanakoa da.

43. Fadiluren ama hizkuntza: hausa (101-134/003)

Hausa eta twi (akaneraren aldaera bat) erabiltzen ditu Fadiluk. Hausa da bere ama hizkuntza.

44. Ghanako lagunekin hausaz (101-134/004)

Euskal Herrian baditu Ghanako lagun batzuk. Horiekin hitz egiten du batzuetan hauseraz.

45. Ghanatik Euskal Herrira (101-134/005)

6 urte zituela etorri zen Fadilu Euskal Herrira, eta 13 daramatza jada hemen bizitzen.

46. Ingelesarekin soilik ezin moldatu Euskal Herrian (101-134/006)

Euskal Herrira etorri zenean zailtasunak zituen jendearekin komunikatzeko, ingelesez soilik egiten zuen eta.

47. Hizkuntzen garrantziaz (101-134/007)

Donostian hizkuntza asko hitz egiten direla dio Fadiluk. Berarentzat oso aberasgarria da hizkuntzak ikastea, bidaiatu ahal izateko. Pozik dago hizkuntza asko dakizkielako.

48. Euskal Herrian: gaztelania eta euskara (101-134/008)

Fadilu Euskal Herrira etorri zenean, konturatu zen gaztelaniaz gain, beste hizkuntza bat ere bazela: euskara.

49. Arazoak eta aukerak izan ditu Euskal Herrian (101-134/009)

Arazo asko izan zituen Euskal Herrira etortzean: oso pozik zegoen baina gauzak ez ziren berak uste bezala atera. Euskal Herrian dena eman diotela aipatzen du: ikasteko aukera, lanerako aukera...

50. Ez du bere herrialdeko oroitzapen asko (101-134/011)

Ez du oroitzapen handirik bere herrialdearena. Baina hango jendea faltan ematen du.

51. Oinarrizko hitzak hausaz (101-134/013)

Fadiluk oinarrizko hitzak esaten ditu hausaz.

52. Oinarrizko hitzak twieraz (101-135/002)

Fadiluk twi hizkuntzan (akaneraren aldaera bat) oinarrizko hitzak esaten ditu.

53. Esaldi batzuk euskaraz (101-135/004)

Euskaraz hitz batzuk esan ditu Fadiluk: "Ni Fadilu naiz". "Ni Ghanakoa naiz".

54. Umetan etxea (HER-001/003)

Guraso biak auzokoak zituen. Zazpi senidetan bigarrena. Hiru urte zituela, etxea erre zitzaien.

55. Eskolan izebarekin (HER-001/004)

Eskola gertu zuten. Izeba zen maistra, titulurik gabea. Haizeekin arazoak zituen, eta barre egiten bazuten zigortu egiten zituen. Ilobekin beste inorekin baino gogorragoa zen, eta ez zuten eskolara joan nahi izaten. Baina elurra zenean ere ezin ziren libratu.

56. Pagoako baserriak (HER-001/005)

Pagoan zenbat baserri zeuden azaltzen du, izenak esanez. 20 bat baserri baziren, eta familia handiak ziren denetan.

57. Bizikletan Hernanira (HER-001/006)

Hernanira 10 urterekin hasi zen joaten, bizikletan anaiarekin; Donostian erosi zituzten bizikletak. Mandazainei bazkaria eramaten zieten, diru pixka bat ateratzeko. 14 urterekin hasi zen lanean.

58. Mandazain ibili zenekoa (HER-001/007)

Mandazain lanak. Ola zaharrera joaten zen, bost orduko bidean, egunean hiru bidaia. Oiartzungo ikazkinekin ibili zen, ikatzarekin. 23 urte egin zituen mandoarekin lanean.

59. Kamioilari eta egurra prestatzen (HER-001/008)

23 urte mandazain ibili ondoren, aitarekin hasi zen garraio lanetan, kamioiarekin. Azukrea, kafea... eramaten. Anaia eta biak ibili ziren. Bi urte egin zituen, nekatu arte. Egurra prestatzen hasi zen, orduan, kamioian eramateko. Etxean bi kamioi zituzten. Kamioiarekin zebilen auzotar bat nola hil zen, amilduta.

60. Su egurra okindegiatarako eta eskoletarako (HER-001/010)

Kotxe gutxi zeuden lehen, Goizuetan pare bat. Eta orain pare bat etxe bakoitzeko. Su egurra nola prestatzen zuen, okindegiatarako. Berogailuetarako ere bai, eskoletan eta. Nafarroa urruti geratzen zitzairen.

61. Su egurra prestatzen II (HER-001/012)

Nafarroan jende asko dedikatzen zen egurretara. Aranon ere arratibeldarrak ikatza eta egurrarekin ibiltzen ziren. Gustukoa zuen bere lana. Egurra mozteko zein tresna zerabilten eta ze egur mota zen. Pinua etorri zenean, pagoak kendu zituzten. Pinuarekin lan gutxi egin zuten; egur zikina da.

62. Hesolak egiten (HER-001/013)

Hesolak egiten ere hasi ziren gero. Ordaindu ez zien batekin arazoak izan zituzten. Gainera, lan gogorra zen eta irabazi gutxikoa.

63. Hesolak egiten II (HER-001/014)

Hesolak nola egiten zituzten. Akaziak 1,80an mozten zituzten. Diru gutxi ematen zuen. Gasteizko bati beraien hesolak gustatu zitzaizkion.

64. Hesolak egiten III (HER-001/017)

Baserritarrek lurra ixteko hesolak erabiltzen zituzten, baina ez zen negozio ona. Orain plastikozkoak daude.

65. Añarbeko urtegiko lanak (HER-001/019)

Añarbeko urtegiko lanak. Kamioiarekin ibiltzen ziren. Zein baserri geratu ziren ur azpian. Ur falta zegoen Donostian. Paga jarri zuten, pareta egiteko; uretarako balio duen egur bakarra da.

66. Pagoako errota (HER-001/020)

Pagoan errota dago. Auzoko argindarra han sortzen zen garai batean. Presak Iberduerorenak dira orain denak.

67. Santioko ermita (HER-001/023)

Santioko ermitan monagilo ibilia da. Egunero izaten zen meza. Apaiza bertan egoten zen, arrebarekin. Orain okupatuta daude han.

68. Aduana eta "kaseteroa" (HER-001/025)

Aranzelak. Aduana non zegoen. "Kaseteroa". Dirua edo ardoa edo egurra, zerbait eman behar izaten zieten.

69. Pagoako tabernako kontuak (HER-001/027)

Pagoan taberna zuten. Oiartzungo morroia zuten, belarria moztua zuena. Zezina ekartzen zuen hark. Limonada botilak. Aitonak hartu zuen taberna. Ardoa eta ogitartekoak, besterik ez zen izaten. Auzotarrek erabiltzeko dirua sortu zuten.

70. Pagoako tabernako kontuak II (HER-001/029)

Pagoako tabernan bilerarik ez zen izaten, lotarako tokirik ere ez... Oartzun leku hobia zen lanerako; mugimendu gehiago zegoen. Oartzungo mandazainak aipatzen ditu.

71. Mandazainaren lana II (HER-001/030)

Mandazainaren lana nolakoa zen. Mandoa kargatzeko trebetasuna behar zen. Eguraldi txarrarekin gaizki ibiltzen ziren, bustita. Katiuskarik ez zuten; zakua buruan. Baina ez ziren gaixotzen.

72. Hernanirako joera (HER-001/031)

Hernanira eskolara joaten ziren. Gero kamioia deskargatzen hasi ziren. Enkarguak Hernanin egiten zituzten eta azokara ere joaten ziren. Azokan zer izaten zen: animaliak, landareak...

73. Esne behiak eta baratzea (HER-001/032)

Esne behiak zituzten. Ardirik ez. Etxea erre zitzairenean, 15 bat behi zituzten. Baratzea ere bazuten. Amona eta izeba ibiltzen ziren baratzean. Izeba hura maitea zuten: txokolatea ematen zien; beste izebak, berriz, erregelarekin jo. "Holaxe bizittu gea gu".

74. Gerra etorri zenean, Askatxura (HER-001/034)

Etxea oso zaharra zen, erre zenean. "Kiskur zaharra", aitona, hila zen ordurako. Gerra etorri zenean, Askatxura joan ziren bizitzera.

75. Erromeriara Bentaberrira (HER-001/037)

Orduan ez zen oraingo pikerik izaten ofiziokoen artean. Erromeriara Bentaberrira joaten ziren. Pilotan ere aritzen ziren.

76. Pagoagan lanean (HER-002/006)

Hamahiru urterekin Pagoagan lanean hasi zen, morroi. Taberna zen orduan. Egurrarekin ikatza sortzea zen lan nagusia. Mandoarekin ekartzen zuten eta kamioiek eramaten zuten ikatza, bereziki Donostiara. Egurra eta ikatza saltzen aritzen ziren batzuk.

77. Langabezia handia zen (HER-002/007)

Auzo guztia aritzen zen Pagoagan lanean. Langabezia handia zen garai hartan, baita lehenago ere. Bere bi osaba Ameriketara joan ziren; behi-esnea saltzen aritu zen bata, bestea ez du gogoan.

78. Berrogei urtez esnedun (HER-002/008)

Hamahiru urtez morroi aritu zen. Hogeita sei urterekin esnea biltzen hasi eta berrogei urtez lan horretan aritu zen.

79. Behien usaina kendu ezinik (HER-002/009)

Behien usaina nola kendu aritzen ziren erromeriara joaterako. Bentaberrira eta Ugaldetxora joaten ziren dantzara.

80. Esnea biltzen kamioiarekin (HER-002/010)

Pesa garraioetako kamioi batekin banaketa egiten aritzen zen. Kooperatiban lana eskaini zioten eta onartu egin zuen. Baserriz baserri esnea biltzen aritzen zen inguruko herri eta auzoetan, goizeko bostetan hasita.

81. Esnea biltzea ez zen errentagarria (HER-002/011)

Esnea biltzea ez zen errentagarria. Litro gutxi biltzeko eguna pasatu behar izaten zuten. Horrek gainbehera ekarri zuen. Laborategian esnearen kalitatea neurtzen zuten. Esnea ez du geroztik probatu. Egunean 163 baserritan esnea biltzera iritsi zen.

82. Ardi-esnea Erronkarira eramaten (HER-002/012)

Ardi-esnearekin Erronkarira joaten zen neguan arratsalde, Iruñeatik pasatuta. Hango gaztarik ez du probatu, beste batzuek ere eramaten baitzuten esnea.

83. Errotako lana (HER-002/016)

Errotako lana, lan asko eta diru gutxi izaten zen. Artoarekin etortzen zen jendea eta hamabi kiloko, kilo bat kentzen zioten baserritarari. Irina bahean pasatzen zuten umetan.

84. Errotako lanak eta funtzionamendua (HER-002/017)

Harria pikatu egin behar izaten zen. Nola egiten zuten kontatzen du. Errota eta zentrala biak batera ibiltzen ziren. Urak errota nola mugitzen duen kontatzen du.

85. Errotak itxi (HER-002/019)

Enpresa handiek lan egiteko errota txikiak itxi egiten zituzten, irina egitea galarazten zieten. Beldurra ikaragarria zen orduan poliziarekiko. Mikeleteak aritzen ziren, "txapelgorriak".

86. Mikeleteak estraperloa zaintzen (HER-002/020)

Mikeleteek estraperloko ardoa konfiskatzen aritzen ziren, aurreko egunean egurra dohainik eman zietenei ere. Gehienak euskaldunak ziren.

87. Bentaberrira dantzara (HER-002/025)

Erromeriara Bentaberrira joaten zen. Apaiza katalejoekin begira ibiltzen zen ermitako leihotik. Ez zuen dantzarako afiziorik.

88. Pilotazalea (HER-002/032)

Igande eguerdietan pilotan aritzen zen lagunekin. Ikatza kargatzera gauez Bentaberrira joaten zirenetan ere aritzen ziren.

89. Inauterietan puskak biltzen (HER-002/033)

Inauterietan etxez etxe puskak biltzen aritzen zen lagunekin. Bentaberrin elkartzten ziren eta inguruko baserrietara joaten ziren. Galtza eta alkandora zuria eta txapel gorria janzten zuten, abarketa zuriekin. Dantzan egiten zuten, soinu-jolea lagun zutela. Burduntziarekin biltzen zituzten puskak eta ondoren afaria egiten zuten.

90. Gerraostean, asko fraide eta apaiz (HER-002/034)

Gerraostean ez zuen goserik pasatu. Aitak umeentzat gordetzen zuen falta bazen. Maistra izeba zen eta bazituen hiru seme fraide. Inguruan asko joan ziren fraide eta apaiz, bizimodua ateratzearren.

91. Saratzain baserrian bizitua (HER-003/002)

Saratzain baserrian bizi izan zen, ezkondu zen arte. 8 senide ziren, 6 neska. Bera bosgarrena. Baserria handia zen; hutsik geratu zenean, saldu egin zuten. Lur asko zituzten: ardiak, sagastiak, artasoroak...

92. Aitonaren osabaren baserria (HER-003/003)

Saratzain baserriaren historia. Aitaren osaba batena zen: 'Otsakil'. Hil egin zuten. Nola kontatzen du. Joakina neskabila zen artean. Baserria banatu egin zuten senideen artean, eta beraiek erosi zuten azkenean.

93. Saratzain baserrian bizitua II (HER-003/004)

Saratzain baserrian bizi izan ziren senide denak, ezkondu artean. Aiton-amonak ez ziren beraiekin bizi. Ama Lizartzakoa zen. Aita Saratzainen bizi zen aurretik ere, osabari etxea zaintzen.

94. Baserrian lurreko sua eta labetxoa (HER-003/005)

Baserria nolakoa zen. Lurreko sua zuten eta iturrira joaten ziren ur bila. Tolarea zuten. Oholezko komuna. Logela asko zituen. Garai batean bi pisu izan ziren, ez bakarra. Labetxoa bazen, baina ez zuten ogirik egiten; taloak bai. Lurreko sua, laratzarekin.

95. Eskolara Ereñotzura (HER-003/008)

Bidezidorrak zituzten mezetara eta eskolara joateko, Ereñotzura. Batzuetan jatekoa eramaten zuten. Eskola non zegoen. Lorategia beraiek txukuntzen zuten. Sukaldea eta logelak ere bazituen. Bota egin zuten. Maistra izaten zen: Kaxilda. Euskaraz hitz egiteagatik zaplaztekoak. Gogorra zen. Aita ere han ibilia zen eskolan.

96. Eskolan 12 urte arte (HER-003/010)

Maistra falta zenean, laguntzailea egoten zen. Kartila, katona eta dotrina. Idazten eta irakurtzen ikasi, eta 12 urterekin etxera. Mapa batekin ere ibiltzen ziren.

97. Neska-mutilak elkarrekin baina aparte (HER-003/011)

7 urterekin jaunartze txikia eta 9rekin handia. Neska-mutilak elkarrekin zeuden eskolan, baina alde batean batzuk eta besteak bestean. Elizan bezalaxe. Jolastorduan korrika eta pilotan ibiltzen zen, mutilekin frontoian. Bera ez zen kaniketan asko ibili, baina bere semea bai. Jostailurik ez zuten. Pilotak eskolan izaten ziren.

98. Eskola utzi, eta baserriko lanetan (HER-003/013)

Bihurrikeriarik ez du gogoan. Mutilekin pilotan ibili bai, baina nahiko tuntu zela dio. 12 urterekin batzuek Hernanira joaten ziren ikastera. Baserrian lana zegoen. Aita pinu sartzerara joaten zen basora. Anaiak hasi ziren gero. Artoa eta babarruna ereiten zuten, urte osorako. Etxerako barazkiak. Oiloak. Ardiak eta behiak jezten zituen. Ardiekin ibiltzen zen batez ere.

99. Auzoko esneak batzen zituztenak (HER-003/014)

Behiak, oiloak, ardiak... esnea errepidera ateratzen zuten. Bentaberrikoak jasotzen zituen auzoko esneak, Jexux 'letxeruak', furgoneta batekin. lolakoa ere ibili zen esne biltzen.

100. Baratzekoak (HER-003/016)

Otsailean baratxuria, gero tipula, babarruna, baba handia... Patata martxo aldean jartzen zuten. Jorratu, artoari hostoak kendu... Lekak, tomateak... Landareak azokan erosten zituzten, Hernanin. Ama joaten zen, astean behin. Aranorako errepiderik ez zegoen. Erreka bazterretik joaten ziren.

101. Hernaniko azoka (HER-003/017)

Hernaniko azoka. Txerria erosten zuten, gero etxean jateko. Auzolanik ez zuten egiten soroan, bakoitzak berea.

102. Bizikletan Hernanira (HER-003/018)

Hernanira oinez joaten ziren, menditik. Aste Santuan prozesioa ikustera joateko ilusioa. Bizikleta bat zuten, bi ahizpa zaharrenak txandaka erabiltzeko. Amak erosten zuen tela, eta izebak josi. Ahizpa zaharrenak izebarekin ikasi zuen josten.

103. Ardiak zaintzen eta gaztagintzan (HER-003/020)

Ardizaintza nolakoa zen. 22 urterarte ibili zen ardiekin. 80tik gora ardi. Etxerako gazta egiten zuten; beraiek jetzi eta amak gazta egin. Gazta nola egiten den.

104. Txerri hiltzea eta odolkiak (HER-003/022)

Ardi esnearekin egiten zuten gazta eta behiarena saldu. Txerri hiltzea: urtean pare bat. Amona zen odolkgilea, eta gero bera hasi zen. Odolkiak nola egiten zituen.

105. Txerri lanak: odolkiak, txerri-muinak, urdaiazpikoa... (HER-003/024)

Odolkiak egiteko prozesua. Txerria dena aprobetxatzen zene. Amona joaten zen, txerri lanekin laguntzera. Solomoa, txorizoa... Txerri-muinak ordainetan: etxez etxe partitzen zuten. Belarriak eta hankak, gazituta. Urdaiazpikoa gazi-kutxan.

106. Txerri lanak, txerri jana eta errotak (HER-003/025)

Tripa-zakua ere hustu eta gazitu egiten zen. Egosita jaten zuten. Txerrien jatekoa: artoa, hirina... Izebaren errotara joaten ziren artoarekin. Pagoan ere bazen errota. Gerraostean isilka ere joaten ziren, Alegiara, gaez. Artoa txikitzeko makina ere bazuten etxean. Talo zopak.

107. Baserritik baserrira ezkondu (HER-003/027)

22 urterekin ezkondu zen, Tximistaenea baserrira. Ez daki zergatik duen izen hori. Antzeko bizimodua hor ere. Ardiak.

108. Ardizain, puntua egiten (HER-003/029)

Ardizain zegoela, puntua egiten zuen. Jertse mordoa egin ditu. Bere gisa ikasi zuen, besteei galdezka eta probatzen. Galtzerdiak ere bai. Aitak txabilan egiten zuen haria ardi ilearekin. Txabila nolakoa den.

109. Sendabelarrak: berbena, giltzundin belarra eta gibel belarra (HER-003/031)

Sendabelarrak: berbena belarra, enplastoia eginda zuringoarekin. Neumonia hala sendatu zuen batek. Giltzurrunak garbitzeko, berriz, infusioa hartu behar da. Gibel belarra. Landareak noiz batu.

110. Sendabelarrak: pasmo belarra, plantina, sangri belarra (HER-003/032)

Pasmo belarra animaliekin erabiltzen zuten, zikina garbitzeko. Bi pasmo belar mota daude, lore gorriduna eta urdinduna. Plantina belarra. ere bi mota daude. Sangri belarra tentsioarentzat, infusioan.

111. Erremedioak: idi mingaina, intxaur hostoa, osina... (HER-003/034)

Pixa belar ona da idi mingaina. Infusioan hartzen da hori ere, berdean zein lehortuta. Itzalean lehortzen dira eta gero zintzilik jarri. Intxaur hostoa tentsioarentzat ona ote zen. Malma. Osina, odola mehetzeko.

112. Osin tortilla (HER-003/035)

Osina tortilan jateko ohiturarik ez du, baina entzun izan du; baita batzuek osin biltzen ikusi ere. Lorerik ez du jan.

113. Gerratik ihesi (HER-004/002)

Hiru urte zituela hasi zen gerra eta oso oroitzapen txarra dauka. Baserritik alde egin behar izan zuten, tiroketen ondorioz. Osinagan hamaika egun pasatu zituzten berrogei lagunek.

114. Gerragatik alde egin zutenekoa (HER-004/003)

Anai zaharrena eta beste bi gerran soldadu aritu ziren. Gogoan du etxetik ateratzeko momentua nolakoa izan zen. Auzokoekin harreman estua izan zuten.

115. Anaia Teruelen hil zuten (HER-004/004)

Oso familia behartsua zen baina maitasun asko sentitu zuen. Anaietako bat Teruelen hil zuten gerran. Anaiaren heriotzaren berri haren lagun batek eman zien gutun baten bidez. Emozionatu egiten da Roxarito oraindik ere.

116. Etxearen egitura (HER-004/006)

Etxeko sukaldean beharrezkoa zena besterik ez zuten. Etxea barrutik nola antolatua zegoen kontatzen du.

117. Txerrimoniak banatzen (HER-004/010)

Txerrimoniak nola banatzen zituzten eta zer izaten zen kontatzen du. Auzoen artean txerriak noiz hil adostu egiten zuten.

118. Artoa etxean ehotzen zuten (HER-004/013)

Gerra ondorenean gariaz gain, artoa izaten zuten. Bere anaietako batek eguna ematen zuen artaleak makinatxo batekin txikitzen, errotak itxita baitzeuden. Garia ereitetik ehoterainoko prozesua kontatzen du. Bizimodua gogorra zen.

119. Jauntxoek derrigortuta abereak saldu behar (HER-004/014)

Jauntxoak baserrietara joaten ziren eta abereak saltzera derrigortzen zituzten.

120. Eskolan erdaraz, dotrina euskaraz (HER-004/015)

Eskola hiru mailatan banatuta zegoen. Dena erdaraz izaten zen baina dotrina euskaraz ere ikasten zuten. Hizkuntzak jakitzea aberatsa dela iruditzen zaio.

121. Sagardoa etxerako eta saltzeko (HER-004/020)

Etxean sagardoa egiten zuten, saltzeko ere bai: txotxean, tabernetara... Tabernetatik botilak ekartzen zizkieten eta etxekoek bete, kortxoa jarri eta gurdiz eramaten zizkieten idi parearekin.

122. Idiak uztarrian jartzeko prozesua (HER-004/021)

Idiak uztarrian nola jartzen zituzten kontatzen du. Uztarria, kopetekoa, kurteria, bularrekkoa, soka eta ardi-larrua izaten zituzten. Uztarria neurria egindakoa izaten zen.

123. Astoaren gainean laboreak egiten (HER-004/022)

"Kartutxo" izeneko astoarekin gertatutako anekdota bat kontatzen du. Ama astoaren gainean laboreak eginez joaten zen. Pobretasunaren alde onari buruzko iritzia ematen du.

124. Trapuzko eta lohizko panpinak (HER-004/023)

Trapuzko panpinak egiten zituen oihal puska zaharrekin, erdi isilka. Zizare lohiarekin panpinak egiten zituen.

125. Ahizpa umeen zaintzaile (HER-004/027)

Bere ahizpak zaindu zituen seme-alabak. Roxarito etxetik kanpo aritzen zen lanean eta pena handiz uzten zituen etxean.

126. Harategian, lantegian eta dendetan lanean (HER-004/028)

Harategia utzi eta taxista hasi zen bere senarra. Lanari eutsi ezinez, harategia utzi eta lantegia jarri zuten. Haren ostean jostailu denda jarri zuen. Ondoren opari eta denetariko gauzak zituen denda ireki zuen.

127. Berorika, hika eta zuka familian (HER-004/033)

Aita behia jeizten bertsotan aritzen zen. Amonari eta gurasoei berorika egiten zieten. Amaginarrebari ez zitzaion horrela hitz egite gustatzen. Anai-arrebekin batzuekin hika eta besteekin zuka hitz egin izan du.

128. Kantuzalea (HER-004/034)

Behia jeizterakoan eta arto zuriketari beti bertsotan aritzen ziren. Asko kantatzen zuen. Loria udan kantuaren zati bat abesten du. Amak elizako kantuak erakusten zizkien.

129. Aita, Arantzako botikaria (HER-005/002)

Arantzan jaioa, elizaren aldameneko etxe batean. Lau senidetan zaharrena. Bi bizitzako etxea zen. Aita botikaria zen, Mendigorriako semea, Madrilen ikasia. Ama Arantzakoa zen. Aita euskara ikasten saiatu zen.

130. Aita hiltzean, ama botikaren kargu (HER-005/003)

Aitak Madrilen ikasi zuen. Aitona ere botikaria zen, eta bi osaba ere bai. Aitak idazten eta irakurtzen irakasten zien herriko mutil gazteei. Aita gazterik hil zen, 55 urterekin, eta ama eta ahizpa egin ziren botikaren kargu (ordezkari bat topatu behar izan zuten, baimena izateko). Ahizpa mediku batekin ezkondu zen, eta orduan amak botika itxi zuen.

131. Botikako martxa (HER-005/004)

Botikan jarabeak, pilulak, zigiluak... egiten zituzten. Donostiatik eramaten zituzten botikak, autobusean. Donostiatik Arantzara astean hiru autobus zeuden. Amaren aldeko aitona-amonak Goizuetakoak ziren.

132. Arantzako eskola (HER-005/005)

Eskolan dena erdaraz zen, baina dotrina euskaraz. Elurra zenean, bidea irekitzen zieten eskolara joateko. Herri sarreran dago eskola. 12 urterekin Hernanira joan zen osabaren etxera, eta Batxilergoa egiten hasi zen.

133. Zazpi urteko Batxilergoa (HER-005/006)

Aitak ikasketak eman nahi zizkion; horregatik joan zen Hernanira, Batxilergoa egiteko. Valladoliden egiten zituen azterketak; ahozko probak ere bazeuden. Zazpi urteko Batxilerra zen, gogorra. Magisteritza egin zuen gero, Donostian eta Zaragozan; osaba zuen han. Praktikak ere han egin zituen.

134. Zaragozatik Hernanira buelta, eta bertan geratu (HER-005/007)

Batxilergoa amaitzean, 19 urterekin, Zaragozatik Hernanira bueltatu zen. Zaila zen plaza ateratzea, eta Burgoseko herri txiki bat egokitu zitzaion. Hara joan ordez, botika batean hasi zen laguntzaile moduan. Klase partikularrak ere ematen zituen. Botika ondoko harakinarekin ezkondu zen. Biteri eskolan egon zen maistra bi urtean, Udalak eskatuta. Mutilen maistra izan zen. Neskak eta mutilak aparte egoten ziren.

135. Helduak alfabetatzen, ikastolan andereño hasi aurretik (HER-005/008)

Etorkin asko etorri zen Hernanira, eta helduak alfabetatzen ere ibili zen. Beste bi urte egin zituen hala. Irakurtzen eta idazten irakasten ziren, eta matematika pixka bat. Dena erdaraz. Urumea ikastola sortu zenean, irakasle hasi zen han.

136. Urumea ikastolaren sorrera (HER-005/009)

Hernaniko lehenbiziko ikastola izan zen Urumea. Nola sortu zen. Eliza inguruan zebilen guraso talde batek, Oarso kalean. Maria Mariezkurrena zen zuzendaria. Hura eta haren ahizpa Elvira Zipitriarekin ikasiak ziren. Berari ere erakutsi zioten metodoa. Umeak lurrian esertzen ziren, asko abesten zuten... Praktikak eginda, Elkano kaleko pisu batean hasi zen eskola ematen, 1. mailako neska-mutilekin.

137. Legeztatu arte, arazoak inspektoreekin (HER-005/010)

Ikastolan euskaraz irakasten zuten. Inspektoreekin izandako arazoak. Azpeitian, Loiolan, elkartzen ziren urtero irakasleak. Euskaraz alfabetatzeko ere lan handia egin zuten. Bizkaian eta Iruñean ere egin zituen ikastaroak; Joxerra Gartzia aditza erakusten zien.

138. Euskara batuaren sorrera (HER-005/011)

Hitz egiteko arazorik ez zuten, baina euskaraz alfabetatu beharra zegoen. Batzuek ez zeuden ados euskara batuarekin. Joxerra Gartzia izan zuen irakasle. Batua bizkaitarrei gehiago kosta zitzaien ikastea. Bizkaira joaten zenean, arazoak haiei ulertzeko.

139. 65 urterekin erretiratu zen (HER-005/013)

65 urte egon zen Urumea ikastolan andereño. Biterin bi urte egin zituen, eta aseguru jarri zioten; Urumean, berriz, asegururik gabe urte askoan. Erretiroa hartu zuenean, Biterikoa ondo etorri zitzaion.

140. Emakumeen lanak (HER-005/014)

Emakumeen lanak garai hartan: etxean ala irakasle. Zikuñagako lantegiak jarri zituztenean, emakumeak ere hasi ziren lanean. Magisteritzan emakume gehiago zegoen mutilak baino. Farmazia ikasteko aukerarik ez zeukan, urruti joan behar zelako eta garestia zelako. Baina Magisteritza ere gustatzen zaio.

141. Erlijioaren garrantzia Urumea ikastolan (HER-005/016)

Urumea ikastolan lehen orduan erlijioa ematen zuten beti. Dotrina erakusten zuten. Erretiroa hartutakoan katekista ibili da. Elizan irakurtzea ere asko gustatu zaio.

142. Ikastolako materiala (HER-005/018)

'Xabiertxo' liburua erabiltzen zuten. Txotxekin egiten zuten matematika. Abestu egiten zuten, eta jolastu. Elvira Zipitriak emandako abestiak ziren, herrikoiak. Imanol Urbietak ere sortu zituen letrak. Xabier Lete, Lourdes Iriondo, Benito Lertxundi... inguruan ibiltzen ziren, laguntzen. Eta beste hainbat ere bai.

143. Hernaniko ikastolak (HER-005/020)

Biteririk ikastolara aldaketa handia izan zen. Ikastola bakarra zen orduan; gero Langile eta Elizatxo sortu ziren, ezberdin pentsatzen zutelako. 10 umerekin hasi zen, baina urte batzuetan 45 ere izan zituen.

144. 1. mailakoen irakasle (HER-005/022)

45 ikasle askotxo ziren. Ikasgai denak ematen zituen, 6-7 urteko umeei.

145. Urte gogorrak eta giro nahasia (HER-005/024)

Giro nahasia zegoen garai hartan, eta urte gogorrak izan ziren: manifestazioak, atxiloketak... Bizilagun baten kontuak; Iparraldera joan zen, eta bisitan joaten ziren. Burgosko prozesua. Guardia Zibilarekin ere arazoak.

146. Ikastolan zer erakusten zuten (HER-005/025)

Ikastolan zer erakutsi beraiek erabakitzen zuten; legeztatu zutenean, onartu behar izango zituzten. Euskara zen ikastolaren ardatza, eta bertako historia eta kondairak. Ez ziren Madrilen gustukoak izango, baina ez ziren askotan joaten. Don Jose Sanchez inspektorearekin harreman ona zuten. Lehen urteetan, umeei mendira joaten ziren, inspektorea zetorrean. Bestela ere asko joaten ziren mendira umeei.

147. Lehen dena buruz ikasten zuten (HER-005/026)

Irakaskuntza asko aldatu da. Ikasle zenean, erabiltzen zen metodologia: dena buruz. Batxilergoko lehen urtea Peñaforidan egin zuen. Askatasun gehiagorekin ikasten da orain.

148. Emakumeak irakaskuntzan (HER-005/029)

Emakumearen papera irakaskuntzan. Helduak alfabetatzen ibili zenean, denak ziren gizonezkoak. Kanpora joaten ziren asko, irakasle moduan.

149. Urumea ikastolaren egoitzak (HER-005/030)

Elkano kaleko pisu batean egon zen eskolak ematen; bi gela zituzten. Oarson toki gutxi zuten, ez ziren ume denak kabitzen. Geroko egoitzak. Ondo prestatuta irteten ziren ikasleak Urumea ikastolatik.

150. Lana atergabe, ikastolan (HER-005/031)

Lan asko egin zuten ikastolaren alde. Mikel Laboaren abesti batekin gogoratzen da beti.

151. Umetako jolasak eta Elizaren indarra (HER-005/034)

Edozein gauzarekin jolasten zuten. Hormetako landareekin, sukaldetara. Egurrezko astoa zegoen etxe ondoan, dotrinarako bidean harekin jolasten zuten. Apaiz batek errieta egin zien behin, mutilak eta neskak batera jolasten ari zirelako. Elizondoko batzuek jauregi bat zuten Arantzán, eta bisitan joaten ziren; haiekin euskal ezkontza bat antolatu zuten, antzerkia eginez, eta hori ere ez zitzaion gustatu apaizari. Mutilekin dantza eginez gero, kongregaziotik botatzen zituzten.

152. Hondarribira txangoan, apaizarekin (HER-005/035)

Urtean behin Hondarribira joaten ziren egunpasa dotrinakoak. Lehengusu bat uretara bota zuen olatuak, eta apaizak errieta egin zien. Etxez etxe diru eske ibili ziren eskursiora joateko, eta apaiza dirua itzularazi zien. Ozkozekoa zen Don Migel apaiza eta bestea Don alberto zen. Lehen Arantzan bi apaiz zeuden; orain bakarra 4-5 herritarako.

153. Teresita deitzen zioten (HER-005/037)

Teresita deitzen diote. Amonak jarri zion izena.

154. Aita gerran hila (HER-006/002)

Aitari gerrara joan beharra tokatu zitzaion eta Teruelen hil zen.

155. Agerre ingurua (HER-006/003)

Agerre ingurua nolakoa zen kontatzen du. Ama esnearekin Donostiara joaten zenez, ahizparekin eskolara joaten zen sei-zazpi urterekin.

156. Lehen eta orain, hizkuntzaren borroka bera (HER-006/004)

Agustina Martikorena eta Presen Miner izan zituen maistra. Orduko eta oraingo hizkuntza borroka bera direla aipatzen du.

157. Gerrako umezurtzentzat ikastetxea (HER-006/006)

Bederatzi urterekin Biteri eskolara joaten hasi zen. Gerrako umezurtza izatearren, ikastetxe berezi bat bazuten eta hara joateko deia jaso zuen.

158. Gerrako umezurtzen ikastetxea Oronoz-Mugairen (HER-006/008)

Galizia, Zaragoza, Burgos eta beste hainbat lekutako umeak zeuden gerrako umezurtzentzako ikastetxean. Oronoz-Mugairen zegoen, militarren eskuetan. Non zegoen eta nolakoa zen kontatzen du.

159. Gerrako umezurtzen ikastetxeko ibilerak (HER-006/009)

Lehenengo bainujantzia. Aitaren anaiak eta haren emazteak behar zuten guztia ematen zieten Eulaliri eta ahizpei. Kangrejoak harrapatzen, gaztainak biltzen, mendi-irteeretan... ibiltzen ziren Oronozen.

160. Euskalduna izatearren, arazoak ikastetxean (HER-006/011)

Batxilergoa ikasteko aukera izan zuen. Ahizparekin erdaraz egiten zuen han. Tratu txarra jaso zuen euskalduna izatearren. Etxean ez zen politikaz hitz egiten.

161. Magisteritza Ategorrietan (HER-006/013)

Magisteritzako eskola Ategorrietan zegoen eta hantxe egin zituen ikasketak. Lehenengo urtea ahizparen dολουarekin hasi zuen. Umetan ez zuen aitaren dolurik sentitu. Haurrak beti jolas egiten duela dio.

162. Babarrunak eta arraultzak nola prestatu saltzeko (HER-006/014)

Etxeko zereginak aipatzen ditu. Babarruna nola garbitzen den kontatzen du. Arraultzak nola prestatzen zituzten banatzeko kontatzen du. Bretxan postua zutenei ematen zizkieten barazkiak saltzeko.

163. Titulu gabeko irakasle asko (HER-006/016)

1953an magisteritza bukatu zuen. 1948an inmigrazioa hasi zen eta ez zegoen nahikoa leku eskoletan. Titulurik gabeko irakasleak asko ziren; irakurtzen zekienak erakutsi zezakeela esaten zuen legea bazen. Baserrietan oso arrunta zen titulu gabeko irakasleak izatea.

164. Bertsoak eta kantuak irratian (HER-006/021)

Bertso-paperei buruz. Haiei irratiak hartu zien lekua. Lanak eginez entzuten zituzten bertso batzuk.

165. Pagoagako eskolan irakasle lanetan (HER-006/022)

Udalak deituta, Pagoagan hasi zen lehenengoz irakasle. Hango eskola nola sortu zen kontatzen du. Hogeita hamasei hurrekin hasi zen, adin guztietakoak.

166. Pagoagan irakasle (HER-006/023)

Pagoagako eskola zela eta, Aranoko eta Hernaniko udaletxeen artean tirabirak izan ziren. Mikeleteen etxebizitzaren gainekoa eskaini zioten. Hasierako bizipenak kontatzen ditu.

167. Pagoagara lehenengoz (HER-006/024)

Naparralden apopilo jarri zen eta udalak ordaintzen zion. Pagoagari lehenengo aldiz joan zenekoa kontatzen du.

168. Euskaraz irakastearren, errietan (HER-006/027)

Pagoagan euskaraz irakasten zuelako izugarritzko errieta egin zion beste irakasle batek.

169. Irakasle postuak nola lortu (HER-006/029)

1957an Biterin hasi zen lanean. Irakasleen lanpostuak nola lortzen ziren kontatzen du.

170. Mojetatik bota, gizarte-segurantzak eskatzearren (HER-006/030)

Hernaniko eskola bat baino gehiagotan lan egin izan du. Mojetan lanean ari zela, laugarren semea jaio zen. Gizarte segurantzak eskatu zuenean, seme-alabak zaintzera bidali zuten etxera mojek.

171. Urgul mendiko bilerak (HER-006/031)

Ikastolan lan egiteko eskatu zioten 1963an. Urgul mendian Euskal Herriaren historia ikasi zuen, bileretan.

172. Hernaniko ikastola (HER-006/033)

Hernaniren kasuan, ikastolaren sorreran ez zuten apaizek esku hartzerik izan, gurasoek baizik. Enseñanzas del Urumea ikastola zen. 1963ko urrian hasi zen han praktikak egiten eta maiatzaren 1ean lanetik bota zuten.

173. Karmele Esnalekin (HER-006/035)

1964an Karmele Esnalengana joan ziren ikastolakoak, Eulali ikasle moduan har zezan. Jone Forkada eta Karmele Esnalekin bilerak egiten zituzten Urgulen.

174. Santo Tomas lizeoko akademia (HER-006/038)

1967-1968ko ikasturtea abenduan bukatu zuen Hernanin. 1968an Donostiako Santo Tomas lizeoko akademian hasi zen. Akademiaren historia kontatzen du. Karmele Esnal Santo Tomasen nola hasi zen aipatzen du.

175. Seme-alabak berakin ikastetxez ikastetxe (HER-006/040)

Bere seme-alabak berak lan egin izan duen ikastetxeetara eraman izan ditu, baita beste ume batzuk ere, gurasoek hala eskatuta.

176. Neskamea etxean (HER-006/041)

Neskamea eduki izan du beti. Alabari horixe gomendatu izan dio. Neskame euskaldunak eta bertakoak hartu izan ditu.

177. Santa Barbarako eskopeteroak (HER-006/044)

Santa Barbarako eskopeteroen historia jaso dauka. Labur-labur kontatzen du. Argazki zaharrak bildu izan ditu eta artxibo handia dauka.

178. Zipitriaren otoitzak eta olerkiak (HER-006/049)

Zipitriarekin ikasitako otoitzak gogoan ditu. Bat abestu egiten du. Gerora otoitzen kontua bukatu egin zen eta abestiekin hasten zuten eguna. Olerki bat kontatzen du. Gustora aritu izan da beti irakasle.

179. Ereñozuko eskola (HER-007/002)

Ereñozuko eskola izan zen eraikinari buruzko kontuak; nolakoa zen. Bota egin zuten. Irazusta familia bizi izan zen han. Kaxilda Lizeaga maistra ere bai. Karrera gabekoa zen.

180. Eskolako giroa I (HER-007/003)

11 urterekin ezkola utzi eta morroi joan zen. Fraide edo morroi joateko ohitura. Eskolan ikasi zuena. Maistraren zigorrak, makilarekin zirti-zarta eta belauniko. Ikasmateriala. Pluma nola garbitzen zuten, ilean igurtzita. Orduko orrazkera.

181. Eskolako giroa II (HER-007/004)

Eskolako ikasmateriala. Pizarra, puntak, koadernoak... etxean egindako poltsa batean eramaten zituzten. Azterketarik ez zuten. Edade askotakoak batera izaten ziren.

182. Erdaraz jakin ez; soldaduskako kontuak (HER-007/005)

Erdaraz ez zekiten. Dena euskaraz egiten zuten. Franquismoa. Soldadu joan zenean, Oiartzunen, izan zituen arazoak: errieta egin zioten, ez zuelako "usted"-ka hitz egiten. Donostian egin zuen soldaduska. Aiako harri inguruan errepideak egiten. Gosea pasatu zuen, bera sukaldean egon arren lanean.

183. Soldaduskan egurra mozten (HER-007/006)

Soldaduskan egurra mozten ibili zen. Badaki egurrari non jo, txikitzeke, eta gustatu egiten zaio. Sargentua gustura zegoen berarekin. Kabo bat kontra jarri zitzaion, zerrenda pasatzean ez zelako egoten.

184. Txikitzeke eta sutarako egur onak eta txarrak zein diren (HER-007/008)

Aizkorarekin txikitzen zuen egurra; berak zorrozten zuen. Gaztaina izaten zen soldaduskakoa. Zein egur den txikitzeke zaila: eukaliptoia eta mimosa. Sutarako egur txarrak eta onak zein diren.

185. Aizkora apostuan ibilia (HER-007/009)

Aizkora apostuan ibili izan da. Zikuñagako festetan tranpa egin ziotela dio, enborrean iltzeak sartu zizkiotela.

186. Aposturako afizioa (HER-007/010)

Aposturako afizio handia zegoen. Korrika ere bai. Ereñozun egindako apostu bat azaltzen du. Galtzen zuenak arkumea ordaindu behar zuen. Beti ez zen dirua apostatzen.

187. Apostuetan irabazi baino gehiago galdu (HER-007/012)

Apostuetan frontoian galtzen zen diru gehien. Frontoian etxea galdu duenik ere bada. Idi apostuan ibiltzen zen bera.

188. Idi apostuak gustuko (HER-007/014)

Idi apostuak gustatzen zitzaizkion. Batzuetan dirua jokatzeko zuen, baina gutxitan. Egun batean bi apostu irabazi zituen; egun horretako gorabeherak kontatzen ditu.

189. Gaztetako bihurrikeriak (HER-007/018)

Pikuako Pakorekin Astigarragako plazara joan zen, harriak mugitzera, gauez. Zapata han utzita bueltatu zen laguna. Erramu egun batean egindakoa kontatzen du, kaldera handi bat lekuz mugitu zutenekoa.

190. 11 urterekin morroi (HER-007/020)

Morroi lanak. Oilalumara joan zen 11 urterekin. Lasarteko Xuxperri baserrira gero eta ondoren Zikuñagan, eliza ondoan. Industrian hasi zen orduan, eta Lastolara joan zen bizitzera.

191. Lan zikina, zelofan lantegikoa (HER-007/021)

Lan txarra zen zelofana egitea, sosa kaustikarekin ibili behar zutelako. Lantegiko lankide batek izan zuen istripua kontatzen du.

192. Lantegian izandako istripua (HER-007/022)

Lantegian izan zuen istripua kontatzen du, behatz punta galdu zuenekoa.

193. Gaztetako ibilerak; Goizuetara bizikletan (HER-007/023)

Ereñozura ezkondu zen, Larregainera. Emaztea txikitatik ezagutzen zuen. Gaztetako ibilerak. Oilalumera joaten ziren. Goizuetara ere bai, bizikletan, soinua bizkarrean hartuta. Han neskekin dantzan ibiltzen ziren, eta bertako mutilek harrika egiten zieten. Bueltako bidean ardiak egoten ziren errepidean etxanda, eta hura ere arriskutsua zen, bizikletak argi gutxi egiten zuelako.

194. Garai bateko bilerak (HER-007/025)

Bilerak non izaten ziren: Oialume, Txikierdi, Benta Berri... Neska laguntzea.

195. Larregain sagardotegia (HER-007/030)

Larregainen sagardoa egin dute beti. Tolare zaharra hor dute oraindik. Botiletan jartzen zuten, eta gero txotxean hasi ziren; 1991ean jarri zuten sagardotegia.

196. Sagardoa egiteko prozesua (HER-007/032)

Sagardoa egiteko prozesua, gaur egun. Sagarra garbitu, eta matxakara bideratu, zinta batean. Irakiten duenean, depositoa tapatu egin behar da. Sagardoak irakitean ateratzen duen hotsa. Ilbeheran enboteilatu behar da eta upela estali ere bai. Ilargi aldaketen eragina.

197. Ilargiaren garrantzia (HER-007/033)

Sagardogintzan, erditzeetan... denean eragiten du ilargiak. Arbolak noiz bota: pagoa, haritza, platano beltza, altza... Lehengo aulkiek ezdute pipirik izaten. Aulkigintza. Transmisioa. Adi-adi egoten ziren adinekoei entzuten; orain, berriz, gazteek ez diete jaramonik egiten.

198. Garai bateko borrokak eta basakeria (HER-007/034)

Etxean entzundako kontuak. Astigarragako gizon baten pasadizoak eta borrokak. Basatiak ziren batzuek. Emakume bat hiru aldiz saiatu ei zen moja joaten, eta ez ei zuten hartzen. Bikarioak gizon gaizto batekin ezkontzeko esan zion; hala egin zuen, eta baita gizona domatzea lortu ere.

199. Sorginen kontuak (HER-007/035)

Sorgin kontuak. Anaiak behin ikusi omen zituen. Berari ez zaizkio sekula agertu. Eibarren pistolak egiten hasi zirenean galdu omen ziren sorginak.

200. Sagar jotzea txalapartaren jatorri? (HER-007/036)

Txalapartaren jatorria. Sagar jotzea nola egiten zen antzina. Aspalditik daude sagarra txikitzeko makinak, baina lehen eskuz egiten zen. "Pats-oholak" eta "txorruak".

201. Sagarra estutzeko makinak (HER-007/037)

Sagarra estutzeko lanak, lehen eta orain. Oraingo makina modernoak nolakoak diren. Sagardoak burnia eta hormigoia jan egiten ditu. Inoxidablea.

202. Txirritaren kontuak (HER-007/040)

Garai bateko bertsolariak. Txirrita ezagutu zuen, baina berak 11 urte zituela hil zen. 150 kilo ei zituen. Nola hil zen. Oraingo bertsolariak eskolatuak dira, lehengoak ez.

203. Tolarea erakusten (HER-007/044)

Tolarea erakusten.

204. Sagar motak (HER-007/046)

Sagar motak aipatzen ditu.

205. Sagardoa egiteko prozesua (HER-008/003)

Txabolategi baserriaren egitura nolakoa zen kontatzen du. Aldapa handian egindakoa zen. Sagardoa egiten zuten eta prozesua kontatzen du, tresnen izenak aipatuz.

206. Sagardoa nola egiten zuten (HER-008/004)

Sagardoa nola egiten zuten kontatzen du, tresnen izenak aipatuz.

207. Zizarra, sagar ondu gabeekin (HER-008/005)

Iraila-urria aldean batzen zen sagarra. Aurrenekoa zizarra izaten da, sagar ondu gabearekin irtetzen den zukua. Zipotza zer den kontatzen du.

208. Hernaniko sagardotegiak, lehen eta orain (HER-008/006)

Hernanin orain baino sagardotegi gutxiago izaten ziren. Zeintzuk ziren eta oraingoak ere aipatzen ditu.

209. Sardin zaharrak eta sagardoa (HER-008/007)

Sardin zaharraren ogitartekoa hamar zentimoan ordainduta jaten zuten sagardotegian. Sagardoa, berriz, edalontziko kobratzen zuten.

210. Pinuak bota, zatitu eta zuritu (HER-008/010)

Pinuak bota, zatitu eta zuritzen aritzen zen. Lan horietarako erabiltzen ziren tresnak izendatu eta azaltzen ditu.

211. Bere bizimoduari buruzko bertsoa (HER-008/011)

Bere bizimoduari buruzko bertsoa botatzen du.

212. Txabolategi eta Txirrita bertsolariak (HER-008/012)

Bertsozalea da. Txabolategi izeneko bertsolaria ere izan zen. Txirritaren umorezko bertsoa kantatzen du. Txirrita ezagutu zuen eta gogoan du nolakoa zen.

213. Gerra denboran beldurrez (HER-008/013)

Gerrako lehen egunak. Onddi mendiko tiroak etxeraino heltzen zitzaizkien. Beldurra pasatu zuten, erreketeeek jendea hil egiten zutela esaten zuten eta. Ugaldetxoko zubia bota egin zuten dinamitarekin.

214. Gerra garaian bazuten elkarren berri (HER-008/014)

Gerra garaian ere jakitzen zen baztarretan gertatutakoaren berri. Egunkariak ere zabaltzen zituzten berriak. Gernikatik inguruko baserri batera ihesi etorri ziren eta berak baserriko lanak egiten zizkien, morroi moduan.

215. Hamazazpi urterekin ikazkin (HER-008/015)

Hamazazpi urterekin ikazkin lanetan hasi zen. Zein ingurutan ibili zen kontatzen du. Egunez zazpi pezeta irabazten zituen. Baba izaten zen jateko nagusia.

216. Txondorra nola egiten den (HER-008/017)

Txondorra egiteko prozesua pausoz pauso azaltzen du zehatz-mehatz.

217. Txondorra zaintzea eta iruya (HER-008/018)

Txondorra etenik gabe zaindu behar da, tapatuz, kontu handiz. Hamabost bat egunez sutan egoten da. Ikatx xehea ateratzen da lehenengo, "Iruya". Bahean garbitzen zuten. Gero zakuetan sartzen zuten ikatza eta mandoekin eramaten zuten.

218. San Adrianen ikazkin (HER-008/019)

San Adrianen, Aizkorri bidean, ikatza egiten aritzen zen. Inguru hura nolakoa zen kontatzen du. Oartzuar batentzat egiten zuten ikatza.

219. Ikatza mandoekin eramaten (HER-008/020)

Mandozaina "Xulua" izenekoa zen. Zegamara jeisten zuten ikatza mandoekin eta handik ibilgailuetan eramaten zuten.

220. Ikatza egiteko tresnak (HER-008/021)

Bost lagun aritzen ziren ikatza egiten. Erabiltzen zituzten tresnak izendatzen ditu.

221. Soldadutzan sufritua (HER-008/022)

Hiru urtez ikatza egiten aritu ostean, soldadutzara joan behar izan zuen, Berangora. Asko sufritu zuen. Oso gaizki jaten zuen. Erdaraz ez jakitearren asko sufritu zuen. Euskaraz egitearren hogeita bi egunez zigortu zuten. Etxetik ia ez ziren irtetzen eta ez zuten gazteleraz ikasten.

222. Petrokimikan lanean (HER-008/025)

Soldadutzatik bueltan, lantegiak egiten hasi zen. Hogeita bat pezetako jornalaz zeukan. 1952an lantegi barrenean hasi zen lanean, petrokimikan, egunero. 1955ean ezkondu zen. Hogeita hamabost urte pasatu zituen lanean.

223. Ahoko soinua jotzen (HER-008/026)

Emaztea auzokoa zen; beti elkarrekin ibiltzen ziren gaztetan. Ezpainetako soinua jotzen zuen berak eta gerra garaian hala egiten zuten lagunartean dantzan.

224. Eltzeko gazta edo gazta ustela jaten (HER-008/029)

Aranoko denda batera joaten ziren gazte denboran, Maestrania izenekora. Eltzeko gazta edo gazta ustela izenekoa jaten zuten han eta ardo beroa edan ere bai.

225. Zubietako jaietan etxez etxe soinuarekin (HER-008/031)

Zubietan etxez etxe joaten ziren soinuarekin eta etxeetan jan-edana ematen zieten, gailetak eta anisa.

226. Idiekin argindar posteak eramaten (HER-008/033)

Hamabi urterekin idiekin arrastaka hormigoizko puskak eramaten aritu zen eta argindar posteak eta kableak ipintzen zituen.

227. Ikatza eta bestelako produktuak (HER-008/039)

Latxeko fabrika zer zen kontatzen du. Labeetan ikatza eta beste produktu batzuk egiten zituzten. Likidoak Bermeora eramaten zituzten eta ikatza inguruan saltzen zuten. Burdinolak eta harrobiak non zeuden kontatzen du.

228. Atsolorra nolakoa zen (HER-008/045)

Atsolorrak nolakoak izaten ziren kontatzen du. Auzoak ganbaran elkartzen ziren, berrogei emakume inguru, eta otorduren bat egin, sagardoa edan eta jokoan aritzen ziren. Etortzen zirenek opariak edo zerbait emateko ohitura izaten zuten.

229. Trabukoren pasadizoak (HER-008/047)

Trabukoren pasadizoak kontatzen ditu. Estraperloan aritzen omen zen eta perrak beste aldera jartzen zizkien animaliei, bera ez harrapatzearren.

230. Doara jotzen (HER-008/049)

Doara, txalapartari esaten zioten lehen. Ezkontzetan jotzen zuten.

231. Pilotako apretak eta morroi-lanak umetatik (HER-009/002)

Pilotara jokatzeari gustatzen zitzaizkien; apretak erabiltzen zituzten, baina puskatzen zituztenean, moldatzen ziren berriro erabili ahal izateko. 9 urte zituela morroi joan zen eta 4 urte eman zituen han lanean. Amonari laguntzen ibiltzen zen orduan.

232. Tifusak eta perretxikoek denbora gutxian familia osoa gaixotu (HER-009/003)

4 urte eman zituen morroi-lanetan eta etxera itzuli zenean, familia osoa arreba bat ezik tifusarekin gaixo zegoen. Lehen pneumonia harrapatuz gero, ez zuten urik edaten; medikuntza asko hobetu da ordutik. Tifusa harrapatu aurretik, perretxikoak jateagatik oso gaixo egon ziren bere familian. Mediku batek hiltzat eman zuen Esteban; baina geroago beste mediku bati deitu zioten, eta hark "Insalus" ura eta olioak edateko esan zien. Eskapada handia izan zen hura.

233. Arreben eta aitaren lanbideak familia aurrera ateratzeko (HER-009/005)

Aitona-amonak beraiekin bizi ziren baserrian. Arrebak etxean aritzen ziren lanean paper-fabrikarako. Aitak porlan-fabrikan egiten zuen lan.

234. Lehen ez zen hobeto bizi (HER-009/006)

Lehen go bizimoduari buruzko usteak okerrak direla uste du. Janaria merkeagoa izanda ere, diru gutxiago zegoen hura erosteko. Orduko prezioak aipatzen ditu. Beraiek errentan bizi ziren, eta hura ordaintzeko ere dirua behar izaten zen.

235. Eskolan egurra moztu eta euskarazko liburuak erretzeko agindu guardia zibilak (HER-009/009)

Eskolan egurra mozten aritzen ziren eskolarako eta maistrarentzat. Hasiera batean euskarazko liburuak erabiltzen zituzten dotrinarako, baina guardia zibilak etorri eta liburu haiek denak erre zituzten. Orduan gaztelaniazko liburuak erabiltzen hasi ziren.

236. Eskolako materiala eta gau-eskolako gaiztakeriak (HER-009/011)

Eskolara liburuak eramateko, amak poltsa egiten zien. Poltsa hartan liburuak eta arkatza eramaten zituzten. Eskola bukatu eta gero, gau-eskolan ibili zen. Hango maistrak txakur zuri bat zuen, "Blantxi"; behin mutil batek zakurra tintarekin pintatu zuen.

237. Fabrikan ikasteko aukera bai, baina gogorik ez (HER-009/013)

Gau-eskolara iluntzean joaten ziren bi orduz. Fabrikan ikasteko aukera izan zuen, baina gogorik ez.

238. Ezkonbizitzarako prestatzen (HER-009/015)

Ezkondutza nahi zuten, baina dirurik ez zuten. Lehen fabrikan irabazitako diru guztia amari ematen zion, eta hortik kanpo lortutakoa izaten zen beretzat. Diru pixka bat bildutakoan, logela erostera joan ziren emaztea eta izeba.

239. Franco etorri zenean, ate nagusitik ziegara (HER-009/020)

Soldadu zegoela, behin Franco etorri zen eta ate nagusian egotea tokatu zitzaion; azkenean, ordea, ziegan egon behar izan zuen Franco joan bitartean.

240. Alferezaren laguna izateagatik, ziegatik mesede eske (HER-009/022)

Behin alferezarekin guardia egitea tokatu zitzaionekoan kontaktatzen du: ziegan zegoen mutil batek, Esteban alferezaren laguna zela baliatuta, patiora irteten laguntzeko eskatu zion. Azkenean, atera bai, baina bazterrak nahasi zituen.

241. Soldadutza tiroan eta aisialdian ehizan (HER-009/024)

22 hilabete egon zen soldadutza. Egunero etxean egoten zen, bizikletaz joaten zen "soldadutzara" tiroak egiteko entrenatzera. Ehizarako zaletasuna

izan du beti. Lehen usoak, oilagorrak, basurdeak... harrapatzen zituzten ehizan. Lehen orain baino balio handiagoa zuen zenbait animalia harrapatzeak.

242. Errekako arrantza eta guardaren zori txarra (HER-009/025)

Arrantzan asko ibilitakoa da Esteban, errekan gehienbat. Behin, arrantzako arauak betearazten aritzen zen guarda hil egin zuten Añarbe ibaian.

243. Arrain ikaragarria harrapatu zuenekoa (HER-009/027)

Esteban kanaberarekin aritzen zen arrantzan. Esku-arrantzan aritzeak beldurra ematen zion. Behin amuarrairain ikaragarria harrapatu zuenekoa kontatzen du.

244. Arrainen gustuko amuak jakin bai, baina askoz amuarrairain gutxiago gaur egun (HER-009/028)

Arrantzarako kanabera, amua eta pita erabiltzen zuen. Amuan zizarea eta gazta jartzen zuen. Lehen orain baino askoz amuarrairain gehiago zegoen. Araztegiek hobetu dute uraren kalitatea, baina hala ere, uholdeak direnean, fabrikek zikinkeria guztia botatzeko aprobetxatzen omen dute.

245. Ibaian neska itotzear zegoela atera zuenekoa (HER-009/030)

Lehen ibaian bainatzen ziren. Behin neska bat atera zuen uretatik itotzear zegoela; atera zuenean konorterik gabe zegoen, baina lortu zuten neska hura bere onera ekartzea.

246. Mendian kanpin-dendan lo ezin egin (HER-009/035)

Behin, gaztea zenean, Berastegira joan zen bi lagunekin; bidean kanpin-denda jarri zuten, baina gizon batek ez zien utzi han gelditzen. Lagunak orduan mando bila joan ziren herrira, beste mendira pasa ahal izateko. Handik urte askotara, mendian lo egiten utzi ez zien gizona ezagutu zuen Estebanek.

247. Telefonoa pixkanaka sartu herrian (HER-009/036)

Lehen ez zegoen telefonorik. Inguruko lehenengo telefonoa apaizak jarri zuen; hurrengoa taxi-gidariak... Ganadua izateagatik berari diru-laguntza eman zioten telefonoa jartzeko.

248. Odolkiaren usaina bai, baina odolkia non? (HER-009/039)

"Potajes al da?" istorioa kontatzen du. Hamaiketakoan potajeak zeuden jateko, baina odolkirik ez, lehenago jana baitzuen sukaldariak. Amona eta aitona igandetan gaztaina erreak saltzen aritzen ziren elizaren sarreran, eta bukatutakoan pieza bat dantzatu eta kantatzen zuten.

249. Txilibitako giro ona (HER-009/042)

Oiartzun aldetik ere etortzen zen jendea mezara hanka hutsik eta gero tabernara. Jende asko egoten zen tabernan. Baserriaren egoerak kezkatu egiten zuen Esteban, erori egingo zen beldurra baitzuen. Giro ona egoten zen Txilibitan: soinu-jotzaileak eta dantza.

250. Gerra nola bizi izan zuten (HER-009/044)

Gerran gosea pasa zuten. Gerra hasi zenean, tankeak etorri ziren, aita harrapatu zuten eta beraiekin batera eraman zuten, baina ilunabarrerako askatu zuten. Errepideak moztu egin zituzten. Etxetik ez ziren irteten gerra garaian. Hernanin izandako fusilamendu bati buruz hitz egiten du.

251. Pagoagako eskolan (HER-010/003)

Pagoagako eskolara joaten zen. Maistrak sei seme-alaba zituen, bat hil egin zitzaion eta hiru fraide sartu ziren.

252. Dionisia irakaslea (HER-010/004)

Algorrirainokoa zen auzoa. Algorrikoak Aranora joaten ziren eskolara. Dionisia irakasleak euskaraz egiten zien. Pasadizoa kontatzen du.

253. Eskolara baino etxean nahiago (HER-010/005)

Eskolan erabiltzen zuten liburua handia zen. Ez zuen eskolarako gogorik izaten, etxeko lanetan aritzea nahiago izaten zuen. Neska-mutilak batera egoten ziren. Maistraren semea neskekin ibiltzen zen beti eta haiekin eskulanak egiten jarri zuen.

254. Trapu zaharrekin egindako motxila (HER-010/006)

Eskolako zigorrak: maistrak jo, eskuekin liburuak eutsiarazi... eta horrelakoak egiten zituen. Trapu zaharrekin egindako poltsaren batean eramaten zituzten eskolako gauzak: Lapitzak, lumak... Lapurretan egin zuen behin Ugaldetxon.

255. Orduko ogia (HER-010/007)

Talorik ez zuen jan nahi izaten eta ogia ematen zien amak. Ogiak nolakoak ziren kontatzen du. Pagoagara joaten ziren ogi bila. Pasadizo bat.

256. Txotxaketan jolasean (HER-010/009)

Harrapaketan aritzen ziren. "Txotxaketan" ere ibiltzen ziren; nola jolasten den aipatzen du. Lustre-kaxekin jolasten zuten.

257. Erregeetan mazapana opari (HER-010/010)

Erregeetako oparia mazapana izaten zen. Sugearen itxura izaten zuen eta kaxa baten barruan ekartzen zuten. Maistrak estutxe bana oparitzen zien opor aurrean.

258. Pilotan Pagoagan (HER-010/011)

Pilotan aritzen ziren hamar-hamabi urterekin. Ogi bila joaten zirenean, pilotan aritzen ziren. Pasadizo bat.

259. Enkarguak egitera (HER-010/012)

Enkarguak ahaztu egiten zitzaizkion. Etxean sukaldean behar zirenak eroatera joaten zen. Anaiak eta biek ez zuten talorik jaten. Beti ogi koxkorren baten bila aritzen zen ama. Pasadizo bat kontatzen du. Okina oriotarra omen zen, arraunlaria.

260. Okinak kotxez eta zalgurdian (HER-010/013)

Okin bat kotxez ibiltzen zen batetik bestera, gidari batekin batera. Bazen zalgurdiarekin ibiltzen zen beste bat ere. Haren pasadizoa kontatzen du.

261. Etxerako angulak bidean jaten (HER-010/014)

Arrain saltzailea zalgurdiarekin ibiltzen zen. Donostiatik ekarritako arraina saltzen zuen. Inguruan bakarra zen. Angulak baziren, Juanitak bidean banaka-banaka jaten zituen. Enkargu txikiak egin behar izaten zirenean, Juanita joaten zen eta okinarekin batera etxeratu. Enkargu handietarako berriz, ama bera joaten zen egun osorako.

262. Sakamantekasa (HER-010/015)

Kotxerik ikusten ez zen garaian, kotxeren bat ikusiz gero, Sakamantekas izango zela pentsatzen zuten, umeak lapurtu eta koipea kentzen ziena. Juanitak ikusi zuela kontatzen du eta entzuna duela umeren bat eraman zutenekoa. Sakamantekasi beldur handia izaten zioten.

263. Sorginak, maindirez estalitako emakumeak (HER-010/016)

Gauetz sorginak ibiltzen zirela ere kontatzen zieten; emakumeak izaten zirela eta eskopetak agertu zirenean, desagertu egin zirela. Itturraldekoa maindireekin estalita irtetzen omen zen. Horrela ibiltzen omen ziren sorginak. Aranon gertatutakoa kontatzen du. Besteak ikaritzen aritzen omen ziren.

264. Zakurraren eta bide bazterreko neskaren kondairak (HER-010/017)

Zakurraren zaunkek apaiz kondenatuagatik izaten omen ziren. Kondairaren oinarria azaltzen du. Ba omen zen emakumeren bat paseoan edo kotxean zihoazenei bide bazterrean agertzen zitzaiena.

265. Ezkontza eta pregoi-afaria (HER-010/018)

Hogeita bost urterekin ezkondu zen. Urte batzuez nobio izan ziren. Batzuek bazkaria ematen zuten baina beraiek ez, anaia hilberria baitzuten. Pregoi-afaria ematen zitzaien gazteei baina hori ere ez zuten eman. Anaia nola hil zen kontatzen du.

266. Doluarekin beltzez jantzita (HER-010/019)

Doluarekin beltzez jantzten ziren, baita belarritakoak ere. Ezkontzako argazkiak ateratzeko mantilla aldatu zuen. Denak beltzez jantzita joan ziren. Etxekoren bat hilez gero, urtebetez dolua egiten zen eta beste urtebetez erdi-dolua, zuri-beltzez jantzita. Sei urte pasatu zituen doluarekin, ahizpa eta bi anairen heriotzagatik.

267. Ijitoek amona jan zuteneko kondaira (HER-010/021)

Kondaira bat kontatzen du: elurte handi batean, ijitoak gosez zirela, amonak berak hil eta jan zezaten eskatzen omen zien. Hala egin omen zuten azkenean.

268. Ijitoekin gertatutakoak (HER-010/022)

Ijitoen kontuak. Lehen eskean ibiltzen ziren eta amak esaten zion ezer eman gabe ez uzteko. Pasadizo batzuk kontatzen ditu.

269. Goizuetako Mikaela, emakumea eta gizona (HER-010/023)

Goizuetan ba omen zen Mikaela izeneko pertsona bat, emakumea eta gizona, bietarakoa zena. Emakumeen jantziak erabiltzen zituen.

270. Baltsean eginez gero, zigorra (HER-010/025)

Baltsean ibiltzea ez zen libre izaten. Bi-hiru neskazahar aranoar begira egoten ziren eta apaizari esaten omen zioten nor aritzen zen baltsean. Zigorra kongregaziora ezin joanda gelditzea izaten zen. Dantzarik egin ezin zen egunetan, Aste Santuan esaterako, Pikorrarenera joaten ziren.

271. Goizueta gustoko (HER-010/026)

Pikorrarenera joaten zirenean, soinujotzailearekin joaten ziren. Goizuetara ere joaten ziren. Gaueko suzko zezena gustatzen zitzaion. Goizuetarren hizkera gustatzen zaio. Anekdotak bat kontatzen du. Gazte-gaztetan ez zioten joaten uzten.

272. Kontrabandoko pasadizoa (HER-010/028)

Kontrabandoko kontuak. Pagoagan mikeleteak egoten ziren eta Pikuakoak zahagi ardoa pasatua zuenez, etxea erregistratzera joan ziren. Amona handiak gonapean omen zeukan ezkutuan zahagia eta ez omen ziren begiratzera ausartu.

273. Diru faltsua eman ziotenekoa (HER-010/030)

Diru faltsua ibiltzen zen. Pepita eta biek gurdia jasotzen lagundu zioten bati eta hamar zentimoko bana eman zien, baina diru faltsua zen. Trabukori buruzkoak entzunak ditu baina ez ditu gogoan.

274. Astalepo, bapo jan (HER-010/031)

Astalepo, asko jaten zuenari esaten zioten. Esaera zaharrak ez ditu gogoan.

275. Ubarreto baserriko kontuak (HER-010/032)

Ubarreto baserriko kontuak. Panderojolea zen bat. Ezkondu zenean, bertara joan zen bizitzera Juanita. Jende asko ibiltzen omen zen basoko lanetan orduan eta Juanitak jaten ematen zien.

276. Artzaiaren kontuak (HER-010/033)

Ezkondu eta hilabete batzuetara, artzai bat etorri zen eguraldi txarrarekin eta beraien etxean pasa zuen gaua. Sukaldean egon zen egun osoan. Makina bat kontu kontatu zizkion. Aipatzen ditu batzuk.

277. Latxeko nagusia gerra garaian ihesi (HER-010/037)

Latxen ere egiten zen ikatza eta ozpina. Langile asko izaten zituen. Gerra garaian Latxeko nagusiak ihes egin zuen soldaduek eraman aurretik, norbaitek mendiz bestaldera eramanda. Nagusiarekin lan egiten zuen bat kartzelaratu egin zuten. Fusilatua izatetik nola libratu zen kontatzen du.

278. Gerra hasi zenean (HER-010/038)

Gauetik goizera jakin zuten gerra zetorrela. Aranotik tiroka hasi ziren. Gaua etxetik kanpo pasatu zuten.

279. Ugaldetxoko zubia (HER-010/039)

Hernanitik Ugaldetxora igotzen ziren gudariak. Jende askok alde egin zuen eta ondasunak galdu. Ugaldetxoko zubia bota zutenekoa.

280. Hegazkinak tirokatzearen fusilatua (HER-010/040)

Hegazkinari tiroka aritu zen bati buruzko kontua. Argazkiak ateratzen zituzten hegazkinetatik eta emazteari esan zioten senarrari argazkia atera ziotela. Etxera joandakoan, senarra falta zuen, fusilatu egin zuten eta. Lau umerekin geratu zen.

281. Aparraingo komunak eta ura (HER-010/046)

Aparraingo komuna. Baratze aldera ematen zuen atearen ondoan zegoen komuna. Aldameneko etxeetako batek egur zaharrez itxitako komuna zeukan eta besteak bat ere ez. Sukaldera ura ekarri egin behar izaten zuten baldeetan. Anekdotak bat kontatzen du.

282. Errioan aingirak harrapatzen (HER-010/047)

Aingirak jan egiten zituzten. Errioan sardexkarekin aingirak harrapatzen aritzen ziren. Anaia esku-arrantzan aritzen zen, baita sareak botatzen ere. Zaindaria ibiltzen zen haien atzetik. Behin amuarrairak harrapatzeko txingak egiten ari zen batengana joan ziren.

283. Txilibita, baserriaren izenaz (HER-011/002)

Ereinozu du berezko izena baserriak baina "Txilibita" izenez da ezaguna. Aitonak txilibitua jotzen zuelako darama izen hori.

284. Senide gazteentzat ama (HER-011/003)

Aita eta amaren jatorria. Hamahiru senide ziren eta bera zaharrena zen. Txikienek ama Inaxi zela pentsatu zuten urte askoan.

285. Zalgurdian autobusera (HER-011/004)

Etxeko zereginak beregain zeuden gehien bat. Ama zaldiarekin eta gurdiaekin eramaten zuten autobusa har zezan Donostiara joateko. Handik arraina ekartzen zuen amak auzoan saltzeko.

286. Bizikleta gurdiaekin (HER-011/005)

Donostiara joaten hasi zen hamabost urte ingururekin esnea eta barazkiekin. Autobusez ibiltzen ziren. Aitak bizikleta ekarri zion atzean gurdia jarrita eta horrela ibiltzen zen etxetik autobuseraino eta buelta. Orduan zaldia eta gurdia etxe denetan omen zeuden.

287. Igeldo-harria sukaldean (HER-011/013)

Sukaldea deskribatzen du. Igeldo-harria aipatzen du, harrizko harraska, eta txukadera.

288. Alkoba zer den (HER-011/016)

Alkoba zer izaten den kontatzen du: leihorik gabeko gela. Lehengo komuna nolakoa zen kontatzen du. Gorotzetarako erabiltzen zuten.

289. Haur txikien etorrera (HER-011/018)

Etxean haur txikiak jaiotzen zirenean, nola bizitzen zuten kontatzen du. Auzoko andrea edo haren ahizpa eta medikua izaten ziren erditzean.

290. Ama izan berria, teilarekin atera behar (HER-011/020)

Haurra jaiotzean, entzuna du haurrarekin elizan sartu aurretik emakumeak ezin zuela etxetik irten, eta irtenez gero, teila bat buruan jarrita irtetzen zela.

291. Zaku bete irin lortzeko lanak (HER-011/023)

Okinak ekartzen zuen auzora ogia. Neguan taloa jaten zuten. Aitak paper-lantegian egiten zuen lan. Zaku bete irin lortzeko zer komeria egin behar izaten zituzten kontatzen du.

292. Pagotxa nolakoa den (HER-011/024)

Ibarluzen erribera handiak zeuden. Ingelatierra izenez ezagutzen zuten inguru hura. Artoa, babarruna eta pagotxa ereiten zituzten. Pagotxa abereentzat ereiten zuten. Erremolatxa, alpapa, garia eta beste hainbat ereiten zuten.

293. Otelorea abereentzat (HER-011/025)

Neguan otelorea bildu eta matxetearekin txikitzen zuten abereentzat.

294. Berroa biltzen (HER-011/027)

Baratzean porrua, tipula, azelga, aza, azalorea, eskarola... izaten zituzten. Berroa bide bazterretan batzen zuten, baita Leitzaraino joanda ere.

295. Bretxako postuak (HER-011/029)

Barazkiekin Bretxara joaten ziren. Nolakoa zen kontatzen du. Postua izatearren ordaindu egiten zuten.

296. San Antonio festetan, etxea jatetxe (HER-011/031)

San Antonio festetan, langileek astea jai hartzen zuten. Garagardoa, ardoa eta limonada edaten zen. Sukaldaria ekartzen zuten kanpotik. Soinu-jotzailea goizean goizetik aritzen zen. Laurogei lagunetik gora izaten zuten jatorduetan. Bertsolariak ere izaten ziren.

297. San Antonio festetan nola ibiltzen ziren (HER-011/032)

Festetan mahai bat jartzen zuten eta jatorduak ematen zituzten etxean baina ez zen taberna. Urik ez eta barriñoan garbitzen zituzten ontziak. Dantza asko egiten zen soinujolearekin, gauerdia arte.

298. Bilarak eta bizikletako patentea (HER-011/033)

Bilarak dantzarako lekuak izaten ziren, baserrietan eta tabernetan moldatzen zirenak. Bizikletak zerga izaten zuen, patentea, eta pegatina jarri behar izaten zitzaion. Bentaberrira eta Oialumera joaten ziren. Inguruko festetara urtero joaten ziren.

299. Amonaren errifak (HER-011/035)

Aiton-amonen garaiko kontuak. Amonak errifak atera eta txitxarroak zozketatzen zituen. Gaztainak erre eta umeak bidaltzen zituen saltzera amonak. San Antoniotan erroskilak saltzen zituzten.

300. Sagardoa pausoz pauso (HER-011/038)

Sagardoa egiteko prozesua kontatzen du. Sagarrak bildu eta zaldiarekin tiraka leran ekarri, pitxoiarekin txikitu eta gero estutu. Tinilarekin kupela bete. Hilabete inguruz irekiten utzi ondoren tapatu.

301. Etxeko sagarra onena (HER-011/039)

Sagardotarako sagarra. Kanpoko sagarrarekin ez da sagardo onik ateratzen. Etxean izaten zituzten hainbat sagar-klase aipatzen ditu. Kupela noiz itxi jakitzeko probatu egiten zen. Oraingo sagardotegiekin sagar asko ekartzen dute kanpotik.

302. Arto landarearen zatiak (HER-012/003)

Txurikina zer den eta arto landarearen zatien izenak azaltzen ditu.

303. Erribera (HER-012/004)

Inguruko erroak aipatzen ditu. Artoa eta babarruna zegoen Hernanin asko. Erriberako lurretan garia ez da ondo etortzen. Erribera izena nondik datorren azaltzen du.

304. Goizuetako zilar eta beruna (HER-012/005)

Goizuetako harrobietatik zilarra eta beruna ateratzen zen eta errekek haren zantzuak ekartzen zituen eta erriberako lurra hondatu.

305. Bideak zapaltzen zilindroarekin (HER-012/007)

Eguraldi txarrarekin Itsazpurura arte oinutsik joaten ziren, lokaztua egoten baitzen ingurua. Aldundikoek "zilindroarekin" bidea zapaldu zuten.

306. Abarkak eta amantarrak (HER-012/008)

Abarkak eta amantarrak erabiltzen zituzten. Abarketak garestiak ziren.

307. Añarbera arrantzara (HER-012/010)

Gauetz arrantzan ibiltzea, basurdetara eta gaztainak biltzea gustuko zuen. Añarberaino nondik joaten zen kontatzen du.

308. Amuarrainen arrantza txingekin (HER-012/011)

Amuarrainetarako sareekin, txingekin, Añarbera joaten ziren arrantzara. Anekdotak bat kontatzen du.

309. Izokin artean arrantzan (HER-012/012)

Izokin eta amuarrainak arrantzatzen ibiltzen zen. Izokin artean igerian ibilia dela dio.

310. Kinkia, argia egiteko (HER-012/014)

Kinkia nolakoa den azaltzen du. Argi egiteko etxean egiten zen tresnatxoa zen.

311. Arrosarioa katu artean (HER-012/015)

Iluntzean arrosarioa errezatzen zen eta katuak bueltaka ibiltzen zirela gogoratzen du. Beti aitzakiaren bat behar izaten zuten jolaserako eta umorez aritzeko.

312. Katua jateko (HER-012/017)

Katua jan izan dute. Katu ederren bat ikusitakoan, harrapatu eta prestatzen zuten.

313. Igaraba ehiza (HER-012/018)

Ehizatu izan dituen animaliak aipatzen ditu: urua, basakatua... Igarabarik berak ez baina anaiak bai. Nolakoak diren kontatzen du eta larrua saldu egiten zela.

314. Eltzekondo borrokalariaren idazkari (HER-012/019)

Inglaterra izeneko leku bat dago Hernanin. Eltzekondo izeneko hernaniar bat borrokalari famatua zen, eta haren idazkari izan zen.

315. Izokin arrantza sare eta garrangarekin (HER-012/020)

Izokinak hatzaparrekin harrapatu izan ditu. Sareekin nola harrapatzen diren azaltzen du. Garranga izeneko tresna erabiltzen zuten azkenean.

316. Hernaniko Inglaterra (HER-012/021)

Inglaterra izeneko lekuan, Eltzekondok igarabatarako zepoa izaten zuen urte osoan. Inglaterra toponimoa ingelarekin lotzen du.

317. Hernaniko azken izokinak (HER-012/023)

Gerra bukatutakoan azken izokinak harrapatu zituen. Bazekiten hiru izokin zeudela; handienak 25 libra zituen eta beste biak berak atera zituen. Ezagutu dituen handienak ziren.

318. Ganbaretan sareak egiten (HER-012/024)

Trigiya sarearekin ibiltzen ziren, txanelarekin. Ganbaran bertan egiten zituzten sareak saregileek.

319. Bizikletak estraperloan (HER-012/028)

Bizarra egiteko labanak, makilajeko tresnak, guraizeak... ekartzen zituen Antonioren anaia Florentinok kontrabandoan. Frantzia aldean hiru bat famili lagun egin zituen eta haien umeek pasatzen zuten muga bizikletekin diruaren truke.

320. Gabarrarekin hondarra ateratzen (HER-012/030)

Anaia Florentinori gabarra oparitu zion aitak itsasotik hondarra ateratzeko. Nola egiten zuen kontatzen du.

321. Mugalari lanetan (HER-012/031)

Anaia Florentino mugalaria izan zen. Ingalaterrako konsulak gutunak ematen zizkion eta Frantzian haiek aurkeztuta, jendea pasatzen zuen. Antonio bera ere ibilia da hiru aldiz anaiari laguntzearren.

322. Anaia mugalariari jatekoa eramaten (HER-012/032)

Munilla baserritik gora joanda, zakua uzten zuen jakineko lekuan anaiak ahal zuenean hartzeko, mugalari zebilenean.

323. Tiro eta hegazkin hotsa (HER-012/036)

Gerra ia oharkabea pasatu zuten, aintzakotzat hartu gabe. Tiroen eta hegazkinen zarata nolakoa zen kontatzen du.

324. Hernaniko lehen irratia (HER-012/042)

Almidoi fabrikako nagusiak belgikarrak ziren eta haiek ekarria zen lehenengo irratia. Etxeko zapaian gordeta izaten zuten arto artean eta martxan nola ipintzen zuten kontatzen du. Radio San Sebastian entzuten zuten. Aurikularrekin entzuten zuten. Auzokoak ere irratia entzutera etortzen ziren.

325. Bide motak (HER-012/044)

Lehenengo bideak zein diren: lasterbideak, bidezidorra, bidexindak, estratak... Narra erabiltzen zen estratak txukuntzeko, hiru adarrez osatutako tresna.

326. Gorotz lehorrak kea egiteko erleetarako (HER-012/046)

Bideak harriekin egiten zituzten. Bideetan artaleak ikusten ziren, behien gorotzetan. Udaran behien gorotz lehorrak batzen zituzten erletara joateko kea egiteko.

327. Erlezaintza (HER-012/048)

Taloez eziarekin jaten zuten meriendatan. Erlezaintzaren nondik norakoak kontatzen ditu.

328. Erle motak (HER-012/050)

Erleak ez zituen saltzen, eman egiten ziren. 20.000 erle inguru izaten dira erlauntz bakoitzean. Hiru erle mota izaten dira: langileak, zanganoak eta erregina. Sasiaren lorea bukatzen denean, langileek zanganoak hiltzen dituzte. Langileek berrogei egun lan egin eta hil egiten dira.

329. Erleen erreginaz (HER-012/051)

Erleen erregina udaberri aldera arrautzak jartzen hasten da, 1.000 inguru eguneko. 4-5 urtez jartzen ditu arrautzak, gehienez. Hogeia egunera jaiotzen dira erleak. Antolatuta daude erabat.

330. Erleen erreginak arra nola aukeratzen duen (HER-012/052)

Erleen erreginak birak eta birak ematen ditu ar ahal guztiak erortzen diren arte, indartsuena aukeratzeko.

331. Erle langileak (HER-012/053)

Erle langileek polena ekartzen dute. Neguan geldi egoten direnez, denbora gehiagoz bizi dira. Erlauntza erabat antolatuta egoten da.

332. Erlea gaizki tratatzen da (HER-012/054)

Erlea gaizki tratatzen dela uste du, jateko produktuak eman eta ezta kendu. Erleei bakean utzi behar zaiela dio. Tokia nola bilatzen duten.

333. Kea erleak uxatzeko (HER-012/055)

Kea erabiltzen du erleen artean ibiltzeko baina kontu handiz. Tresna guztiak berak eginak ditu.

334. Erleengana brusarekin (HER-012/056)

Brusa bat buruan jarrita hurbiltzen ziren erleengana. Erlea, ziztatu ostean, hil egiten da, eztena galtzen baitu.

335. Eztia nola ateratzen zen (HER-012/057)

Eztia nola ateratzen zuten kontatzen du. Artilezko koltxoak traiuarekin jotzen ziren. Eztia zakuetan sartzen zuten eta trailuekin estutu eta tiratuta ateratzen zuten.

336. Eztia gordeta (HER-012/058)

Ezti asko dauka gordea, baita duela 30 urtekoa ere.

337. Eztia osasungarri (HER-012/059)

Eztia oso ona dela dio. Katarroarentzat esnearekin da ona. Taloa edo ogiarekin jateko ere oso ona da.

338. Soldadutzako lagunak eta oroitzapenak (HER-013/002)

Ez du soldadutzako oroitzapen ona. Soldadutzan tentsioa hartu ziotenean, Hernani "buena jaula, pero malos pájaros" zela esan zioten. Logroñon egin zuen soldadutza 22 urterekin eta orduan zer lagunekin ibili zen aipatzen du. Behin Arantzazura joan ziren egun-pasa soldadutzako lagun batekin.

339. Eskolan maistrak zapatak ezkutatu zizkienekoa (HER-013/005)

7-12 urte zituela ibili zen eskolan, baina gutxi ikasi zuten. Askotan etxean gelditu behar izaten zuen baserriko lanak egiten. Behin maistrak zapatak ezkutatu zizkien untxiak kobratzera ez joateagatik. Apretak erabiltzen zituzten orduan.

340. Korrikalari onekin lasterketan ibili eta hirugarren gelditu (HER-013/006)

Joxe Mari Garin eta Juan Bautista Adarraga korrikalariei buruz hitz egiten du. Behin, 13 urte zituela, lasterketa batean parte hartu zuen eta masajea eman zioten. Orduko janzkera oso apala zen. Lasterketako egunean etxean jateko berezia prestatu zioten, eta hirugarren gelditu zen. 10 pezeta eman zizkioten saritan. Diru hura amari eman zionean, poz izugarria hartu zuen hark. Gerora ez zuen jarraitu korrikan, baina anaiak bai.

341. Fabrikaz gain, baserrian ere lan egin behar (HER-013/007)

14 urterekin paper-fabrikan hasi zen lanean eta erretiroa hartu arte han ibili zen. Lan-baldintza gogorrak izaten zituzten. Horrez gain, baserrian ere lan egiten zuen. Belarra erraz mozten zuen.

342. Oso kalitate oneko sega erosi zuenekoa (HER-013/008)

Sega oso ona izan du eta oraindik gordeta dauka: Zarautzen erosi zuen eta oso kalitate onekoa atera zen.

343. Herri-kiroletako apustuak lehen (HER-013/010)

Lehen apustuak nolakoak izaten ziren azaltzen du. Gartziarena aizkolariak proba batean irabazi zuen soldadutzako lizentzia.

344. Punta-puntako sega-apustuak (HER-013/012)

Sega-apustueta bi ordu egoten ziren segan. Apustu gogorrak izaten ziren. Iturriotzeko sega-apustua Kontxaren eta Frantziako Tourraren parekoa zen.

345. Apustuan behia jokatu eta galdu (HER-013/015)

Lehen jendeak diru asko jokatzeko apustueta. Behin gizon batek behia jokatu omen zuen eta galdu.

346. Gerrako pobrezia eta janaria (HER-013/018)

Gerra hasi zenean, 8 urte zituen. Tiroak entzuten zituzten. Gerra ostean, pobrezia handia zegoen. Kafe-errotan artoa txikitzen zuten. Txerriak ere bazituzten etxean. Goserik ez zuten pasa; kalekoek bai, ordea.

347. Baratzeko jeneroa Donostian saltzeko egin beharrekoak (HER-013/019)

Baratzea bazuten. Amak goizean astoa hartu, tranbiara joan eta handik Donostiara joaten zen baserriko jeneroa saltzera. Gerora, 1947 aldean, autobusa jarri zuten baserriarrak Donostiara joateko. Tranbian saskiak eramateko beste bagoi bat jartzen zuten.

348. Aralarrera joateko ilusioa (HER-013/021)

Aitajauna artzaina zuen eta bere ilusioa Aralar mendira joatea zen, baina nahia bete gabe hil zen. Bera Aralarrera joan zenekoa kontatzen du. Hango apaizak 56 urte eman zituen bertan apaiz.

349. San Migel nola ekartzen zuten (HER-013/024)

San Migel lehen nola ekartzen zuten azaltzen du.

350. San Antoniotako mando-apustua (HER-013/026)

1940an mando-apustua jokatu zen San Antoniotan: 1.000 pezeta jokatu zituzten, hiru mandori 100 kiloko 2 ohol jarri zizkieten eta 80 m inguru ibili behar zuten.

351. Zinta-karrerara meta-ziriarekin joan zen hura (HER-013/028)

Lehen jendea mezara asko joaten zen. Zinta-karrerak izaten ziren lehen eta nola jolasten zuten azaltzen du. Behin batek meta-ziriarekin hartu zuen parte eta denek barre egin zuten.

352. Asto-karreraren parte hartutakoa (HER-013/029)

Asto-karreratan ibili zen behin, hartarako janzkera berezia prestatuta.

353. Festetara etortzen ziren soinu-jotzaileak (HER-013/030)

Inguruko festetako soinu-jotzaileak aipatzen ditu: Tarragona, Berastegi Txiki, Xatur, Zakarias...

354. Inguruko herrietako festetara nola joaten ziren (HER-013/032)

Lehen bilerak izaten ziren hainbat lekutan: tabernetan, Oialumen, Benta Berrin... Benta Berrira bizikletaz joaten ziren; muga pasatzean mikeleteak egoten ziren han. Estraperloan ibili izan zen Luix bera, baina gutxi.

355. Etxeko elikadura: estraperloko irina eta baratzeako produktuak (HER-013/034)

Osabak irin asko ekartzen zion Luixen familiari. Etxean zer jaten zuten eta nola prestatzen zuten azaltzen du.

356. Saltzaileak auzora etortzen ziren janaria saltzera (HER-013/036)

Hernanira kalera gutxi joaten ziren, auzoan egoten ziren normalean. Igandetan gozoki-saltzailea etortzen zen bizikletaren parrillan gozokiak zeramatzala. Txorroskilteroa pasatzen zen auzotik; eta okina egunero joaten zitzairen zaldi zuri baten gainean, ogia saltzera. Arrain-saltzailea ere etortzen zen.

357. Arropa-saltzailea eta txapelaren onurak (HER-013/039)

Beren auzo ingurura tela-saltzailea etortzen zen mando gainean: galtzak, galtzerdiak, alkandorak... saltzen zituen. Txapela eramanda katarrotik babesten omen da.

358. 'Txirrita'ren bertsoa I (HER-013/040)

Txirritaren bertso bat botatzen du eta haren pasadizoa kontatzen du.

359. 'Txirrita'ren bertsoa II (HER-013/041)

Txirritaren bertso bat botatzen du.

360. 'Txirrita'ren bertsoa III (HER-013/042)

Andoainen kanaleko presa erori zenean, hotz handia egiten zuen, eta Txirrita hara joan zen. Orduan botatako bertsoa abesten du Luixek.

361. 'Txirrita'-ren bertsoa IV (HER-013/043)

Behin kanal bat erori zen, baina Txirrita hargin makala omen zen, eta Andaluziako hargina ekarri zuen nagusiak. Hark, ordea, pareta okerra eraiki zuen, eta Txirritak botatako bertsoa abesten du Luixek.

362. 'Txirrita', tabernan estimatua (HER-013/045)

Txirrita tabernara joaten zenean, lehenengo tragoa bakarrik ordaintzen zuen, ordutik aurrerakoak besteek ateratzen baitzizkioten. Behin tabernara dirurik gabe sartu zenekoa kontatzen du.

363. Lehengo sehaskak burdinazkoak (HER-013/047)

Lehengo sehaskak nolakoak ziren deskribatzen du: burdinazkoak, astunak... Pobrezia handia zegoen lehen.

364. Aita haserretzen zenean (HER-014/002)

Mari Karmenek erraz igarri ohi zuen noiz zegoen aita haserre, izan ere, halakoetan, azentua bere izenaren azken silaban nabarmen jarrita hots egiten baitzion: "Mari Karmén!"

365. Igandero Santa Barbarara amonarekin (HER-014/005)

Igandetan, eguraldi ona ateratzen bazuen, Santa Barbarara igotzen ziren amonarekin Mari Karmen eta haren senideak. Amonak arrosarioa errezatuko zuen lehenik, eta txokolatea emango zien gero bilobei.

366. Ahizpa sei urterekin hil (HER-014/008)

Mari Karmenen ahizpa txikia sei urte zituela gaixotu eta hil egin zen. Orduz gero, igandetan, amarekin kanposantura joaten hasi ziren.

367. Amonaren ezkontza (HER-014/010)

Joera handia zuten Mari Karmenek eta bere anai-arrebek amona eta izeben baserrira bisitan joateko. Izan ere, amonak bere bizitza kontatzen baitzien, eta ongi gogoan du Mari Karmenek amonak bere ezkontzari buruz kontatzen ziena. Anaiak anaiak bilatu omen zion senargaia amonari, eta gizona bigarrenez ikusi zuen egunean, ezkontzeko izan zen.

368. Joxe Mari 'zakartzailea' eta Manolo Chopera (HER-014/012)

Mari Karmenen osaba zakar biltzen aritzen omen zen lanean, Donostian, eta zaldiak baliatzen omen zituen horretarako. Manolo Choperak Donostian zezenketak antolatzen zituenen, zaldiak eskatzen omen zizkion.

369. Txerri beltzak Ergobiko zabortegian (HER-014/014)

Donostiako zaborra Ergobira biltzen omen zen garai batean, eta txerri beltzak hazten omen zituzten han, zabor artean, Mari Karmenek dioenez.

370. Joxe Mari 'zakartzailea'-ren heriotza (HER-014/015)

Joxe Mari 'zakartzailea', amonaren anaia, gerra zibilean hil zen. Donostiatik Hernanirako bidean milizianoek nonbait estu hartu zuten batean, izutu eta burua galdu omen zuen, hala dio Mari Karmenek, eta handik hamabost egunera hil omen zen.

371. Aita eta ama (HER-014/016)

Ama pazientziaz beteriko emakumea zuten, eta aita, aldiz, langile amorratua. Familia aurrera atera beharrak estutzen zuen aita, eta izaeran igartzen omen zitzaion hori.

372. Aitaren langintzak (HER-014/017)

Baserrietako su baxuak kendu eta ekonomikak jartzen lan asko egin zuen aitak, Udaleko igeltseroa baitzen. Baina gutxi irabazten zuela eta, Udaleko lana utzi eta Papelera del Norte lantegian hasi zen, soldata bikoiztea lortu zuelarik.

373. Txerriak txabolatik Balantza baserrira (HER-014/019)

Aitak txabola bat omen zuen, baratzea egiten zuten tokian bertan, eta han txerriak hazten omen zituen. Errekako urak gainezka egiten zuenean, ordea, Balantza baserrira eramaten zituzten txerriak.

374. Uholde handiak (HER-014/020)

Mari Karmenek gogoan du Hernanin sekulako uholdeak izan zirela behin, herrian apenas euririk egin gabe. Goizuetan euri asko bota zuen batean, erreka oso hazita jaitsi omen zen Hernanira eta txikizio handiak eragin zituen; tartean, Karabel auzoko Luisen heriotza, paper fabrikatan ikatz partitzen ibiltzen zen gizona. Urtea gogoan ez badu ere, ezbeharra abuztu amaieran gertatu zela dio Mari Karmenek, Hernaniko gaueko gurtza sortu zen urte berean.

375. Txerria ezkutuan hil behar (HER-014/022)

Gerraostean debekatua omen zen bi txerri hiltzea. Mari Karmenen etxean bi hazten zituzten eta bata labana sartuta hiltzen zuten, bere garrasi eta guzti, eta bestea, aldiz, mazoarekin buruan jota, isilpean.

376. Gazi-kutxa bete-bete (HER-014/023)

Garai batean gazi-kutxan kontserbatzen ziren elikagaiak. Tarteka gatza gehitu behar izaten zen kutxara.

377. Ama eskolako garbitzailea (HER-014/024)

Hogeita hamar urterekin hasi eta hirurogei bete artean eskolako garbitzaile izan zen Mari Karmenen ama. Tarteka seme-alabak eramaten zituen lagun ziezaioten, baina laguntza gutxi lortzen omen zuen.

378. Biteri eskoletan ibilia (HER-014/025)

Lau urterekin hasi zen eskolan Mari Karmen, baina erditan ez zela joaten esaten du. Senideetan zaharrena da bera eta anai-arrebak kontu behar izaten zituen, etxean lan egiteaz gainera.

379. Astelehenero izarak aldatu (HER-014/026)

Karabel auzora joaten zen ama arropak garbitzera. Halakoetan, Mari Karmenek prestatzen zuen bazkaria, amak egun osoa ematen baitzuen errioan.

380. Denak etxeko zereginetan laguntzen (HER-014/027)

Asteartea, osteguna eta larunbata amari eskola garbitzen laguntzeko egunak zirela ongi gogoan du Mari Karmenek. Senide guztiak aritzen ziren, neskak zein mutilak, baina ez horretan bakarrik, baita sukaldean otorduak prestatzen ere.

381. Igandetan arroza txerrikia eta piperrekin (HER-014/028)

Doña Cesarea izeneko maistra batek arroza preparatzen erakutsi zion Mari Karmenen amari, gerra piztu baino lehentxeago. Inork gutxik jaten omen zuen arroza garai hartan, Euskal Herrian.

382. Jaten ez genekizkienak (HER-014/030)

Arrozaz gain ba omen ziren hainbat jaki, dendan salgai egonagatik, jaten ez zirenak. Esaterako, platanoa.

383. Barazkiak txerrijanaren truke (HER-014/031)

Baratzean egiten zuten guztia etxerako izaten zen, baina barazkiren bat ematen zioten beti txerrijana ematen zien kaletarrari. Txermoniak ere ematen zizkieten, txerrijana ematen segi zezaten.

384. Sardinzarrak arrautzetan pitarraz lagunduta (HER-014/034)

Negu sarreran sardinzarrak izaten omen ziren salgai dendetan. Mari Karmenek gogoan du haietako bat arrautza batekin eta pitarra pixka batez lagunduta luxuzko otordua izaten zela.

385. Neska jaiotzeagatik medikuak esandakoa (HER-014/037)

Mari Karmen jaio zen unean berean, erditu berri zen amari medikuak esandakoa kontatzen digu Mari Karmenek. Don Florencio zen orduan Hernaniko medikua.

386. Bonba ohe gainera (HER-014/039)

Mari Karmen-eta baserritik kalera jaitsi zirenean, maizterrak ziren; ez zuten jabetzarik. Karkara kaleko etxe batean bizi izan ziren lehenik, eta kalearen beste aldean gero. Bigarren etxe horretan bizi zirela lehertu zen Gerra Zibila, eta Urnietako aitona etorri zitzaien bila, gurdian. Gero jakin zuten bonba batek Mari Karmenen ohean amaitu zuela.

387. Bi gizon hegazkinetik bonbak botatzen (HER-014/041)

Hernani nola bonbardatu zuten ederki ikusi zuten Mari Karmenek-eta Usurbildik. Santa Barbaran frontea zegoen, eta eremu hura asko gaztigatu zutela dio.

388. Gure historia eta ohituren transmisioa (HER-014/043)

Mari Karmenek badaki bere aiton-amonek karlistadak ezagutu zituztela, baina ez zuten sekula horri buruz hitz egin. Gaur sekulako pena du gai horri buruz haiei ez ezer galdetu izanagatik, baina handiagoa ematen dio, ordea, galdetzeko inor gabe geratu izanak. Zer pentsatua eman dio horrek Mari Karmeni.

389. Bizikletan ibiltzen ikasten (HER-014/047)

Gerraostean Hernanin bizi izan zen Militar baten seme-alaben bizikletekin ikasi zuen Mari Karmenek bizikletan ibiltzen. Euren bizikletak uztearen truke, astoan ibiltzen uzten zien Mari Karmenek. Jaunartzeko soinekoa nola ondatu zuen ere kontatzen du.

390. Lanean eta ikasten (HER-014/051)

Hogei urte zituela, paper fabrika hamabi ordu jarduten zuen egunero Mari Karmenek, eta Don Jeronimo irakaslearengana joaten zen gero kontabilitatea ikastera. Izan ere, senargaiak tailerra jarri nahi zuen, eta bertako kontuak egiten Mari Karmen bera aritzea aurreikusia baitzuten.

391. Aita ez zen senargaiarekin fio (HER-014/053)

Aita ez zen Mari Karmenen senargaiarekin fio, eta oso argi esan zion ez harekin aurrera egiteko. Senargai hura euren baina baino etxe hobeagokoa zela, Altzuetakoa, eta barre egingo ziola, aprobetxatu egingo zela. Azkenean ezkondu egin ziren, eta gaur arte. Ezkondu aurretik, baina, Zinkoenean bi urtez aritu zen zerbitzatzen, aita esan baitzion, ezkontzekotan sukaldean moldatzen ikasi beharko zuela.

392. Ezkondu eta lau seme-alaba hazi (HER-014/054)

Aitaren beldurrak-beldur, ezkondu ziren azkenean, Mari Karmen eta Antonio, eta lau seme-alaba izan zituzten, sei urteko denbora tartean.

393. Lau seme-alaba eta hamaika lan (HER-014/055)

Ezkondu eta gero, haurrak hazi eta hezteaz gain, Mari Karmenek senarraren tailerreko kontuak eramaten eta konponketetan laguntzen egin zuen lan. Haurrak etxeko lanak egiten uzten zituen eta arratseko zortzietan jaisten zen tailerrera senarrari laguntzera. Gau batzuk botata daude elkarrekin, lanean eskuz-esku, eta baita furgoneta hartu eta kilometro pila eginda ere, konponketak egin ahal izateko ordezeko piezaren baten bila.

394. Ezkontza eguna (HER-014/059)

Mari Karmenek Zinkoeneako zerbitzari lanak utzi eta berehala ezkondu zen Antoniorekin. Bitor Otxotorena taxi-gidaria izan zuten ezkontza egunean txofer, eta amaren lehengusu batek ezkondu zituen. Ereñotzun ezkondu ziren, eta bazkaria, Erretereriako Panier Fleuri jatetxean egin zuten.

395. Ezkon-bidaia Gasteizera eta Bilbora (HER-014/060)

Ezkontza bidaian Gasteizera joan ziren lehenik, eta Bilbora gero.

396. Bi goizuetar trenaren lurrin-makina zela eta (HER-014/062)

Antoniok garai bateko trenak eta garraioak nolakoak ziren azaltzen du, eta horren harira, duela laurogei urte inguruko gertaera barregarria kontatzen du, mando-sail batekin trenaren zain zen goizuetar talde bateko biren ateraldia.

397. Zortzi urterekin neskame (HER-015/009)

Zortzi urterekin hasi zen neskame Pilar, umezain eta etxeko lanetan. Azukrea nola jaten zuen gogoratzen du. Bizimodu gogorra izan zuen. (Kristina ahizpa ere badago)

398. Ereñotzuko eskolan Kaxildarekin (HER-015/011)

Ereñotzuko eskolan ibili ziren. Kaxilda Lizeaga maistrarekin ibili ziren. Maistra kalera joaten zenean, bere ahizparekin egoten ziren. Zein baino zein petralagoa omen ziren. Zer ikasten zuten aipatzen dute. (Kristina ahizpa ere badago)

399. Behorrarekin andrea eramatera (HER-015/014)

Baratzean denetarik egiten zuten eta gero Bretxan saltzen zuten, Donostian. Anttoni behorrarekin eta zestoekin joaten zen.

400. Txirritaren bertsoa (HER-015/015)

Bertsotarako zaletasun handia zeukan Pilarrek. Txirritaren bertsoa kantatzen du.

401. Baratxuri zopa nola prestatu (HER-015/017)

Anttonik, neskame zela, baratxuri zopa prestatzen zien etxeko gizonei. Nola egiten zuen kontatzen du.

402. Ilunetan sorginak (HER-015/025)

Umeak ikaratzearren, ilunetan sorginak ateratzen zirela esaten zuten.

403. Oialume hernaniarra, zozketagatik (HER-017/003)

Lizartxueta omen zen baserriaren izena baina Oialume moduan ezagutzen zuten. Mugarria zen Astigarraga eta Hernaniren artean. Zozketa bidez aukeratu omen zuten hernaniarra zela Oialume.

404. Oialumeko dantzaldien sorrera (HER-017/004)

Apustuak egiten ziren orduan. Oialumeko dantzaldia nola sortu zen kontatzen du. Markos izaten zen soinu-jotzailea eta hogeita bost pezeta ordaintzen zioten arratsaldeko.

405. Oialumeko soinu-jotzaileak (HER-017/005)

Felix soinu-jotzailea etorri zenekoa. Harrezkero beti bi izaten ziren. Beste soinu-jotzaile batzuk aipatzen ditu.

406. Orduko bateria jotzaileak (HER-017/006)

Orduko bateriak oraingoan antzekoak ziren. Umore onean aritzen zen Oialumera joaten zena.

407. Zalgurdia etxeetan (HER-017/009)

Ama zalgurdian joaten zen Donostiara saltzera. Bera ere joan zen ume zela. Lau gurpilduna zen gurdia. Etxe gehienetan izaten zen zalgurdia.

408. Gobara egitea (HER-017/011)

Lehengo emakumeen lanak: gobara egitea, adibidez. Azalpena ematen du.

409. Jende artean ohitua (HER-017/013)

Lehengo eta oraingo auzoak. Lehen familia handiagoak bizi ziren, orain bakartiago. Jende artean ohitutakoa da.

410. Neskameak eta soldaduak Oialumen (HER-017/015)

Neskame asko joaten zen Oialumera dantzara, Donostiatik bereziki, baita soldaduak ere. Inguruko jendea ere etortzen zen.

411. Gizon eta emakumeak Oialumen (HER-017/025)

Emakumeak ez ziren tabernara sartzen, ez zuten edaten eta gizonak baino lehenago etxeratzen ziren. Dantzan aritzen ziren bereziki. Sagardoa eta ardoa edaten zuten bezeroek tabernetan.

412. Limoneroa (HER-017/028)

Limoneroa: limonada eta sifoia tabernara ekartzen zituen, baita garagardoa ere. Erosketaren batzuk egitera joaten ziren Hernanira normalki.

413. Tabernan denetarik salgai (HER-017/029)

Tabernan zer saltzen zuten kontatzen du: janaria, abarketak, tabakoa... Anekdotak bat kontatzen du.

414. Umetatik aitari mendian laguntzen (HER-019/004)

Aitarekin mendira joaten zen umetan, erratzak egiteko materiala biltzen: txilarra edo ainarra. Sortak egiten zituzten, pagotak. Mandoarekin joaten ziren.

415. Añarbeko burdinola (HER-019/005)

Añarbe. Garai batean burdinola zegoen bertan. Aitari entzuna zeukan errekan behera ekartzen zutela kabarretan burdina eta idiekin jasotzen zituztela kabarrak gora. Alemaniarrek burdinoletako eskoria eraman zutenekoa kontatzen du.

416. Meatz eta olen funtzionamendua (HER-019/006)

Etxolaberrin minak zeuden. Nola lan egiten zuten kontatzen du. Hernanin ola asko zeuden eta ezagutzen dituenak aipatzen ditu.

417. Sereno izatetik aguazil izatera (HER-019/015)

Sereno postua lortu zuen eta ondoren aguazil izendatu zuten. Zein zeregin izaten zituen kontatzen du. Lasarte Hernani zen garai hartan.

418. Baserriko lanak zeintzuk ziren (HER-020/005)

Ahizpa zaharrenak neskame joan ziren; gazteenak baserrian. Lanak: artajorra, belarra ontzen... Belar metak. Patata ateratzen, artoa biltzen... Anai bat mandozain ibiltzen zen, eta fabrika hasi zen gero.

419. Josten ikastea ohikoa zen; eskolan, laboreak (HER-020/008)

Astori ez zuten erabiltzen arropa garbitzera eramateko. Hiru ahizpa ibiltzen ziren gobara egiten. Ahizpetako bat gutxiago, josten aritzen zelako, kanporako. Josten ikastearen garrantzia. Eskolan, laboreak: "kañamaza" tela; bera ez zen oso trebea, eta lagun batek egiten zion. Maistrak zigortu egin zuen.

420. Eskolara Pagoara (HER-020/009)

Eskolara Pagoara joaten zen. Bertako etxekoandrea zen maistra, Dionisia. Seitik hamabi urtera. Zer ikasi zuen: idazten, irakurtzen eta kontuak ateratzen. Euskaraz egiten zuten gehiena.

421. Hernanira urtean behin (HER-020/010)

Hernanira enkarguak egitera joaten zen ama; umetan urtean behin, amarekin. Amandrea Erreterian zeukaten, eta urtean behin hara ere. Hernanin bi kale zeuden, eta gurdibidea. Kaleen izenak: Kale Nagusia eta Andre kalea.

422. Hernanira joateko, "korreoa" eta "letxeroa" (HER-020/012)

Hernanitik zortzi kilometrora bizi ziren. Goizuetatik Hernanira "korreoa" izaten zen, autobusa. Oso noizean behin joaten ziren. Gero esneduna ere ibiltzen zen, eta jendea eramaten zuen; Benta Berriko Jexux.

423. Lehengo janzerak eta orrazkerak (HER-020/013)

Lehengo orrazkera: permanentea. Umetan, gantxoa. Lehengo soinekoak, luze-luzeak. Koloreak. Margaritak josi zion soinekoa. Tela amak erosten zion normalean.

424. Etxeberri nolakoa zen (HER-020/014)

Gurasoak ingurukoak ziren biak, ama Etxeberri bertakoa. Etxea nolakoa zen azaltzen du, hiru pisukoa. Ganbaran artoa eta belarra izaten ziren.

425. Labetxoa, su baxua eta eltzeak (HER-020/019)

Labetxoan eta su baxuan zer prestatzen zuten. Kafea, laratzetik zintzilik. Eltzeak.

426. Umetako jolasak: zango-makilak eta gurdiaren pertika (HER-020/023)

Umetako jostaketak: itsu-itsuan, txotxak... Zango-makilak egiten zituzten, makilei kakoak jarrita. Gurdiaren pertikara igota egiten zuten jolasa. Behin egin zuten gaiztakeria: argindarraren kablea hautsi.

427. Kurkuluxak eta pilota (HER-020/025)

Kurkuluxak (tabak). Pilota gora bota eta nola jolasten zuten. Arkumeak atzeko hankan izaten du. Ez zituzten pintatzen.

428. Batzokiak oparitutako jostailuak (HER-020/027)

Jostailuak: Batzokitik bidaltzen zituzten sasoi batean. Sukaldetxoa tokatu zitzaion berari. Batzokiko mitinak. Bere izena esan zuten, eta segi, oparia jasotzera. Beste ahizpei zer eman zieten kontatzen du.

429. Sokasaltoan bakarka eta taldean (HER-020/029)

Sokasaltoan ere ibiltzen ziren, propio egindako sokekin eta etxeko sokekin. Ez du gogoan kantatzen zutenik.

430. Udan, errekan sartuta (HER-020/031)

Errekan ibiltzen ziren udan. Errieta egiten zieten etxean, egunean bitan sartzen zirelako uretan. Siesta orduan joaten ziren. Ez zuten bainujantzirik.

431. Elizan, mantila buruan (HER-020/032)

Emakumeak ez zuen galtzarik janzten. Elizaren indarra. Mantila buruan, eta mahuka motzekin ez, elizan. Gonak, luzeak.

432. Zapatak eskuan hartuta elizara bidean (HER-020/033)

Elizara oinez joaten ziren; umeak zirenean 09:00etarako eta gero 07:00etarako. Zapatak eskuan eramaten zituzten, ez zikintzeko. Bideak. Uholdeak, urtean behin edo.

433. Umezain eta baserriko lanetan; itaurrean (HER-020/034)

Eskolatik ateratakoan etxean egon zen gehiena, baserriko lanetan. Zazpi bat hilabete egin zituen umezain, kanpoan. Nafarroa aldera ere joan zen gerora umeak zaintzera. Baserriko lanak; itaurrean egitea ez zitzaion gustatzen. Goldea, area eta besabea.

434. Benta Berriko bilerara, oinez (HER-020/037)

Benta Berrira joaten ziren bilerara, oinez, denak elkarrekin. Ilundu arte. Mikeleteekin ez zuten arazorik izaten. Apaiza Pikura joaten zen igande arratsaldetan, eta harekin egiten zuten topo bidean. Dantzak. Nikolasek jotzen zuen soinua.

435. Pagoako umeak euskal dantzak ikasten (HER-020/039)

Pagoan maistra bat izan zen euskal dantzak erakusten umeei: Nere. Xatur jarri zuen soinua jotzen, eta etxeko terrazan egoten ziren dantzan.

436. Inauterietan, zomorroak etxez etxe (HER-020/042)

Etxez etxe ibiltzen ziren lehen inauterietan orduko gazteak. Zomorroak. Galtza zuriak eta txapela gorriak. Ohitura hori galdu egin da. Gabonetan eta Santa Ageda bezperan etxez etxe joatea ohitura berria da.

437. Argi zentralak eta erriberak (HER-020/047)

Argi zentralak. Aitak Santiokoan egiten zuen lana. Abiletan, Pagoagan, Ibarluzen... ere bazauden zentralak. Erribera zuten lehen, errio ondoko lur saila; lur gozoak.

438. Ugaldetxoko zubia bota zuten gerran (HER-020/049)

Gerra hasi zenean, 10 urte zituen. Ugaldetxo zubia bota egin zuten "gorriek", Francoren aldekoak ez pasatzeko. Irun aldetik sartu ziren gero. Kamioiak. Egurrezko zubia zegoen beheraxeago.

439. Garo artean ezkutatuta, beldurrez (HER-020/051)

Alde egiteko esan zien batek, nazionalak zetozelako. Ardi bordara joan ziren, amak bidalita, hiru ahizpak. Tiroa entzun zuten, eta korrika atera ziren handik. Garo artean ezkutatuta egon ziren. Izebarena joan ziren gero. Tiroketak.

440. "Gorriekin" joan ez zirenak, soldadu eraman zituzten (HER-020/053)

"Gorriak" etxe inguruan ibiltzen ziren, baina ez zuten jatekorik eskatzen. Batzuk bizkaitarrak ziren, eta ingurukoak ere baziren; lehengusu bat zebilen tartean, eta hura desagertu egin zen. Anaiak soldadu ibili ziren gero, derrigortuta.

441. Gerra ondoko gosea (HER-020/054)

Gerra osteko gosea. Miseria. Errazionamendua. Amak emandako ogi koskorra katuak kendu zionekoa; gero amak berea eman zion.

442. Taloak; irin bila Aranora (HER-020/056)

Ogi gabe geratu zirenean pasatu zuten gosea, artorik ez eta; gero, taloarekin, ondo. Goizuetara eta Aranora joaten ziren irin bila. Errotak itxita, prezintatuta.

443. Estraperloko kontuak (HER-020/058)

Estraperloa egiten zuen aldamenekoak. Txekorra etxean hil, ezkutuan, eta saldu.

444. Gerra izan arren, santiotara joan nahi (HER-020/060)

Gerra garaian, santioak ziren; nazionalak Aranon zeuden, baina festetara joan gabe ezin geratu! Mutil batek ibili zituen komeriak, Guardia Zibila atzetik zuela.

445. Aireplanoak eta sirenak (HER-020/064)

Gerra garaian, aireplanoak pasatzen ziren etxe gainetik, beti toki beretik; Hernanin bota zituzten bonba batzuk. Sirena ere aditzen zen. Bera umea zen eta ez zen ikaratzen.

446. Tripa ederki jaisten zen, gerra ondoan (HER-020/069)

Gerra ondoko gosea. Gizon bati tripa nola jaitsi zitzaion kontatzen du. Baserrietan gose gutxiago, hala ere. Babarruna eta artoa entregatu beharra.

447. Kusiñeneko baserria (HER-021/006)

Kusiñeneko baserria nolakoa zen kontatzen du. Ez zuten ez urik ez argirik. Hogeita hiru urterekin jarri zuten argia etxean. Baserri kaxkarra omen zen.

448. Kinkia nolakoa zen (HER-021/007)

Kinkia nolakoa zen kontatzen du. Petrolioia erabiltzen zen eta ke beltza botatzen zuen.

449. Kandila nolakoa zen (HER-021/008)

Kandila nolakoa den kontatzen du. Argi finagoa egiten du kinkiak baino.

450. Belarrimotzen kontrako kantu abertzalea (HER-021/010)

Belarrimotza aipatzen duen kantua kantatzen du, abesti abertzale bat. "eta tiro eta tiro eta tiro beltzari, eta tiro eta tiro eta tiro belarrimotzari..."

451. Meatzeetako giroa (HER-021/011)

Minerala ateratzen zuten meatzeetatik. Jende asko ibili zen lanean han eta igandero meza egiten zen. Mozkorka, labankadaka ibiltzen omen ziren.

452. Goizuetako bertso batzuk (HER-021/013)

Amona oso kantaria eta kontalaria omen zen. Amonak kantatzen zituen Goizuetako neska-mutil batzuek elkarri jarritako bertsoak kantatzen ditu eta istorioa kontatzen du.

453. Goizuetako inauteriak edo inurritegiak (HER-021/018)

Goizuetako inauteriak. Zomorroak ateratzen ziren, astelehenetan baserrietan ibiltzen ziren eta zahagi dantza izaten zen asteartez. Inurritegiak esaten zioten inauteriei.

454. Euskal txerriak (HER-021/019)

Goizuetan urtean bi azoka izaten ziren, azaroan eta urte zaharretan. Garai hartan abereak izaten ziren azokan. Euskal zerriak.

455. Artoaren lanak (HER-021/022)

Udaberrian lurra iraultzen zuten hiru-hortzekoarekin hiru-lau lagunek. Zoian aritzea izaten zen. Goldearekin ibiltzeko aldapa handiegia zegoen. Behiekin harea pasatzen zuten. Harea nolakoa izaten den kontatzen du. Artoa erein eta artajorran aritzen ziren. Besabea eta bost-hortza zertarako erabiltzen ziren kontatzen du.

456. Belarrak ontzen (HER-021/023)

Uda garaian belarrak ontzen aritzen ziren. Prozesua kontatzen du. Orain makinarekin egiten dute. Oraingo kontuak.

457. Mutil harekin ezkondu nahi ez (HER-021/027)

Garai hartan misioak izaten ziren eta galdeketa egin zioten, nahi ez zuen mutilarekin ezkon zedin. Gero bere senarra ezagutu zuen. Elizgizonei kasurik egin gabe bizi izan dela dio.

458. Ezkontzak pregoiarekin iragartzen ziren (HER-021/028)

Ezkontzak pregoiarekin iragartzen ziren. Atzetik zebilkion mutila ezkondu arte zain egon zen bera ezkontzeko, beldurrez.

459. Ugaldetxoko eta Goizuetako inauteriak (HER-021/030)

Ugaldetxon inauteriak politak izaten omen ziren, karrozekin irtetzen baitziren. Nola ospatzen zituzten kontatzen du. Goizuetan inauterietan nola jantzen ziren kontatzen du.

460. Basarriren bertsoak irratiz (HER-022/003)

Irratia etxera ekartzeak poz handia eman zien. Basarri bertsoan aritzen zen eta aitak eguerdiro entzuten zuen.

461. Herriko eskolak (HER-022/005)

Pagoagako Dionixia maistrarekin ikasi zuen eskolan, baita bere aitak ere. Titulazio gabekoa zen. Herriko eskolak non zeuden aipatzen du.

462. Bizimodu gogorra (HER-022/006)

Eskolako buelta oinez egiten zuten, abarketekin batzuetan eta hankautsik ere bai. Ama ume zirela hil zitzaien eta bizimodu gogorra izan zuten.

463. Aita, anaia eta semea soinujoleak (HER-022/009)

Aita soinujolea zuen, baita anaia eta semea ere.

464. Jaunartze txikia soineko beltzarekin (HER-022/011)

Jaunartze txikia soineko beltzez jantzita egin zuen, amaren lutoagatik. Gutxienez bi urtez eramaten zuten lutoa. Auzoko modistak eginikoa soinekoa zen.

465. Soinekoak jostunek eta izebek eginak (HER-022/012)

Auzoko jostunek eta izebek egiten zizkieten soinekoak. Madrilen izeba bat bazuten eta hark arropa asko ekartzen zien urtean behin.

466. Gobara eta tinila (HER-022/013)

Bilaretara, dantzara joaten zen. Astean behin gobara egiten zuen. Iturrian garbitzen zituen, eskuz. Urarentzako tinila, barrikaren erdia, egoten zen ura hartzen. Denerako balio izaten zuen tinilak.

467. Bentaberrin baltsean (HER-022/016)

Bezperak eta arrosarioa igandero izaten ziren eta aitzakia horrekin Bentaberrira joaten ziren. Soinua jo eta dantzan egiten zuten han, baita baltsean ere. Apaizek ez zuten baltsean aritzen uzten, ezta bere amak anaiari etxe barruan jotzen ere. Neskak goiz etxera eta mutilek parranda.

468. Xatur anaia soinujolea (HER-022/018)

Bere anaia Xatur eta Tarragona izeneko tolosar bat ibiltzen ziren inguruan. Beste batzuk ere izaten ziren. Aranoko apaizarekin ikasi zuen solfeoa Xaturrek, oinez joanda.

469. Aranora Santa Ana egunean soinuarekin (HER-022/019)

Behiari laguntzera joaten zen Aranora, han izaten baitzen zezena. Kamioian joaten ziren festetan eta Santa Ana egunean oinez, Xaturrek soinua hartuta. Musika izaten zen eta bazkaria eramaten zuten.

470. Inauterietan etxez etxe mutilak (HER-022/020)

Inauterietan mutilak ateratzen ziren soinuarekin, neskak ez. Etxez etxe jatekoa biltzen zuten. Galtza eta alkandora zuriak, zapi handi koloredunak eta gerriko gorria eramaten zuten. Zaldun-inauteriak hitzari buruz hitz egiten dute.

471. Goizuetako festetan gauez (HER-022/023)

Goizuetako amabirginetara joaten zen lagunekin afaltzera. Dirua helduko ote zitzaion beldurrez joaten zen. Gaueko ordu biak aldera etxeratzen zen.

472. Makiak etxe inguruan (HER-022/025)

Makiak lyolara etortzen zirela gogoan du. Atea itxita izaten zuten, ikaraz. Eskatu egiten zutela uste du, gosez. Talo asko egin eta jana da, baina ez zitzaion asko gustatzen. Aranoko errotatik ekartzen zuten irina, baita Pagoagatik ere. Gainontzean babarruna, oilaskoa eta txerria izaten zuten, baita bakailaua ere.

473. Arrain eta bestelakoen banatzailea furgonetaz (HER-022/026)

Baserrian beti zer bait izaten zen jateko, kalean seguruenik ez. Arraina eta bestelakoak furgoneta txiki batekin ekartzen zituen Etxarri izeneko batek. Gaiztakeria bat kontatzen du. Ogia banatzen Peña eta Zabala aritzen ziren. Goizuetako kamioia bete-bete eginda ibiltzen zen.

474. San Rokeri burla egin ziona (HER-022/027)

Goizuetako gidari batek San Rokeri burla egin eta harrezkero bidera txakurra ateratzen omen zitzaion. Gero ederki erreztatzen omen zuen.

475. Sakamantekasek mutil bat eraman (HER-022/028)

Sorginen konturik ez baina sakamantekas aipatzen zioten. Mutil bat eraman zutela eta berriz agertu zela gogoan du.

476. Xatur anaia, soinujole nekaezina (HER-022/029)

Ez du kanturako afiziorik izan. Musika izan dute etxean. Xatur anaia Nafarroa aldean asko ibiltzen zen, baita Aian ere. Izetakoen gurasoen ezkontzan jo omen zuen. Soinua jo eta jo, ez omen zen aspertzen Xatur.

477. Lizar makila (HER-023/003)

Aitona Zumalakarregirekin ibili zen gerra garaian, lizar makilarekin. Ohitura da Leitza aldean eta, lizarrak moztu eta neguan haien muturrak behiei ematea. Kontu-kontari egoten ziren suaren bueltan.

478. Artoa ereiteko tresnak (HER-023/010)

Artoa erein izan dute Erriberan. Ereiterako tresnak deskribatzen ditu: goldea, marka, alferra...

479. Bretxara barazkiak saltzera (HER-023/011)

Etxeko barazkiak Donostiako Bretxan saltzen zituen Ebaristoren arrebak. Gurdiarekin eta tranbian joaten ziren, baita autobusez ere.

480. Euskarazko biraoak (HER-023/013)

Biraoak gazteleraz egiten direla dio. Lehen euskarazkoak erabiltzen zituzten. Horretan atzera goazela uste du.

481. Arraiketan (HER-023/015)

Trena bazen Lesakan barrena joaten zena. Arraiketan ibiltzen zen; Hondarribin erosi eta Elizondon saltzen zuen. Usteldu ere egiten zitzaion batzuetan.

482. Gerra hasiera eta fusilatuak (HER-023/029)

Nafarroatik erreketek eta falangistak sartu ziren. Hernanikoak denak ezagutu zituen. Fusilatutakoak Galarretan sartzen omen zituzten.

483. Amona amorrarazten (HER-023/034)

Amona amorrarazten aritzen ziren umetan bihurrikerietan.

484. Lehen txori gehiago (HER-023/038)

Basurdetan ibili izan da baina Euskal Herritik kanpora. Txoriak gutxiagotuta ikusten ditu. Lehen oilagorra, hegabera, txolarrea eta beste hainbat gehiago ikusten ziren.

485. Azeri ehizan (HER-023/039)

Basakatuak hil izan ditu. 22 azeri botatakoa omen da urtebetean. Hiru zaunka egiten omen ditu. Basauntzak ere bota izan ditu.

486. Berroak, miura, goroldioa saltzeko (HER-024/009)

Errekan berroak biltzen aritzen zen Kristina, izebak Donostian saldu zitza. Dirua falta izaten zuten, ama alargunduta zegoen eta. Miura biltzen ere aritzen ziren, behiei emateko edo saltzeko. Gabonetan goroldioa biltzen zuen Kristinak izebarekin Donostian saltzeko, jaiotzetan jartzeko.

487. Mihura behientzat eta gabonetako erakusleihoetarako (HER-024/010)

Mihura behiei ematen zitzaion jateko. Eguberri inguruan, forma polita zutenak bildu eta saldu egiten zituzten. Donostian dendetako erakusleihoetan jartzen zuten. Erratza eta gorostia ere biltzen ziren.

488. Krabelin zuriak saltzeko (HER-024/011)

Krabelinak ere saltzen zituen izebak, zuri kolorekoak, sortak eginda. Beste izeba baratzean aritzen zen. Lantegietako buzoak garbitzeko ematen zizkioten Donostian izebari.

489. Emakume eta gizonezkoen baserriko lanak (HER-024/013)

Lau senide ziren: Iñixio bigarrena eta Kristina laugarrena. Gizonek otea ekarri, ikuiluko lanak eta horrelakoak egiten zituzten. Arropak garbitzeko errekarra joaten ziren baina agortu egiten zenean, astoz urrutiago joaten ziren.

490. Uztarri motza eta bikoa (HER-024/017)

Artoaren lanak azaltzen ditu. Behia uztarri motzean erabiltzen zen, bakarra erabili behar bazen. Biko uztarria erabiltzen zen bi behi lotu behar baziren. Txokolatea eta ogia jaten zuten eskolatik itzulitakoan. Korrika eta ezkutaketan jolasten zuten. Neskak sokasaltoan ibiltzen ziren. Txirikila, kanikak, kromoak... erabiltzen zituzten jolaserako.

491. Taben izenak eta jolasteko modua (HER-024/018)

Tabekin jolasean aritzen ziren: txutxus, nadas, karnes eta tentes izenak izaten zituen hezur bakoitzak. Nola jolasten zuten azaltzen du.

492. Trapuzko panpinak nola egin (HER-024/019)

Panpinak gustuko zituen Kristinak. Zapiekin panpinak nola egiten zituen azaltzen du. Erregeetarako oparitu zion behin amak iledun panpina.

493. Kadeneta jolasa (HER-024/020)

Kadenetan jolasten zuten. Nola zen azaltzen du. Txingoka asko aritzen ziren.

494. Otea nola moztu, zapaldu eta prestatu (HER-024/023)

Egunkariarekin zahatoa irudikatu du Iñixiok. Zahatoa zulatu, bertatik eskua sartu eta igitaia edo sardea heltzen zuten, otea mozteko. Hankarekin ondo zapaldu, bizkarrean zakua jarri eta bizkarrean ekartzen zuten. Ilbeltzean mozten zuten. Otsaila ezkerreko, lorea ateratzen zuten eta ez zuten balio izaten. Otea nola jotzen zuten azaltzen dute. Lau lagun inguru aritzen ziren. Otea txikitzean, arbia botatzen zuten gainera eta hura txikitzen zuten. Gauza gehiago nahastuta, ganadu-jatena prestatzen zuten.

495. Otea, arbia eta "tturkua", ganaduaren jana (HER-024/024)

Otea, arbia eta tturkua nahasten zituzten ganaduari jaten emateko. Tturkuari hazia nola ateratzen zioten kontatzen du. Pagotsa ere erabiltzen zuten.

496. Pitarra nola egiten zuten (HER-024/026)

Sagarra jotzeko makinarik ez zegoenez, pizoiak erabiltzen zituzten sagarra zanpatzeko. Ondoren tolarea jarri, behiekin ura ekarri eta tolarera gehitzen zuten, pitarra egiteko. Gerora, urik gabe egiten zuten eta sagarra makinarekin jota.

497. Pitarra egiteko sagarraren prentsaketa (HER-024/027)

Eskuarearekin patxa nahasten zuten biharamunean. Tolarean sagarra nola prentsatzten zuten kontatzen du Iñixiok. Egunetako prozesua izaten zen.

498. Baserria haizearekin mugitzen zen (HER-026/003)

Telleri-zahar izena du baserriak eta izena nondik datorkion kontatzen du. Aurretik zegoen etxea haizeak mugitu egiten zuen. Hura erosi, bota eta berria egin zuten.

499. Umetan neskame (HER-026/005)

Etxeko senide guztiak koxkortu ahala lanean hasi ziren. Auzoko etxera neskame joaten zen diru pixka bat irabazteko. Zer nolako lanak egiten zituen kontatzen du.

500. Lixiba egiten (HER-026/007)

Urik eta argirik ez zeukaten etxean. Errekara joaten ziren arropak garbitzera. Lixiba egiten zuten. Prozesua deskribatzen du.

501. Txerrikia kontserbatzeko (HER-026/009)

Txerria hiltzen zutenean, nola kontserbatzen zuten kontatzen du: gatzituta edo txorizoa eginda.

502. Artzaiari laguntzen (HER-026/013)

100-200 ardi zaintzen aritzen zen umetan, Goierriko artzai bati laguntzen. Udan etxean nahikoa zeregin izaten zuen. Udazkenetan garoa moztera joaten ziren goizean goiz.

503. Mutilekin ibiltzeko debekua (HER-026/015)

Oialumen soinujole itsu batek jotzen zuen Iñaxi gazte zela. Aita zain izaten zuen etxera zetorreanean, mutilekin ibil zitezen ez baitzuen nahi. Iluntzearekin batera bukatzen ziren erromeriak.

504. Soinekoak josten (HER-026/018)

Soineko bat jai egunetarako eta bestea astegunerako izaten zuten. Josten ikasi zuenez, soinekoak berak egiten zituen.

505. Arropa belzteko (HER-026/020)

Norbait hildakoan, arropak belztu egiten ziren. Pastilla txiki batzuekin tindatzen zuten.

506. Oihal puskekin arropa egiten (HER-026/022)

Oihal puskak erosten zituen josteko. Dena aprobetxatzeko ohitura izan du: soineko zaharrekin mantalak, gonak eta beste egin izan ditu.

507. Hegazkinak zetozenean, ezkutura (HER-026/024)

Gerra garaian hegazkinak pasatzen zirela eta, ezkutatzeko esaten zioten gurasoek. Gerraostean taloa jaten zuten. Amak ogia estraperloan ekarri zuenekoak kontatzen du.

508. Soldaduek jatekoa kentzen zieten (HER-026/025)

Gerraostean soldaduak baserrietara joaten ziren eta haiek nahi zutena kentzen zieten: patata, babarrunak, urdaiazpikoa...

509. Sardin zaharraren burua jateko (HER-026/029)

Sardin zahar bat hiru lagunentzako izaten zuten jatordua. Txikiena zenez, puskarik eskasena geratzen zitzaion.

510. Astoarekin txanelan erria pasatzen (HER-027/003)

1941ean zubia egin arte, erria txanelan pasatzen zuten. Astoa ere halaxe pasatzen zuten, txanelan. Zubia egindakoan, astogainean joaten zen.

511. Neskak baino mutilak nahiago (HER-027/004)

Eguraldi txarra zenean joaten zen eskolara. Neskak jaiotzea ez zen estimatzen. Auzoan neska bakarra zegoen, jolaserako eta.

512. Neskak ez omen ziren argiak (HER-027/007)

Gurasoei beldur handia zitzaien. Neskak argiak ez zirelako ustea zegoen.

513. Maistra lanetan inguruko gazteekin (HER-027/008)

Kontabilitatea eta mekanografia ikasi zituen. Auzokoak etxera joaten zitzaizkion paper kontuekin laguntzeko. Pixkaka auzoko gazte batzuei eskolak ematen zizkien.

514. Uholdeetatik neskatila salbatu (HER-027/013)

Aitona igerilari ona omen zen. Zentranean lanean aritzen zen. Aitonak uholdeetan neskatila bat bizirik atera zueneko pasadizoa kontatzen du.

515. Izokina erregearentzat (HER-027/017)

Aitonak izokina atera omen zuen erregearentzat, soka eta aizkorarekin.

516. Maistra lanetan baserrian (HER-027/021)

Maistra lanak egitearren 20 pezeta ematen zizkioten hilean. Etxeko egongelan erakusten zien gazteei.

517. Ezkondu, gurasoek tratua eginda (HER-027/027)

Ezkontzerako orduan mutilak zituen ondasun eta diruak begiratzen ziren. Gurasoek tratua eginda ezkontzen ziren gehienak.

518. Txakurtzarreta (HER-027/031)

Elorrabi-Etxeberri baserriari "Txakurtzarreta" esaten zioten.

519. Florentino Goikoetxea mugalariak (HER-027/033)

Florentino Goikoetxea mugalariaren kontuak. Balduino erregea salbatu omen zuen.

520. Ofizioa, bularreko esnea ateratzea (HER-027/037)

Amaren aldeko aitona emakumeei bularreko esnea ateratzen zien. Horren truke ardoa ematen zioten.

521. Orduko jantziak (HER-027/040)

Gizonezkoek alkandora belaunetaraino izaten zuten. Bruxa disdiratsua erabiltzen zuten, oihala alderantziz jarrita. Prakak orkatila baino goragokoak izaten zituzten. Emakumeek gerria neurrira egokituta eta bueloarekin janzten ziren. Berak amantal beltz dotorea erabiltzen zuen.

522. Eskolan 11 urte arte; gero, gau eskola (HER-028/004)

Hernaniko Pittikar baserrian jaio zen, aitaren jaiotetxean. Eskolan 11 urte arte ibili zen. Etxean lana izaten zen beti. Itaurren. Gaueko eskola, neguan; neska eta mutil, maistrarekin.

523. Tratuarekin Donostiara, autobusean (HER-028/005)

12 urterekin amarekin hasi zen Donostiara joaten, tratuarekin: barazkiak eta esnea. Autobusera, buruan zestera hartuta. Bi lagun joaten ziren autobuseraino. Gero, astoarekin hasi ziren. Astoa Galarretan uzten zuten lotuta, bueltarako.

524. Ezkonduta ere plazara; gerra ondoko kontrolak (HER-028/006)

Bidegurutzetara ezkondu zen, eta plazara Donostiara joaten jarraitu zuen. Hernanira joanda. Postua zuten, San Martin plazan. Gerra ondoan esnea kobratzen hasi ziren; ez zuten dena deklaritzen. "Guardavinoak" autobusean; isunak. Patata eta babarruna ere ezin saldu, gerra ostean. Miseria. Anekdotak polita.

525. San Martin azokako postua; harremana beste saltzaileekin (HER-028/007)

San Martin plazan postua nola jartzen zuen. Asko saltzen zen lehen. Baserritarren arteko ika-mikak kontatzen ditu, gaur egungoak; Astigarrako batek, Pantxikak, oso merke eta azkar saltzen zuen. Elkarri ere laguntzen zioten.

526. Esnea partitzen; gerra ondoan, debalde eman behar (HER-028/008)

Esnea etxez etxe partitzen zuen, eta sobratutakoa plazan. "Letxeroak" ere izaten ziren. Esne denak ez ziren berdinak: batzuk, "bedeinkatuta". Kimikoaren kontrola, bodegan. Gerra ondoan esnea debalde eman behar, kaleko jendeari.

527. Gurelesa sortu orduko Hernanin zebilen esnea partitzen (HER-028/009)

Gurelesa sortu zenean, galarazi egin zuten esnea eramatea. Ordurako geratuta zegoen bera: Hernanin zebilen esne partitzen, astoarekin. Hantxe egin zuen parroikia. Donostiakoak gaizki ibili ziren. Hernaniko gasolinera. Igogailurik ez etxeetan.

528. Esnea saldu ezinik batzuetan (HER-028/010)

Santa Barbarako auzoan ere partitzen zuen esnea gero, Aranon. Baita Goizuetara ere. Esnea ezin saldu geratzen ziren uda partean, eta txekorrei eman behar, egosita. Oparitu ere egin izan du ospitalean.

529. Esnea erosi, falta zenean (HER-028/011)

Esnea erosi ere egin izan du, falta zuenean. Berehala igartzen zion esne ona nork zuen. Andre batek esan ziona.

530. Baratzeko lanak; Laian ibilia da (HER-028/012)

Baratzeko lanak. Laian ere ibilia da; nola egiten den. Aitzurra, hortz-bikoa... dena eskuz. Goldea, gero; baina beti ez zen ondo sartzen. Artoa, arbia, erremolatxa. Pittikar bi bizitzakoa da; artoa eta babarruna asko egiten zen bietan. Baserriari buruz zegoen ikuspegia.

531. Lurra lantzeko tresnak; arto lanak (HER-028/013)

Lurra lantzeko tresnak. Karramarroa, goldea, area, zokor-mazoa, alperra. Alpalpa. Idiak baino gehiago ziren behiak baserrietan. Besabea. Artoa ereiteko egin beharreko lanak. Pagotxa biltzen, eguzki berotan.

532. Amuarrainak libre utzi (HER-030/004)

Jaiotetxe ondotik erreka eder bat pasatzen zela kontatzen du Juanik, eta sarritan joaten zirela bertara, igeri egitera. Behin arrantzale baten sarea askatu eta amuarrain guztiak libre utzi zituztenekoa kontatzen du.

533. Amarekin igerian (HER-030/005)

Juaniren ama tratuarekin asko ibiltzen omen zen, baina etxeko lanak egin bezain laster, ilunabarrean, seme-alabak hartu eta erreka joaten omen ziren elkarrekin.

534. Galtzerdi berriak (HER-030/007)

Juanik hamabost urte inguru zituela, galtzerdi berriak eskatu zizkion amari. Honek erantzun zion apirilera arte itxoin beharko zuela, ilarrak biltzen hasi eta batzuk saldu arte, ordura arte ez zutela halakoetarako dirurik izango. Juanik ongi ulertu zuen amak esandakoa.

535. Baserriari ihes egin nahi eta baserrian bukatu (HER-030/008)

Aitak seme-alaba guztiak lanean jartzen omen zituen, eta Juanik txikitatik igarri zion gogorra zela baserriko bizitzari. Hargatik, ahizpari esaten omen zion berak ez zuela baserri batean bukatu nahi, baina azkenean halaxe bukatu zuen. Beste baserri batera ezkontzen.

536. Baserritarra gutxitan joaten da hondartzara (HER-030/010)

Senarrak eta biek etxean egiten zuten fruta plazan saltzen aritu izan da Juani. Maiatzetik hasi eta negura arte izaten zituzten udare eta sagarrak. Nahi bezala saltzen omen zituen, oso genero ona izaten zuela dio eta. Bezeroei esaten ziona.

537. Hamar urterekin Donostian esneketari (HER-030/013)

Hamar urterekin ehun litro esne partitzen zituen Juanik Donostian, San Martin kalean autobusetik guztiak deskargatu eta marmita txikiarekin etxez etxe joanda.

538. Historia maite (HER-030/018)

Historia ikastea asko gustatzen zitzaion Juaniri, matematika ez bezala. Mutilik ez zen bere gelan. Denak neskak ziren. Eta kaperara sarritan eramaten omen zituzten, errezatzerara.

539. Arrosarioa egunero errezatzen (HER-030/019)

Oso fededunak ziren Juaniren etxean, eta eskolara mojekin joateaz gain, amonarekin hamaika arrosario errezatuta eta bederatziurrenetara makina bat itzuli egina da.

540. Porruan zubipean (HER-030/020)

Eskolatik bueltan amari tratua prestatzen lagundu behar izaten zioten Juanik eta haren anai-arrebek. Behin, porru txiki pila prestatzeko enkargua eman omen zien amak, Juani eta haren anaiari, eta lan handia zenez, Juaniri bururatu zitzaion mordoxka bat zubi azpian ezkutatzea. Ama konturatu egin zen, ordea, eta orduan komeriak.

541. Urumearen erribera, lur emankorra (HER-030/022)

Oso lur emankorrean egiten zuten baratzea, Urumea ibaiaren erriberan. Baserrian egiten zuten barazki guztien berri ematen du Juanik, eta hazia ereiteko sasoiak santutegiko datekin lotuta gogoratzen ditu.

542. Alpapa artean itaurrean (HER-030/023)

Bereziki nekosoak oroitzen ditu behi parearekin area pasatzen emandako ordu guztiak, alpapa sailen arteko belar txarrak garbitzen.

543. Segalarien hamaiketakoa (HER-030/024)

Juaniren baserri parean malkar handi bat omen zen, eta belarra segaz ebakitzera etxekoa ez zen jendea etortzen omen zen, nonbait. Aitak segalariei indarrak ahitzen zitzaizkiela igartzerako, Juanita bidali ohi zien hamaiketakoarekin.

544. Nerabezaro sana (HER-030/026)

Oso nerabezaro sana izan zuela dio Juanik. Dantzari amorratua izan omen da, eta igandero jaisten zen Hernaniko plazara, dantzara. Arratseko bederatziatarako etxera itzuli behar izaten zuen.

545. Lehen haurraren jaiotza (HER-030/030)

Lehen semearekin etxean bertan erditu zen Juanita, eta emagina etorri zitzaion laguntzera. Erditzea nolakoa izan zen kontatzen du.

546. Bigarren haurraren jaiotza (HER-030/031)

Bigarren haurrarekin erditu zen egunean tratuarekin plazara jaitsia zen Juanita, senarrak lagunduta. Plazatik emaginaren bila joan behar izan zuen, eta haren zal-di-karroan joan ziren etxera. Behin etxera iritsita, emaginak ohean sartzeko agindu zion Juaniri, baina honek pasilloan aurrera eta atzera ibiltzea nahiago izan zuen. Horrela, etzan eta bost minutuan jaio omen zen Juani eta Angelen bigarren haurra.

547. Laugarren haurraren jaiotza (HER-030/033)

Juanik bere laugarren haurdunaldian erdiminak sumatu eta motoan eraman omen zuen senarrak klinikara. Moja batek sekulako errieta eman omen zien motoan joateagatik.

548. Erditzea eragin (HER-030/034)

Donostiako Quiron klinikan izandako esperientzia txarraz mintzo da Juani. Nonbait, erditzea eragiteko aukera bogan zen orduan, baina Juanik ez dio inori gomendatzen halakorik, hain pasa zuen gaizki.

549. Erditu eta astebetera plazan tratuarekin (HER-030/036)

Erditu eta aste betera lanean hasita egon ohi zela dio Juanik. Haurra izan eta hamar edo hamabost egunera bataiatu ohi ziren haurrak orduan, eta hartara, amak izaten zuen aukera elizara bertaratzeko; lehen ez baitzen hala. "Atsolarra" eta halakoak gogoan ditu Juanik, baina berak bazuen nahikoa buruhauste etxera dirua ekarri beharrarekin, eta ez zuen halakoetan pentsatzen "denborarik galtzen".

550. Baserrian zorra gailentzen da, lana egin ezean (HER-030/037)

Baserriko lanak egin behar izanarekin mehatxatu izan ditu Juanik seme-alabak, eskolan ikasgai guztiak ez gainditzekotan. Baserrian lana beltz egin behar izaten dela dio. Lan gogor eta jarraitua.

551. Artoari hostoa egitea, lanik txarrena (HER-030/038)

Artoari hostoa egitea edo, bestela esanda, artoari hostoak kentzea izan da Juanirentzat baserriko lanik txarrena. Izan ere, alergia moduko bat izan dio beti hostoa kendu eta handik jausten zen bilo edo hauts modukoari.

552. Emakumerik ez ukuiluan (HER-030/040)

Juaniren aita etxeko gizonei eginarazten zizkien ukuiluko lanak. Ganaduarentzat jana prestatzen ibiltzen zen Juani, baina ukuilutik kanpo.

553. Amak hogeiturokorik hartzen uzten ez (HER-030/042)

Donostiara tratuarekin joaten zirenetan, amak ez zion Juaniri behin ere hogeiturokoa eramaten uzten.

554. Neskak eta mutilak borrokan (HER-030/043)

Juanik oso oroitzapen onak ditu haurra zeneko jostaketez. Mutilekin futbolearen zein borrokan ibiltzen omen ziren.

555. Juliantxoren alkandora (HER-030/044)

Behin, jostaketan neskak mutilen aurka ari ziren batean, Juanik Juliantxori zetazko alkandora hautsita topatu zuen mutilei gailentzeko modua. Biharamunean, Juliantxoren ama kontu eske joan omen zitzaion Juaniri, Donostiarako autobusean egin ohi baitzuten topo egunero.

556. Aitaren kamioian (HER-030/046)

Juaniren aitak kamioi bat zuen. Aita kanpoan zen batean, kamioian sartu zen Juani eta dena ukitzen hasi. Anaia nagusiak ikusi eta aitari esan zion gero.

557. Ezkondu ahala gidabaimena atera (HER-030/047)

Ezkondu eta berehala ikasi zuen Juanik gidatzen. Hala ere, aita gidabaimena atera zezan galarazten saiatu zen.

558. Lore-denda Mamuten (HER-030/048)

Juanik, tratuarekin plazara joateari utzi, eta lore-denda jarri zuen Oiartzungo Mamut hipermerkatuan. Hasierako urteetan asko saldu zuela kontatzen du.

559. Barneko landareen zale (HER-030/049)

Lore-dendan barneko landareak saltzen zituen Juanik, batez ere.

560. Amona! 'Txirrita' etorri da! (HER-030/051)

Juanik, haurra zela, 'Txirrita' ezagutu zuen. Juaniren amonari bisita egitera joaten omen zen 'Txirrita', eta halakotan, heltzea ezkutatzen zuen amonak.

561. Senarra ezagutu zuenekoa (HER-030/057)

Senarra nola ezagutu zuen kontatzen du.

562. Don Korneliorekin konfesatzen (HER-030/059)

Juanik don Korneliori, herriko bikarioari, senargaiarekin zebilela aitortu zionekoa. Behin ezkondu eta geroko aitortza saio baten berri ere ematen digu Juanitak.

563. Sexu kontuak etxean hizpide hartzea bekatu (HER-030/061)

Juanik dio, bera gaztea zen garaian, ez zela gurasoekin sexuari buruz hitz egiten; ez zietela batere azalpenik ematen. Eta euren kabuz eta lagun artean izaten zutela hilerokoaren edo haurrak izateari buruzkoen berri.

564. Hernaniko San Joanak (HER-030/065)

Juani gaztetan izebaren etxera joaten zen San Joanetan. Dantza asko egiten zutela gogoratzen zaio, baina bereziki, azken eguneko kalejiraz oroitzen da. Egunean zehar baserrian aritu behar izaten zuen Juanik, ordea, babarruna biltzen, eta ez du jaien inguruan beste ezer gogoan.

565. Amonaren fedea I (HER-030/067)

Amona oso fededuna omen zuen Juanik. Amonaren joera eta ohiturak kontatzen ditu. Juani menda belar bila bidaltzen omen zuen sarritan amonak, goizeko seiak aldera, baserriko gela guztietako ohe azpitan jartzeko. Hernanin, San Antonioren figura ibiltzen omen zuten baserriz baserri eta txandaka. Egun, Altzan bizi diren honetan, bost baserri inguruk eusten diote ohitura horri, oraindik.

566. Amonaren fedea II (HER-030/069)

Santua etxez etxe ibiltzeko ohiturari buruzko xehetasun gehiago ematen du Juanik. Bildumena elizara eramaten zutenekoa ere kontaktzen du.

567. Mariaren kongregaziokoa (HER-030/071)

Maiatz oro, igandearekin, Mariaren Kongregazioarekin biltzen ziren. Jaun hartzea eta funtzioa izaten zuten. Amonarekin, aldiz, bezperetara joan behar izaten zuten.

568. Agirretxeren sermoia (HER-030/072)

Apaiz batek Hernanin dantza lotuari buruz esan zuen sermoia gogoratu zaio Juaniri. Sarritan mezetatik beldurrez irteten zirela dio.

569. Gabonetan oiloa gisatua eta oilasko errea (HER-030/073)

Gabonetan oilo gisatua edo oilasko errea prestatu ohi zituen Juaniren amonak, eta postretarako flana edo arrozesnea. Amak ikatza jartzen omen zien urtero oparitarako.

570. Urte osoa ekainari begira (HER-030/074)

Juanik San Juan jaiak noiz helduko zain pasa ohi zuen urtea. Hernanin gramola, musika eta ttun-ttuna izaten omen ziren, geratu gabe. Pilota partidek ere presentzia handia izaten omen zuten, eta baita sagardoak ere.

571. Sagasti handia Ibarluzen (HER-030/075)

Sagar asko izaten omen zuten baserrian, eta hainbat sagar mota, gainera. Aitonak aldatutakoak omen ziren, eta harekin batera jarduten zuten sagar biltzen.

572. Hernaniko papeleran (HER-031/003)

Hernaniko papeleran bizi ziren. Fabrika hartan 70 langile inguru ziren. Argazki zaharrak ditu eskuan.

573. Ahizparen jaiotzean lagutzen (HER-031/006)

Ahizparen jaiotzean lagundu zuen etxean. Aita eta bizilagunek laguntzen zioten. Ama asko hiltzen ziren orduan.

574. Ama eta umea tiroz hil (HER-031/007)

Gerra garaian nazionalak ama eta ume jaio berria hil zituzten.

575. Sei lagun ito zirenekoa (HER-031/010)

Elorrabiko zubikoa. San Juan bigarrenenez jende asko arraunlariei begira, zubia hautsi eta sei lagun ito ziren.

576. Aberatsen auzoa (HER-031/015)

"Barrio de las Villas" esaten zioten lekuan familia oso aberatsak bizi ziren. Kapilla eta guzti izaten zuten etxeek. Ama neskame ibili zen haietako batean. Txoferra ere izaten zuten.

577. Serenoa eta aguazila (HER-031/018)

Serenoak bi izaten ziren eta gauez herria zaintzen zuten. Elizako atean haur bat utzi zutenekoa gogoan du. Aguazila ere bazen. Guardia Zibilaren kuartela non zegoen gogoan du.

578. Pregoneroa eta Arrapatakorri (HER-031/019)

Serenoak berak jotzen zuen bandoa, erdi euskaraz erdi gazteleraz. "Arrapatakorri" gaitzizenez ezagutzen zutenaren kontuak.

579. Pepe Galletas kale garbitzailea (HER-031/020)

"Pepe Galletas" zen kale garbitzailea. Hura pasatzen zen guriarekin, jendeak galdarak ateratzen zituen eta hark eramaten zuen zaborra. Etxeketan jolasten zuen umetan.

580. Arrain-saltzaileak (HER-031/021)

Farolerorik ez du ezagutu. Zorroztaila lehen ere ibiltzen zen. Arrain-saltzaileak ere izaten ziren.

581. Angulak sarri (HER-031/022)

Seietako mezetara joaten zen eta handik irtenda angulak jaten zituzten igandeetan. Baserriko gauzak non saltzen ziren kontatzen du. Ganaduak Plaza Berrian egoten ziren lotuta.

582. Beloki baserria erre zenekoa (HER-031/025)

Sutea zenean kanpaiak jotzen ziren. Beloki baserria erre zenean jo zituzten.

583. Telegramak banatzen (HER-031/027)

Telefonoa Telegrafosetik erabiltzen zen. Telegramak banatzen ziren. Argazki zaharrak ikusten ari da.

584. Zintzotasuna zinea (HER-031/028)

Antzerkia izaten zen. Zintzotasunan zinea zegoen. Inguruko guztia baratzeak ziren. Arratsalde zinea izaten zen igandeetan. Argazki zaharrei begira dabil.

585. Emakumeak fabrian (HER-031/035)

Lehenago fabrian emakume askok lan egiten zuen. Carreronean jertseak egiten ziren. Ezkondu eta gero emakumeek lan egitea ez zegoen ondo ikusia. Argazki zaharrekin ari da.

586. Sindikatuak jaioberrientzat arropak opari (HER-031/039)

Argazki zaharrak. Bere ama agertzen da haurdun. Sindikatuak otarrak ematen zizkien ume txikien arropekin.

587. Etxeek eta jendeak ezizenak (HER-032/002)

Tilosetan zegoen etxe batean jaio zen. Gerora Goiarranera eta "Mataburros" esaten zioten etxera joan ziren bizitzera. Etxeek eta jendeak ezizena izaten zuten.

588. Arriatsuko eskolaren inaugurazioa (HER-032/004)

Arriatsuko eskolara joaten hasi zen. Eskola Loidi baserriaren parean egiten hasi ziren baina lur horiek urak hartzen zituenez, Arriatsun egin zuten. Ospakizuna egin zen lehenengo egunean.

589. Zapi zuriarekin komunikatzen (HER-032/005)

Erriberara joateko astoa eta behia zituzten. Eskolara joaten zenean, aitarekin lanera joan beharra bazuen, etxean zapi zuri batekin egiten zioten seinalea etxeratzeko.

590. Gobara errekan (HER-032/013)

Gobara egin beharra esaten zioten arropa garbitzeari. Barriño batean, etxean bertan, zikin handienak kendu eta errikan garbitzen zituzten.

591. Menda belar erratza (HER-032/014)

Menda belarrak bilduta makilari lotu eta harekin ohe azpiak pasatzen zituzten. Lurrari argizaria ematen zioten.

592. Kukurruku-eztularekin senideak (HER-032/015)

Kukurruku-eztula izan zuten ahizparen zazpi seme-alabak eta etxean izan zituzten hiru hilabetez.

593. Pasma-belarra (HER-032/017)

Pasma-belarra asko erabiltzen zen. Enplastuetan eta gargarak eginez erabiltzen zuten. Belarra nolakoa den eta nola lehortu kontatzen du.

594. Pareta-belarra eta berbena (HER-032/018)

Pareta-belarra, gibelarentzat. Bere amak nola hartzen zuen kontatzen du. Berbena belarra katarroarentzat. Eztia hartzen zuten esne beroarekin.

595. Huntzaren ura (HER-032/019)

Huntzaren ura egosi eta harekin arropa beltzak garbitzen zituen amak.

596. Hileta orduan lanean bazinen, kredoa (HER-032/022)

Agoni-kanpaiak bederatzi izaten ziren. Ezagunen baten hiletako kanpaiak entzundakoan Erriberan baziren, aita txapela erantzi eta kredoa erreztatzen zuen.

597. Haur-zapiak (HER-032/025)

Ume txikiari haur-zapiak jartzen zitzaizkion. Lantegietatik sobratutako manta puskekin egiten zituzten haur-zapiak. Orduko pardelak nolakoak ziren kontatzen du zehaztasunez.

598. Mutikoen eta gizonen jantziak (HER-032/026)

Mutikoak aitaren galtza zaharrekin egindako galtza motzak janzten zituzten. Alkandora eta brusa janzten zuten gainetik. Gizonezkoek mahoizko frakak erabiltzen zituzten. Gerriko beltza ere janzten zuten.

599. Abarkak eta amantarrak (HER-032/027)

Astebarruan abarkekin ibiltzen ziren gizonak, amantarrak galtzerdi modura jarrita, abarken lokarriekin lotuta. Abarketak eta zapatak ere izaten zituzten. Gurpil zaharrekin ere egiten ziren abarkak.

600. Zakuzko soinekoak neskatiletatzat (HER-032/028)

Mantal-aurrekoa emakume guztiek erabiltzen zuten astegunean, ahalik eta beltzena. Soinekoak zakuekin egindakoa da. Prozesua azaltzen du. Belar motzean hazitakoak direla esaten du.

601. Pexetera, zapatengatik (HER-032/031)

Ahizparen takoidun zapatak nola janzten zituen gogoratzen du eta "pexetera" esaten ziotela. Galtzerdiak nolakoak ziren kontatzen du.

602. Lotarako arropa (HER-032/032)

Lotarako nola janzten ziren kontatzen du.

603. Modako orrazkerak (HER-032/033)

Amak mozten zien ilea. Berak ile lisoa eta gogorra zeukan. Permanentea egitea sei pezeta ordaindu zituen eta harrezkero kizkurragoa du. Modakoa zen ile-kizkurra izatea. Nola kizkurtzen zuten kontatzen du. "A lo garçon" mozten zuten ilea. Orrazkerek bazuten beren izena.

604. Azkazalei dizdira emateko (HER-032/034)

Azkazalak dizdiratsu jartzeko xaboi moduko batekin igurtzen zituzten. Azal zuria zen orduan modakoa. Ittaurrean trapuarekin babesten zuten burua eguzkitik.

605. Adarraneko parean txokolatea jaten (HER-032/037)

Hernaniko banda eta danbolina izaten ziren Tilosetako erromerian. Ingurutik jende asko joaten zen. Adarraneko aurrean txokolatea hartzen zuten dirua zutenek.

606. Maridosa, nobioa esateko ezkutuko hitza (HER-032/040)

Maridosa hitza erabiltzen zuten nobioa esateko, aitzak ez ulertzeko. Lehengo eta oraingo harremanak. Bizi-alargun esaten zitzaaien bananduei.

607. 33 urtetik aurrera, neskazahar edo mutilzahar (HER-032/041)

Neskazahar eta mutilzaharrak aberatsenak zirela esaten zuten. Normalena ezkontzea zen. 33 urte betetzetik aurrera, neskazahar eta mutilzahar.

608. Gerrako bizipenak fronteen artean (HER-032/043)

Gerra zer zen galdetzen zuten gerra hasieran. Suak hartuta zebilen kotxe gorri baten azalpena ematen zien aitzak. Trintxerak Igartza gainean zeuden. "Pakun" soinua egiten zuten tiroek. Leihoak artilezko koltxoiekin itxi zituzten eta lurrean lo egiten zuten.

609. Gerraostean, ogiaren gosea (HER-032/046)

Gosea etorri zen gero, ogiaren gosea. Oliorik ez eta esnearekin egosten zituzten barazkiak eta babarrunak. Beldurrez eta tristuraz bizi izan ziren. Estraperloan ekartzen zuten ogia. Zer jaten zuten kontatzen du.

610. Euskaraz bizitzea (HER-032/050)

Euskaraz bizi izan da eta ahal den guztia egin izan du. Amak bazekien erdaraz baina aitzak ez. Amak beti esaten zien ikastea ona zela.

611. Zarauztik Hernanira (HER-033/004)

Izeben burdindegian, Lizeaganean, lanean aritzen zen. Hamalau urterekin etorri zen Zarauztik, aita hil zitzaionean, amonarengana Olazaharrera. Baserriko lanak egiten zituen: belarra ontzen, garoa mozten...

612. Gerraostean, dena lurpean gordeta (HER-033/005)

Gerraostean, Aranoko errotrara joaten ziren artoa ehotzera. Olia, margarina eta horrelakoak lurpean gordeta izaten zituzten, guardia zibilak etortzen baitziren sarritan. Taloa jaten zuten asko.

613. Uholdeak Hernanin (HER-033/006)

Uholdeak izan zirenekoa kontatzen du. Baserri ingurua eta abereak nola zeuden esaten du: oiloak behien gainean, uraren hotsa...

614. Uholde gehiago Hernanin (HER-033/007)

Beste uholde batzuk aipatzen ditu.

615. Irratia entzutera Ugaldetxora (HER-033/010)

Irratia entzutera Ugaldetxora joaten ziren.

616. Arropa zuritzeko (HER-033/011)

Arropak errekan nola garbitzen zituzten kontatzen du. Arropa zuria zelaian zabaltzen zuten, zuriagotzeko. Ikatzarekin edo su gainean berotzen ziren plantxak erabiltzen zituzten.

617. Bentaberriko erromeria (HER-033/013)

Gaztea zeneko modako orrazkera. Arrosarioa errezatu eta erromeriara joaten ziren dantzara. Igandero Bentaberrin soinujolea izaten zen; bilera esaten zioten. Jai berezietan Tarragona soinujolea izaten zen.

618. Mutil kontuak (HER-033/015)

Ugaldetxon bilerak noizean behin izaten ziren. Orduan neskatan eta mutiletan nola aritzen ziren kontatzen du. Atsolorra zer zen kontatzen du.

619. Ezkonduta ere, apaizek errietan (HER-033/016)

Nobioari muxuak emanez gero, konfesatu egiten zuten. Ezkondu eta gero ere errietan egiten zieten apaizek, umerik ez edukitzeko neurriak hartzearen.

620. Hilekoa isilpean; mitoak (HER-033/017)

Hilerokoari buruz ez zen etxekoekin hitz egiten. Horrelako gaiak ezkutuka aipatzen ziren. Hilerokoaren mitoak: ezin mahonesa egin, ezin ilerik garbitu...

621. Hiletak (HER-033/020)

Hiletak nolakoak izaten ziren kontatzen du. Sorbalda gainean eramaten zen hilerrira. Kutxa oihalez inguratua eramaten zen. Senide eta auzokoak biltzen ziren jatordua egiteko.

622. Atso-lorrak, medikuak eta sasimedikuak (HER-033/022)

Atso-lorreak zer jaten zuten kontatzen du. Olazaharko amonarekin izan zituen bere izebak haurrak. Medikuak geroago hasi ziren. Patas izeneko petrikillo baten kontuak.

623. Belauneko minarentzat erremedioa (HER-033/023)

Belauneko minarentzat erromeroa, alkohola eta pasmo-belarra nahasten ditu eta harekin igurtziak ematen ditu.

624. Gerraostean, olioaren orde ez negaina (HER-033/026)

Gerraostean gosea izan zen. Ugaldetxon apopiloak zituzten eta babarruna ematen zieten, baina oliorik ez eta argal-argal zeuden denak. Esnegaina botatzen zioten.

625. Lagunak zalgurdian eramaten (HER-033/029)

Mariaren Alabak kongregaziokoa zenez, zalgurdiarekin Ereñotzura eramaten zituen neskak mezetara. Hamazazpi urte inguru zituen.

626. Lehengo euskara politagoa (HER-033/030)

Euskara gauza handia izan dela beretzat dio. Beraien euskara oraingo batua baino polittagoa iruditzen zaio. Lehen bizkaitarrei ez omen zitzaion ulertzen.

627. Igandeetako menua eta tripakiak (HER-034/003)

Jaietan izaten zuten menua aipatzen du. Tripakiak nola prestatzen zituzten kontatzen du.

628. Gerratik itzulita, taberna irekitzeko lanak (HER-034/005)

Ahizparekin eta haren hurrekin Fuenmayorrera joana zegoen, haur baten osasun kontuengatik. Gerra hasitakoan ez zeukaten etxeko berririk. Urrian etxeratu zen, gerra betean, eta ez zuen inor aurkitu etxean. Taberna nola zabaldu zuten kontatzen du, auzokoen elkartasunarekin.

629. Hernaniko dendak eta tabernak (HER-034/006)

Taberna eta sagardotegi asko izaten ziren. Denek elkar ezagutu eta laguntzen zuten. "Guardaríos" taberna, Adarraga taberna, Kattalin ttiki denda, harategia, alpargategia, okindegia, farmazia... zeuden. Hernaniko dendak eta tabernak izendatzen ditu. Ileapaintzaileak izendatzen ditu.

630. Etxean euskaraz, kanpoan erdaraz (HER-034/009)

Etxean euskaraz egiten zuten. Amak erdaraz ikaragarriak esaten omen zituen. Etxetik kanpora erdaraz egiten zuten, euskara galarazita zegoelako.

631. Anaiengana bisitan kartzelara (HER-034/010)

Bere bi anai preso eraman zituzten, bata Andaluziara eta bestea Miranda de Ebrora. Laneginarazi zieten. Anaiarengana bisitan joaten zireneko kontuak azaltzen ditu. Beldur handia izaten zuten.

632. Erditzeak beti etxean (HER-034/013)

Etxean erditzen zuten, beti medikuarekin eta emaginarekin. Bost seme-alabak etxean izan zituen. Bere ahizpa Hernanira etortzen zen erditzera. Bataiatzea berehala egin behar izaten zen eta elizara sartu aurretik ezin izaten zuen amak kalera irten. Elizara sartzeko kandela eskuan eramaten zuten.

633. Txirritaren logela (HER-034/018)

San Juanetan Txirrita etortzen zen beraien etxera eta ohe bat izaten zuten harentzat. Etxekotzat zeukaten. Komunean sartu eta irten ezinda geratu zen behin. Txirrita etorri orduko taberna betetzen zen.

634. Zaborrik gabe (HER-035/002)

Ultramarinoen denda zeukaten etxekoek eta eskolatik irtendakoan ere hantxe laguntzen aritzen zen. Granelean saltzen zutenek, lan gehiago izaten zen. Erosketak nola egiten ziren kontatzen du. Zaborrik ez zen sortzen.

635. Orduko Hernani (HER-035/003)

Gerraosteko garaiak ondo gogoratzen ditu. Eskasia handia zegoen. Sirenak jotzen zuenean, Kale Nagusian goitik behera etortzen zen jendea eguerdiko hamabietan. Adarragatarrek txokolategia zuten eta Gorrotxategitarrek dolarea sagardotarako. Gainontzekoa baratzeak ziren. Alemaniar batek jertseak egiteko lantegia jarri zuen.

636. Gerraosteko migrazioa (HER-035/004)

Migrazioa nola hasi zen kontatzen du. Kanpotik jende asko etorri zen garai hartan. Nola bizi izaten ziren kontatzen du, bi eta hiru familia etxe bakarrean. Pixkaka etxeak eraikitzen hasi ziren. Jateko ohitura desberdinak zituzten.

637. Dendako erosleen zorrak (HER-035/005)

Soldata astero ordaintzen zuten. Jendea ezinean bizi zenez, zorrak apuntatu egiten zituzten. Francok hilean azkenean ume kopuruaren arabera ordainsaria ematen zuen. Harekin ordaintzen zuten askok zorra.

638. Dakien euskara Urumeari zor (HER-035/009)

Aita oso langilea zen. Dendaz gain, furgonetarekin batera eta bestera ibiltzen ziren saltzen. Dakien euskara Urumeako errekarari zor dio. Baserriz baserri joaten ziren eta denek euskaraz egiten zuten. Ibilbideko baserri eta lekuak izendatzen ditu.

639. Gaztetan Hernanin erdaraz (HER-035/010)

Hernanin erdaraz egiten zuten gaztetan. Baserritarrek egiten zuten euskaraz. Senarra euskalduna eta euskaltzalea zenez, etxean euskaraz egiten zuten.

640. Dendako produktuak baserrikoen truke (HER-035/012)

Errazionamenduarekin gogoratzen da. Baserritarrekin produktuen trukea egiten zuten.

641. Gidabaimena ateratzeko, falangetik pasa behar (HER-035/017)

Hemezortzi urterekin gidabaimena atera zuen furgonetarekin aritzeko. Falangearen emakume sekziora joan behar izan zuen baimena ateratzeko eta zertzuk ikasi behar izan zituen kontaktzen du (erlijioa, dotrina, puntua egitea...) Gidatzen zuen lehenengo emakumeetakoa izan zen Hernanin.

642. Mutilekin dantzan (HER-035/023)

Hamabost urte ingururekin mutilekin dantza egiten hasten ziren. Gurasoek berehala jakiten zuten. Aita azaldu zen behin dantzaldira eta hartu zuen ezustekoarekin korrika alde egin zuen.

643. Amaia izena ez aldatzeko komeriak (HER-035/026)

Amaia izena ipintzea ez zen erraza. Bere aitapuntakoak, osaba batek, erabaki zuen zein izen jarri. Gerraostean, izenak erdaratzea derrigortu zuten baina berea mantentzea lortu zuen aitak. Bere ilobari Amaia jartzen ere ez zieten utzi.

644. Portalondo etxearen historia (HER-037/001)

Izen-abizenak. Portalondo etxean jaioa da. Etxearen historia kontaktzen du: jentilen dorrea izan daitekeela esaten omen dute; herriaren hasiera zen. Jaiotze-data. Aitona eta amonaren jatorria eta nolakoak ziren.

645. Hernaniko Alondegia (HER-037/002)

Alondegia zer zen kontaktzen du. Udaletxe azpian zegoen eta ardoaren zerga kobratzen zuten han. Osaba Paulo zen Alondegiko arduraduna, ekimen askotan parte hartzen zuena.

646. Donostiarako tranbia eta gidariak (HER-037/005)

Plaza Berrin baserritarrek astoak lotuta uzten zituzten, tranbia hartu eta Donostiara joateko barazkiak-eta saltzera. Tranbia-gidarien izenen bat aipatzen du. Tranbiak nolakoak ziren eta hango langileek zertzuk egiten zituzten kontaktzen du.

647. Portalondoko estankoa (HER-037/006)

Lau senide ziren, Ixabel hirugarrena eta neska bakarra. Estankoa zeukaten eta taberna egin zuten etxearen azpikaldean. Anekdotak bat kontaktzen du.

648. Oinetako moduan, txankloak (HER-037/007)

Eskolan mojekin ibili zen hamalau urtera arte eta bere anaiak eskola publikoan. Uniformea izaten zuten: amantal beltz bat, lepo zuriarekin. Oinetan txankloak izaten zituzten. Nolakoak ziren kontaktzen du.

649. Estankoa denetarik (HER-037/010)

Estankoko lana. Denetarik saltzen zuten: haziak, poxpoloak, tabakoa, puroak... Anekdotak bat kontatzen du.

650. Serenoak izeba esnatzen zuen (HER-037/011)

Ixabel jaio aurretik, estankorako produktuak zalgurdiarekin ekartzen omen zituen aitak. Serenoak izeba nola esnatzen zuen kontatzen du.

651. Estankoa dinamita saltzen (HER-037/012)

Ezkondutakoan estankoa utzi egin zuen Ixabelek. Dinamita ere saltzen zuten estankoa; Sorgintxulon biltegia zeukaten eta orgarekin ekartzen zuten. Gerora dinamita saltzeko enpresa sortu zuten.

652. Etxafuegoak eta dinamita (HER-037/013)

Estankoa etxafuegoak ere saltzen zituzten. Dinamita saltzeko enpresa jarri zuten. Galdakaotik trenez ekartzen zuten.

653. Gerrako bizipenak (HER-037/014)

Gerra hasi zen urtean hil zitzaion aita, Ixabelek sei urte zituela. Gerra hasi zenean, bi anai zaharrenak Aranora bidali zituzten. Bonbak herrira erortzen zirenez, jendeak alde egin zuen Hernanitik. Ixabel eta anai gazteena etxean geratu ziren, baina egun batzuk Ereñotzun pasatu zituzten.

654. Gerra garaiko babeslekuak (HER-037/015)

Gerra garaian babeslekura joaten ziren sirenak jotakoan, etxearen azpikaldera edo Lizeagako altzari lantegira.

655. Ihes egin eta herrira itzultakoei zigorrak (HER-037/016)

Gogoan dauka gerra garaian Hernanin soldaduak ikusi izana. Alde egin eta herrira itzultzen ziren hernaniarrak zigortu egiten zituzten. Emakumeei ilea moztu eta olio ematen zieten.

656. Senarraren osaba fusilatua (HER-037/019)

Bere senarraren osaba bat fusilatu egin zuten, beste askorekin batera. Nola izan zen kontatzen du.

657. Neska-mutilen arteko harremanak (HER-037/020)

Gazte garaian, etxean lanean edo zerbaitetan ematen zuten eguna, baina kalean ez ziren ibiltzen igandea ez bazen. Tilosetan dantzaldia izaten zen; euria bazen, arkupeetan. Mutil eta nobio kontuak.

658. Mantekin arropa egiten (HER-037/021)

Paper-lantegian erabiltzen ziren mantekin arropak egiten zituzten. Eskasia handia zegoenez, berokiei buelta ematen zioten. Corpus egunean arropa estreinatzea oso ohikoa zen.

659. Modako zapatak eta kortseak (HER-037/022)

Gazte garaiko arropa eta oinetakoak. Zapatak bustitzen baziren, hondatu egiten ziren. Ameriketatik eta Argentinatik zetozen aldizkarietako soinekoak gustatzen zitzaizkien. Kortseak erabiltzea gomendatu zioten amak eta izebak eta lxabelek bolada batez erabili zuen. Bitxiak ere erabiltzen zituzten. Ilean trentzak erabiltzen zituzten.

660. Azalaren koloreak garrantziarik ez (HER-037/024)

Gazte garaian ez zioten azalaren koloreari gehiegi erreparatzen. Tuberkulosiak jota gazte asko egon ziren Hernanin. Ixabel gaixo egon zenean, Errioxan izan zen bolada batez eta belztuta etortzeak arreta eman zien herritarrei.

661. Zintzotasuna zinema (HER-037/025)

Hernaniko Zintzotasuna zinema. Jai arratsaldetan emanaldia izaten zen.

662. Unidad egunkaria salgai (HER-037/026)

Unidad izeneko egunkaria, falangearena, saltzen zuten iluntzetan. Gabonetan loteria zela eta, asko saltzen zuten.

663. Telebistaren kalteak (HER-037/027)

Asko irakurtzen zuten. Lehenengo telebista alaba zaharrenak hamar urte inguru zituenean erosi zuten. Telebistak denbora asko kentzen zuen bestelako gauzak egiteko, irratiak ez bezala, eta kalte egin duela uste du.

664. Euskal musika klandestino (HER-037/028)

Euskal musika. Labeguerieren disko txikia ekarri zutenekoa gogoan du. Guridiren obren diskoa ere bazuten.

665. Enseñanzas del Urumea ikastola (HER-037/029)

Ikastola. Bere senarrak beste batzuekin batera eman sortu zuen: Enseñanzas del Urumea izena zuen. Hasiera ona izan zuen. Seme-alabak Santo Tomas lizeoan izan ziren.

666. Elizaren aginduak (HER-037/031)

Emakumea gehiago zigortzen zuten bekatua zela eta. Sufriz ikasi dute harreman sexuak ugalketa ez beste funtzioak badituztela. Jantzak zela eta, arau gogorrak izaten ziren. Elizarako mantilla erabili behar izaten zen, baita liburua ere. Meza latinez ematen zenez, ez zuten gehiegi ulertzen.

667. Eliza ikastolen babesle (HER-037/033)

Ikastolako ikasturte bukaerako festari buruzko informazioa idatziz aurkeztu behar izaten zuten, festa bera baino lehen. Elizak orduan funtzio ona bete omen zuen. Luistarren berri ematen du. Padres de Familia institutuaren sorrera elizak babestu zuen.

668. Hizkuntza ohiturak (HER-037/034)

Erdara asko erabiltzen zuten kalean. Etxean euskaraz egiten zuten. Ikastola sortutakoan, kalean ere euskara entzuten zen. Ohitura nolakoa duzun pertsona bakoitzarekin, hori aldatzea zaila da. Oraingo hizkuntza ohiturak familian.

669. Lehenengo kotxea (HER-037/038)

Senarra motorra hartu eta atzean gurditxo jarrita ibiltzen zen. Lehenengo kotxea erosi zueneko kontatzen du.

670. Birraitona kontrabandista eta gozogilea (HER-038/002)

Birraitona kontrabandista zuen, Andoainen jaioa. Andregaiak eskatu zion ofizioa alda zezala, ezkondu nahi bazuen. Gozogile izatea erabaki zuen orduan. Garai hartan gozogileek harreman handia zeukaten elizarekin eta gozokiez gain, kandelak ere egiten zituzten. Aitak kandelak eskuz nola egiten zituen azaltzen du.

671. Birraitonaren gozogile ikasketak (HER-038/003)

Birraitona Toledora joan zen turroia egiten ikastera. Turroia arabiarrek egiten zuten jakia zen. Toledo inguruan almendra eta azukrearekin egiten zuten; Valentzian, berriz, almendra eta eztiarekin. Handik Parisera joan zen pastelak egiten ikastera. Belaunaldi belaunaldi transmititu dute ofizioa.

672. Senide kirolari ezagunak (HER-038/006)

Manoloren osaba Luis txirrindularitzan euskal-nafar txapeldun izan zen. Hamabi seme-alaba izan zituen. Alabetako bat saskibaloian Espainiako txapeldun izan zen; Tito Irazustaren ama zen. Emakumeak atletismoan aritzea ez zegoen ondo ikusia.

673. Lehengusua pertikarekin txapelketetan (HER-038/008)

Bere lehengusu batek pertikarekin lortutakoak aipatzen ditu.

674. Hernani futbol taldearen sorrera (HER-038/011)

Aita futbol taldearen sortzaile izan zen. Bilerak non egiten zituzten kontatzen du. Adarraga txokolategia non zegoen kontatzen du.

675. Gipuzkoako kupelik handiena (HER-038/012)

Sagardoa egiten zuten. Tolare bat zeukaten eta sagardotegi pare bat ezagutu ditu Manolok. Tolarea deskribatzen du. Garai batean Gipuzkoako kupelik handiena izan zutela dio. Astebetean txotxean dena saldu zela esaten omen zuen bere aitak.

676. Sagardoaren fermentazioa atzeratzeko teknika (HER-038/013)

Fermentazioa atzeratzeko modua asmatu zuen aitak. Nola egiten zuen deskribatzen du. Horrela azken sagardoa aitak izaten zuen. Ingalaterrako Bulness etxean fermentazioa nola bideratzen zuten kontatzen du.

677. Toka eta sagardo errondak apustuan (HER-038/015)

Sagardo asko saldu zuen umetan txotxean. Sagardotegi kanpoaldean toka jartzen zuten eta sagardo erronda izaten zen askotan apustua.

678. Hernaniko bolatokiak (HER-038/016)

Bolatokian Manoloren aitagarreba eta koinatua ibiltzen ziren. Ze bolatoki zeuden aipatzen du: Txapelandikoa, Sorgintxulo...

679. Eskolatik eskolara (HER-038/018)

Agustina Martikorenarekin Fuera Portalesen ibili zen. Gero Presen maistrarekin ibili zen eta azkenik Biterin. Biterin zein irakasle izan zituen kontatzen du. Bederatzi urterekin Sagrado Corazonera joan zen Donostiara, zazpi urtetako batxilergoa egitera. Gero errebalida egiten zuten.

680. Zaragozan batxilergoa ikasten (HER-038/019)

Zaragozan urtebete pasatu zuen batxilergoko azken kurtsoa ikasten. Lehenengoz paisaia hura ikusi zueneko gogoan du. Nolako bizimodua zeukan kontatzen du. Pasarte barregarri bat kontatzen du. Zaragozan hasi zen futbolean eta korrika.

681. "Zubien arteko buelta" lasterketa (HER-038/022)

Donostian lasterketa bat izaten zen, "Zubien arteko buelta". Ibilbidea zehazten du. Bere lehengusu Bernardino bigarren geratu zen eta Manolo 63. postuan, hamaika urterekin. Urtero parte hartuz, hamabost urterekin bigarren geratu zen.

682. Añorgako lasterketan txapeldun (HER-038/023)

San Pedro egunez izaten zen Donostiako lasterketa. Karmen eguneko Añorgako lasterketari buruzkoak kontatzen ditu. Hura berak irabazi zuen. Anekdotak bat kontatzen du. Añorgako lasterketa irabazi zuenean, kafetera elektrikoa eskuratu zuen. Julian Rezolak banatu zituen sariak.

683. 1949ko futbol txapelketa Hernanin (HER-038/024)

Zaragozatik bueltan, 1949an txapelketa antolatu zuten hilerri zaharrean. Txapelketaren ostean Hernaniko futbol taldea osatu zuten eta Andoainen jokatzeko zuten. "Ocho onzas" futbol taldea etxeko artean osatu zuten txapelketarako. Zelaia halamoduzkoa zen. Ingurua deskribatzen du.

684. Bizimodua bizkorregi aldatzen (HER-038/026)

Hernani aldatu egin dela dio. Bizimodua bizkorregi aldatzen ari dela uste du, pentsatzeko astirik izan gabe.

685. Dominikar Errepublikan lanean bost urtez (HER-038/027)

Ameriketara bost urtez lan egin zuen. Aurretik Maltzerreka kooperatiban ibili zen (Bergaran) eta ondoren CAFen. Dominikar Errepublikara joateko aukera sortu zitzaion eta emaztea eta bi alabekin joan zen. Han lanean gustora aritu zen bost urtez. Anekdotak bat kontatzen du.

686. Informatikaren hastapenak (HER-038/029)

Dominikar Errepublikan informatikako ikastaroa egin zuen. 1970etik 1975era bitartean egon zen herrialde hartan. Informatikako hastapenak nolakoak ziren kontatzen du. Bizimodua zein bizkor aldatu den azaltzeko jarri du adibidea.

687. Etxean beti euskaraz (HER-038/031)

1932an jaioa da. Bera jaio eta hurrengo egunean lehenengo aberri eguna egin zen. Etxean beti euskaraz egiten zuten baina gerraz geroztik, kalean erdaraz egin behar izaten zen. Aita Adarraganekoa zen eta ama Andrekalekoa. Eskola erdaraz zen.

688. Hizkuntza ohiturak lagunartean (HER-038/033)

Ikasketak erdaraz egin zituen. Lagunartean euskaldunen artean erdaldunen bat agertzen bazen, denek erdaraz egiten zuten. Erdaraz gehiago egin izan du.

689. Gerra garaian Hernanin (HER-038/036)

Gerra garaia Hernanin pasatu zuen. "Gorriak" etorritakoan, Pagoagako eskolan babestu ziren eta astebete inguru pasatu zuten. Handik etxeratu eta denda hankaz gora aurkitu zuten. Etxea ere zulatuta topatu zuten. Frankistak etorri zirenean, bi militar egon ziren Manoloren etxean.

690. Baserriko kontuak; anaiaren heriotza (HER-039/002)

Bere baserria nolakoa zen kontatzen du. Lursail asko eta animalia asko zituzten. Lana ere asko. Bost senide, bat 11 urterekin hil zen; oraindik ez dakite norbaitek hil zuen ala istripua izan zen. Zaldi-karroan joaten ziren Donostiara.

691. Gobara egiten, "lixiolan" (HER-039/004)

Josten ikasten hasi zen 16 urterekin; ordura arte, etxeko lanetan. Lurra garbitzen. Arropa beratzen jarri eta gero Arrietako iturrian astintzen zuten; etxean zabaltzen zuten gero. Chimbo. "Lixiola".

692. Astoarekin ur bila (HER-039/005)

Buru gainean eramaten zuten arropa izebak eta biek. Urik ez zuten etxean. Gero iturria jarri zuten. Euri ura jasotzen. Astoarekin ur bila, marmitekin.

693. San Martin plazan, tratuarekin (HER-039/006)

Idi pareak zuten lanerako, eta dozena bat behi. Zaldiarekin Donostiara, gero furgonetarekin. Esnea eta tratua saltzen. San Martin azoka. Ama joaten zen hasieran, eta gero anai-arrebak. Bezeroak. Baratztea.

694. Lurra lantzeko tresnak; gose garaian, taloak (HER-039/007)

Traktoreen aurretik goldeak izaten ziren. Karramarroa, area, marka... Artoa, babarruna. Oiloentzat zen artoa; gose handia izan zenean bai, taloak eginda, ogirik ez zegoelako. Errazionamendua. Olio gutxi. Sardina latetako olioak erabili behar. Bi txerri hiltzen zituzten urtean.

695. Behien jatena eta belar lanak (HER-039/009)

Etxean egiten zen gari apurra behientzat zen; haragiari zapore berezia ematen zion, eta utzi egin zuten. Behien jatena. Belar lanetan; "txorrokak". Belar meta. Behiak ganbararaino, belarrarekin. "Majera". Erremolatxa. Arto tontorrak.

696. Txerri jana; mendira iratze bila (HER-039/010)

Txerri-jana ekartzen zuten Donostiatik. Erremolatxa ematen zieten haiei ere. Lanerako idiak; neguan mendira, iratze bila. "Iñistorra". Gurdiarekin hasieran eta gero kamioiarekin. Latxean kargatzen zuten gurdia. Autorik ez bidean.

697. Ikasketak egin ordez, hobe josten ikastea (HER-039/011)

Eskolara beti joaten ziren. Eskola publikoa. Neska-mutilak aparte. Anaiak partikularrera joan ziren. Maistrak etxera joan zitzaizkien, berari karrera bat emateko esanaz, baina gurasoek ez zioten inportantziarik ematen. Frantsesa ikasi nahi zuen. Josten ikasi zuen.

698. Josten ikasten; tela saltzaileak (HER-039/012)

Josten ikasten 16 urterekin hasi zen. Hernanin eta Donostian. Tranbian joaten zen. Moda. Tela erosi eta gero josi. Tela eta maindire saltzaileak. Ezkontzeko, Erreterian erosi zituen. Kanporako ere josten zuen, ahal zuenean. Bordatuak.

699. Ezkontza eta arreo (HER-039/013)

29 urterekin ezkondu zen. Arreo berak prestatu zuen: maindireak, kamisoiak, mantelak... Lagunei arreo erakusteko ohitura.

700. Nobio garaia; dena bekatu (HER-039/015)

Senarra nola ezagutu zuen: Segurakoa zen, baina Hernanin bizi zen. Bere arreba laguna zuen. Mutil-lagunarekin zer egiten zuen: zinema, paseatu... Etxe laguntza. Gurasoen kontrola. Dena bekatua zen. Hernanira bikario gazte bat etorri zen. Lanbide heziketa jarri zuen. Musu ematea libre zela zioen hark.

701. Isilpeko haurdunaldiak (HER-039/016)

Ezkondu gabe haurdun geratzea ez zegoen ondo ikusia. Orain bai. Neskak fama txarra, mutila libre. Isilpeko haurdunaldiak.

702. Esku eskaera eta ezkontza (HER-039/017)

Esku eskaera. Neskaren gurasoek joan behar zuten mutilen gurasoengana. Lezon ezkondu ziren; gonbidatuak autobusez joan ziren. Bazkaria Erreterian. 30-40 ziren guztira.

703. Ezkon-bidaia trenez; seme-alaben jaiotza (HER-039/019)

Ezkon-bidaia. Valentzia, Madril eta Zaragoza, trenez. Hamabost eguneko bidaia. Hiru seme-alaba izan zituen, denak etxean; gutxi joaten ziren ospitalera. Medikua eta emagina. Jaioberrien arropa. Gerrikoa. Ume asko hiltzen ziren.

704. Bataiatu gabe hildako haurrak (HER-039/020)

Bataiatu gabekoak linbora joaten zirela zioten. Hala hil zitzairen lehenengoa. Aingerua. Bataioa.

705. Jaunartzea eta dotrina (HER-039/021)

Jaunartzea. Dotrina elizan ikasten zuten, eskolan ez. Eskolan erdaraz. Jaunartzeko soinekoa eta mantilla, Donostian erosiak.

706. Lehen eliza beteta, orain ez (HER-039/022)

Mariaren alaben kongregazioa, hilean behin. Elizaren garrantzia nola aldatu den. Gazteak ez dira joaten orain, lehen bete egiten zen. Aulkiak ordaindu egiten ziren, serorari, egun berezietan. Aste Santuko sermoiak, fraideekin. Dena bekatua.

707. Umetako jolasak; txori habi bila (HER-039/026)

Umetako jostaketak. Puskatutako plater zatiekin jolasean. Sokasaltoan. Txingoka. Harrapaketan. Ikusi-makusi. Txori habia bila, gero etxean hazteko. Osabak trikuak ere jaten zituen. Txori handiak. Kilkerrak. Jostailu gutxi. Panpinarik ez zuten erosten. Uztarria. Bizikleta, enkargutara joateko.

708. Herrietako festetara dantzara; goiz erretiratu beharra (HER-039/028)

Ezkondutako aurreko ibilerak. Zinemara eta inguruko herrietako festetara. Etxera goiz erretiratu beharra. Bazkaldu eta segituan joaten ziren, eta egun argiz etxera. "Aimaria" kanpaiak. Neguan lehenago. Nora joaten ziren. Dantza lotua. Ttunttuna eta banda. Jende mordoak joaten zen Hernanira. Diskotekak. Oialume.

709. Euskara galarazita, gerra ondoren (HER-039/030)

Euskaraz ari zirela, Donostian esan zieten: "Hable en cristiano". Ikastolek biziberritu zuten euskara. Gerra osteko debekua.

710. Hernanira gerra iritsi zenean (HER-039/032)

Askori hartzen zieten kargu euskaraz hitz egiteagatik. Beldurrez egoten ziren. Falangeak agintzen zuen. Gerra hasi zenean, etxe ondoan eserita zegoen. Izebak barrura bidali zuen. Bonbak Hernanin. Jende askok alde egin zuen.

711. "Heriotzaren aldapako" fusilamenduak (HER-039/034)

"Cuesta de la muerte" izena nondik datorren. Jende asko hil zen aldapa horretan istripuz. Gerra garaian, fusilatuak zulo batera botatzen zituzten han. Kale-garbitzaileak joaten ziren hildakoen bila, kanposantura eramateko. Lurperatzaile lanetarako hartu zuten osaba; ezagunak aparte uzten zituzten, familiei esateko.

712. Ezinikusien ondorioak (HER-039/035)

Ezinikusiak ziren hilketa askoren arrazoia. Emakumeei puga eman eta ilea moztzen zieten, sozialistak zirelako edo.

713. Hernanitik ihesi joandakoak (HER-039/037)

Tiroetatik ihesi joan zirenek ez zekiten nora zihoazen ere. Asko ezagunak ziren. Batzuek urteetara bueltatu ziren. Etxeak hustu zituzten.

714. Gose garaian, tuberkulosia asko (HER-039/039)

Etxean ez zuten politikarako grinarik. Beti lanean. Gose handia, gerra ondorean. Biriketako gaitzarekin hiltzen ziren asko. Jan faltarik ez zuten izan beraiek baserrian, baina beste askok bai. Taloak bazituzten. Estraperloko ogia.

715. Sukaldea eta logelak (HER-039/041)

Ezkondurik etxean egin zuen lana, baserrian. Sukaldea nolakoa zen, logelak. Hiru ganbara zituen. Hiru bizitzakoa zen garai batean; Ameriketara joan ziren lanera anaia batzuek. Han irabazitakoarekin erosi zuten baserria. Ukuilua, dolarea.

716. Etxean sagardoa egiten; saldu ere egiten zuten (HER-039/042)

Dolarea aitak egin zuen, egurrezkoa. Sagardoa egiten zuten; beste baserrietatik ere joaten ziren. Aurretik, Balantxa baserrira joaten ziren beraiek ere. Sagardoa egiteko prozesua. Upela. Botilaratzea. Saldu egiten zuten, baina ez txotxean.

717. Txerri-muinak elkarri opari (HER-039/044)

Txerri-muinak oparitzen zizkieten elkarri. Txerria hiltzean, inguruko baserrietara eramaten zituzten puskak.

718. Ipuinak eta ohitura zaharrak (HER-039/046)

Sorginen kontuak eta Sacamantecas. Gezurrak esaten zizkieten, etxera goiz erretiratzeko. Mateo Txisturen ipuina. Trumoiaren zenean, aitak erramuarekin egiten zuena. Elorria atean, gurutzea eginda. Soroak ez zituzten bedeinkatzen, etxea bai, berria egitean. Ogiari gurutzea.

719. Etxeko aitona eta amona (HER-039/048)

Amona Donostiara joaten zen, gero ama. Aitonarekin belaun gainean ibiltzen ziren. 60 urterekin hil zen, eta oso zaharra iruditzen zitzaion.

720. Euskara eta frantsesa (HER-039/050)

Euskara zer den berarentzat. Ez daki euskaraz irakurtzen eta idazten. Frantsesa ere ikasi nahi zuen. Ikastea gustatzen zitzaion, baina aukerarik ez zuen izan.

721. Hernani herri txiki euskalduna zen (HER-039/052)

Hernanin denek zekiten euskaraz. Herri txikia zen, 5.000 biztanlekoa; orain 20.000 ditu. Gerra ondoren nagusitu zen erdara. Etxeak egin zituzten beraien lurretan.

722. Hika, zuka eta berorika (HER-039/054)

Hika hitz egiten zuten lehen, orain ez. Berorika egiten zieten askok gurasoei, beraiek ez. Seme-alabei zuka. Apaizei berorika eta eskuan musu eman. Medikuari ere bai.

723. Euskara eta euskalkiak (HER-039/057)

Oraingo gazteen euskara eta euskara batua. Desberdintasunak lehengoarekin parekatuz. gauza asko ulertu ezin. Euskara Tolosatik aurrera aldatzen da; Donostiako euskara ere diferentea da.

724. Mojetan eta ondoren Martutenen ikasten (HER-040/002)

Gurasoek seme-alabek ikas zezaten nahi izan zuten. Milagros mojetan ibili zen eskolan eta ondoren Martutenen ikasi zuen. Beste bi lagunekin joaten zen. Ama zalgurdiarekin joaten zen Donostiara esnea banatzera.

725. Agustina Martikorenarekin klase partikularrak (HER-040/003)

Gerra etorri zenean, hamabost urte zituen eta ikastetxea itxi egin zutenez, Agustina Martikorena maistrarekin partikularretan ibili zen. Bost ikaskide ziren, denak neskak, eta haien izenak esaten ditu.

726. Mojen eskolan kapa eta kapela (HER-040/004)

Bere senideak Arriatsuko eskolara joaten ziren. Mojen eskolako uniformea deskribatzen du: kapa eta kapela eramaten zuten. Ilea motza erabiltzen zuten neskek, "a lo garçon".

727. Don Luis Larrauri esnetegia (HER-040/005)

Bere aiton-amonen janzkerak: emakumezkoek txanbra eta gizonezkoek brusa eramaten zuten. Amona Daxera (Frantzia) joaten zen, erreumagatik bainuak hartzera. Agerre baserrian jaio zen Milagros baina gero gurasoekin Don Luis Larrauri esnetegira joan zen. Esnetegiaren jabeak tituludun aberatsak ziren eta urte batzuen buruan, itxi egin zuten.

728. Esnea banatu eta hondartzara bainatzera (HER-040/006)

Esnetegian behi asko izaten zen. Amak zalgurdiarekin Donostiara eramaten zuen esnea eta Milagrosek laguntzen zion. Sobran zeukan esnea amak plazan saltzen zuen bitartean, Milagros hondartzara joaten zen bainatzera. Nola moldatzen zen kontatzen du. Udan Donostian usain berezia izaten zen: tabako gorriarena. Donostian hondartzan kabinak alokatzen ziren eta han izaten zen Milagros.

729. Amaren kotxea (HER-040/007)

Neguan ez zen hondartzara joaten, irakurri egiten zuen. Ordurako amak gida baimena atera eta kotxea lortu zuen, Chenar Walker markakoa. Kotxea deskribatzen du: kartola txiki bat zeukan, manibelarekin arrankatzen zen, haizea graduatu behar zitzaion... Gipuzkoan gida baimena eskuratzen emakumeetan bosgarrena Milagrosen ama izan zen.

730. Donostian gozotegi bateko arduradun (HER-040/009)

Hemezortzi urterekin osaba-izeben etxera joan zen Donostiara. Okindegia zeukaten. Hamalau-hamabost denda zituzten. Senarrak banaketa egiten zuen eta hala ezagutu zuten elkar. Izebak gozotegia ireki zuen eta Milagros jarri zuen arduradun. Osabak izozki-denda ere hartu zuen. Nolakoak izaten ziren kontatzen du.

731. Esnal gozotegia jarri zutenekoa (HER-040/011)

Hernanira etorri eta Esnal gozotegi-okindegia ireki zuten senarrak eta biek. Oraingo egoeraz hitz egiten du, dendak jarraitzen baitu.

732. Bonbak, mazapanak eta pastak (HER-040/013)

Tilosetan dantzaldia izaten zen eta Donostiatik eta inguruetatik jende asko joaten zen. Asko saltzen zuten orduan. Bonbak saltzen zituzten gehien. Gabonetan mazapanak egiten zituzten eta oparitzeko pastak erosten zituzten herritarrek. Kafetegia jarri arren, ohitura geroago zabaldu zen.

733. Baserritar gizonezkoen ibilerak herrian (HER-040/014)

Gerra aurrean, baserritar gizonezkoek igandetan meza ostean hamaiketakoak egiten zuten. Ostegunetan feria izaten zen. Don Rufino tratalaria zen Sinkonean eta salerosketak bertan egiten ziren.

734. Jabetza gizonezkoena zen (HER-040/015)

Bere gazte denboran, gizonezkoa denaren jabe zen eta emakumeek ez zeukaten sinadurarik. Bere gurasoak salbuespena ziren. Gizonezko batzuek apustueta baserria galtzen zuten, jabetza haiena izanik. Emakumeen lana goratzen du.

735. Aitak traktorarik nahi ez (HER-040/016)

Aita baserriko lanetaz arduratzen zen. Milagrosen anaiak tratorea ekarri zuen, baserriaren kargu hartzean. Aldaketa izan zen.

736. Zintzotasuna zinemako film mutuak (HER-040/020)

Zintzotasuna zinema. Film mutuak ematen zituzten, pianoarekin lagunduta. Errial bat ordaintzen zuten. Adarraga parean beste zinema bat zegoen, handiagoa.

737. Obusa etxe ingurura bota zutenekoa (HER-040/021)

Erreketek Hernanira etorri zirenean nabaritu zuten gerra hasi zela. Urnietatik obusak botatzen zituzten Hernanira. Geltoki aldera edo Ergobi aldera erortzen ziren. Oriamenditik ere botatzen zituzten. Etxe ingurura erori zen bat. Argindegikoak etxean hartu zituzten, arriskuan bizi baitziren.

738. Tiro hotsak: pakun-pakun (HER-040/022)

Agerreko osaba gerrara eraman zuten, lau ume txiki zituela. Hura Valderroblezen (Huesca) hil zuten. Tiroek "pakun! Pakun!" egiten zutela gogoan du. Donostiara esnea eramatera joateko bidez aldatu behar izan zuten.

739. Errazionamenduko produktuak Argentinatik (HER-040/023)

Gerraostean patata, taloa eta bestelakoak bazituzten baserrian eta ez zuten gose handirik pasatu. Argentinatik bidalitako irinarekin, pasatutakoarekin, borona egiten zen, ogi moduko bat. Haragia ere Argentinatik ekartzen zuten errazionamendurako.

740. Euskara eta gaztelera nahastean (HER-040/024)

Euskara bere hizkuntza nagusia izan da. Gerra ondorean euskara debekatua zegoenez, gaztelera gehiago egiten bukatu zuen. Errazago egiten du gaztelera. Berak zein ilobek erdi euskaraz erdi gaztelera egiten omen dute orain.

741. Gurasoak Zaldibiatik Hernanira (HER-041/002)

Irune eta Xaturren gurasoek Zaldibiako baserria utzi behar izan zuten, maiorazko kontuak gora-behera, eta Hernanin bukatu zuten bizitzen.

742. Hernanitik alde egin behar (HER-041/004)

Gerra piztu artean Hernanin bizi izan ziren bolada motz batez, geletan komuna, dutxa eta guzti zuen etxe batean. Baina behin gerra hasita, bonba bat erori omen zen etxetik oso gertu, eta gurasoek alde egitea erabaki zuten.

743. Ia bonba batek harrapatu (HER-041/006)

Xaturrek kontatzen du bonba batek harrapatu zuela ia. Amari esker libratu zen.

744. Aita gordean (HER-041/007)

Xatur eta Iruneren aita frentera joateko adinean zen oraindik gerra piztu zenean. Gordeta eduki zuten gerra bukatu arte.

745. Medikua falta eta anaia txikia hil (HER-041/009)

Gerra garaian medikurik gabe geratu omen zen Hernani. Irune eta Xaturren anaia gaixotu egin zen eta artatu ez zutelako hil.

746. Euskaraz egiteagatik errieta eman (HER-041/010)

Zaldibian bizi izan ziren urtetan ez ziren eskolara joan, eta Hernanira joandakoan, kalean erdara omen zen nagusi, gerra garaian.

747. Ikasle ona eta ikasle txarra (HER-041/011)

Xatur ikasle ona izan da beti. Iruneri gehiago kostatzen zitzaion eskolako kontuak buruan sartzea.

748. Jostailu fabrikan lanean (HER-041/012)

Irune hamahiru urterekin hasi zen jostailu fabrikan lanean, hamalau zituela esanda.

749. Aita eta ama silikosiak jota hil (HER-041/013)

Aita eta ama silikosiak jota hil ziren, fabrikan egin behar izan zuten lanaren ondorioz.

750. Lanerako inoren baimenik behar ez (HER-041/014)

Behin hamalau urte betez gero ez omen zuten inoren baimenik behar lanean aritzeko. Gutxi ordaintzen zietela esaten dute, baina gurasoek asko eskertzen zuten seme-alabek etxera eramaten zuten diru-saria.

751. Ama langile handia (HER-041/015)

Amak lan handia egiten zuen etxean. Esaterako, seme-alaba guztiak oheratzerako euren arropak garbitu eta hurrengo goizerako lehor eta garbi izaten zituen prest, haurrek jantzi zitzaten.

752. Xatur gau-eskolan (HER-041/017)

Xatur gau-eskolan aritu zen bere burua prestatzen eta amak lan egiten zuen fabrikako bulegoetan lana topatu zuen. Hogeita hiru urterekin Frantziara joan zen.

753. Arpilatze eta lapurretak (HER-041/021)

Gerra garaian ihesi joandako jende gehienaren etxeak arpilatu zituzten, baita Karrera-Etxeberriatarren bizitokia ere.

754. Fusilatzeak etxe ondoan (HER-041/023)

Hilerriko bidean bizi ziren Xatur eta Irune, eta haien etxetik fusilamendu guztiak ikus zitzaketen.

755. Euskaraz jakin ez (HER-041/025)

Xatur irakasle baten alabaren ondoan eseri zuten eskolan, euskaraz hitz egiten erakutsi behar baitzion eta besteak, aldiz, Xaturri gazteleraz.

756. Kirolari porrokatuak (HER-041/029)

Xatur eta Irune federatuta ibili izan dira mendian, Hernanin dagoen Mendiriz Mendi eta Tolosako Alpino Uzturre elkarteekin. Eskiatzen eta pilotan ere ibiliak dira. Irune eskalatzen ere ibili da.

757. Dantza gutxi eta kirol asko (HER-041/030)

Gazte garaiko erromeriez galdetu eta ez omen ziren halakoetara gehiegitan joaten. Berriz ere kirol kontuei heldu diete eta Xatur korrikalari aparta eta Irune jauzilari trebea zirela diote. Saskibaloian ere ibiliak dira 19 urte inguru zituztela.

758. "Sección Femenina"ren aurkako partida (HER-041/031)

Hernaniko saskibaloit taldearekin "Sección Femenina"koen aurkako partida bat jokatu, eta galdu egin zuten. "Sección Femenina"koek laguntzak jasotzen zituzten, prestatuak zeuden, eta eurak ez, ordea.

759. Hernaniko saskibaloit taldea (HER-041/032)

Herrian osatuta zuten nesken saskibaloit taldeari buruzko xehetasunak ematen dituzte: non eta nola entrenatzen zuten, nor zuten entrenatzaile, baldintzak,...

760. Txangoa Pirinioetara (HER-041/033)

1952an egin zuten lehen txangoa Pirinioetara, kanpin dendak hartu eta taldean autobusean joanda, eta Irunek gogoan du hiru emakume soilik joan zirela; gainontzeko guztiak gizonak.

761. Hika eta berorika (HER-041/035)

Elkarri hika egiten diotela eta, gazteak zirela erabiltzen zituzten tratamenduez hasi dira hizketan. Esaterako, apaizari berorika egin behar izaten zitzaion, nahiz euren inguruan horretarako ohiturarik izan ez, aitari buruz kontatzen duten pasadizoa da horren adierazle.

762. Kanpin dendan lo, Aralarren (HER-041/037)

Neska gazte gehienek helburu gorena ezkontzea zen garaian, gaztaroa bizitzeko beste modu bat hautatu zuten Xaturrek eta Irunek, kirolari atxikia, eta nonbait, emakumeei ez zegozkien jokamoldeei lotua. Horren adibide, kanpin denda hartu eta gaua pasatzera Aralarra joan zirenekoa.

763. Beldurrik gabeko emakumea (HER-041/038)

Irunek dio beldurrik gabeko emakumea duela ahizpa. Adibide gisa, Parisera joan behar zuela kaskoan sartu zitzaionekoa kontatzen dute.

764. "Euskara dena izan da neretzat" (HER-041/040)

Euskara beraientzat zer izan den galdetuta, Irunek dio beretzat "dena" izan dela.

765. "Euskarari eutsi egin diogu" (HER-041/041)

Gerraostean euskararik ezin zela egin esaten dute Karrera ahizpek. Euren gurasoek euskaraz hitz egiten jarraitu zutelako eutsi ziotela diote.

766. Baserritar asko gazteleraz hitz egiten (HER-041/042)

Euskara gutxietsi egiten omen zuen hainbatek, eta maila edo klase apaleko jendearen hizkuntza gisa ikusten zen.

767. Errepublika garaian ez zen euskara indartu (HER-041/043)

Errepublika garaian joan ziren Hernanira bizitzera, Errepublika garaian, eta orduan jada euskara gutxi entzuten omen zen kalean.

768. "Zaldibitarak gara" (HER-041/045)

Nahiz eta bost edo sei urte zituztenetik Hernanin bizi izan, zaldibiarizat dute beren burua Xaturrek eta Irunek.

769. Gerran zaurituak jasotzen (HER-042/002)

Gerra garaian, ilundutakoan zaurituak bilatu eta Villabonara eramaten aritu zen bere aita. Lan horregatik ordaindu egiten zioten. Ezin behientzako janari bila joan eta sega zorrozteko ere ezkutura joan behar.

770. Kabua eta Kukua (HER-042/006)

Esne erosleren batek salaketa jartzen bazuen, isuna jartzen zieten Kabua eta Kukua esaten zietenak. Jantzi grisarekin ibiltzen ziren.

771. Donostian maisu baten etxean (HER-042/007)

Eskolan Jauregin eta gero Ergobin ibili izan zen. Bi negutan Donostiako maisu baten etxean egon zen ikasten.

772. Pinuentzako zuloak egiten (HER-042/011)

Hemezortzi urterekin pinuentzako zuloak egiten aritzen zen, erriala zuloko kobratuz. 400 zulo egiten zituen eguneko.

773. Pinu landarea prestatzen (HER-042/013)

Landarea landatzeko prestatu egin behar da. Sustraiak moztu egin behar zaizkio neurrira eta zuzen egon behar dira. Makina bat ere asmatu zuten sustraiak lurpean bertan mozteko.

774. Pinudien ugaritzea (HER-042/015)

Pinuaren egurrarengatik paper-lantegiek asko ordaintzen zuten bere garaian. Jendea pinua sartu eta sartu hasi zen. Zoratu ere egin zirela iruditzen zaio.

775. Gerraosteko miseria (HER-043/002)

Balentinak ez du gerrako oroitzapenik; bai ordea, ondorengo miseriaz. Errazionamenduan olio modura ematen zuten hura zikinkeria bat zela dio. Eurak baserrian hildako txerriaren koipeaz baliatzen ziren.

776. Lastaola Behekoa oso baserri handia (HER-043/004)

Oso zaharra eta handia zen Balentinaren jaiotetxea. Bizitza bakarreko baserrien artean, handiena zen Hernanin. Lau senide, gurasoak, aitona eta osaba bat bizi ziren bertan.

777. Hondarrak lurra txartu (HER-043/007)

Lur arro eta emankorrek ezagutu ditu Balentinak, baina uholde batzuetan urak ekarritako hondarrak lurra antzutu zuela dio.

778. Bezero fidelak (HER-043/010)

Baratzean zein barazki egiten zituzten azaltzen digu Balentinak, eta baita erosle fidel askoak zituztela ere.

779. Albaitaria bezero fina (HER-043/011)

Albaitariak hainbat baserritako esnari analisiak egiten omen zizkion, eta Lastaola Behekoak beti emaitza onak ematen omen zituen.

780. Esne hartzaileak (HER-043/012)

"Hartzaileak" esaten zieten erostunei. Igandetan, familiak lo zeudela, hartzaileen etxeetan sartu eta esnea bertan uzten zuten Balentinak eta. Hartzaileek konfiantza osoa zuten esneketariengan.

781. Plastikorik gabeko garaiak (HER-043/013)

Esne saltzen ibilita ateratako diruarekin etxerako beharrezko zirenak erosten zituzten. Trukean ere ibiltzen ziren, zenbaitetan. Lixiba bila joateko kristalezko botila bat baliatzen omen zuten, beti bera, kortxoa zurituta izaten zuena. Zabor gutxi egiten zutela dio Balentinak.

782. Ez gehiago, ez gutxiago (HER-043/014)

Balentinak gogoan du, gaztea zela, pisura erosten zutela hainbat eta hainbat produktu. Esate baterako, azukrea.

783. Ilargiari begira, baina erne (HER-043/017)

Balentinak beti erreparatu izan dio ilargiari baratzeko lanak noiz egin jakiteko. Ez omen du sekula porrurik ilberrian erein, ez eta ereingo ere. Lurpean

"egiten" diren barazkiak ilbeheran erein behar omen dira, eta landare, lore, edo fruitua kanporantz dutenak, aldiz, ilberrian. Txerria hiltzeko ere ilargiari erreparatzen zaio.

784. Aita zurgin lanetan (HER-043/019)

Aitak egiten zituen etxeko konponketa asko eta asko. Zurgin lanetan nola aritzen zen kontatzen du Balentinak. Oso "tajutsua" omen zuen aita.

785. Animaliak eta eguraldia (HER-043/021)

Animalien jarrerei erreparatzen die hainbatek, zer eguraldi izango den jakiteko. Armiarmak kanpora ateratzea, esaterako, euriaren seinale izaten omen da.

786. Amona mantangorri (HER-043/022)

Amona mantangorri bat eskutan hartzen bazuten, kantatu egiten ziotela dio Balentinak.

787. Kilkerra kantari (HER-043/023)

Jostatzeko denbora gutxi izaten omen zen baserrian, baina Balentinak gogoan ditu hainbat jolas. Kilker bila askotan ibiltzen omen ziren, eta harrapatuz gero, etxera eramaten zituzten.

788. Bigarren eskuko jostailuak (HER-043/024)

Familia aberatsago batek ematen zizkien zaharkiturik geratzen zitzaizkien jostailuak.

789. Jostailuak asmatzen (HER-043/025)

Garai batean ez zen dendan erositako jostailu asko izaten etxeetan, dirua behar garrantzitsuagoetarako erabiltzen baitzen. Ondorioz, hurrek jostailuak sortu behar izaten zituzten.

790. Anaia tratante ona (HER-043/026)

Balentinaren anaia artista zen kaniketan jokatzeko, eta eurek baino familia dirudunagoetako semeei denak irabazten omen zizkien. Bestalde, negozioa egiten zuen bizikletarekin; bizikletan ibili nahi zuenak, zer edo zer eman behar izaten zion trukean. Balentinak gogoan du okinaren semea anaiari hamaika opil emandakoa dela.

791. Kaxilda Lizeaga, maistra lore zalea (HER-043/027)

Kaxilda Lizeaga izan zuen Balentinak maistra, eta izugarri lore zalea zela gogoan du. Eskola etxe handi batean omen zegoen, mendi kasko batean, mota guztietako lorez inguratua.

792. Irakasle ona baina gogorra (HER-043/028)

Balentinak dio Kaxilda irakasle ona zela, baina baita gogorra ere, ikasten ez zuenarekin. Balentinak dio ikasketetarako jarrera ezkorra azaltzen zuten zenbait hurrek oso giro txarra zutela etxean. Brodatzea asko gustatzen omen zitzaion maistrari, eta arratsaldetan, neskei brodatzen irakasten omen zien.

793. Maistra euskaldunarekin gazteleraz (HER-043/029)

Kaxilda maistrarekin euskaraz hitz egiten zuten eskolatik kanpora, baina eskolan gazteleraz egin behar izaten zioten. Balentina gazteleraz hitzik jakin gabe hasi zen eskolan.

794. Eskola gustatzen ez, baina egin behar (HER-043/033)

Hamabi urte bete arte ibili zen Balentina auzoko eskolan, eta eskola partikular batean hasi zen gero. Ez zitzaion ikastea bereziki gustatzen, baina ikastea txarra ez zela jakin bazekien, eta jarrera ona azaltzen zuen ikasketekiko.

795. Neskak ezkontzeko prestatu (HER-043/034)

Nesken eginbeharrak aurrez ezarriak omen zeuden, neurri handi batean. Neskak ezkondu eta etxeko lanak egiteko prestatu beharra zuen. Balentinak dio beren ama ere horren aldekoa zela. Ama oso trebea zen kozinan, eta Balentinak, aldiz, ederki ikasi zuen josten. Bere ezkontzako soinekoa berak josi zuen, eta baita beste hainbat arropa ere. Izan ere, Balentina gazte zen garaian ez baitzen ia jositako arroparik erosten. Etxetik kanpora egitekoatan, modistari emanda josten ziren.

796. Amak alabak neskame nahi ez (HER-043/035)

Balentinaren anaiek baserritik kanpora lan egiten zuten, baina bera eta ahizpek ez. Amak ez zituen alabak neskame lanetan etxetik kanpo ikusi nahi izan, eta etxeko gobernuia eramaten berak irakatsi zien, etxean bertan.

797. Amantala betirako erantzi (HER-043/036)

Eguneroko martxan arropa zaharrenak jantzen omen zituzten, eta jaietan, aldiz, berrienak. Amantala askotan jantzen zuten, lanerako, eta amak baita kalera jaisteko ere, Balentina-eta txikiak zirela; baina hauek handitzerako erantzi zuen betiko, jendeak harrez gero ez baitzuen usatzen.

798. Kristalezko galtzerdiak (HER-043/037)

Amaren oinetakoengatik galdetu eta gehienetan espartinak jantzi ohi zituela dio Balentinak. Gogoan du kristalezko galtzerdiak jarri zirela modan, Frantziatik ekarriak. Erraz zulatzen ziren, baina izaten zen zeinek konpondu.

799. Neskek galtzarik ez (HER-043/038)

Haurren janzkeragatik galdetu eta neskatzak zein emakumeek beti gonak jantzi behar izaten zituztela dio Balentinak, bai eta negurik hotzenean ere. Ezin omen zuten galtzarik jantzi. Janzkerarekin lotutako xehetasun gehiago ere ematen du.

800. Ahalik eta apainen (HER-043/040)

Baliabide handirik ez izanagatik ere, beren burua ahalik eta gehien apaintzen saiatzen zirela dio Balentinak. Orraztu, belarritakoak jarri, kateren bat...

801. Azala belzteko moda eta depilazioa (HER-043/041)

Balentinak azala eguzkiak ongi belztuta ibili ohi zuen, baina ez moda kontuagatik, kanpoan lanean asko jarduten zuelako baizik. Gerora etorriko zen azala belzteko moda, eta baita depilatzearena ere.

802. Jaunartze handirako dotore asko (HER-043/042)

Jaunartze handirako oso soineko dotorea omen zuen prestatua Balentinak. Zazpi edo zortzi urterekin egin zuen jaunartze txikia eta hamabirekin handia. Etxean egin zuten ospakizuna, eta amak jai egunetarako ohikoa zuen menua prestatuko zuen: zopa ederren bat, etxeko oilaskoa eta arroz esnea.

803. Arreoa erakusgai (HER-043/043)

Balentinak ezkontzako arreoa prestatu eta erakusgai jarri omen zuen etxeko mahai baten gainean, auzokoak ikustera joan zitezen. Ohitura hala omen zen. Maistra izandakoa ere joan omen zen etxera, arreoa ikustera, eta baita Balentinak brodatzen egindako lana aintzat hartu ere. Gizonezkoek ez zuten arreorik prestatzen, baina Balentinak dio Nafarroako Sakanako herrietan bestelako ohiturak zituztela. Etxera negua pasatzera joan ohi zitzairen Olaztiko artzain batek kontatuta zekizkien halakoak.

804. Ezkontzako soinekoa josten (HER-043/044)

Balentinak bere ezkontzako soinekoa josi zuen. Soineko zuriarekin ezkondu zen bera; ahizpa, aldiz, belusezko soineko beltzarekin.

805. Beloa elizan sartzeko (HER-043/045)

Emakumezkoek beloa edo mantelina jarri behar izaten zuten buruan elizan sartzeko, eta mauka luzeko arropa derrigorrezkoa zen. Gizonezkoek txapela erantzi behar izaten zuten. Balentinak txorakeriatzat ditu egun garai batean kontu serioak iruditzen zitzaizkionak.

806. Analfabetoak (HER-043/046)

Balentinak analfabetotzat zituen aitona-amonak, eta egun hala kontsideratzen du berak bere burua; ezagutza mailan atzeratuta geratu dela iruditzen zaio, egungo aurrerapenak direla medio.

807. Amaren Astigarragako lehengusinareen boza (HER-043/047)

Balentinak ez du alderik nabaritzen Hernaniko hizkera eta Urnietakoaren artean. Amak, ordea, Astigarragako hizkeragatik esaten omen zuen, beste azentu bat zutela; beste boz bat.

808. Aitona Kubako gerran (HER-043/048)

Balentinako aitona Kubako gerrara eraman zuten eta zazpi urtez egin zituen han. Zazpi urte haietan etxekoek ez zuten haren berri jakin, ez baitzekien idazten. Aitonak, gerratik buelatu, Kubako kontuekin adarra jotzen omen zien etxekoei. Aitonaren hiru anaia ere Ameriketara joan ziren, gerrara ez joateagatik.

809. Auzoen dolare azpia babesleku (HER-044/002)

Gerra denboran, bonbardaketarik baldin bazen, auzoen dolare azpian babesten ziren Mari Karmen, anaia eta gurasoak.

810. Paper fabrikara lotara (HER-044/003)

Bonbardaketak areagotu zirenean, etxean arrisku gehiegi zela eta, paper fabrikari babesten ziren, paper eta arkakuso artean. Bazkaltzen ere ematen

omen zieten Paper fabrikan. Han ikasi omen zuen Mari karmenek babarrun zuriak jaten.

811. Zarautzera ihesi (HER-044/005)

Gerra garaian hamabost egun egin zituzten Zarautzen, amaren baserrian. Hala ere, Mari Karmenek kontatzen du iristea kosta egin zitzaiela. Donostiara eraman zituen tranbia geratu egiten zen bonbardaketak sumatzen zituzten aldiro, eta tranbia azpian babestu behar izaten zuten bidaiari guztiek.

812. Aita Errepublikaren aldekoa (HER-044/007)

Aita Errepublikanoa zuen Mari Karmenek. Hernanin gorpuei lur ematen zien lagun bat zuen aitak, eta harek egunero esaten zion zenbat gorpu sartu zituzten lurpean.

813. Aita beldurrez bizi zen (HER-044/008)

Errepublikanoa zen aita, eta inork salatuko zuen beldur bizi zen. Behin ere ez zitzaizkion bila joan, baina beldurrez bizi izan zuen gerra.

814. Kulparik ez duenak pagatzen du askotan (HER-044/009)

Gerran izandako heriotzez eta erail zuten jende guztiaz ari da Mari Karmen. Hernaniko kanposantura Pasaian eta Donostian hildako gorpuak ekartzen zituztela dio Mari Karmenek.

815. Pentsamolde kontua (HER-044/011)

Mari Karmenek dio nazionalek segituan "harrapatzen" zutela eurek defendatzen zituzten idealetatik hurruntzen zen edozein.

816. Umezurtzak "Auxilio Social"era (HER-044/012)

"Auxilio social" delakoa zer zen eta Hernanin nola funtzionatzen zuen azaltzen du Mari Karmenek.

817. Bandera espainola balkoian (HER-044/014)

Hernanin denetik izan dela dio Mari Karmenek, baita falangista asko ere. Euskaraz etxean besterik ez zuten hitz egiten. Zalantzak ditu Mari Karmenek kalean euskaraz egitea debekatuta zegoela esaterakoan, baina beldurra medio, ez zuten euskaraz egiten. Gainera, Franco etortzen zenetan, bandera jarri beharra zagoen balkoian, nahi edo ez nahi.

818. Francori agur eta ohore (HER-044/022)

Gerrak iraun bitartean ez ziren eskolara joan Mari Karmen eta haren anaia. Gerraostean hasi ziren eskolan, eta Mari Karmen gogoratzen da Franco Donostiako Aieteko jauregira etortzen zenean nola behartzen zituzten haren aldeko oihuak egin eta hura agurtzera.

819. Etxeko lanak egiten makina bat arrasta eginak (HER-044/023)

Etxeko garbiketari laguntzen aritu behar izaten zuen Mari Karmenek. Etxe guztia eskuz garbitu behar izaten zutela dio.

820. Hamalau urterekin josten ikastera (HER-044/024)

Kaleko jostun batengana bidali zuen amak Mari Karmen, josten ikastera. Ondo ikasi zuen, eta ordutik aurrera hamaika galtzerdi eta maindire zulo jostea egokitu zitzaion.

821. Mojen eskolara uniformatuta eta eskola publikora espartinekin (HER-044/025)

Eskola publikora joan eta gero, mojen eskola batera joan zen Mari Karmen. Han uniforme beltza jantzi behar izaten zuten. Eskola publikoan, aldiz, ez zen uniformearen beharrik eta bakoitza bere arroparekin joaten zen.

822. Astean hogeita hamar pezetako jornala (HER-044/027)

Mari Karmen hamaika urtez aritu zen Hernaniko Morencos y Carrero puntua egiteko fabrikan lanean. Artilezko arropak josten zituzten: jertseak, xalak, bizkarrekoak, kapak, ...

823. Oso nagusi katolikoa (HER-044/028)

Arrosarioa esaten zen arratsaldero puntua egiteko fabrikan.

824. Denak emakumeak, enkargatua ezik (HER-044/029)

Puntua egiteko fabrikan langile guztiak emakumeak ziren. Enkargatua eta haren laguntzailea, ordea, gizonezkoak. Emakumeak ezkongabeak edo alargunak ziren gehienez.

825. Jaian Tilosetara (HER-044/031)

Mari Karmenek gogoan du bera gaztea zela jende asko biltzen zela igandetan Hernanin. Eguraldi onarekin, Tilosetan izaten zen dantzaldia. Eguraldi txarrarekin, aldiz, arkupean.

826. Infernurako sarbidea, Hernanin (HER-044/032)

Mari Karmenek dio beren inguruan ez zela "xirri", musu eta halakorik. Nahikoa fama txarra jartzen omen zion bestela ere Urnietako apaizak Hernaniri, jendea valsa dantzatzeko ibiltzen zelako.

827. Sexu-heziketa lagun artean (HER-044/034)

Sexuari buruzko irakaspenik ez omen zen gurasoen ahotik heltzen. Lagunartean ikasten omen zuten zekiten apurra.

828. Erriberan hazten zirenak baino kalabaza handiagoak (HER-044/035)

Mari Karmen hogeita bost urterekin hasi zen senargaiarekin ibiltzen. Ordura arte makina bat kalabaza banatua omen zen.

829. Gaueko bederatzietarako etxera (HER-044/037)

Igandetan, dantzaldirik gaueko bederatzietarako itzuli behar izaten zuten, nahiz eta udan ordu erdi gehiago izan. Mari Karmenek ama izaten zuen zain, etxean.

830. Hernaniko Azeri-dantza (HER-044/040)

Hernaniko San Juan jaietan dantzatzen zen Azeri-dantza egungoaren tankerakoa izaten zen, baina ezberdina, hala ere. Lehen, sokari helduta buru egiten zuen dantzariak ez zuen azeririk eramaten, eta janzkera aldetik ere aldatu da, garai batean ez baitzen guztiak berdin janzteko baliabiderik.

831. Dantzarien janzkera (HER-044/043)

Dantza "suelto" txapelketa antolatu ohi zen Hernanin, San Juanetan, eta Mari Karmenek dantzarien janzkera nolakoa izaten zen kontatzen du.

832. San Juan surik ez plazan (HER-044/045)

Garai batean, San Juanetan, ez zen surik egiten Hernaniko herriko plazan; auzoetan pizten zen sua.

833. Kalabaza hustu eta amona izutu (HER-044/046)

Haurrak zirela, erriberatik kalabaza hartu, hustu, aurpegi itxura eman, kandela barruan sartu eta amona zahar baten leihoan jartzen zuten Mari Karmenek-eta.

834. 'Amona potaje', emakume ikaragarria (HER-044/047)

'Amona potaje' esaten zioten etxez etxe eskean ibiltzen zen emakume handi bati.

835. Sakamantekas (HER-044/048)

Sakamantekas zela eta ez zela beldur handia sartzen zieten gurasoek gaztetan.

836. Misioak Hernanin eta jendea beldurrez (HER-044/049)

Behin, Arantzazuko fraideak joan omen ziren Hernanira, misioak zirela eta. Mari karmenek dio beldurra muinetaraino sartzeko moduko mezuak zabaldu zituztela herrian zehar.

837. Elizara sartzeko janzkera eta modu egokiak (HER-044/051)

Mezetara joateko janzkera egokia eta gainean eraman beharrekoek: arrosarioak, meza-liburua, eskapularioa, ...

838. Luistarren pilota partidak (HER-044/052)

Luistarrek festa handiak antolatzen zituzten garai batean, bai eta San Juanak berak baino jai handiagoak. Mariaren Alabak kongregaziokoek, aldiz, ez zuten deus ere antolatzen. Luistarren pilota partidak gogoan ditu Mari Karmenek. Hamaiketako meza eta gero izaten omen ziren.

839. Mariaren Alabak kantuan (HER-044/053)

Mariaren Alaben eta Luistarren kongregazioak elkarren parekoak zirela dio Mari Karmenek. Mariaren Alabek ez zuten pilota partidarik antolatzen; kantatzeko aukera ematen zieten, ordea.

840. Errazionamenduko "olioa" (HER-044/056)

Gantza izaten zen errazionamenduko olio, eta sutondoan jarrita urtu behar izaten zen.

841. Ogiaren faltan, taloak (HER-044/057)

Etxean artoa egiten zutenez, Errota Berrira joaten ziren trukea egitera. Errotatik arto-irina ekartzen zuten, eta harekin, taloak egin.

842. Arroza jan eta jan (HER-044/058)

Mari Karmenen aita almidoi fabrikan aritzen zen lanean. Arroza ekartzen omen zuten bertara. Langile batzuk arroza eta arrozarekin egindako irina lapurtzen omen zuten, baina nagusiek, jakinaren gainean zeuden arren, ez omen zieten galarazten, gosetea zela eta.

843. Kalean gazteleraz eta etxean euskaraz (HER-044/059)

Kalean gazteleraz mintzatzen ziren Mari Karmen eta bere ingurua. Euskaraz etxean bakarrik egiten zuten.

844. Gaur egun, lehen hitza euskaraz (HER-044/062)

Aitak ez zekien gazteleraz, eta amak erdizka. Etxean euskaraz egiten zuten, baina etxetik kanpo gazteleraz. Egun, lehen hitza euskaraz egin ohi du Mari Karmenek.

845. "Euskarak ez du ezertarako balio" (HER-044/063)

Oso gertuko jendearengandik entzun izan du Mari Karmenek euskarak ez duela ezertarako balio, baina berak beti garrantzi handia eman dio.

846. Donostia aldekoa, euskara garbia (HER-044/065)

Euskararik garbiena Tolosakoa dela entzun izan du beti Mari Karmenek, baina berari berea ere aski garbia iruditzen zaio.

847. Gosea asetzeko gaiztakeriak (HER-045/003)

Bere ahizpak eta aldameneko nesketako batek, Pepitak, gosea nola asetzen zuten kontatzen du.

848. Dotrina ikasten ahizparekin (HER-045/004)

Bere ahizpak eta aldameneko Pepitak dotrina irakasten zieten txikiagoei baina dirua eskatzen zieten, gozokiak erosteko.

849. Balantxako habeak eta harlanduak (HER-045/006)

Baserri zaharra zen Balantxa. Nolako habeak eta harlanduak zituen aipatzen du. Hernaniko eliza eta Arrieta baserriari buruzkoak aipatzen ditu.

850. Argindarra sartu zutenekoa (HER-045/007)

Orduko sukaldeetako lurreko sua. Argindarra 1925ean sartu zuten. Antziola auzoko baserriak izendatzen ditu. Paper-lantegian ibili ziren bi langilek baserri bakoitzari poste bana jarri zieten, argindarra ekartzeko, 1.000 pezetaren truke.

851. Argindarraren kontrakoak (HER-045/008)

Pio Biorretakoari buruzko kontuak. Argindarraren kontrakoak ere izan ziren. Inbidia handia izaten omen zen baserritarren artean.

852. 1945eko elurtea (HER-045/011)

1945eko elurtea. Lurmena, elurra urtu eta lurra ikusten denean. 26 zentimetroko elurra egin zuen. 1985ean gainditu omen zen marka. Anekdotak bat kontatzen du. Kontxan eskiatzen ibili zen jendea eta Julian ikustera joan zen.

853. Sendabelarrak: intsusa, pareta-belarra... (HER-045/013)

Orduko erremedioak. Erabiltzen ziren sendabelarrak aipatzen dituzte: pasmo-belarra, berbena, kamomila... Errearentzat intsusa erabiltzen zuten, baita kalendula ere. Pareta-belarra gibelarentzat izaten zen.

854. Sendabelarrak eta sasimedikuak (HER-045/014)

Ijito-belarrarekin garatxoak kentzen ziren. Abereei zornea sortzen zitzaizenean, nola kentzen zitzaion aipatzen du. Portuko "doctor vientos" eta Juan Antoneneko "Patas", Antonio Erdocia petrikilloak. Medikua eta sasimedikua gaizki moldatzen ziren: pasadizo bat kontatzen du Axunek.

855. Sendabelarrak: sasia, osina eta pixa-belarra (HER-045/015)

Katarroa edo eztarriko minarentzat, sasiaren puntak egosi eta edan. Osina, odola mehetzeko eta tentsioarentzat. Sokarekin lotu eta lehortzen uzten zituzten. Pixa-belarra, Pagoagako praile batek ekarri zien.

856. Hiru mailatako hiletak (HER-045/016)

Norbait hiltzen zenean, Sinkonean mahai txiki bat jartzen zuten hilkutxa uzteko eta hara etortzen ziren apaizak. Hiru mailatako hiletak zeuden, ordaindutakoaren arabera.

857. Gorpuaren ondoan, kandelak eta zaindariak (HER-045/017)

Norbait hildakoan, arrosarioa izaten zen etxean. Konortea galdu ere egiten zuten batzuek. Gorpuaren ondoan, kandelak pizten ziren eta bi-hiru lagun gelditzen ziren gaua pasatzeko. Baratxuri zopa ere egiten zen. Goierriin banketea izaten zen.

858. Hileta ondorengo otorduak (HER-045/018)

Meza eta gero, otordua eskeintzen zitzaien kanpotarrei. Hamaiketako denentzat eskaintzen zuten. Axunen ahizpa eta Pepita hileta guztietara joaten ziren, hamaiketakoagatik. Anekdotak bat kontatzen du. Aranoko txoferrari gertatutakoa, San Roke zela eta.

859. Afalostean bertsoan (HER-046/002)

Adin tarte handia izan arren, bertso lagunak dira. Asko abesten zen lehen Hernanin. Lekuzaharra izeneko tabernan afaltzen zuten eta Julian parean bizi zelarik, hura ere batzen zitzaien otordu ondorengo bertsoetara.

860. Amurizaren irakaspenak (HER-046/003)

Juliani "Aterpe" esaten diote, ezkon-etxeko izena du. Juanjo Uria alkate jarri zutenean, biei deitzen zieten bi-hiru bertso botatzeko. Amuriza maisu izan zuten ikastaro batean.

861. Hernani inguruan bertsoan (HER-046/004)

1978an hasi ziren bertsoan. Antiguora, Lasartera eta inguruetara joaten ziren kantura. Hernaniko auzoetako festetan ere aritzen ziren herri kirolariekin taldea osatuta. Hernanin elkarteek antolatuta bertso txapelketa egin zuten.

862. Usurbildarrekin desafioa (HER-046/005)

Usurbildarrekin bertso desafioa egin zuten hernaniarrek eta Galarretan mila lagun batu ziren ikustera.

863. Young Playko jaialdia grebalarien alde (HER-046/007)

Argiñarena, Tapia eta laurak ziren bertsoan Young Playn Orbegozoko grebalariei laguntzeko jaialdian. Hiruna mila pezeta eman zieten.

864. Pepe Gallinerori botatako bertsoak (HER-046/010)

Pepe Gallinero izenekoari bota zion kopla errezitatzen du Julianek. Sinko tabernan euskal giroa izaten zen.

865. Tximino ehiza (HER-046/014)

Galarreta frontoiaren ondoan zegoen zuhaitz batean tximinoa ehizatu zuen Julianek. 600 pezetan saldu zion Aierberi, disekatu zezan. La Vanguardia egunkariak atera zuen albistea, baita bertako egunkariak ere.

866. Santa Barbarako kanpai sokari botatako bertsoak (HER-046/015)

Santa Barbara ermitan elkarrekin kantatu zutenekoa gogoan du Julianek. Han botatako bertsoa kantatzen du, kanpaiaren soka berriari jarria.

867. Apaizari botatako bertsoak (HER-046/016)

Meza bukatuta, bertsoan egin izan dute Santa Barbaran. Apaizari botatako bertsoa kantatzen du Julianek.

868. Julian eta Anttonen omenaldiko bertsoak (HER-046/017)

Omenaldia jaso zuten biek. Ordukoa gogoan dute eta bertsoak kantatzen dituzte.

869. Julian eta Anttonentzat bertsoa (HER-046/018)

Biei egindako omenaldian argazki-liburua eman zieten. FERIA antolatzen hasi zirenean, jende aurrean bertsoan egin zuten lehen aldia izan zen. Liburuan datorren bertsoa kantatzen du Julianek.

870. Urrezko ezteiengatik entzundako bertsoak (HER-046/019)

Julianek eta emazteak urrezko ezteiak egin zituzteneko bertsoak kantatzen ditu.

871. Bertso zaharrak (HER-046/020)

Julianek gogoan dituen bertsoak kantatzen ditu, tartean Txirrita eta Peio Errotarenak.

872. `Txirrita´ren bertsoak (HER-046/021)

Txirritaren bertsoak kantatzen ditu Julianek.

873. Hernaniko urik onena (HER-046/024)

Hernaniko urik onena non hartzen den esaten dute. Iturriak non izan diren kontatzen dute.

874. Telleri baserria (HER-047/002)

Telleri baserria txikia zen. Lurreko sua zeukaten, argindarrik ez eta ura errekatik ekartzen zuten. Zazpi urte ingururekin etxean lan egin behar izaten zuten. Behien aurrean ibili behar izaten zuen.

875. Bolatokian ibiltzen ziren (HER-047/006)

Hirubideetara joaten ziren bolatokira. Gizonentzako izaten bazen ere, tarteka umeak ibiltzen ziren. Nola jolasten zuten kontatzen du.

876. Apar oneko xaboia (HER-047/009)

Arropak nola garbitzen zituzten aipatzen du. Apar ona ateratzen zuen xaboia izaten zuten. Urak kare asko badu, zaila izaten da aparra ateratzea. Lixibaz ez du akordurik.

877. Gizonen eta emakumeen lanak (HER-047/012)

Gizonek beraien lanak izaten zituzten; emakumeak, berriz, haiei laguntzen aritzen ziren eta ondoren etxean.

878. Artoaren lanak (HER-047/013)

Goldearekin lurrari buelta ematen zitzaion, gero harea pasatzen zen eta azkenik karramarroa, lurra harrotzeko. Alperra pasatzen zen hazia ereindakoan. Artoa maiatzean ereiten zen, bi-hiru aldiz jorratu, tontorra kendu eta hostoak kentzen zitzaizkion. Tontorra eta hostoak ganaduari ematen zitzaizkion. Artoa eskuz biltzen zuten, ganbaran utzi eta neguan aletzen zuten.

879. Dotrina euskaraz, liburuak erdaraz (HER-047/019)

Bederatzi urterekin egiten zen jaunartzea. Berak zortzi urterekin egin zuen, apaizak hala esanda. Dotrina eskolan eta elizan ikasten zuten, euskaraz. Liburuan zer irakurtzen zuten ez zuten ulertzen, erdaraz baitzen. Maistrak aholkua ematen zien ezezagunen bat ikusiz gero, ez hitz egiteko. Doñak Kasilda zen irakaslea. Hamahiru urterekin utzi zion eskolara joateari.

880. Garizumako sermoi gogorak (HER-047/021)

Garizuman kanpotik etorritako hizlariak ekartzen zituzten. Ereinotzun gertatutako pasadizo bat kontatzen du. Sermoiak gogorrangoak izaten ziren. Predikatzailleak haiek ziren: Agirretxe, Garmendia... Jendea negarrez ere jartzen zuten. Aste Santuko prozesioaren ostean, kalean ere ematen zituzten.

881. Erramu bedeinkatua (HER-047/023)

Ez du ezagutu baina entzuna du loreak eta botatzen zituztela Erramu Egunean. Erramua bedeinkatu egiten zuten. Adar handiak eramaten zituzten. Ekaitza zenean, sutara botatzen zuten bedeinkatutako erramua. Gurutzearekin batera soroan jartzen zuten erramua. Garizumaren lehen eguna izaten zen.

882. Garbiena Tolosako euskara (HER-047/025)

Euskara dena izan da Mariarentzat. Tolosako euskara dela garbiena entzun izan du txikitandik.

883. Errepublikako kantak (HER-048/004)

Familian errepublikarrak ziren. Errepublikarren kantuk abesten ditu.

884. Villa Mercedesen (HER-048/012)

Villa Mercedesera madrildarrak etortzen ziren. Zerbitzari asko izaten zituzten. Manoli han ibiltzen zen, etxeko. Han ikasi zuen erdaraz gehiena.

885. Eskolako kanta (HER-048/016)

Eskolako kantua abesten du.

886. Udatiarrak Epeleko Etxeberrin (HER-049/002)

Epeleko Etxeberri udatiarrez beteta izaten zen uda garaian, berrogei lagunetik gora. Kanpotarrak etortzen ziren, espainiarrak eta frantsesak. Urtero errepikatzen zuten familiak izaten ziren. Neguan Donostiako jendea joaten zen. Horrez gain, jatetxea zen.

887. Toreroak Epeleko Etxeberrin (HER-049/003)

Toreroak joaten ziren Epeleko Etxeberrira udaran. Izenak aipatzen ditu. Dantzari ezagun bat Epeleko Etxeberrin zegoela nola hil zen kontatzen du.

888. Errefuxiatuak Epeleko Etxeberrin (HER-049/004)

Gerra ondorenean, errefuxiatuak eta denetariakoak izan zituzten Epeleko Etxeberrin.

889. Jatetxe izan aurretik, sagardotegi (HER-049/006)

Ez du gogoan Epeleko Etxeberri baserria noizkoa den. Sagardotegia zen jatetxea izan aurretik. Dolarea ezagutu zuen. Sagardoa egiten zuten etxerako. Sagarra txikitzeo gurpil handi batzuk erabiltzen zituzten. Sagarra nola estutzen zuten kontatzen du.

890. Sagardo kaxkarra udatiarrentzat (HER-049/007)

Etixerako pitarra egiten zuten eta gainontzekoa botilaratu egiten zuten, bereziki jatetxerako. Udatiarrek sagardo kaxkarrena ere gustora edaten omen zuten. Abereak izanda, baserriko lanak egin behar izaten zituzten.

891. Ezkontzetako menua (HER-049/008)

Ezkontza asko egiten ziren Epeleko Etxeberrin. Langosta eta oilaskoa luxuzkoak izaten ziren. Menua aipatzen du: oilo-zopa, menestra, Adarraganeko postreak, natillak, flanak... Baserritarrek eta kaletarrak izaten ziren. Gerra aurrean eta ondorenean, denak euskaldunak ziren Hernanin.

892. Baserritar eta kaletarren arteko kontuak (HER-049/009)

Baserritarrek kalekoei kaleume esaten zieten eta kaletarrek "caxero burro" baserritarrei. Baserritarrek indar fisikoaren aldetik harrotakeria izaten zuten kalekoen aldean.

893. Umetako jolasak: astoketan, irten-ezka... (HER-049/010)

Eskola aldetik, kalekoek aukera gehiago izaten zuten. Bera izeba Kaxildarekin ibili zen eskolan, Pagoagan. Neskak eta mutilak elkarrekin ibiltzen ziren. Pilotan eta astoketan ibiltzen ziren. Astoketan nola egiten zuten kontatzen du. Beste jolas bat ere kontatzen du: kazuelon, kazuelita eta tijera. Harrapaketan eta irten-ez jolasean ere aritzen ziren.

894. Habaila jolaserako (HER-049/011)

Tiragomak izaten zituzten umetan baina maistrak galarazi egiten zituen. Anekdotak bat kontatzen du. Habaila ere erabiltzen zuten.

895. Arkatza, tinta eta arbela eskolan (HER-049/014)

Kaxilda maistrarekin euskaraz zein gazteleraz egiten zuten. Kantuz ikasten zuten aritmetika. Anekdotak bat kontatzen du. Arkatza eta tinta lumarekin erabiltzen zituzten. Arbela ere erabiltzen zuten.

896. Sukaldariak, zerbitzariak eta morroiak (HER-049/016)

Epele esaten diote Antoniori batzuek. Sukaldariak, zerbitzariak eta morroiak izaten zituzten Epeleko Etxeberrin. Maria Perurena goizuetarra sukaldari izan zuten urte askoan. Labaderoa bazuten etxean, udatiarren arropak garbitzeko. Ura eta argia bazuten.

897. Aita preso (HER-049/018)

Epeleko Etxeberrin bazuten terraza bat bazkaltzeko. Han zeudela erreketeeek aita preso eraman zuten eta dirua ordainduta atera zuten kartzelatik. Bonba batek baserria apurtu zuen. Badakite nork bota zuen.

898. Gerraostean, alemaniarrek (HER-049/019)

Gerraostean, alemaniarrek izan ziren Epeleko Etxeberrin bazkaltzen. Beldurrez ibiltzen ziren etxeak.

899. Harrobiko lana (HER-049/022)

Harrobiko lana. Borrarekin eta pistoletarekin hasten ziren harria zulatzen. Dinamita erabiltzen zuten harria puskatzeko. Lantegi txarra eta gogorra zela dio.

900. Harrobiko azken lanak (HER-049/023)

Harriaren kalitatea eskasten hasi zenean, utzi egin zioten. Harrobia aitarena zen hasieran, berea gero. Nagusia Antonio zen.

901. Harrobian karea egiten (HER-049/024)

Harrobian karea ere egiten zuten elektrokimikarako. Haiek karburoa erabiltzen hasi zirenez, utzi egin zioten. Karea nola egiten zuten kontatzen du.

902. Hernaniko euskara eta ingurukoak (HER-049/025)

Hernaniko euskara. Goizueta aldera desberdintasun handia sumatzen du. Astigarragan ere desberdintasun pixkat nabaritzen du. Tolosatik Donostiara igualtsu iruditzen zaio.

903. Telleri baserriaren izena (HER-050/001)

Aita Otsuanekoa eta ama Tellerin jaiotakoa. Telleria baserriaren jatorria kontatzen du. Teila lantegia omen zegoen bertan. Buztindegitik buztina ekarri eta teilak egiten zituzten.

904. Telleri baserria nolakoa zen (HER-050/002)

Telleri baserria nolakoa zen kontatzen du. Adreiluzko hormak, ikuilua... Egiako auzoan bazen teila lantegi bat eta buztindegia hari saldu zioten.

905. Atsegindegiko eskola partikularrak (HER-050/004)

Atsegindegi etxera joaten zen klaseak jasotzera, setiendar ahizpekin. Erdaraz ikasten zuten, entziklopedia moduko batekin. Eskola partikularrak ematen zituztenak asko ziren Hernanin.

906. Eskuzko errota (HER-050/007)

Gerraostean baserrian ez zuten goserik pasatu. Eskuzko errotan xehetzen zuten artoa. Gogorrera txitoentzat eta gozoena jateko. Aia jaten zuten, arto-irina esnetan egosiz eta azukrea gehituz. Gaixotuko ote ziren beldur izaten ziren gurasoak.

907. Epeleko errotara (HER-050/008)

Errazionameduan talo lodi moduko bat ematen zieten, gogor-gogorra eta abereei ematen zieten. Epeleko errotara joaten ziren artoa xehetzera behorren gainean, zaku txiki bat hartuta.

908. Zerriaren manteka (HER-050/009)

Errazionamenduko kartilarekin Ibarluzeko Manuelarengana joaten ziren. Botila eramane eta ekarri egiten zuten. Dendan seiloa kentzen zieten. Zerriaren manteka maskurian gorde eta hura erabiltzen zuten olioaren orde. Babarrunari zerri pusketak botatzen zizkieten. Zerri bat baino gehiago hiltzea debekatuta egon arren, hiltzen zituzten.

909. Haragi gatzitua eta txerrimoniak (HER-050/010)

Gatzituta gordetzen zen haragia. Odolkiak sukaldean izaten zituzten zintzilik. Txerrimoniak egiten zituzten; medikuari ere eramaten zioten.

910. Txerrimoniak (HER-050/012)

Txerrimoniak medikuarentzat, albaitariarentzat, ezagunentzat... izaten ziren. Zein zati ematen ziren aipatzen du.

911. Elorri zuria, erramua eta lizarra babesle (HER-050/013)

Elorri zuriarekin gurutzeak egiten zituzten gurasoek eta soro eta zelaietan jartzen zituzten ekaitzetik babesteko. Erramua erre egiten zuten trumoa zenean. Lizarra San Juan egunean jartzen zen atarian.

912. Eskolara galtzeko beldurrez (HER-050/014)

Galtzeko beldurrez joan zen eskolara lehen egunean. Jolasordutik korrika etorri zen etxera. Ez zitzaion gehiegi gustatu.

913. Lanbide eskolan mekaniko (HER-050/017)

Mekaniko ikasketak gogorrak ziren. Hernanin bertan ikasi zuen, zinema eskola bihurtua zegoen lekuan. Maestria industrial ikasi zuen bost urtez.

914. Oporretan ere lanean (HER-050/018)

Oporrak abuztuan izaten zituen eta tailerretara joaten zen ikasten jarraitzera. Baserrian ere lan egiten zuen. Nagusituta eskolan ibiltzearen entzun behar izaten zituen kontuak.

915. Don Karmelo Labaka (HER-050/020)

Don Karmelo Labakak sortu zuen Lanbide Eskola. Gizon zuzena zela du gogoan. Japonian anaia zeukan eta hango kontuak ere esaten zizkien. Luistarretatik ezagutzen zuen.

916. Irratiak muntatzen soldadutzan (HER-050/022)

Bost urtez aritu zen Lanbide Eskolan. Soldadutzatik libre geratu zen hasieran baina laster joateko deitu zioten. Urtebetez egon zen. Irrati teknikari ikasi zuen eta irratiak muntatzen aritzen zen bere kabuz eta saldu ere egiten zituen.

917. Irratiak egin eta saldu (HER-050/025)

Orduko irratiak nolakoak ziren kontatzen du. Gordeak ditu berak egindako batzuk. Dirutxo ateratzen zuen haiek salduz eta instalatu ere egiten zituen.

918. Argindarraren linea norberak jarrita (HER-050/026)

Argindarraren instalazioa norberak egiten zuen. Posteak jarri eta kableak tiratu egiten zuten. Ura nondik joaten zen azaltzen du. Hamabi urte ingurura arte errekatik ekartzen zuten ura. Ura epeltzeko ekonomikan berotzen zuten.

919. Euliak hiltzeko ur beroa (HER-050/028)

Kinkia petrolioarekin erabiltzen zen. Euliak hiltzeko ur beroa botatzen zuten sabaira. Euli asko izaten ziren. Patata zomorroarentzako pestizida erreta, haren kearekin hiltzen zituzten ikuiluko euliak.

920. Zomorroen kontrako erremedioak (HER-050/029)

Arkakusuak ere Patatolarekin hiltzen hasi ziren, ohe azpian botata. Menda belarrak ez zuen asko funtzionatzen. Labezomorroen kontra, ur irakina botatzen zuten zuloetan. Botika erabiltzen zuten zomorroentzat.

921. Naparmina (HER-050/030)

Naparmina harrapatzen zuten abereek. Artzaiek ardiekin ekartzen zuten gaitza. Beste gaitz batzuk aipatzen ditu.

922. Pasaiko portua eraikitzen (HER-051/002)

Bibragailuak egiteko enpresa bat sortu zuten. Pasaiko portuaren egiturak egiteko erabiltzen ziren, 1956 urte inguruan.

923. Gailu hidraulikoak itsasontzietan (HER-051/004)

Itsasontzietan gailu hidraulikoak jartzen aritu zen. Portuetan ere plataformak instalatu zituzten.

924. Gerra garaiko oroitzapenak (HER-051/008)

Gizon asko eskopetekin etorri zirela gogoan du eta etxeko eskopetak kendu zizkietela. Negar egin zuen.

925. Lanerako ingelesa ikasi zuen (HER-051/009)

Euskaraz, gazteleraz eta ingelesez egin izan du, parekoaren hizkuntza gaitasunaren arabera. Lanerako ikasi zuen ingelesez.

926. Hernaniko euskara eta ingurukoa (HER-051/010)

Arano eta Goizueta inguruan aldatzen da hizkera baina Gipuzkoako inguruko herriekiko antzera. Euskara garbia Tolosaldekoa da Antonioren ustez.

927. Abaurregainako ijitoarenak (HER-052/002)

Soldaduskan zebilela, ijito batekin egin zuten topo, Abaurregainan. Ijitoak Hernani ongi ezagutzen zuela esan zien, Gerra Zibilean larri asko ibilita baitzegoen Xoxokan, Santa Barbaratik kanoikadaka hartu zituzten batean.

928. Kopeta erdian tiro (HER-052/003)

Hernaniar talde bat bando nazionaleko batzuen erasoari eusten ari omen zen, herritik gertu. Karlos izeneko mutil bat babeslekutik irten eta bala sartu omen zioten kopetan.

929. Telleri baserria (HER-052/005)

Telleri baserria, Inazioren jaiotetxea, teila fabrika baten ondoan zegoen. Gaur egun erreka pasatzen da handik.

930. Telleriko taberna (HER-052/006)

Inazioaren jaiotetxe ondoan teila fabrika zegoen, eta hari itsatsita, egurrezko beste etxetxo bat: taberna. Han emakume bat aritzen omen zen fin asko lanean, eta aurreztutako diruarekin beste taberna bat egin omen zuen gero, Hirubidetan, teila fabrika itxi zutenean.

931. Txanelak Urumean (HER-052/007)

Telleri aurretik igarotzen zen errekek gaur dakarren ur kopurua baino lau aldiz gehiago ekartzen omen zuen lehen, Inaziok dioenez, eta gabarra edo txanela handi batzuk ibiltzen omen ziren errekan gora eta behera.

932. Hernaniko errotak itxita (HER-052/009)

Gerraostean Francok errazionamendua ezarri zuen eta hainbat errota ixteko agindua eman. Inaziok dioenez, Hernanin guztiak itxi zituzten. Jendea Nafarroako errotetara joaten hasi zen irina bila. Bere aitak behinola ibili zituen ibilerak kontatzen ditu.

933. Xardiaren bertsoa Pedro Santa Kruzi (HER-052/012)

Goizuetako Xardia bertsolariak Andoaindik Ereñazura bizitzera etorria zen Pedro Santa Kruz bertsolariari kantatutako bertsoa, Fagollaga tabernan.

934. Goizuetako jaiak (HER-052/013)

Gogoan du Inaziok, gaztetan, nola jendea bi, hiru, edo lau egun bertan egiteko asmoz joan ohi zen Goizuetara, jaietara. Izan ere, lehen ez baitzen joan-etorri azkarrak egiteko modurik, gaur egun bezala.

935. Ganbaran lo (HER-052/014)

Goizuetako jaietara joan eta etxeren bat hutsik baldiz bazen, ganbarara igo eta hantxe egingo zuen lo hainbatek. Iratzearen gainean ongi egiten omen da lo; belarrak, aldiz, buruko mina ematen omen du.

936. Sei txerri kamioira nola igo (HER-052/016)

Zarauzko granja bateko morroiak sei txerri kamioira nola igoarazi zituen.

937. Txerria oilo-zirin zale amorratua omen (HER-052/017)

Teruel inguruko oilo granja handi batean txerriak askatzen zituzten lurreko oilo-zirinak garbi zitzaten.

938. Txerriak libre hazten (HER-052/018)

Garai batean txerriak libre hazten ziren, baserri inguruetakoa hariztietako ezkurak janez.

939. Esne partitzen, astoa lagun (HER-052/021)

Esne partitzen ibilitakoa da Inazio, bere inguruko beste hainbat bezala. Inazioaren izeba, esaterako, Donostiaraino joaten zen esnea saltzera, tranbia hartuta.

940. Asto plaza (HER-052/022)

Hernanin feria egiten zen plazari 'asto plaza' esaten ziotela kontatzen du Inaziok eta bertan sortzen zen giroaren berri ematen du.

941. Hernaniko feria (HER-052/023)

Jende asko biltzen zen Hernaniko feriara, eta gehien gehienak bazkalostean etxerantz abiatzen ziren. Baina bazen bertan geratu eta parranda egitea gustatzen zitzaionik ere.

942. Okendo Beltza (HER-052/027)

Okendo Beltza esaten zioten batek gizon bat hil omen zuen. Lekuko batek ikusi egin zuen, ordea, eta Okendo Beltzak mehatxatu egin zion arren, lekukoak poliziari parte eman eta atxilotu egin zuten hiltzailea.

943. 'Txirrita'k hiltzaile bati kantatuak (HER-052/028)

Azken gerra karlistan frontean ibilitako gizon batek artzain bat hil omen zuen tiroz. Urteak joan eta jai arratsalde batean, Fagollagan, hiltzaile hari berari bi bertso kantatu omen zizkion 'Txirrita' bertsolariak, negarrez utzi zuten.

944. Paulo Zubiarrain Otxotorena bertsolaria (HER-052/029)

Paulo Zubiarrain Otxotorena bertsolaria (Hernani, Gipuzkoa, 1912 - 2002ko apirilaren 4a), izengoitiz Paulo Txikia edo Hernani Txikia, Inazioren anaia zen. Plazaz plaza ibili izan zen, Joxe Joakin Mitxelenarekin, Baztan eta Bortzirietan, batez ere. Beste anaia bertsolari bat ere badu.

945. Zugastitarrak, txirrindulari bikainak (HER-052/030)

Hernaniko Pikoetxeberri baserrikoak ziren Zugastitarrak, txirrindulariak denak. Inaziok dio Angel Zugasti zela onena, baina Pedro Zugastik irabazi zuen lehendabiziko Arrateko igoera. Arreba ere txirrindulari bikaina omen zuten.

946. Lehendabiziko bizikleta (HER-052/031)

Inaziok bazituen lanean urte batzuk eginak bere lehen bizikleta erosteko aukera izan zuenerako.

947. "Heriotzaren aldapa" (HER-052/032)

Inazioren aita Batallón de Trabajadores-en ibiliarazi zuten, Lasarten. Egunero kamioian ibiltzen omen zituzten, eta "heriotzaren aldapa" delakotik pasatzerakoan, hildakoren bat edo beste ikusten zuten goizero.

948. Lasarte aireportu (HER-052/033)

Gerra Zibilean Hegazkinak Lasarten aireratu eta lurreratzen ziren. Batallón de trabajadoresekoei eta preso hartutakoei aitzur eta palaz hango lurrak berdindu arazi eta halako lanak eginarazten zizkieten.

949. Gauero presoren bat falta (HER-052/034)

Inazioren aita Batallón de Trabajadores-ekin lan egitera eramaten zuten goizero Lasartera, eta han, Inaziok dioenez, gauero fusilatzen omen zuten preso hartuta zituztenen artetik bateren bat. Hori ikusita, preso batek ihes egitea erabaki zuen, eta baita lortu ere. Ordainetan, bando nazionalekoek

gau horretan bertan guardia egiten jarria zuten presoak akabatu omen zuten, ordea.

950. Lekeitioko apaiza Hernanin fusilatu (HER-052/035)

Gurdian zaborra garraiatzen ibiltzen zen pertsonak berak hartzen omen zituen fusilatutakoen gorpuak eta Hernaniko kanposantura eramaten. Lekeitioko apaiz abertzale bat ere Hernanin hil zutela dio Inaziok.

951. Borreroarekin karta jokoan (HER-052/037)

Bera fusilatu nahi izan zuten hiru lagunekin karta jokoan aritu zen haren pasadizoa.

952. Preso nahi ez eta ihes (HER-052/039)

Inazioren anaia zaharrenaren gora beherak frontean eta alemanek Gernika bonbardatu eta gero ihes eginda ibili zeneko kontaketa.

953. Edozein umiltzeko moduko garaiak (HER-052/041)

Bando nazionalaren jazarpena batetik eta gosetea bestetik, gerrak gizartearen zati handiena burumakur utzi zuela dio Inaziok.

954. Ama bizkarrean hartu (HER-053/002)

Euri asko egiten zuenetan urez gainezkatzen ziren Balantxa inguruko erreka eta inguru guztiak, eta halakotan, ama Donostian tratua saltzetik bueltan etxera bidean zetorrenetan, bizkarrean hartu behar izaten zuen Julianen anaia zaharrenak, oinik busti ez zezan.

955. Gizon gutxi merkatuan saltzen (HER-053/003)

Amak tratuarekin joan ezin zuenetan Julianek egiten zuen lan hori; pozik joaten zen Donostiara. Gizonezko gutxi ikusten zuen orduan Julianek San Martin kaleko merkatuan generoa saltzen.

956. Inguruko herrietatik Donostiara tratuarekin (HER-053/004)

Inguruko herrietatik jende asko joaten zen Donostiako merkatura, saltzera. Hernanitik ere jende asko joaten omen zen, astoarekin. Behin, Ibarluzea baserriak su hartu, eta bertako astoa Donostiaraino heldu omen zen, ihesi joanda.

957. Gelatik ukuilura erori (HER-053/005)

Aizmendi baserriko lehen solairua behera erori eta lotan ziren ama-emeak ukuiluan bukatu omen zuten, ohe eta guzti.

958. Ehizan gaztetan hasia (HER-053/010)

1942an hasi zen ehizan Julian, artean hamahiru urte zituela. Sator bati bota omen zion bere lehen tiroa. Guardia zibilen beldur ibili ohi zen, nahiz eta jakin, haiek korrika hasita ere, bera harrapatzen lanak izango zituztela.

959. Lizentziarik gabe ehizan (HER-053/011)

Ezkondutartean ez zuen ehizako lizentziarik atera. Hogeita hamahiru duro ordaindu zuten bere lehen eskopeta, eta anaiak hornitu ohi zuen munizioz.

960. Ehizako markak (HER-053/012)

Pasako 65 galeper hamahiru egunetan bota zituen behin Julianek. Anaia urte batean 95 tortola botatakoa da. Urtean botatako pieza guztiak etxe berera saltzen omen zituzten, piezako duroa kobratuta.

961. Botatako hegazti motak (HER-053/013)

Galeper eta tortolez gain giloak, argi-oilarrak, txolomak, usoak, baso-oiloak eta "brankolinak" botatzen zituzten, besteak beste.

962. "Brankolin" txikiaren kantua (HER-053/014)

Goizeko ordu bitan fabrikatik atera eta "brankolin" txikiaren kantua entzuten bazuen, biharamunean baso-oiloak izango zirela jakiten zuen Julianek. Ehiza baden seinale izaten omen da "brankolina" eta oilagorra besteko migratzailea.

963. "Brankolin" txikia eta handia (HER-053/015)

Hots desberdina egiten dute "brankolin" txikiak eta handiak. "Brankolinak" eta basa-oiloak ehizatzea debekatuta dago.

964. Hegazti migratzaileak (HER-053/017)

Irailean galeper garaia izaten da. Brankolina neguan etortzen da, eta harekin, antzarra, ahatea eta baita oilagorra ere. Uso garaia amaitzean, kurrilo, bele eta ar-zozoak etortzen dira.

965. Hegabera, zotz-birigarroa eta istingorra (HER-053/018)

Hegabera eta zotz-birigarroa ere neguko txoriak dira, eta garai batean, erriberatan, istingorra gaur baino gehiago ikusten zen. Orokorrean, lehen egun baino askoz ere hegazti gehiago zegoen.

966. Txori bakoitzak bere kantua (HER-053/019)

Hainbat txoriren kantuak deskribatzen ditu Julianek.

967. Egun eperrik ez da batere (HER-053/020)

Hernani alde horretan gerra zibilaren aurretik bota omen zuten azken eperra.

968. Zata poste gainean (HER-053/022)

Zata ontza txiki bat da, poste gainetan jarri zalea eta garrasi bitxia egiten duena. Julianek dio baten bat bota izan duela.

969. Hiru-lau ontza klase (HER-053/023)

Diren ontza klase guztietatik bota izan du Julianek aleren bat edo beste, eta zapelatzak ere hil izan dituela dio.

970. Eskinosoaren eta okilaren koloreak (HER-053/024)

Eskinosoa eta okila izango dira kolore desberdin gehien duten hegaztiak; zazpi-zortzi inguru, guztira.

971. Mika, hegazti gogorra (HER-053/025)

Julianek ikusi ditu eskosoa eta mika gabiraia baten aurka borrokan, eta mika hegazti gogorra dela dio.

972. Zozoak beserriko leihotik akabatzen (HER-053/026)

Zozoak, ontzak, birigarroak... Denetik akabatu du Julianek etxeko hainbat leihotik tiro eginda.

973. Hiru birigarro klase (HER-053/027)

Hiru birigarro klase aipatzen ditu Julianek. Arrunta, handiagoa, eta txiki hegal gorri bat, negu hotzenetan azaltzen omen dena.

974. Zozoak (HER-053/028)

Zozo arra eta emea oso erraz bereizten dira, kolore ezberdina baitute.

975. Kukuaren bertsoa (HER-053/029)

Behin Joxe Migel Iztueta 'Lazkao Txiki' bertsolaria zenak Kukuari kantatutako bertsoa.

976. Txepetxari jarritako bertsoak (HER-053/030)

Pedro Mari Otañok txepetxari jarritako bertso sailetik bi kantatzen ditu Julianek.

977. Medikuari jarritako bertsoak I (HER-053/032)

Belaunetik operatu zutenean medikuari jarritako bertsoak, 'El Diario Vasco' egunkarian publikatuak.

978. Medikuari jarritako bertsoak II (HER-053/033)

Lehendabizi belaun batetik operatu behar izan zuen, eta handik zazpi hilabetera, bestetik; orduan ere bertsoak jarri zizkien Julianek Kerejeta medikuari eta ospitaleko erizainei. Aurreko aldian bezalaxe, 'El Diario Vasco' egunkarian publikatu zizkioten bertsoak.

979. Txinbo-zopa (HER-053/034)

Txepetxaren antzeko txoria da txinboa, baina Julianek dioenez, pikuak jan eta gizen-gizenak egoten zirenak. Julianek dakiela, bazen haiei tiro jotzen zienik, txinbo-zopa egiteko gero. Egun ez omen da txinborik ikusten.

980. Txantxangorria (HER-053/035)

Goierriko herri txikiren batean, eguerdi bakarrean berrogei txantxangorri tiroz hiltzera iritsi zenaren entzutea badu Julianek. Gaur egun ia ez da txantxangorririk ikusten.

981. Pirripioa (HER-053/036)

Garai batean pirripioa erruz izaten zela dio Julianek. Gaur, beste hainbat espezieren kasuan bezalaxe, askoz gutxiago ikusten omen da. Julianek ehunetik gora lumatu zituen behin.

982. Julianen azken oilagorra (HER-053/037)

Anaiak oilagorra zebilen abisua eman, eta Julianek ehizatu egin zuen. Basozainek tiroa entzun eta bertaratu egin omen ziren, baina Julianek iskin egin eta ihesi heldu zen etxera.

983. Tiro batez bi uso (HER-053/038)

Usotan ibili zen azken aldian tiro batez bi botatzea lortu zuen Julianek, bizitzan lehendabizikoz.

984. "Txortxintxa" goseak amorratzen (HER-053/044)

"Txortxintxa" edo "pinpinua" asko izaten zen uso garaian, eta artasoroz artasoro ibiltzen omen zen, jateko bila.

985. Kaskabeltza, txori umila (HER-053/046)

Kaskabeltza txori txikia da, umila, Julianen esanetan. Ez da ehizatzen, nahiz eta haurra zela halako batzuk botata badagoen Julian. Txepetxa ere jo omen zuen behin, tiragomarekin.

986. Basurdetara joan eta txerria bota (HER-053/052)

Basurdetara behin joan da Julian, bere bizitza osoan. Bi basurde eta txerri beltz bat akabatu omen zituzten, baina guardia zibilek txerriarena jakin zutenean, isuna jarri zieten.

987. Balantxako intxaurrondoa eta muxarrak (HER-053/055)

Julianen baserri inguruan bazen intxaurrondo handi bat, eta gogoan du muxarrak nola ibiltzen ziren han, jauzika, alde batetik bestera.

988. Azeria hiltzeagatik durokoa jaso (HER-053/057)

Azeria bota omen zuen behin Julianen aitonak, halakoengatik udaletxean duroko txanpona ematen zuten garaian.

989. Negu gorriak (HER-053/059)

Garai bateko negu gogorren testigantza ematen du Julianek, Lizardiren testuetatik eta 'Txirrita'-ren bertsoetatik jaso. 'Txirrita'-ren bertso sail bateko alea kantatzen du.

990. Txorien dohaiak (HER-053/061)

Oilagorra du Julianek txoririk gogokoena. Kantari finenak zozoa eta birigarroa omen dira, baina aukeran, zozoa. Izan ere, bazen Ereñotzu auzoan San Inazioaren martxa kantatzen ikasi zuen zozo bat. Txoririk argiena txepetxa da, eta tontoena kukua.

991. Tximinoa hil (HER-053/063)

1957ko irailaren 15ean, ehizatik bueltan zetorrela, tximua atera zitzaion Juliani Galarreta inguruan. Julianek tximinoa hil eta disekatu egin zuten, intxaur bat eskutan. Tximino disekatuak higiezin-artekari baten etxean amaitu zuen, eta egunkaritan ere azaldu omen zen.

992. Aitona Kubako gerran (HER-054/001)

Izen-abizenak. Gurasoen jatorria. Aitona Kubako Gerran izan zen.

993. Santanderren jaioa (HER-054/003)

Aitaren aldeko amonaren jatorria. Jaiotze-data. Santanderren jaioa. Aita mekanikoa zenez, leku batetik bestera ibiltzen zen familiarekin lanerako deitzen zioten lekuan. Lau senide izan ziren.

994. Etxean gazteleraz (HER-054/004)

Ama hizkuntza gaztelera zuen, etxean ez baitzieten euskaraz egiten. Aita sozialista zen eta ez zion euskarari garrantziarik ematen. Sozialistak internazionalistak ziren eta abertzaleak ingurutzokoak. Izebak gurasoekin euskaraz egiten zuenez, haiei entzunda ikasi zuen.

995. Aita sozialista, batailoi-buru (HER-054/005)

Aita gerrara joan behar zenez, izeba bila joan zitzairen Karabelen bizitzeko. Aita gortuta etorri zen gerratik baina zauririk gabe, bonba artean ibili bazen ere. Aitak ofizioa Eibarren ikasi zuenez, batailloiko arduraduna zen. Horregatik hartu zuten preso.

996. Aita fusilatu egin zuten (HER-054/006)

Aita kartzelan sartu zuten gerra garaian eta hiru urtez han egon ostean, 1940an fusilatu egin zuten. Santanderreko portuan zeudela, itsasontziz Hernanira etortzeko, aitarekin topo egin zuten eta han bertan atxilotu zuten, 1937an. Orduan ikusi zuen aita azkenekoz.

997. Sei urterekin Hernanira (HER-054/008)

Sei urte zituela aitaren arrebaren etxera etorri ziren, 1937an. Eskolan Agustina Zapiain eta (Presen) Miner izan zituen maistra, hernaniarrak.

998. Euskara ikasten, entzunez eta euskaltegian (HER-054/009)

Izebak ere ez zien euskaraz egiten eta helduen artean euskaraz egiten zutenez, entzunez ikasi zuen Rufinak. Euskaltegian urtebetez aritu zen. Semea gaixotu zitzaionez, utzi egin behar izan zuen.

999. Hemeretzi urterekin ezkondu (HER-054/011)

Hemeretzi urterekin ezkondu zen Rufina, hamabost urte zaharragoa zen mutilarekin. Rufinaren aitak amak baino hobeto prestatzen omen zituen jatorduak.

1.000. Ospitalean bizitzen (HER-054/013)

Bederatzi urtera arte Karabelen bizi izan zen. Izebak oinaze handiz bizi izan zuen aita fusilatu izana. Amona inude egon zen etxeako ospitalean bizitzeko kuota ordaitzen zieten Rufina eta senideei. Umezurtzak eta nagusiak bizi ziren.

1.001. Goi mailako ikasketak mutilentzat (HER-054/018)

Bere anaiek ofizioa ikasi zuten Deustun. Rufinari josteko aukera eman zioten eta onartu egin behar izan zuen.

1.002. Euskara ikasi nahia (HER-054/020)

Senarrarekin gazteleraz egiten zuen, hura abertzale sutsua bazen ere. Euskara ikasi nahia izan du beti. Hernanin ez zen batere entzuten euskara. Oso debekatua zegoen ordurako.

1.003. Seme-alabekin euskaraz (HER-054/021)

Seme-alabei euskaraz egiten saiatu zen ume zirela. Eskolan haiek ere erdaraz egiten zutenez, galdu egin zuten. Seme gazteena ikastolan ibili zen.

1.004. Bulebarrera galtzerdiekin joan behar (HER-055/002)

Ama Donostiara joaten zen barazkiekin eta esnearekin. Bere garaian ez zioten Bulebarrean galtzerdirik gabe ibiltzen.

1.005. Gatza eta baratxuria patrikan (HER-055/003)

Donostiara joandakoan, zauriren bat izanez gero, gatza eta baratxuria paper batean bilduak patrikan hartuta ibiltzen zen ama, zauria ez gaiztotzeko. Gindilla hartuta ere, zenbakiak esanez eta kopeta inguruan pasatuz, konjurua egiten zuten. Orduko gaixotasunak kontatzen ditu, kukurruku eztula, biriketako gaitza, erlakiztena...

1.006. Hizkuntzari buruzko esaera zaharra (HER-055/008)

Izenak nola aldatzen diren aipatzen du, Oieneder baserriari izena aldatu diotelako. Esaera zahar bat esaten du: "Hiru alaba euki, Madrilera bialdu, erderaz ikasi ez eta euskeraz ahaztu".

1.007. Oieneder baserriko sukaldea (HER-055/010)

Denek ontzi bakarretik jaten zuten. Sukaldea nolakoa izaten zuten kontatzen du. Su-burnia, laratza, su baja...

1.008. Eltzeei sutako hautsarekin dizdira (HER-055/011)

Eltze batzuk lurrezkoak izaten ziren. Sutako hautsarekin dizdiratsu uzten zituzten.

1.009. Zilarrari dizdira ogi apurrekin (HER-055/013)

Erlojuaren zilarrezko katea dizdirarazteko ogi gogorraren apurrekin garbitzen zen.

1.010. Osinagako zentrala (HER-055/015)

Osinagakoa nola hil zen kontatzen du. Osinagako errotaren ondoan argindar zentrala egin zuten. Hasieran argindarra hala holakoa zen.

1.011. Kandela eta kriseiluarekin (HER-055/016)

Bere aitajauna eta amandrea (aitabitxia eta amabitxia) lehengusuak zituen. Jaunartze handia egindakoan, bisitan joan zitzaien eta etxerakoan argia moztua zuten. Kandela eta kriseiluarekin moldatzen ziren. Gero udalak jarri zien argindarra eta hobe zela dio.

1.012. Gau eskolak Don Jeronimorekin (HER-055/018)

Biterira joaten zen eskolara, zortzi edo bederatzi urte ingururekin. Bazuen joateko gogoia. Azarotik martxora gau eskolak izaten ziren eta haraxe joan ohi zen geroago. Don Jeronimo zuen irakasle. Akatsik gutxien egiten zuenari dirua ematen zien, aurrezki kutxako kartillaren bitartez.

1.013. Gerraren hasiera amoarrainetan zebilela (HER-055/022)

Hogei urte betetzear zela hasi zen gerra. Gerra zer zen ere ez zekiten. Amoarrainak harrapatzeko sareari txinga esaten zaio. Txanelan joan eta txingak zabaldu zituen hurrengo goizean batzeko. Amoarrainak batzen ari zela, Donostiatik tiroak entzuten ziren, gerra hasi baitzen.

1.014. Erreketeak Hernanin (HER-055/023)

Irailean sartu ziren erreketek Hernanira. Eulako semea hil zuten erreketek, Loiolako kuarteletik zetorrela. Onddi menditik Hernanirako bidean etxe ondolik pasatzen ziren.

1.015. Herritarrak gerrazaleei aurre egiten (HER-055/024)

Herriko eta inguruko jendea zen Onddi mendian zegoena, gerrazaleei aurre egiteko. Berehala errenditu ziren.

1.016. Goizeguzkin bonbak hilda (HER-055/025)

Goizeguzkin bonba erori eta bi gizon hil zituen. Bizargillia esaten zioten. Idia eta behia hartu eta urtearen erdia legarra ateratzen pasatzen zuen.

1.017. Hernaniko fusilamenduak (HER-055/026)

Gerra garaian hildako asko izan zen Hernanin. Non fusilatzen zituzten kontatzen du. Txapelak eta oinetakoak han gelditzen ziren. Hilerrian aparteko lurra omen zegoen, bedeinkatu gabea, fusilatuak lurperatzeko. Hogeitik gora fusilatu zituzten herrian.

1.018. Batzokia eta errepublikazaleen zentroa (HER-055/027)

Ezinikusia izaten zen orduan, orain bezala. Batzokia eta errepublikarren zentrua non zeuden kontatzen du.

1.019. Tetuanen soldadu Bilbo erori zenean (HER-055/028)

Tetuanen, Afrikan, soldadu zegoen Bilbo nazionalek hartu zuten garaian. Cara al Sol kantarazi zieten. Fustarekin soldadu bat nola jo zuten kontatzen du, abesterakoan eskua ondo luzatua ez izatearren.

1.020. Gerran andazain (HER-055/029)

Gerra garaian joan zen soldadu, hogei urterekin. Udaletxeak bidaltzen zituen soldaduak, aurrez neurtu, pisatu eta beste hainbat egin eta gero. Lau hilabete Afrikan egonda, Espainiara bidali zituzten Katalunia ingurura. Andazain (kamillero) ibili zen eta erraz pasatu zuen gerra.

1.021. Zorriak eta arkakusoak gerra garaian (HER-055/030)

Soldadu joan eta hemezortzi hilabete pasa arte ez zen etxeratu. Arropak berak konpondu behar izan zituen. Zorriaren beldur izaten ziren. Zorriak eta arkakusoak izan zituen. Hamar eguneko baimenaren ostean, berriz ere soldadu joan zen. Denera hogeita hamahiru hilabete pasatu zituen.

1.022. Aranazko Segundo Bergara gerran hila (HER-055/031)

Aranazko Falku etxekoa zen Segundo Bergara nola hil zen kontatzen du.

1.023. Anai bat Teruelen desagertua (HER-055/032)

Anaia zaharragoak zituen eta haien gerrako kontuak esaten ditu. Anai bat Teruelen desagertu zen.

1.024. Irin fabrikan lanean (HER-055/034)

Soldadutzatik etorri eta laster sartu zen irin fabrikan. Gariarekin irina egiten zuten. Trenez ekartzen zen garia, Gaztelatik edo Kataluniatik. Prozesua kontatzen du.

1.025. Irin zuria nahiago (HER-055/035)

Irin fabrikako nagusiak etortzen zirenean, irin zuria eramaten zuten. Langileek ere irin zuria nahiago zuten etxerako. Hilean behin eramaten zuten.

1.026. Aita bainuzaina zen (HER-056/002)

Aitak hondartzan egiten zuen lan, Donostian, bainularia baitzen. Amak gobernatzen zituen abereak. Artilezko bainujantzia jantzen zuen, urdin iluna, hiru marra zurirekin. Hirunaka eramaten zituen igerian ikasi nahi zutenak uretara. Pepik gaztaroan laguntzen zion aulkiak ipintzen eta halako lanetan, baina inoiz ez zion igerian erakutsi.

1.027. Bainuzainaren kabinak (HER-056/003)

Potrokillo esaten zioten aitari. Bi kabina izaten zituen; han aitaren arreba bat izaten zen eta jantziak ematen jendea. Bainujantziak alokatu egiten zituzten.

1.028. Udatiarrak leku askotatik (HER-056/004)

Madrildik, Gasteiztik, Bilbotik, Zaragozatik eta etortzen ziren. Bere aita gizon handia zen, indartsua, eta lan asko izaten zuen.

1.029. Aitak uda Donostian ematen zuen (HER-056/005)

Aitak, bainuzaina izanik, Donostian ematen zuen udara. Arrebak eta biek pisua zuten han. Aitak tranbia alokatzen zuen eta udatiarrak etxera ekartzen zituen.

1.030. Bainuzainaren lanak (HER-056/006)

Kontxan egiten zuen lan aitak bainuzain eta zer lan egiten zituen kontatzen du.

1.031. Dantzazalea (HER-056/009)

Ipurtarroa edo kaskarina izan dela dio. Dantzazalea izan da. Senarrak ere ondo dantzatzen zuen. Bizikletan ibiltzen zen, maistrak utzitakoan eta babarruna ematen zion trukean.

1.032. Bentaberrira erromeriara (HER-056/010)

Jaiero soinujolea izaten zen Bentaberrin. Hango mutilak berarekin dantzan egin nahi izaten zuen. Senarra pilotara joaten zen hara. Sueltoan eta baltsean egiten zuten.

1.033. Mantilla eta galtzerdiak elizarako (HER-056/015)

Mantillarekin joaten ziren mezetara. Elizako errespetua omen zen hori. Ezkondu eta Bilbora joanda, mantillarik gabe elizan sartzearren, bidali egin zuten. Galtzerdiak ere nahi eta nahi ez eraman behar ziren.

1.034. Jaunartzeko soinekoa (HER-056/022)

Jaunartzea bederatzi urterekin egiten zuten. Soinekoa erosi egin zion maizterraren ilobari eta gero berriz saldu zuen. Buruan txapeltxoia eramaten zuten edo larrosa txikiz osatutako zinta. Mutilak marinel jantzia eramaten zuten. Arrosarioa eta meza liburua eramaten zuten.

1.035. Hondartzan aitari laguntzen (HER-056/028)

Ez da zine zalea izan, lo hartzen baitzuen. Aitari laguntzera joaten zen hondartzara, aulkiak atera eta toldoak irekitzera, baita denak biltzera ere. Berak tranbian egiten zuen joan-etorria hamalau bat urtetik aurrera. Aitak ez zuen jairik izaten, hamarretan uretan sartu eta arratsaldeko lauak arte ez zuen bukatzen. Aitaren amak kabinetan lan egiten zuen aurretik.

1.036. Hondartzako kabinak (HER-056/029)

Hondartzako kabinak. Hondartzan laguntzearren ez zuen propinarik jasotzen. Bi kabina zituzten, 80 eta 81 zenbakiak: aldagelatxo txikiak zeuden eta izebak jantzen laguntzen zien. Gero, bezeroek bainua hartzen zuten bitartean arropak zaindu behar izaten zituzten.

1.037. Esanezina kentzeko, ijitoen ogia (HER-056/032)

Ezinesana izaten zuen eta medikuak urduritasunagatik egiten zuela esaten zion. Ijitoei ogia eskatzea izaten omen zen erremedioa eta horrela pasatu zitzaion.

1.038. Amezketako artzaia etxean (HER-056/036)

Amezketako artzaia izaten zuten neguan etxean ardiekin, Jose Mari Etxeberria. Miurak biltzera zuhaitzera igo eta handik erorita hil zen. Gazta ere egiten zuten eta berak ere ikusten zuen nola egiten zuten.

1.039. Hamabost senide (HER-057/003)

Eskolara ez ziren beti joaten eta dotrina ikasten nahikoa lan izaten zuten. Zazpigarren senidea zen hamabostetik. Oso gazterik etxetik irten behar izaten zuten. Behiak eta ardiak jeizten aritzen zen Salustiana. Bere anaiak basora joaten ziren lanera.

1.040. Apopiloak etxean (HER-057/004)

Apopiloak hartu zituzten etxean. Koltxoiak eta oheak nolakoak ziren kontatzen du. Goizean seirak aldera jaikitzen zen eta behorarekin Hernanira joaten zen. Erosketak egin eta ogitartekoak eramaten zizkien anaiei eta apopiloiei.

1.041. Egañarenean zerbitzen eta gereziak saltzen (HER-057/005)

Egañarenera mahaia zerbitzera joan zen eta bi urtez aritu zen han lanean. Etxeratu zenean, ama hamabosgarren semearekin haurdun zegoen. Behorra zestoekin gereziz beteta hartuta, haiek saltzera joaten zen. Egañarenera ez itzultzea erabaki zuen.

1.042. Abereei kontu egiten (HER-057/007)

Behiak, behorra, ardiak, zekorrak... izaten zituzten. Haiei kontu egitera joaten zen, anaiak lanera joanda baziren. Mendira eramaten zituzten.

1.043. Aita ezpaineekin soinu-jotzen (HER-057/008)

Aitak ezpaineekin soinua jotzen zuela esaten du, txistuka moduan. Dantzan ere aitak erakutsi zien, jai arratsaldeetan. Mantajokoan aritzen ziren.

1.044. Mezetara baino lehen, anis zurrutada (HER-057/009)

Ilunabarrean arrosarioa errezatu behar izaten zuten, aitak eta amak hala aginduta. Mezara joatea ere garrantzitsua izaten zen. Anisa edaten zuten Ereñotzura mezetara joan aurretik eta anis botila aldean eramaten zuten.

1.045. Anai zaharrena kontrabandoan (HER-057/012)

Harriak eta ura leihotik botatzen zizkien anaiei, gauez kontrabandoan ibili eta etxeratzen zirenean. Bihurrikeria izaten zen. Anai zaharrena ibiltzen zen kontrabandoan. Nondik nora ibiltzen zen kontatzen du. Karabeleko "Zekorra"k ordaintzen zien. Arropak eta oihalak eramaten zituzten.

1.046. Janaria eta kontserbak gerraostean (HER-057/013)

Gerraostean txerria hiltzen zuten eta haren gantza ontzietan gordetzen zuen amak. Ez zuten goserik pasatzen. Etxean ez zuten ogirik egiten. Taloa jaten zuten egunerokoan. Behia hil eta gatzetan kontserbatzen zuten. Arrautzak Irubideetan salduta ordaindu omen zuten baserri erdia.

1.047. Aitak ezkutatutako iheslariak (HER-057/014)

Aitak poliziarengandik ihesi joandako hiru lagun ezkutatu zituen. Haiei zauriak sendatzera joaten zen aita eta amak otorduak prestatzen zizkien, aitak eramateko. Axala izeneko bat zen tarteko.

1.048. Aitak neskei emandako gomendioak (HER-057/015)

Aitak esaten zien emakumeek errespetua eta beraien gauzak gordetzeko, bestela gizonezkoek etxeko atariko zakurrek bezala galtzen zutela errespetua.

1.049. Senideen jaiotza, ikusikizun handia (HER-057/018)

Senideak etxean jaio ziren. Seniderik jaiotzear bazen, umeak etxetik bidali egiten zituzten. Umea Paristik ekarri behar zutela esaten zieten eta medikua

behorraren gainean etortzen zenean, ume txikia hark zekarrela esaten zieten. Umeen artean ikusmira handia sortzen zuela dio. Azkenengo senidea jaio zenean, hari zainketak egiten aritu zen. Ondorenean ez zuten umezain ibili nahi izaten.

1.050. Jaioberriarentzako arropak (HER-057/019)

Erditzerako prestaketak. Bordatutako toailak prestatuta izaten zituen amak eta harekin batzen zen ume jaioberria. Amak berak egiten zizkien arropak seme-alabei josteko makinarekin.

1.051. Jaioberrien bataioa ospakizun handia (HER-057/020)

Bataiatzera Ereñotzura joaten ziren. Ospakizun handia izaten zen eta otordu berezia egiten zuten. Auzokoak eta senideak bisitan etortzen ziren amarengana. Ama bizkortutakoan, elizara sartzea egiten zen eta ondorenean, bataioa.

1.052. Beti euskaraz (HER-057/023)

Euskara gauza ona izan dela beretzat dio, dena euskaraz egiten zutelako. Hernanira kalera etorritakoan, erdaraz hala-nola egin behar izaten zuten. Dotrina aitarekin ikasi zuten gehien, eskolan eta elizan baino gehiago.

1.053. Lehen soldatapeko lana (HER-058/003)

Goldean eta lurra maneiatzen jardunda atera zuen Joxe Marik lehendabiziko soldata, Hernaniko mintegian hasita.

1.054. Mintegia zer den (HER-058/005)

Mintegian lanean urte batzuk egin zituen Joxe Marik, eta zer den azaltzen du.

1.055. Mintegian lanean (HER-058/006)

Mintegiko lan baldintzak eta zereginak zeintzuk zituen azaltzen du Joxe Marik. Idi pare bat erosi zuen hango lanak errazago egiteko, eta lehendabizikotarikoa izan zen traktorea erosten.

1.056. Baserriko eta mintegiko lurrak maneiatzen (HER-058/007)

Lurra nola maneiatzen zuen eta zein tresneria erabiltzen zuen kontatzen du Joxe Marik. Harria, goldea eta karramarroa erabiltzen zituen, besteak beste.

1.057. Uraldeko lurra landaretarako egokia (HER-058/008)

Uraldeko lurra ona izaten omen da landareentzat. Lur bigun samarra, ez da ongarritu beharrik izaten. Bestalde, Joxe Mari da inguruan artoa eta babarruna egiten duen bakarra.

1.058. Mintegiko landareak (HER-058/010)

Hernaniko mintegian egiten ziren landareak honakoak ziren: Platanondoak, sagarra, udarea, zuhaixkak... Txertaketak ere egiten zituzten.

1.059. Sagar haziak dolaretik hartu eta erein (HER-058/011)

Sagarra jo ondoren sagar haziak dolaretik hartzerik ba omen dago. Gero hazi horiek "purran" bota eta ateratzen diren landare onenak bereizi beharra dago gero. Haritza eta pagoekin ere berdin egiten omen zen.

1.060. Akazia muskiletik etortzen da (HER-058/012)

Akazia muskiletik etortzen omen da; Joxe Marik ez du ezagutu hura egiteko beste modurik.

1.061. Pagoak urte asko behar du zuhaitz egiteko (HER-058/013)

Pagoari buruzko xehetasunak ematen ditu Joxe Marik. Hazia ereinda azkar etortzen omen da, eta baita sustrai sendo samarrak bota ere, baina urte asko behar du zuhaitz egiteko.

1.062. Pinua izan den tokian kontuz beste ezer landatzearekin (HER-058/014)

Pinua izan den tokian kosta egiten omen zaio etortzen landatzen den beste ezeri.

1.063. Platanondo beltza (HER-058/015)

Platanondo beltza da errazen egiten den zuhaitza. Baita lizarra ere.

1.064. Pinu gutxi eta sagar asko (HER-058/016)

Joxe Marik gogoan du lehen pinua nonahi topatzen zela. Gaur egun geroz eta gutxiago sumatzen du, eta sagarrondoak, aldiz, geroz eta gehiago.

1.065. Mintegirako adaxkak nondik nora (HER-058/017)

Zuhaitz-adarrari ar-beteko puska moztu ohi zitzaion, gutxi-asko, eta gero adaxka hori muskilez gora lurrean sartzen zen, erdi pareraino edo; denborarekin adar horrek muskil gehiago botatzen zuen gero.

1.066. Ilargiaren eragina zuhaitzak botatzerakoan (HER-058/018)

Joxe Marik ez daki zuhaitzak aldatzeko garaian ilargiak eraginik ba ote duen. Botatzeko garaian eragina duela ziur da, ordea.

1.067. Zuhaitzak mintegitik trenera (HER-058/019)

Gehien gehienez trenetan bidaltzen zituzten mintegitik behar zen tokira landare eta zuhaitzak, eta Joxe Marik berak eraman ohi zituen tren estazioraino. Mintegi bertara zuhaitz bila ere joaten omen zen jendea.

1.068. Eskolan ibilia baina gutxi ikasia (HER-058/021)

Biteri eskolan ibili zen Joxe Mari, eta dena gazteleraz egiten zutela dio. 5. mailara iritsi zen Joxe Mari, eta gero eskola partikularrak jasotzen hasi zen, ilunabarretan. Urte betez aritu zen, Don Feliziano delako irakasle batekin.

1.069. Igande arratsaldeak libre, jostaketarako (HER-058/024)

Igandetan jostaketan ibiltzen ziren umetan. Futboleak, saguzarrak harrapatzen, pilotan...

1.070. saguzarretan, txoritan eta kilkerretan (HER-058/025)

Saguzarrak geziak boteaz harrapatzen zituzten, eta kilkerak, aldiz, belar ziri bat kilker-zulotik sartuta irtenarazten zituzten.

1.071. Gaztetan Oialumera edo Hernaniko arkupeetara (HER-058/026)

Gaztetan bileratara joaten hasi ziren, Oialumera eta Hernaniko plazara, gehienbat. Hernaniko plazan musika banda edo talderen bat izaten zela dio Joxe Marik, trikitia eta ttun-ttunaz gain

1.072. Zulo ikaragarria (HER-058/029)

Hegazkin batetik botatako bonba batek utzitako zuloa da Joxe Marik gerratik daukan oroitzapen bakarra.

1.073. Ogirik ezean, taloa (HER-058/032)

Gerraostean ez zuten ogirik izaten. Ogiaren partez taloa jaten zuten, eta ohitu ere egin zirela dio Joxe Marik. Artoa kutxa batean gordetzen zuten, ganbaran, babarrunarekin batera.

1.074. Simaur faltarik ez (HER-058/033)

Joxe Marik ez du sekula simaur faltarik sumatu etxean. Belar asko omen da euren inguru horretan, eta ganadua beti izan dute.

1.075. Behiak jezteko makina (HER-058/036)

Behiak eskuz jetzi behar izatea gogorra egiten zitzaion Joxe Mariri. Behiak jezteko makina etxeratu zuten egunarekin ongi gogoratzen da. Lehen sei edo zazpi behi izaten zituzten. Egun, hogeita hamar ditu.

1.076. Zekorrek baliorik ez (HER-058/037)

Joxe Marik dio azken hogeita zortzi urtetan zekorrek egiten duen prezioa ez dela ia mugitu ere egin, eta pentsuena, aldiz, hiru bider egin duela gora.

1.077. Pentsua ganaduarentzat (HER-058/038)

Garai batean ganaduarentzat pentsua egiteko zein belar eta barazki landatu ohi zituzten kontatzen du Joxe Marik.

1.078. Babarrun landarearen mantenua (HER-058/039)

Artoa eta babarruna elkarrekin ereiten dira, eta artoak babarrunari nola eragiten dion azaltzen du Joxe Marik. Artoaren tontorra ez dio ganaduari ematen; bai hostoak, ordea.

1.079. Mutil koskortu eta esne partitzen hasi (HER-058/042)

Koskortzerako hasi zen Joxe Mari esne partitzen, eta saltzen zuten esne guztiak kalitate kontrolak pasatzen zituela gogoan du. Behin Gurelesa enpresa sortuta, banatzeari utzi zioten.

1.080. Mandioaren eta ganbararen arteko aldea (HER-058/046)

Ganbarak etxe barrendik du sarrera, eta mandioak, aldiz, kanpotik, zuzen-zuzenean. Belarra gordetzeko egokiagoa da mandioa; erosoagoa, askoz.

1.081. Baserriak husten (HER-058/048)

Aurrerapen teknologikoek baserriko lana erraztu dute, nabarmen. Hala ere, baserriak husten ari dira.

1.082. Euskara, maitea (HER-058/049)

Euskara maite duela dio Joxe Marik. Emaztea ez du hernaniarra baina egun jada ez omen du hark ekarritako hizkeraren eta Hernanikoaren arteko alderik sumatzen.

1.083. Gure inguruko hizkera ona da (HER-058/050)

Aldea sumatzen du Joxe Marik Hernaniko eta Goizueta zein Aranoko hizkeren artean. Astigarraga aldera ez du alderik sumatzen.

1.084. Sagardotegi bi eta harategia (HER-059/006)

Sagardotegi asko zen orduan Hernanin. Beraiek bi zituzten, bata tolaean eta bestea etxean. Tolareko sagardoak hobe irtetzen omen zuen. Aurrean harategia eta atzean sagardotegia zuten.

1.085. Sagardotegiko giroa (HER-059/007)

Sagardotegiak ez zuen sukaldarik. Hamaiketakoa norberak eraman eta sagardoa bertan edaten zuten. Aulkiak eta mahaiak bertan izaten zituzten. Eguerdian botila erosten zuten etxerako baina bestela bakoitzak bere basoa ordaintzen zuen.

1.086. Basoa eta txarrua (HER-059/008)

Gehienak bakarka joaten ziren eta txotxetik aritzen ziren. Txarrua taldeei atearatzen zitzairen.

1.087. Sagardoa nola egiten zuten (HER-059/009)

Sagardoa egiten beti gizonak aritzen ziren. Sagarra ganbaran egoten zen eta argindarra erabiliz txikitzen zuten. Lagarrean jarri eta egurrak bata bestearen gainean jarrita, sagarra estutzen zuten. Handik tina batera erortzen zen sagardoa.

1.088. Botilako sagardoa (HER-059/011)

Emakumerik ez zen izaten sagardotegian. Saltzen bai baina edatera ez ziren etortzen. Botiletan saltzen zuten sagardoa.

1.089. Gosaltzera sagardotegira (HER-059/013)

Beren kontura lan egiten zutenak, gosaltzera sagardotegira joaten ziren. Basoa bost bat zentimoan saltzen zuten.

1.090. Tripakiak garbitzen (HER-059/014)

Tripakiak etxean garbitzen zituzten harategian saltzeko. Bi neskame izaten zituzten lanerako. Ur epeletan sartu behar ziren baina kontu handia izan behar zen. Labanarekin garbitzen zen.

1.091. Udaletxean bigarren emakumezko langilea (HER-059/015)

Udaletxean lanean hogeitaz hamar gutxiagorekin hasi zen. Bere lagun handi bat izan zen emakumezko lehen langilea eta haren ondoan hasi zen. Gizarte zerbitzuetan aritzen zen.

1.092. Gizarte zerbitzua (HER-059/016)

Gerra garaian jangela sozialera joaten zirenak gerratik ihesi joan eta etorritakoak izaten ziren asko, umeak. Non zegoen kontatzen du.

1.093. Jendea etxeetatik eraman egiten zuten (HER-059/019)

Gerra garaian, anai bat Madrilen zuten ikasten eta ez zekiten hartaz ezer. Beldur handia bizi izan zuten, etxeetan sartu eta jendea eraman egiten baitzuten.

1.094. Ezinikusia eta beldurra (HER-059/020)

Ezinikusia bazen. Anaiaren bila etorri ziren behin eta alde egin zuen leihotik. Ez zekien nora joaten zen, hobe baitzen ezer ez jakitzea. Orduan beti beldurrez izaten ziren. Senide batzuek Ameriketara ere alde egin zuten.

1.095. Ahizpa eta anaia kartzelan (HER-059/021)

Fusilamenduen beldur izaten ziren. Etxetik eramanez gero, bazekiten zer gertatuko zen. Ahizpa ere kartzelan izan zuten eta horri buruzko azalpenak ematen ditu. Anaia frontean zauritua, bestea Madrilen kartzelan, aita hila... gogorra izan zen.

1.096. Ahizparen kartzelaldia (HER-059/022)

Ama eta biak geratu ziren etxean. Ahizpak kartzelan egun batzuk pasatu zituen. Jende asko eramaten zuten kartzelara hutsarengatik. Bisitan joan zen bera, negar eta negar. Jatekoa ezagun batek eramaten zion.

1.097. Osaba izebei dena errexisatu zieten (HER-059/024)

Bere osaba-izebei dena errexisatu zieten. Ameriketara joateak salbatu zituela uste du. Aita oso euskalduna zen. 1937an gaixotu eta hil egin zen. Orduan ikusitakoagatik, beldurragatik, izan zela uste du.

1.098. Desfileak (HER-059/025)

Herri bat hartutakoan, desfilea egiten zen. Bera ere aritzen zen inguruan eta etxean, beldurragatik, ez zioten galarazten. Uniformearekin joaten ziren.

1.099. Soldaduak etxean (HER-059/027)

Etxean lau soldadu izan zituzten lotarako, derrigorrean. Ez daki inor ausartuko zen soldaduak etxean hartzera ukatzen.

1.100. Margaritak (HER-059/028)

Margarita bera ere izan zen. Soineko beisa eta txapela erabiltzen zuten. Lagunak nazionalen aldekoak zituenez, han ibiltzen zen. Ez zen konturatzen. Fletxak karlistenak eta pelaioak falangearenak ziren.

1.101. Doluagatik arropak tindatzea (HER-059/035)

Tintea lehenago gehiago egiten zirela uste du. Dolua zenean, etxean tindatzen zituzten arropak. Ur berotan tindatzen zen. Garbitzeko ere oso kontuz ibili behar zen.

1.102. Xaboa etxean egina (HER-059/036)

Xaboa etxean egiten zuten, sosa eta seboarekin. Limoia ere botatzen zitzaiola uste du.

1.103. Euskaraz nekez (HER-059/038)

Euskaraz oso nekez egin izan du, nahiz eta etxean denek euskaraz aritu. Neskameei galdetzen zien aitari euskaraz nola egin. Aitarekin oso gutxitan hitz egiten zuen. Neskameentzat erdarako maistra izan ohi zen.

1.104. Gaur Osiñalde, lehen Elorrabi (HER-060/002)

Elorrabi baserria inguruko baserririk zaharrena da, eta haretzek ematen zion izena auzuneari lehen. Gaur egun, aldiz, Osiñalde auzoaren mugen barruan da Elorrabi.

1.105. Elorrabi bota eta berritik altxa (HER-060/004)

Maiozkoa da Batixta, eta bera geratu zen baserrian. Ezkondu aurretik baserri zaharra bota eta berria altxatu zuten, 1964 urtean, lehengoaren oinarriaren tamaina eta altuera berarekin.

1.106. Enbidoari ordagoa (HER-060/005)

Elorrabi baserriak behin ere ez du ur faltarik izan. Sagardotegia izanik, batek baino gehiagok adarra jo nahi izaten dio Batixtari gai horrekin. Batixtak, ordea, erantzuna mingainaren puntan prest izaten du.

1.107. Bi ur-andel eta iturburua (HER-060/006)

Bi ur-andel eta iturburua ditu Batixtak Elorrabin. Berak dioenez, iturburua ez da ahitzen, eta baratzeak ureztatzeko erabiltzen du.

1.108. Izainak hanketan (HER-060/007)

Batixtak dio garai batean izango zela ura Baserrira kanalizatzeko aukera, baina emakumeek nahiago zutela arropa garbitzera erredera joan. Han, nonbait, festa izaten zuten lan egin beharraz gaiz, eta Batixtak dio izainak oinetan itsasten zitzaiatzela. Garai batean izain asko omen zen; gaur ez, ordea. Fabrikek errederako ura asko zikindu dutela dio.

1.109. baserrian beti lan eta lan (HER-060/009)

Emakumeak beti egin izan du lan asko baserrian. Gizonezkoak, aldiz, izaeraren arabera hautatu ahal izaten zuen lana beltz egin edo zereginei iskin egiteko aitzakiaren bat jarri. Batixtak dio feriara joatea aitzakia merkea izan dela askorentzat.

1.110. Beti lanerako prest (HER-060/010)

Gizon batek behin Batixtaren aitari esana da bere semeak gizonetik gutxi zuela, taberna aurretik pasatzen zenetan bertara sartzen ez zelako. Batixtak dio izan dituela bere afizioak: ehiza, esaterako. Eta afizioari eusten dionak orduak kendu ohi dizkio lanari. Hala ere, Batixta ez omen da izan lanari bizkarra ematekoa, ez eta auzoan berarekin behartu izan direneta ere.

1.111. Karramarroa, goldea eta harria (HER-060/011)

Karramarroa, goldea eta harria zer lan-tresna mota ziren eta zertarako erabiltzen ziren azaltzen digu.

1.112. Baratzea kendu eta sagarra jarri (HER-060/012)

Garai batean artoa eta babarruna egiten zuten tokietan sagarrondoak sartuta dituztela dio. Lur gehiago balu, sagar gehiago sartuko luke.

1.113. Ehizarako grina berezkoa da (HER-060/013)

Ehizarako zaletasuna nondik datorkion galdetu, eta hori berezkoa izaten dela erantzuten du. Ehizaki bila inguruko mendi guztiak hainbatetan ibilitakoa da.

1.114. Ehizara joan aurretik ukuiluko lanak egin (HER-060/014)

Hamarretik bederatzitan bakarrik ibili izan da ehizan; gutxi batzuetan, lagunekin. Ehizara joaten zenetan ukuiluko lanak eginda utzi behar izaten zituen, eta presaka itzuli gero, egin gabe utzitakoak bukatzeko.

1.115. Lehenengo eskopeta (HER-060/015)

Aitak ehizara joateari utzi zionean eskopeta semeari eman zion. Eskopetarekin ari aurretik, ordea, harri eta sardearekin hamaika saio egina omen zen.

1.116. Dena etxerako! (HER-060/016)

Lazoak eta tranpak jartzen ibili izan da Batixta, baina ez sarri. Elur pixka bat botatzen zuen aldiro, ordea, oilagorretan aritzen ziren, etxe aurrean bertan.

1.117. 1956ko elurtea (HER-060/017)

1956 otsailean elurtea izan zen, eta gogoan du nola ahate dezente bota zituen, ur-bazterrean. Ba omen da esaten duenik 1956ko otsail hartan hilabete osoan zehar egin zuela horma. Batixtak ezetz dio, zortzi egun izan zirela. Ez gehiago.

1.118. Ehiza gutxitu egin da (HER-060/018)

Pasoko ahate gutxi ikusten omen da. Gaur Euskal Herriko erreka bazterretan ikusten diren ahaterik ez omen zen lehen. Bertakotu egin dira, nonbait. Bestalde, egun ez omen da lehen adina ehizarik. Oilagor kopurua erdira jaitsi omen da; tortola eta galeperra, laurdenera; antzar eta kurrilotik, aldiz,

badirudi lehen bezainbeste badela, eta baita uso dezente ere. Baina hegabera, lehengo hamarretik bat ikusten omen da, eta istingorra berrogeitik bat.

1.119. Ehiztariak ez dute fauna desagertzearen errua (HER-060/019)

Txori gutxiago ikusten da gaur egun, eta batez ere, espezie batzuk "ezkutatu" egin direla nabari da. Batixtak dio hori ez dela ehiztarien errua. Izan ere, ehiztariak ez omen dio sekula beleari tiro jo, ez eta bele-txingari ere, eta lehen erruz ikusten ziren bezala, gaur alerik ere ez omen da ikusten. Elikatzen diren tokietan galtzen ari dira txori horiek guztiak.

1.120. Kukua ere falta (HER-060/020)

Kukurik ez omen da urreratzen Elorrabira. Kukuaren inguruko esamesak kontatzen ditu Batixtak.

1.121. Kaioak baserrian (HER-060/021)

Batixtak azaltzen du zergatik agertu ohi den kaioa, tarteka, baserri ingurura. Lehen ez omen zen azaltzen; behin edo behin, akaso. Eta halakoetan, itsaso txarraren seinale besterik ez zen izaten.

1.122. Gaztetan, mugitzen zen guztiari tiro (HER-060/022)

Zapelatz edo mirurik tiroz botatzen inoiz ez direla saiatsu izan, dio. Izatekotan, gazte garaian. Behin hogei urte betez gero, txori gutxiagori begiratu izan dio Batixtak.

1.123. Amonari ipurdian (HER-060/023)

Ehiztari batek makurka baratzean lanean ari zen amona bati ipurdian tira omen zionekoa.

1.124. Faisai bila (HER-060/024)

Faisai ehizan ibiltzen zen aberats talde bat bai omen zen, eta ehun faisai botatzen bazituzten, erdiak mendian geratzen omen zitzaizkien. Batixtak eta lagun batek Faisai horiek bildu eta etxera eramaten zituzten.

1.125. Berrogeita bi duroko isuna (HER-060/025)

Arma-lizentzia gabe harrapatu zuten behin Batixta, soldaduska egiten ari zen garaian, eta epaitegira deitu zuten. Berrogeita bi duroko isuna ordainarazi zioten.

1.126. Basa-oiloa hegazti kuttun (HER-060/026)

Hegaztirik kuttunenarengatik galdetu eta zalantza gutxi du Batixtak: basa-oiloa izan du beti gogokoenetan gogoko. Hari buruz hizketan ari dela zata pasa da hegan, eta Ederki asko antz eman dio Batixtak. Hegan egiteko moduagatik ia edozein txori ezagutzeko gai da.

1.127. Antzara eta ubarroia (HER-060/027)

Antzara eta ubarroia oso hegazti desberdinak dira parez-pare jarritz gero; hegan doazela, aldiz, ehiztari askok nahasi ohi ditu. Ubarroiak, baina, antzarak baino biziago astintzen ditu hegoak.

1.128. Hegadaren hotsa (HER-060/028)

Batixtak hegadaren soinuagatik ezagutzen ditu hegatiak.

1.129. 'Brankoliñaren' zain (HER-060/029)

Batixtak "brankoliña" esaten dio atalarrari. Asko hiltzen omen zuten garai batean, eta Batixtak batez ere. Txori horren bizi-ohiturak eta joan etorriak ederki asko ezagutzen zituen eta iraileko lehen ilargi berriarekin hantxe izango zuten zain, eskopeta hartuta.

1.130. Ilargialdiek eragin handia dute ehizan (HER-060/030)

Ilargialdiek ehizan eraginik baduten galdetu eta Batixtak baietz dio, batere zalantzarik egin gabe. Isidoro Oilokiegiri eta haren semeari oilagorrei buruzko hainbat kontu entzuna die Batixtak, eta ziur da baietz, nahiz eta berak ez dituen oilagorren ohiturak horren gertutik aztertu.

1.131. Fabrika utzi ahateak ehizatzeraz joateko (HER-060/035)

Ibarluzea poligonoko Zeramika fabrikari 1956ko otsaileko jelaarekin hasi ziren lanean, baina maza izoztu egiten omen zitzairen, eta ezin lanik egin. Enpresako nagusiak ahateak ehizatzeraz joaten utzi zion Batixtari, beretzat pare bat ekartzeko baldintzarekin, fabrikari langile denak geldirik zeudela eta.

1.132. Zeramika fabrikako lehendabiziko piezaz (HER-060/036)

Igeltuzko moldetan egiten omen zituzten zeramikako piezak. Fabrikako labetik irten zen lehendabizikoa Batixtak berak prestatu omen zuen, nagusiaren eta haren lagun enpresari batzuen aurrean.

1.133. Soldaduska egiterako, enkargatu (HER-060/037)

Zeramika fabrikari lanean hasi eta bigarren hilabeterako enkargatu izendatu zuten Batixta, artean soldaduska egin gabekoa zela. Baina soldaduska egitera joan behar izan zuen, eta itzultzerako hankaz gora zen fabrika. Itxi egin behar izan zuten.

1.134. Paper-maneatzaile lanetan (HER-060/038)

Paper-maneatzaile lanetan hasi zen soldaduskatik etorrira, baserriko obra egiteko dirua behar zuela eta. Fabrika hartan ere aginte postuetara heldu zen, baina hamazazpi urtez bertan lanean aritu eta gero, itxi egin zuten lantegi hura.

1.135. Ontzako urrea (HER-060/041)

Garai batean, mahai bat koloka zegoenean zoruaren gora-beherak medio, ontzako urrea jartzeko eskatzen omen zitzaion norbaiti. Halako ohituraren berri ematen digu Batixtak.

1.136. "Euskara neretzako dena da" (HER-060/042)

Aita eta amarengandik jaso zuen euskara "dena" izan da Batixtarentzat, ez ordea, egungo euskara batua; berari ez zaio balio.

1.137. Euskara garbiena Tolosa eta Donostia bitartekoa (HER-060/043)

Euskara garbiena Tolosa eta Donostia artean hitz egiten dena da.

1.138. Ereñotzu egun tristeago lehen baino (HER-061/002)

Baserri giroko auzoa izan da jatorriz Ereñotzu. Egun etxe franko altxa dute bertan, baina Migelek eskastua ikusten du auzoa, lehengo aldean.

1.139. Hiru baserri Ereñotzun (HER-061/003)

Migelen hitzetan, hiru baserri besterik ez ziren Ereñotzun, bera haurra zela. Baserriak ematen zuenetik bizi ziren.

1.140. Baserriak ezin egungo merkatuan lehiatu (HER-061/004)

Egungo baserritarrak oso zail du merkatuan lehiakor izatea, makineriari esker produktu merkeagoa lortzen duen hamaika baitabil bazterretan. Euskal Herriko zenbait tokitan makineria sartzea ezinezkoa da, oso zoru aldapatsua eta malkarra baita gurea.

1.141. Babarruna saltzen (HER-061/005)

Migelen ama zena trenean joaten omen zen Tolosara, babarrunak saltzera, etxean asko egiten baitzuten. Lehorte izugarria izan zen urte batean, jendea hazitarako babarrun gabe geratu zen, eta Migelen amari garesti ordaindu omen zizkioten saltzeko zeuzkanak. Lakaia zer den azaltzen du.

1.142. Senide guztiak amari laguntzen (HER-061/008)

Lau senide ziren etxean. Migel zen gazteena, eta aita hila zen. Ama lagundu beharrak, baserriko lanetan azkar jartzera behartu zituen senide denak. Hala ere, umea beti ume, eta izaten zuten tarterik "gaiztakeriarako", Migelek dioenez.

1.143. Lau senide eta bizikleta bakarra (HER-061/009)

Lau senide izanagatik, bizikleta bakarra zuten etxean: 'orbea' berde bat, aski koipeztatua, eta Migelek nahi baino gutxiago ibili zuena.

1.144. Harrapazka egunez, "propina" (HER-061/010)

Seniderik gazteena mizke hazi ohi dela esaten bada ere, Migelen kasuan ez zen halakorik izan. Iniztorra ebakitzera joandako batean, zeregina jarri zien amak bi anai-arreba gazteenei: saski bete babarrun biltzea. Bertan bildutakoarekin bete beharrean, etxeko ganbaran lehortzen zeukatenetik bete zuten, ordea. Amak jakin zuenean "propina" (zigorra, alegia) ederra jaso omen zuten biek. Migel oraindik gogoratzen da.

1.145. Jokoan lau pezeta galdu (HER-061/011)

Migel haurra zela, jokoan aritzeko ohitura omen zuten, kartetan: "Zazpi t'erdian". Egun batez, Migelek diru guztiak galdu zituen. Lau pezeta inguru. Dioenez, oraindik ez omen zaio tristura pasa.

1.146. Zortziehun pezetako belozipedia (HER-061/012)

Bizikleta erosi eta etxeratu zuten aldian, kuadrilla bildu omen zen haren bueltan. Goizuetara joan eta han belozipedia esaten omen zioten bizikletari.

1.147. Kaleraino oinez (HER-061/014)

Migel bakar-bakarrik bidaltzen zuten oinez enkarguak egitera, Ereñotzutik Hernaniko Kardaberaz kaleraino. Auto askorik ez zen ibiltzen orduan. Kezka bakarra, "Sakamantekas".

1.148. Aranora eta Goizuetara oinez (HER-061/018)

Lanean hasi arte ez zuen Migelek Arano eta Goizueta ezagutzeko aukerarik izan. Bertaratu zen lehen alditan, oinez iritsi behar izan zuen, ordea.

1.149. Ogi berria eta ogi lizuna (HER-061/020)

Azpeitiko okin bat ba omen zen Aranon, ogi goxo askoa egiten zuena. Orduko ogia lizundu egiten omen zen egun batzuk utziz gero. Ogi berria jateko aukera, aldiz, ez omen zen egunero izaten.

1.150. Zizarra eta pitarra zer diren (HER-061/021)

Zizarra eta pitarra zer diren azaltzen du Migelek.

1.151. Sagardotik edaten (HER-061/022)

Urarekin nahasi gabeko sagardoa topatzen ez omen zen hain arraza izaten. Hala ere, haurrak zirela, bazekiten Migelek-eta inork ikusten ez zituela bukoari zipotza kendu eta sagardotik edaten.

1.152. Lehen bi taloak maistrarentzat (HER-061/024)

Gerraosteko gosetea gogoan du Migelek, nahiz eta euren etxean artoa, babarruna eta esnea baziren. Hala ere, herriko maistrarentzako izaten omen ziren etxean erretako lehen bi taloak, morroiak bizikleta hartuta eraman ohi zizkionak.

1.153. Maistra gaiztoa (HER-061/025)

Fagollagako eskola esaten zioten batean ikasi zuten Migelek eta haren anai-arrebek. Tira, ikasi edo. Migelek dio maistrak jo egiten zituela.

1.154. Maistrak arreba jo (HER-061/026)

Migelek-eta gazteleraz jakin ez, eta euskaraz egitea debekatua izaten zuten, gainera. "Gloria, gloria..." abestu behar izaten zuten eskolan. Maistrak Migelen arreba txikiena sudurretik odoletan utzi zueneko.

1.155. Eskolan egur-txikitzen (HER-061/027)

Neskak eskulanetan eta mutilak egur txikitzen ari izan zirela dio Migelek.

1.156. Eskolan zer ikasi (HER-061/029)

Matematikako oinarritzko eragiketak eta geografia ikasten zutela kontatzen du Migelek, baina hain genio txarrekin, bizirik nola atera ziren ere ez daki ondo.

1.157. Hamaika urterekin lanean hasi (HER-061/031)

Behin komunio handia eginda, eskola utzi eta lanean hasi zen Migel, hamaika urte zituela. Aitzurra hartu eta pinu-zuloak egiten jardun zuen. Hamar zentimo ordaintzen zioten zuloko. Lehendabiziko duroa irabazi zuenean ez omen zen bere galtzetan kabitzen; ez eta galtza luzeak jantzi zituen lehen aldian ere.

1.158. Kapritxorik ez (HER-061/032)

Lanean jasotako soldata etxean entregatu behar izaten zuen Migelek. Burutik pasa ere ez omen zitzaion egiten gasturen bat egitea.

1.159. Lapurtzeko gai ez (HER-061/034)

Pobrea lagundu behar dela esan eta aberats bizi. Apaizak horixe egin izan duela dio Migelek. Meza-mutil ibili zen garaian izan zuen pezetaren bat edo beste lapurtzeko aski tentaziorik; egokierarik ez izan, ordea!

1.160. Mezako ardoa (HER-061/035)

Don Joakin apaizak tonto deitzen zien meza-mutilei, mezetan sobratutako ardoa edaten ez zutelako. Migelek dioenez, ederki ikasi zuten gero.

1.161. Errekan pozik (HER-061/036)

Errekan uretan jostatzera eta igeri egitera sarritan joaten omen ziren, gustura asko. Auzotar bat presan ito zenekoa ere kontatzen du Migelek.

1.162. Neskak eta mutilak elkarrekin errekan (HER-061/037)

Neskak eta mutilak elkarrekin ibiltzen omen ziren errekan, eta tartean-tartean, baita biluzik ere. Hezkuntza sexualaz galdetuta, beraiek dena naturak ikasten zutela dio Migelek, inork gauza handirik azaldu beharrik gabe. Txistea ere kontatzen du, haurrak "Parisetik zetoze" eta.

1.163. Apaizak etxera bazkaltzera (HER-061/038)

Heltzekoa eta taloa, horixe izaten zuten eguneroko bazkaria. Entsalada zer zen ez zekiten, eta jai egunetan, babarrun zuria prestatzen zuen amak. San Antonio egunez eta jai egun handitan, babarrunak txorizo edo urdaiazpiko pixka batekin eta oilar zaharren bat, eta postretarako budina edo arrozesa izan ohi zela gogoan du Migelek. Egun seinalatu horietan ogia eta ardoa ere eramaten omen zituen amak, izan ere, apaizak joaten omen zitzaizkien bazkaltzera horrelakoetan. Migelek dio sekula ez duela etxean apaizik aitzurrean ikusi, baina bazkaltzera baietz, horretara joaten zirela.

1.164. Apaizak etxean lotan (HER-061/039)

Misioak herrira etortzen zirenean, Garizuma garaian beti ere, Santamañako Don Juan Peñagarikano apaizak beraienean hartzen omen zuen aterpe. Misio garaian herrian ze giro izaten zen kontatzen du Migelek.

1.165. Bekatua bekatuaren gainean (HER-061/041)

Migelek dio bere gazte garaian dena zela bekatu. Elizaren gainbehera elizgizonen jarrerari zor zaiola dio: ez omen zuten jakin predikatzen zuten guztiaren eredu izaten.

1.166. Garizuman hainbat debeku (HER-061/042)

Garizuma garaian bilerak egitea debekatua omen zen Nafarroan. Gipuzkoan ez, nonbait. Baina Gipuzkoan txistua jotzea eta jokoan ibiltzea ez omen zen libre Aste Santuan. Elizetako santuak zapi morez tapatzeko ohitura omen zen.

1.167. Tximeletak birigarroarentzat (HER-061/043)

Garizuman, hainbeste gauza debekatuta egonik, tximeletak harrapatzera joaten omen ziren gaztetan. Ondoren, tximeletak birigarroei ematen omen zizkieten jateko, eta hartara, txori kantari horiek mantentzeko modua egiten zuten.

1.168. Bola-jokorako zaletasuna (HER-061/049)

Bola-jokorako zaletasun handia omen zuen Migelek. Bola-tokia lagunaren artean prestatzen omen zuten, bai eta birla eta bolak egin ere.

1.169. Kontrabandoan hasteko proposamenari uko (HER-061/051)

Kontrabandoan hasteko aukera izan omen zuen Migelek, baina ez zien halako lanei sekula heldu, apaiz batek emandako aholkuari segika.

1.170. Kontrabandista batekin izandako sesioa (HER-061/052)

Behin bere lantegiko kargudun bati kontrabandoan aritzea leporatu zion Migelek, eta besteak ez zion halakorik esaterik onartu. Tira-bira hura izan eta hurrengo gauean bertan harrapatu omen zuten gizon hura kontrabandoan.

1.171. Osaba kartzelara (HER-061/053)

Guardia zibilek kontrabandoan zebilen osaba geratu zutenekoa kontaktzen du Migelek. Pasadizo barregarria da, kartzelan bukatu zuen, baina.

1.172. Zegamako mikeletea (HER-061/055)

Migel kamioarekin garraioan ibili zen denboran mikeleteekin tratua izatea tokatu zitzaion. Zegamako mikelete handi bat du bereziki gogoan.

1.173. Zekorra erremolketik galdu (HER-061/060)

Abereak batetik bestera garraiatzen hasi zeneko pasadizoa da honakoa. Behinola, zekor pare bat erremolkean kargatu eta bidean bat galdu zuen Migelek. Onik berreskuratu zuen, ordea, eta gerora ez zen berriz ere deskuidatu.

1.174. Hiru duroko isuna gorotz usaiarengatik (HER-061/061)

Autoa gorotzez zikindua ibiltzen omen zuen Migelek, eta behin, Donostiako hiltegian, hiru duroko isuna jarri nahi izan zioten horregatik.

1.175. Aguazila zahato eske (HER-061/063)

Donostiako aguazil bat lagun zuten Migelek-eta. Behin, Donostian bertan, autoan ibiltzen zuten zahatoa medio gertatutakoa kontaktzen du.

1.176. Ehizarako lizentziak guztiak ordainduta (HER-061/066)

Migelek esaten du, lehen, egun baino askoz ere txori gehiago zela. Iaz zozo bat besterik bota ez bazuen ere, urtero zintzo ordaintzen ditu ehizarako beharrezko dituen lizentzia guztiak.

1.177. Neska-laguntzea, ahal zela, denen bistan (HER-061/069)

Etxera laguntza egiteko neskaren baten baimena lortzen zuen hura, bileran zen jende guztiaren aurretik pasatzen saiatuko zela kontatzen du Migelek.

1.178. Lau errenkada erremolatxa jorratu eta Aranora (HER-061/070)

Behin, Santiago egun batez, goizeko lauretan iritsi omen zen Migel etxera. Ama izugarri haserretu zitzaion. Migelek biharamunean Aranora joan nahi zuen bazkaritara, eta amak, horren jakitun, baratzeko lau errenkada erremolatxa jorratzeko baldintza jarri zion. Migelek amak jarritako lan guztiak egin zituen eta biharamunean Aranora joan ahal izan zuen neska-lagunarekin; bai eta ongi gozatu ere, berak kontatzen duenez.

1.179. Emaztea Benta Berrin ezagutu (HER-061/071)

Migelek Benta Berriko bilera batean ezagutu zuen gerora emazte izango zuena. Bilera haietara jende ugari biltzen zela dio.

1.180. Gaupasak Benta Berrin (HER-061/072)

Ba omen zen bileretan gaupasa egiten zuenik, bi jai egun segidan tokatuz gero.

1.181. Benta Berriko bileren gainbehera (HER-061/074)

Jendeak bileretara joateari utzi zion pixkanaka. 1965 urtearen bueltan kokatzen du Migelek Benta Berriko bileraren gainbehera.

1.182. Kanpotarrei harrika (HER-061/075)

Bileretan, neska-laguntzea egiteko garaian, herrikoak ez ziren mutilei harrika ekiten omen zieten Benta Berriko zenbaitek. Beste herri batzuetan ere halaxe izaten zela dio Migelek.

1.183. Harrapazka zer zen (HER-061/076)

Harrapazka eguna Irailaren 10ean izaten zen. Udalak herri lurretako iniztorra ebakitzeko baimena ematen zien herritarrei. Migelek egun horretako antolaketari buruzko hainbat kontu esaten ditu.

1.184. Ereñotzuko hizkera eta ingurukoak (HER-061/079)

Hernaniko Ereñotzuko eta inguruko herrietako hizkeren artean alde nabarmena dago. Migel konturatuta omen dago, biblian azaltzen diren hitz batzuk Goizuetan esaten direla, eta hortik ondorioztatu du ez dela hizkera aldrebesa izango hangoa. Migelentzat Ereñotzuko hizkera da denetan garbiena, hartan dena ulertzen baitu. Bizkaiera ez omen du ondoegi entenditzen.

1.185. Euskara debekatua eta errotak itxita (HER-062/001)

Frankismoan euskara debekatua zegoen. Errotak itxi egin zituzten. Nafarroan ogia lehenago hasi omen zen.

1.186. Biriketako gaitzarekin hil ala bizi (HER-062/002)

Inazio hilabete inguru besterik ez zen eskolan ibili. Biriketako gaitza harrapatu zuen eta hil edo bizi egon zen. Aitak nola lagundu zion kontatzen du. Sendatu zenean, Ziordiana bidali zuten, klima aldatzeagatik.

1.187. Ziordian patata biltzen eta enborrak garraiatzen (HER-062/003)

Ziordian bi urte egin zituen. Patata Olazagutin izaten zen, biltegi handi batean. Neguan enborrak jeisten zituzten Urbasatik idiekin. Trenbideko trabiesak eskuz egiten zituzten beste batzuek enbor haiekin.

1.188. Trontzak oholetarako (HER-062/004)

Trontzak erabiltzen ziren oholak egiteko. Harpana gauza bera zen.

1.189. Urdaburu ingurua txondorrez betea (HER-062/005)

Hamasei urte zituenean, Urdaburu inguruko mendietan txondorrak sutan egoten ziren. Ikatza egiten zen asko han. Egurra bizkarka ekartzen zuten. Lehendabizi atxurrarekin plaza egiten zuten. Mandoarekin ateratzen zuten ikatza.

1.190. Mitxelena bertsolaria San Antoniotan (HER-062/006)

Pinua aldatzen lan egin zuen Ziordiatik etorritakoan. Soldata ona izaten zuen. San Antonioetan zikiroa jaten zuten eta Mitxelena bertsolariak beraienean bazkaltzen zuen. Inazioren anaiari "Pablo Txiki" esaten zioten.

1.191. San Antonio festak nolakoak ziren (HER-062/007)

San Antonio festak. Soinua, lasterketa, zaku lasterketak, sokatira, bazkaria, afaria... Ilunabarrean etxeratu egin behar izaten zuten. Tabernak gauerdian itxi egiten zituzten, alkateak hala aginduta.

1.192. Apaiza nagusi herrian (HER-062/008)

Emakumeak iluntzerako denak etxean izaten ziren. Apaizak indarrik handiena zuen herrian, Francoren ondoren. Apaizak neskekin harremanak izaten zituztela esaten du.

1.193. Don Juan apaizaren ibilerak (HER-062/009)

Don Juan apaizaren harremanak neskekin. Herritarrek eginahalak egin zituzten apaiza Ereinozutik bidaltzeko.

1.194. Apaizen indarra eta kontrola (HER-062/010)

Apaizek eta fraideek sermoi beldurgarriak egiten zituzten. Konfesatutakoan txartela ematen zutenez, konfesatugabeak agerian geratzen ziren jaunartzerakoan. "Paskuazkua" esaten zioten. Pasadizo bat kontatzen du.

1.195. Larrua ontzeko prozesua (HER-062/013)

Lan zikina zen larruak ontzea. Jantziak eta prozesua kontatzen ditu. Errazionamendua izaten zen eta estraperloan ibiltzen ziren larrua ondu ahal izateko. Urreak beste balio zuen larruak orduan.

1.196. Behiaren larrua (HER-062/014)

Astigarragako geltokian bagoi bete larru hustu zuten estraperloan. Behiaren larrua erabiltzen zuten. Bufaloaren larrua ere ekarri omen zuten noizbait. Zapatak, lantegietako motorren uhalak... denetarako erabiltzen zen.

1.197. Larrua uhaletarako eta zapatak egiteko (HER-062/015)

Larru zatiei erdiko lauki handia moztu eta motorren uhaletarako erabiltzen ziren. Gainontzeko pusketak zapatak egiteko erabiltzen ziren. Abarkak ere egiten zituzten. Abarketarako gurpil-azala ere erabiltzen zen eta oso gogorrak izaten ziren.

1.198. Hizkerarik garbiena Hernanikoa (HER-062/016)

Hernanitik Tolosa bitarte, antzeko hizkera omen da. Inguruko euskalkiak aipatzen ditu. Hizkera garbiena beraiena omen da.

1.199. Aitonaren ibilerak karlistadetan (HER-062/021)

Karlistadetan, bere aitona eta beste bi anai Elamara joan omen ziren ihesi. Oiartzundik kapitaina bila etorri zitzaionean, Elamara bidali zuten. Aitona haiekin joan omen zen azkenean. Kapitainak eskatuta Elaman emakume bat eta ume txiki bat ezkutatu zituen. Urte asko pasa eta gero, bisitan etorri omen zitzaizkion aitonari Epelera.

1.200. Sorginari aurre egiteko, erriflea (HER-062/022)

Sorgina ateratzen zela eta, Inazioren aitonak erriflea atera eta uxatu omen zuen.

1.201. Piztien beldur (HER-062/023)

Zenbait bidetan ibiltzeko beldurrez izaten zen jendea. Piztien begiak izaten omen dira askotan.

1.202. Mugalarien hilotzak (HER-062/028)

Pasadizo bat kontatzen du, mediku batek muga pasa nahi izan zueneko. Mugalarien hilotzak topatu zituzten hainbat lekutan.

1.203. Txirritaren bertso batzuk (HER-062/032)

Txirritaren bertso batzuk erreztatzen ditu.

1.204. Argindegiko sagardotegia (HER-068/002)

Sagardoa ezagutu du beti jaiotetxean, Hernaniko Argindegi baserrian. Amona haurra zela ere, sagardoa egiten zutela badaki.

1.205. Aldea dago sagardotik sagardora (HER-068/003)

Garai batean bertako sagarrarekin egiten zen sagardo guztia. Egun, lehen baino sagardo gehiago egiten omen da, eta sagarra kanpotik ekarri beharra dago. Erraz bereizten omen du etxean egindako sagardoa, egungo sagardotegi handietan egindakotik. Etxean eginak "beste sagar gustu bat" omen du.

1.206. Sagarra berandu biltzen da gaur egun (HER-068/004)

Egun Euskal Herrian egiten den sagardo guztia egiteko nahikoa sagar ez omen dugu hemen, eta kanpotik ekarri beharra izaten da. Hala ere, Mari Carmenen ustez, izango litzateke bertako sagar gehiago aprobetxatzeko aukera, baldin eta sagardogileak lehenago hasiko balira jasotzen.

1.207. Sagardotegiak aldatu egin dira (HER-068/005)

Mari Carmenek sagardotegian lanean jardun zuen garaian, "errondak" zerbitzatzen omen zituen. Egun, ordea, norberak nahi duenean altxa eta sagardoa hartzeko modua du. Bolatokia omen zen Argindegin, eta jende asko biltzen omen zuen horrek. Jokoa aritu ostean galtzaileak "erronda" ordaintzen omen zuen.

1.208. Argindegiko bolatokia (HER-068/006)

Argindegiko bolatokia nolakoa den azaltzen digu eta bola-jokoari buruzko zenbait jakingarri ere aipatzen ditu.

1.209. Sagardotegira familian (HER-068/007)

Jendea familian joaten omen zen sarritan Argindegiko sagardotegira, etxetik jana eramateko aukera bazelako, eta baita bertan prestatua eskatzekoa ere. Gizasemeak bola-jokoan ikustea ohikoagoa omen zen, emakumeak ikusi baino. Emakumeak tokan aritzen omen ziren gehiago.

1.210. Toka jokoa (HER-068/008)

Argindegi baserrian, bolatokiaz gainera, ba omen ziren tokan aritzeko bi leku. Toka jokoa zertan zetzan azaltzen digu.

1.211. Giro sana, sagardotegian (HER-068/010)

Andoain, Hernani zein Urnietako jendea hurbildu ohi zen Argindegi sagardotegira, eta ez aste buruetan bakarrik, baita astean zehar ere.

1.212. Egun baino edalontzi txikiagoak (HER-068/011)

Edalontzia sagardoz betetzen zen aldiro kobratzeko ohitura zen lehen. Mari Carmenek gogoan du 10 zentimo inguru (pezetako zentimo) kobratu ohi zutela basoko, bera lanean hasi zenean; eta erreal bat inguru, sagardotegia itxi zuten garaian.

1.213. Sagardoa gutxi eta maiz (HER-068/012)

Motibo bat baino gehiago omen da, Mari Carmenen esanetan, basoa sagardoz goraino ez betetzeko ohituraren atzean.

1.214. Babarruna egiten (HER-068/015)

Babarruna egiteko toki ireki eta zabalak nahiago ditu, eta eguzkiari dagokionez, eguteraren alde egiten du, nahiz eta askok esan ospela aproposagoa dela.

1.215. Babarrun haziak bereizi (HER-068/016)

Hazi ona ereitea oso garrantzitsua da babarrun ona izateko. Haziak aurreko uztatik bereizitako babarrun ale onenak izaten dira. Landareen artean utzi beharreko espazioari buruz ere mintzo zaigu.

1.216. Tantaz-tantako ureztatzea (HER-068/017)

Tantaz tantako ureztatze sistema erabiltzen dute etxean. Babarrunak euri gehiegi ez omen du ona, herdoila sortzen baitzaio. Hamabost egunean behin bi zaparrada on, horixe ur neurri egokia bere ustez.

1.217. Ilargia eta lurra (HER-068/018)

Hazia ereiteko garai aproposari galdetuta, Mari Carmenek dio berak ilberrian erein ohi duela babarruna. Bestalde, ez omen da komeni hiru urte jarraian baino gehiagotan eremu berean ereitea.

1.218. Tolosako Babarruna Elkarte (HER-068/019)

Betiko kontua omen da babarruna egitearena. 1994. urtetik aurrera, ordea, Tolosako Babarruna Elkartearen sorrerarekin batera, dedikazio handiagoz jardun izan duela dio.

1.219. Lehendabiziko zakutoak (HER-068/020)

Zakutan saltzea izan da hasieratik Tolosako babarrunaren bereizgarrietako bat. Gainera, Mari Carmen bera izan zen babarrunak zakutoetan saltzen lehena.

1.220. Tolosako Babarruna Elkartearen azpiegitura (HER-068/021)

Tolosako Babarruna Elkarte handitzen joan da denbora pasa ahala, eta azpiegiturak sendotu ditu. Babarruna aletzeko makinak eta izozketarako gailu bereziak dituzte egun, Tolosako San Esteban auzoan.

1.221. Tolosako Babarruna Elkartearen osaera (HER-068/022)

Tolosako Babarruna Elkarte Gipuzkoa osoko kidez osatuta dago, ez soilik Tolosako eta inguru hurbileko baserritarrez.

1.222. Tolosako Babarruna Elkarte barruko txapelketa (HER-068/023)

Kostaldean zein mendian, Gipuzkoa osoan babarrun ona egiten dela dio, nahiz eta esan, izango dela alderik, noski, batetik bestera; lurra bera ezberdina baita, batean edo bestean. Bestalde, Elkarte barruan txapelketa antolatzen omen dute urtero, eta bere babarrunak bitan izendatu omen dituzte onenak. Albizturko baserritar batek irabazi omen du aldi gehien.

1.223. Tolosako Babarruna Elkarteko kide izateko baldintzak (HER-068/024)

Tolosako Babarruna Elkarteko kide izateko baldintzak zehatz-mehatz azaltzen ditu Mari Carmenek.

1.224. Tolosako Babarruna Elkarteko etorkizuna (HER-068/025)

Mari Carmenek etorkizun ona ikusten dio Tolosako Babarruna Elkarteari. Bertan ekoiztutako elikagaia izaki, eutsi egin behar zaiola uste du.

1.225. Babarrunak kozinatzen (HER-068/027)

Babarrun eltzekada nola prestatu azaltzen du Mari Carmenek.

1.226. Plazan saltzaile (HER-068/033)

Mari Carmen beti ibili izan da baserrian ekoiztutakoa etxetik kanpora saltzen. Bere nagusiengandik jaso du hori. Esate baterako, amonak esne saltzen egindako bezeroei eutsi zioten hurrengo belaunaldiek, Mari Carmen tartean. Barazkiak saltzera ere jaisten ziren Hernanira. Udaletxeko arkupea izaten omen zen orduan azoka egiteko tokia.

1.227. Esne salmentaren gorabeherak (HER-068/034)

Baserri bideak hobetzearekin batera hasi ziren Argindegin abelburu kopurua handitzen. Baina kalean gutxitzen hasi zen esnea baserritarrari hartzeko ohitura. Egun, ordea, badirudi baserriko esnea berriro ari dela estimazioa hartzen kalean, baina ez garai bateko etxez etxeko salmenta medio, baserritarrek herrian jarritako salmenta puntu finkoei esker baizik.

1.228. Bertako produktuak eta kanpotik ekarritakoak (HER-068/035)

Mari Carmenek azaltzen du, zein den bere ustez bertako baserriko produktuen eta kanpotik ekarritakoen arteko aldea.

1.229. "Baserriak triste daude" (HER-068/036)

Baserriaren etorkizuna beltz ikusten du. Argi dauka hura altxatzea gazteen esku dagoela, inorenetan egotekotan.

1.230. Lehengo gazteak eta egungoak (HER-068/037)

Alde handia sumatzen du euren gaztetako martxa eta egungo gazteena alderatuta.

1.231. Lehengo eta gaurko Hernani (HER-068/038)

Hernani asko handitu da garai batetik hona, eta kanpotik jende asko etorri da. Horrek guztiak eragina izan du herritarren arteko hartu-emanetan.

1.232. Garai bateko trenak (HER-068/039)

Treanean ibiltzen da Mari Carmen, eta garai batekoekin alderatuta, asko aldatu direla dio.

1.233. Igande arratsaldetan dantzara (HER-068/041)

Gazte garaian, igande arratsaldero, Hernaniko plazara edo Oialumera joateko ohitura izaten zuten Mari Carmenek eta haren lagunek. Hernanin musika banda izaten omen zen, eta Oialumen, aldiz, trikitia.

1.234. Baserritarrak eta kaletarrak (HER-068/042)

Kaleko jende askok baserrikoa baztertu izan duela uste du. Basatitzat jotzen omen zituzten.

1.235. Auzolana desagertuta dago (HER-068/043)

Mari Carmenek dio egun ez dagoela, baserritar jendearen artean, garai bateko auzolanerako grinarik edo borondaterik.

1.236. Kaletarren eta baserritaren arteko aldeak murriztu dira (HER-068/045)

Mari Carmenek dio gaur egun ez dela alderik kaleko eta baserriko jendearen artean, aurrerapen teknologikoak baserrira heldu direlako.

1.237. Jende belaxka da denean (HER-068/046)

Jende belaxka ugari omen da gaur egun. Aurrerapen teknologikoek erosotasun gehiegi ekarri dute eta jendeak ez daki, esaterako, hotzari aurre egiten.

1.238. Hizkeran aldea Hernanitik Tolosara (HER-068/047)

Aldea sumatzen du Mari Carmenek Hernaniko eta Tolosako hizkeren artean. Gutxiago, akaso, Tolosa eta Irurakoen artean, baina beti aldatzen omen da zer edo zer.

1.239. Eskolan (HER-068/048)

Isabel Iturrioz Pasaiakoa eta Dionisia Iturrioz Orexakoa irakasle izan zituen, eskolan euskaraz egitea debekatua zen garaian. Baserritarra besterik ez zen landa eremuko eskola batean, ordea, irakasle batzuk euskaraz komunikatzen ziren ikasleekin.

1.240. Adin ezberdinetako haurrak elkarrekin ikasten (HER-068/049)

Eskolan adinaren arabera banatuta egon edo adin ezberdinekoak nahasian egotearen arteko aldea azaltzen du. Irakaslearentzat, mesede omen da denak adin berekoak izatea. Adin ezberdinekoen arteko hartu-emana, aldiz, aberasgarriagoa da.

1.241. Erretiroa hartu eta inork txanda hartu ez (HER-068/051)

Feriaz feria ibili da Mari Carmen erretiroa hartu aurreko garaian, Donostian barrena, batez ere. Bere postua libre da orain, eta inork ez betetzeak pena ematen dio.

1.242. Giro feminista etxean eta inguruan (HER-071/005)

Etxean ideia ezkertiar eta feministak izan ditu. Ama eta izeba oso irakurzaleak izan dira eta literaturaren bitartez izan zuen lehenengo kontaktua feminismoarekin. Euskal literatura eta musikarekiko urruntzea izan zuela

kontatzen du. Amaren eta izebaren inguruko jendearen artean lesbianak eta feministak bazeudela azaltzen du.

1.243. Lesbiana zela onartzea (HER-071/006)

Sozialki disidentzia bat dagoela sentitu izan du beti, berarengan zerbait ez zetorrela bat gizartearen arauekin. Hamabost-hamasei urte ingururekin, lesbiana zela onartu eta lasaitu egin zela kontatzen du. Erreferenteak ezagutzen hasi zen.

1.244. Lesbiana zela eta, talde babes handia (HER-071/007)

Lesbiana zela onartu zuenerako, militantzia feministan ari zen. Hortaz, talde babes handia zeukan. Ilusioz betetako garaia dauka akorduan.

1.245. Lesbiana zela eta, etxekoen babesa (HER-071/009)

Etxean ez zuen inolako arazorik izan. Bere garaian hamasei urterekin lesbiana izatea goiztiarra zen. Amak bidea erraztu ziola kontatzen du.

1.246. Kazetaritza ikasteko erabakia (HER-071/010)

Batxilergo zientifikoa egiterakoan asko sufritu zuela kontatzen du. Denbora galtzearen sentsazioa zeukan. Literatura eta idaztea asko gustatzen zitzaionez, kazetaritza ikasten hasi zen.

1.247. Literaturarekin maiteminduta (HER-071/011)

Kazetaritzaren ostean, literatura konparatua ikasi zuen Bartzelonan. Kazetaritzako hirugarren mailan Iratxe Retolazarekin jaso zituen literatura klaseak eta maitemindu egin zen literaturarekin eta poesiarekin. Bartzelonako master hartan ikasgai batzuk ikaragarri gustatu zitzaizkion. Master amaierako lana euskal poesiari buruz egin zuen.

1.248. "Medeak", "Erne" eta Leioako asanblada feminista (HER-071/013)

"Medeak" taldearen bidez jaso zuten lehenengo ahalduntze saioa. Hernanin "Erne" talde feminista sortu zutenean, ez zirela beharrezkoak esaten zieten. Sagardotegi garaian eraso sexisten kontrako kanpaina egin zuten eta kontuak eskatzen zizkieten horregatik. Leioako asanblada feministan parte hartzen hasi zen eta ondoren Euskal Herriko topaketa feministetan. Bartzelonatik bueltan, "Medeak" taldeko partaide egiten da.

1.249. "Medeak" taldearen sorrera (HER-071/014)

"Medeak" taldeko hainbat kide "Plazandreok" taldean ari ziren lehenengo, baina beste interes batzuk zituztenez, talde propioa sortu zuten. Kalea hartu nahi zuten. Ondoren, transfeminismoaren sorrera gertatu zen eta buru belarri aritu ziren.

1.250. "Queer" teoria (HER-071/015)

"Queer" teoria nondik datorren eta zer den azaltzen du.

1.251. Mugimendu feminista eta transfeminista Euskal Herrian (HER-071/016)

Espainiar estatuko LGBTIen eskubideen aldeko lehenengo manifestazioa 1977an egin zen Bartzelonan. Hego Euskal Herrian feminismoaren eta

transfeminismoaren ibilbidea azaltzen du. Identitarioa baino praktika multzo bat dela dio mugimendu transfeminista, ertzei begira dagoena.

1.252. Feminismo erradikala (HER-071/018)

Feminismo erradikalaren inguruan sortutako tirabirak azaltzen ditu; aldarrikapen forma jakin batzuk izan dituela dio.

1.253. Feminismoa, ezin sailkatuzkoa (HER-071/019)

Feminismoa bera sailkapenen kontrako mugimendua dela azaltzen du. Feminismoan hainbat ideiak ez dauka lekurik bere ustez: liberalak, transfoboak...

1.254. Feminismoaren lehentasunak (HER-071/020)

Durangoko jardunaldi feministetatik militantzian gutxiago ari dela azaltzen du. Orain bere ustez lehentasun nagusiak mugimenduari dagokionean, dekolonizazioa eta transexualitatea dira; bere gogo propioari dagokionean, "bollera" bezala eragitea.

1.255. "Moio, gordetzea ezinezkoa zen" liburuaz (HER-071/022)

Moio transmaskulinoa zen, Kattalinen oso laguna, eta bere buruaz beste egin zuen. Heriotza hura herri mailan landu zen hainbat urtez baina ondoren isiltasuna sumatu zuen eta ezinegonak bultzatuta, liburua idaztea erabaki zuen. Liburua egiten ari den ibilbidea da beretzat pozgarriena, zabaltzen eta irauten ari delako.

1.256. Moioaren heriotzaren eragina (HER-071/024)

Moioaren heriotza gertatu zenean, transexual hitza ere ez zerabilten. Mugimendu feministan bertan gaia heltzeko baliabide falta sentitu zutela azaltzen du.

1.257. Transexualitatearen gaia gizartean (HER-071/026)

Transexualitatearen gaia bere hitzaldietan nola lantzen duen azaltzen du. Orokorrean gaiarekiko ezagutzarik ez dagoela dio, azaletik besterik ez. Konfiantza dauka trans pertsonen inguruko eskubideak onartuta daudela Euskal Herriko mugimendu eta politika feministetan. Diskurtso feminista transfoboak gutxi izanda ere, min ematen dute.

1.258. Transexualitatea eta transgeneroa zer diren (HER-071/027)

Transexualitatea eta transgeneroa kontzeptuak zer diren azaltzen du. Bi hitzen inguruan debateak daudela dio.

1.259. Udal hauteskundeetan "Plaz!" taldeko hautagai (HER-071/028)

Udal-hauteskundeetan "Plaz!" moduan aurkeztu zen "Medeak" eta bera hautagaien zerrendan joan zen. Ekimenari babesa zergatik eman zion azaltzen du.

1.260. Komunikazioa, hezkidetza eta literatura lanbide (HER-071/029)

Komunikazioan, hezkidetzan eta literaturan aritu izan da lanean beti. Bere lan ibilbidea azaltzen du: Irutxulo, Gipuzkoako Aldundia, Emakumeen Mundu Martxa, Emagin... "Eihera" kooperatiban ari da orain.

1.261. "Eihera" kooperatiba (HER-071/030)

"Eihera" kooperatibako lana aldatuz doa. Urteetan pilatutako jakintzarekin sortu dutela eta eragitea helburu dutela azaltzen du.

1.262. Feminismoa modan? (HER-071/032)

2018an arrakasta handia izan zuen martxoaren 8ak. Arrakasta hari buruzko ikuspegi desberdinak azaltzen ditu. Feminista izatea modan egon arren, oraindik ere diskurtso askori aurre egin behar izaten zaiola dio.

1.263. Feminismoa: zertan jarri fokua? (HER-071/035)

Gazteei berdintasunaren gaian helduei baino presio eta ardura gehiago eskatzearekin nazkatuta dagoela dio, helduek egiten dutenari jarraipena ematen baitiete gazteek. Bikote heterosexualetan eta familia eredu tradizionaletan fokua jartzea ez da beretzat lehentasuna, araua bera zalantzan jartzea baizik. Espazio bizigarriagoak sortzea nahiko luke.

1.264. Noka erabiltzeko erabakia (HER-071/037)

Noka hitz egiten hastea erabaki bat izan zen beretzat. Hernani oso herri erdalduna izan da. Gaztaroan gazteleraz asko egindakoa da. Unibertsitatetik bueltan konturatu zen feminismoarako ez zeukala euskarazko hiztegirik, ezta euskaraz aritzeko ohiturarik ere. Lagunartean euskaraz egitea eta noka egitea erabaki zuten. Urola aldeko feministekin noka erabiltzeko esparrua zabaldu zitzaion.

1.265. Zergatik animatu noka egitera? (HER-071/038)

Hitanoa desesenzializatu egiten da, noka ikastaroak eginez edo norbere ekimenez erabiltzera ausartuta. Plazan egoteko modu bat sortzen du. Noka entzuteak arreta ematen badu, zerbait mugitzen duelako dela dio.

1.266. Nokarekin arauak hausten (HER-071/042)

Hil-hurren dagoen hizkera bati, hitanoari, eta bereziki emakumeak noka bultzatzen hasi direnean, genero bereizketa egoztearekin ez dago ados. Hitanoa ikasi daitekeela esatean, helduagoei egitean, arau batzuk hausten ari direla azaltzen du.

1.267. Literatura eraldatzailea egiten (HER-071/044)

Betidanik izan du idazteko ohitura. Igartza saria irabazteak idaztera behartu zuen. Ez du interesik izan klubaren parte izateko. Emakume idazle oso interesgarriak ezagutu ditu. Literatura eraldatzailea den zerbait moduan ulertzen du. Euskal kultur eremuan asko gozatzen ari dela dio.

1.268. Emakume idazlea izatea (HER-071/046)

Euskal kultura eta literatura misoginoa eta patriarkala dela esatea ukaezina dela dio. Gizon asko egon dira botereguneetan. Emakumeen euskal literatura garai onean dagoela uste du, zailtasunak zailtasun.

1.269. Emakume idazleen lanei buruzko kritikak (HER-071/047)

Irakurle talde feministak gidatzen ditu Gipuzkoan zehar. Batzuetan liburuen kritikak kritikatzera jolasten dute eta konturatzen dira zer nolakoak esaten ziren lehen emakumeen lanei buruz. Orain kritiketan ez direla hainbesteko astakeriak esaten uste du.

1.270. Elementu autobiografikoak fikzioan (HER-071/049)

Fikzioan autobiografikoak diren gauzak sartzeak ez diola molestatzen azaltzen du.

1.271. Danele Sarriugarteri eta berari egindako harrera lehen lanekin (HER-071/050)

Danele Sarriugarteri gertatutakoa azaltzen du. Bere ustez esan zioten: "oso ona zara baina hasi behar duzu idazten inporta duten gauzetaz". Bere lehenengo liburua idatzi zuenean, beste ibilbide batetik zetorrela kontatzen du.

1.272. "Turista klasea" liburuaz (HER-071/051)

"Turista klasea" liburua bere posizio sozialetik, bere ikuspegitik idatzitakoa dela azaltzen du. Bere kezka eta ideiak pertsonaien bidetik atera zituen.

1.273. Empar Pineda ezagutzea (HER-071/053)

Armairutik atera eta erreferente bila hasi zenean, Empar Pinedaren berri izan zuen baina askoz beranduago jakin zuen hernaniarra zela. Sari bat eman zioten Hernanin eta enkargua egin zioten bere biografia idatzi zezan. Empar elkarriketatu eta bere kontakizuna idatzi zuen.

1.274. Empar Pinedaren bizitza (HER-071/054)

Empar Pinedaren bizitzaren laburpena egiten du.

1.275. Empar Pinedak euskara nola galdu zuen (HER-071/055)

Empar Pinedak euskara nola galdu zuen kontatu zion. Etxe barruan erdara erabiltzen zuen, amarekin eta aitonarekin izan ezik. Eskolan eta kalean ere erdaraz aritzen zen gehien bat. Konplexua hartu zuen, zuzendu egiten ziotelako.

1.276. Lesbiana vs bollera (HER-071/057)

LGTBIQ+ sigletako L hizkiak lesbiana esan nahi du. Sozialki normalitatean sartzen den kontzeptua da. "Bollera"rekiko aldea azaltzen du.

1.277. LGTBIQ+ siglak vs "trans-mari-bollo" (HER-071/058)

Lanean ari denean, LGTBIQ+ siglak erabiltzen ditu. "Trans-mari-bollo"rekin gehiago identifikatzen da, sortzen dituen eremu subertsiboengatik.

1.278. Intersexualitatea (HER-071/059)

Intersexualitatea ezezagunena den kontzeptua dela dio. Besteak beste, itxuraz kanpo genitalak ez daude definituta ar edo eme sailkapenean. Hainbat hamarkadatan azkar esku hartu izan da, ebakuntzak eginez, gurasoei esan gabe ere. Gaur egun, abisatu egiten da. Sexua bera ez dela bitarra erakusten du.

1.279. Zergatik da sexua eraikuntza bat? (HER-071/060)

Intersexualitatearen logika irekiagoa izanez gero, adibidez, emakume batek aurpegian biloa izatea edo oso gihartsua izatea ez litzateke arazotzat hartuko. Sexua ere eraikuntza bat dela azaltzen du.

1.280. Heterosexualitatea arau (HER-071/062)

Heterosexual eta heteropatriarkatu hitzen aurrizkiak, heterok, deserosotasuna sortzen du, bere ustez. Heterosexualitatearen arabera dago antolatua gizartea, ez sexuari begira bakarrik. Araua hori da.

1.281. Familiaren iruditeria bakarra (HER-071/064)

Familiaren iruditeria konkretu bat dago gizartean zabaldua (aita, ama, alaba, semea) eta ez da errealitatean dagoen bakarra.

1.282. LGTBIQ+ frankismoan (HER-071/066)

Frankismo garaian LGTBIQ+ izatea gogorra izan zela kontatu izan diote baina oso ondo pasatu zutela ere bai.

1.283. Francisen hilketa (HER-071/067)

Francisen hilketa 1979an gertatu zen. Diotenez, festa batean emakumez jantzita zegoela, eztabaidan hasi zen polizia zen gizonezko batekin eta tiroz hil zuen. Azaltzen du Euskal Herrian hainbat borroken arteko lotura.

1.284. Musika ikasketak kontserbatorioan eta Musikenen (HER-072/003)

Oinarrizko ikasketak Hernanin egin zituen eta ondoren Donostian, baita musikako ikasketak ere. Gurasoak musikariak ziren. Berak biolin ikasketak egin zituen. Kontserbatorioa kontserbatzeko dela dio; ez zituzten irakasleek bere proposamenak oso ongi hartzen. Musikeneko lehen promoziokoa da.

1.285. Jazzarekin konexioa umetatik (HER-072/005)

Jazzarekin lotura nola egin zuen azaltzen du. Hemeretzi urterekin jazz talde batean kantari, musikari eta dantzari hasi zen.

1.286. Taldekide misoginoen erasoei aurre (HER-072/006)

Oso gogorra izan zen zazpi gizonen taldean hemeretzi urteko neska izatea. Talde oso misoginoa zela dio. Aurre egiteko tresnak bazituela dio. Taldekideengandik jaso zituen eraso sexistak kontatzen ditu. Jasandakoari soldaduska deitzen dio. Ikusleengandik babes handia jaso zuen. Inbidiak misoginia elikatzen duela azaltzen du.

1.287. Oholtzan taldekide misoginoen jazarpenari aurre (HER-072/007)

Ainararen irudia eta jantziak behin eta berriz begirada sexualetik agertzen zituen taldeko batek publikoaren aurrean, eta berak, bertsolari batek moduan, erantzun egiten zion, eta jendeak txalotu egiten zuen. Taldeko diruarekin soineko bat erosi zueneko kontakizuna du.

1.288. Eraso sexisten eta eskolako jazarpenaren arrastoa (HER-072/008)

Autokonfiantza izugarria zeukalako gaitortu zituen taldekideen misoginia eta eskolako jazarpena. Arrastoa utzi zion.

1.289. Gizonezkoen txantxei barre errazago (HER-072/012)

Gizonezkoen txantxei barre egiten zaie eta emakumeen umorea landuagoa izan dadin eskatzen zaiela azaltzen du. Berak ez duela hala bizi izan dio.

1.290. Emakumeak oholtzan lekua hartzen (HER-072/014)

Emakumeak beren lekua hartzen ari direla ikusten du. Eszenatokira igo aurretik bizitzan landu behar ditu bertan egoteko tresnak. Musikalki jantzia dagoenez, musika arloan entzuten dituen komentario edo purrustadak gaitortzeko tresnak dituela sentitzen du.

1.291. Musika teknikariekiko ikuspegia (HER-072/016)

Berehala nabaritzen du teknikaria goxotasunez ari den ala emakumea delako ari zaion horrela. Teknikariak asko maite dituela dio. Teknikarien arloa maskulinizatua dagoela ikusten du.

1.292. Emakumeek ahotsarekin duten konexioa (HER-072/017)

Emakumeak musika arlo askotan egotea oso mantso doala sentitzen du. Jazzean beti abeslaria izaten dela dio. Emakumeek ahotsarekin dugun konexioa aipatzen du. Estilo guztietan dago gero eta emakume gehiago.

1.293. Iñaki Salvadorrekin lanean nola hasi zen (HER-072/019)

Musikaren promozio bakoitzean oso ikasle gutxi ziren eta etxean moduan sentitzen zen. Iñaki Salvadorrekin eta beste irakasle batzuekin nola elkartu zen kontakizuna du. Oso oroitzapen eta bizipen onak ditu Iñakirekin.

1.294. Musikarien artean errespetatua eta kontuan hartua (HER-072/020)

Lehenengo talde hartan izan ezik, oso errespetatua eta kontuan hartua sentitzen da musikaren arloan.

1.295. Jazzeko bi arketipoak bere baitan (HER-072/023)

Jazzean bi arketipo nabarmen daudela dio eta biak uztartu nahi izan zituen disko bateko azalean. Espiritualitatean topatzen dituen jakinduriak asko gustatzen zaizkio. Bi energiak sentitzen ditu bere barnean.

1.296. Jazzeko emakume erreferenteak itzalean (HER-072/025)

Emakume abeslari asko dagoela dio, baita jazzean ere, baina mediatikoki ez zaiela oihartzunik ematen. Itxaso Fernandez eta Miren Haranburu, eta Amaia Zubiria erreferente izan ditu jazzean.

1.297. Inprobizazioa jazzean eta bertsolaritzan (HER-072/026)

Scat esaten zaio jazzean inprobizatzeari. Bertsolaritzak ideiak eta errimak lantzen ditu, testuan dago oinarritua. Jazzean, ordea, doinua da jolasa. Ez daki nola uztartu daitezkeen.

1.298. Erreferenteak berreskuratu bai, baina norbera izan erreferente (HER-072/028)

Emakume musikari erreferenteak berreskuratzea garrantzitsua dela dio, baina norbera izan daitekeela norbere erreferente, ausartzen bada egin nahi duena egitera.

1.299. Antzerkian txikitatik (HER-072/033)

Umetatik etxean antzezlanak egiten zituen ahizparekin. Antzerki taldeetan gaztetatik ibili izan da, baita ikastaroak egiten ere. 2005ean egin zuen lehen antzezlan, familientzako musikal batean.

1.300. Parte hartu duen hainbat antzezlan; "Mami Lebrun" (HER-072/034)

Antzerkia oso aberasgarria egin zaio beti. "Kopaz kopa" obrarekin dabil. Genero ikuspegia landu izan du hainbat antzezlanetan. Sariak ere jaso izan ditu, esaterako, "Mami Lebrun" obrarekin.

1.301. Publikoarekin hartu eta eman aritzeaz (HER-072/035)

Askok gustatzen zaio publikoarekin hartu-emanen aritzea. Antzerkian etxeko salan sentitzen da publikoarekin. Abesterakoan, berriz, oso bilutsik sentitzen da; publikoarekin hitz egitea gustatzen zaio. Aktoreei gidoiak ziurtasuna ematen die eta berari berriz batzuetan kaiola iruditzen zaio.

1.302. Euskal Herriko antzerki mundua, oasia (HER-072/038)

Euskal Herria oasi bat iruditzen zaio estatu mailan, oso gertuko direlako kide denak. Oso erraza da sorkuntzan sartzea. Uste du ikus-entzunezkoetan zaila izan daitekeela emakume nagusiek lana topatzea baina berak gogoia du nagusiagoa izateko antzerkian zenbait lan egiteko.

1.303. Artistaren bizimodua (HER-072/042)

Ezezko asko ematen die proposamenei. Bizi egin nahi duela dio. Lanik ez zaio falta, nahiz eta beti prekarioan aritu.

1.304. Umorez egunero (HER-072/044)

Umorea dena da beretzat, beti dagoena, flotadore baten modukoa. Kontatzen du beste era batera esan ezin direnak ere esan daitezkeela umorez.

1.305. Dolua, negarra, alaitasuna eta umorea (HER-072/046)

Bere bikotea hil zenean, umorea baliatu zuen orduan ere. Oso ondo inguratua zegoela dio eta hunkigarria izan zela. Bere ustez joan direnak ondrazteko modua da ondo sentiarazten gaituenari lekua ematea. Negar asko egin zuen, eta deskarga horrek on egiten du, baina neurrian.

1.306. Heriotzaren aurrean jarrera aldaketa azken hamarkadetan (HER-072/048)

Gizarte moderno honek ekarritako komedietako bat heriotzarena da, bere ustez. Umetan amonaren heriotza nola bizi izan zuen kontatzen du. Jarrera guztien atzean maitasuna dagoela dio. Gaur egun zer esan ez dakigula geratzen garela kontatzen du.

1.307. Badihardugurentzat egindako kantaz (HER-072/050)

Badihardugurentzat egindako kanta egitea erraza eta polita izan zela dio. Juan Martinek (Elexpuruk) hiru bertso egin zituen. Doinua eta hitza txirikordatuta atera zitzaizkion.

1.308. Ahotsak proiektua gustuko (HER-072/051)

Ahotsak proiektua ongi ezagutzen zuen kanta egin aurretik. Oso gustura entzuten ditu ahotsakeko bideoak, bai istorioak, bai kantak eta bai euskalkiak.

1.309. Euskalkiak maite ditu (HER-072/053)

Bikotearekin bakoitzak bere euskalkian egiten zuen. Barrez aritzen ziren bata bestearen euskalkiaz. Landerren hiletan egin zuen lehenengoz lesakarrez. Euskalkiak asko maite ditu eta joko handia ematen dute antzerkirako.

1.310. Kantua eta hizkuntza (HER-072/054)

Hizkuntza askotan kantatu izan du. Batetik hizkuntza eta bestetik hizkuntzak dioena daude. Adibidea ematen du, bossa novarena.

1.311. Amaia Zubiria paregabea (HER-072/057)

Amaia Zubiria letragile ona eta oparoa izan dela dio. "Estigma beltza" aipatzen du. Amaiari ez zaiola lekuri egin uste du. Adarra saria eman zioten baina uste du dagoeneko ezin zaiola eskertu egindakoa. Dohainik gauza asko egin zuela kontatzen dio Amaiak.

1.312. Feminista izateko bere modua (HER-072/059)

Feminista dela dio. Ez da elkarretaratzeetara joatekoa baina egin beharrekoa egiten duena bai. Maialen Lujanbioren adibidea jartzen du.

1.313. Emakumeak jendaurrean bertsoetan (HER-092/002)

Garai bateko plazan kantatzearen eta egungo plazan kantatzearen kontzeptuak alderatzerik ez legoke. Orduan zeuden espazio komunitarioak ere ez dira egungoak: etxea, soroa, auzoa... 20-30 pertsona bizi zitezkeen baserri batean, adibidez. Emakume bertsolariek espazio haietan kantatzen zuten; ez da gaur egun ezagutzen dugun oholza gainean kantatzea, baina ezin da esan jendaurrean kantatzen ez zutenik ere. Taberna giroan ere kantatzen zutela jasota dago.

1.314. Emakumeei buruzko mitoak deseraikitzen (HER-092/003)

Frankismoa eta elizaren jazarpena bizitzeko tokatu ez zaion arren, haien herentzia osoa jaso dugula iruditzen zaio Estitxuri. Emakumeari buruz eman zaigun irudia ez da zuzena: lotsatiak, txintxoak, esanekoak, garbiak, etab. Frankismo aurreko emakumeak ez ziren inondik inora horrelakoak. Emakume bertsolarien bertsotan, hain zuzen ere, hau ikusten da. Gizona erantzuten dieten emakumeen bertsoak heldu zaizkigu. "Auspoa" (Antonio Zabala, 1950): 100 urte geroago, elizgizon batek galbahetik pasata jaso ditugu emakume bertsolariei buruzko kontuak baina, hala eta guztiz ere, bilduma garrantzitsua da oso.

1.315. Lekukotasunik zaharrenak: XV. mendeko eresiak (HER-092/005)

Lekukotasunik zaharrenak XV. mendekoak dira, Esteban Garibaik jasoak. Goi-mailako klaseko emakumezkoek elizkizunetarako prestatutako eresiak lirateke. Itxaro Bordak "argia" aldizkarian eresia haien harira eginko artikulua sortaren aipamena: eresia haiek ez ote zeuden emakumeen aurkako indarkeriazko testuinguru bortitz batean sortuta.

1.316. Familia oneko emakumeek bakarrik idazten al zuten? (HER-092/007)

Gizonek bezala, emakumeek betidanik kantatu izan dutela baieztatu daiteke. XV. mendekoak dira jasoak dauden lehen eresiak. Familia oneko emakumeek sortutakoak dira iritsi zaizkigun bakarrak. Hala ere, honekin bakarrik ezin daiteke ondorioztatu klase sozial altuko emakumezkoek bakarrik sortzen zituztela (idatzi dio, baina ez dakigu idatzi ote zituzten ala ahoz aho transmititu ziren).

1.317. "Profasadorak" edo jarrera desagokiak zituzten emakume bertsolariak (HER-092/009)

Bertsotan, emakumeei zenbait gairi buruz askatasunez aritzea galarazten zitzairen eta haiek auzitara eramatea gerta zitekeen. Garai eta toki desberdinetako gertaerak iritsi zaizkigu. Asteasun gertatutako kasu bat kontatzen du: lau emakume aberats baten alabari jarritako bertsoak iritsi ziren auzitegira (sexuari buruz ziren). Bertso haiek non eta nola, idatziak izan ziren hausnartzeko arrazoi bat izan daiteke emakume bertsolari haien adin desberdintasun handia.

1.318. Bertsopaperak (HER-092/011)

XIX. mendean sortzen dira. Zer pentsa ematen diote hainbat zentzutan: idazten jakitea ezinbesteko baldintza bihurtzen da, hausnartuagoak dira, finduak, zentsura eta filtroak pasa dituzte... Helburu zehatz batzuk betetzeko sortzen ziren. Neskazarrei jarritako bertsopaperak, adibiderako.

1.319. Obrak, egilea gainditzen du askotan (HER-092/012)

Egilea bera baino ezagunagoak dira askotan bertsoak. Adibidez, Baztangari jarritako Joxepa Matia Zubeldiaren bertso sortak berak egilea bera emakumea izatea ere gainditzen du.. Egilearen inguruan inork jakin-minik ez izateak harritzen du Estitxu. Zehatz mehatz eta emakume-kontzientziazatik kontatzen du Joxepa Matiak bere bertsotan izurrite hartan gertatutakoa.

1.320. Mahai gainera igota kantatutako bertsoak (HER-092/013)

Joxepa Matiak, herri-bazkari batean kantatzeko sortu zuen bertso sorta ezagun hura eta, mahai gainera igota kantatu zuen gainera. Joxeparen alabak lotsatuta sentitu ziren ama bertsolariaz. Horregatik, hil zenean, bertso, idatzi eta poesia biltzen zituzten koaderno guztiak erre zituztela kontatzen du.

1.321. Joxepa Matia Zubeldia (HER-092/015)

Hernanin Jaio zen Joxepa Matia Zubeldia 1867. urtean. Madrilen neskame zegoela ezagutu zuen senarra. Hernanira itzuli zenerako ama zen. Euskaraz egin zien Madrilen jaiotako seme-alabei. Lanerako osasun eskasa zuen senarrak; denda bat ireki zuen Joxepak eta bera egiten zen haren kargu. Bertso jarriak egiteaz gainera, etxeko balkoitik jarduten zuen bertsotan.

1.322. Plazida Otaño (HER-092/016)

Plazida Otaño, Joxe Bernardo Otaño bertsolari ezagunaren alaba, Zizurkilen jaio zen 1867. urtean. Bertsolari ezagunen familiakoa, egunerokotasunean bertsotan aritzea ohikoena izango zela kontutan hartzekoa litzateke. Joxe Bernardo Otañorengana bixitan zetorren egun batean, Txirritak botatako bertsoari aise erantzun zion Plazidak behin. Txirritaren bertso pikante bati bat-batean erantzun ahal izatea honekin, bertsotarako gaitasun handia zuela ondoriozta daiteke. Hala ere, Joxe Bernardo eta Pedro Mari Otaño pasa dira guztion memoria kolektibora. Plazida Otaño, Zizurkilgo herriak egindako lan izugarriari esker jaso dugu.

1.323. Bilaketa irizpideek emakume bertsolari kopurua baldintza zezaketen (HER-092/017)

Emakume bertsolari gutxiren berri izan dugu baina, haiei buruz informazio gutxi bildu izanak ez du esan nahi garai hartan emakume bertsolari gutxi zegoenik. Gainera, bertsolari familiakoenak izan dira gugana iritsi diren adibide gehienak. Adibidez, Joxepa Antoni Aranberri, "Xenpelar" (Juan Frantzisko Petriarena, "Xenpelar"-en iloba). Transmisioak zeresanik izango zuela argi egoteaz gain, ezin daiteke ahaztu 50. hamarkadako apaiz baten ikuspegitik egin zela egun daukagun bilketarik handiena ("Auspoa" bilduma) eta, era berean, kontutan hartu behar dugu bertsolari ospetsuen bila, gizonak batik bat, abiatu zela bilketa hura.

1.324. Joxepa Antoni Aranberri, Xenpelar (HER-092/018)

Erreterian jaioa, eta fabrian lan egindakoa. Ez dauka baserri giroko bertsolariek daukaten profil bera. Oso erlijioso zen, eta hori bere lanean islatzen da. Ama eta osaba (Juan Frantzisko Petriarena, "Xenpelar") baztangak kutsatuta hil ziren.

1.325. Emakume bertsolariek jaso eta zabaldu izan dute gizonen lana (HER-092/019)

Emakume bertsolari askok egindako lanari zor diogu, hein handi batean behintzat, gizon bertsolarien lana gaur egun arte iritsi izana. Adibiderako, Adriana eta Plazida Otañoren edo Pello Errotaren alabek jasotako testigantzak.

1.326. Pello Errotaren alabak: Mikaela eta Inaxi Elizegi (HER-092/020)

Pello Errotaren alabei buruz dirau: Joxepa Inaxi Elizegi (1964) eta Mikaela Elizegi (1869). Inaxi zen gehien kantatzen zuena; sagardotegian kantatutako bi pasarte daude. Oso adierazgarria da, emakume batek sagardotegi batean gizon bati bertsotan erantzutea. Emakume bertsolarien adibide gutxi jasotzeak, ez du derrigor esan nahi gutxi zeudela. Tabernan kantatzearen adibiderik ez aurkitzeak, ez du esan nahi kantatzen ez zutenik. Mikaela Elizegiren bertso jarriak ditugu gehiago. Aitaren bertsoen lekukotza berak eman zion Antonio Zabalar "Auspoa" bildumarako.

1.327. Lore Jokoen bilakaera (HER-092/023)

Anabel Ugaldere "Lore Jokoei" buruzko artikuluan oinarritzen da iritzia emateko. Izan ere, hasieran emakume askok hartzen zuten parte "Lore Jokoei" baina, urteak aurrera egin ahala, ezkutatzen joan ziren. Ultergarria iruditzen zaio landa-eremukoak izatea iritsi zaizkigun emakume bertsolari gehienak. Litekeena da, baserri giroko emakumeei, gizarteak, eskolak edo elizaren indarrak hainbesteko eraginik egin ez izana.

1.328. Emakume bertsolariak noiz iritsi ziren plazara (HER-092/024)

Emakumea plazara 80. hamarkadan iritsi zela esan ohi da, nahiz eta "Lore Jokoei" bitartez, haien presentzia askoz lehenagokoa den (XIX. mendea). Txapelketetan ere, ibilbide bat egin zuten emakumeek hauen sorreratik. Epe laburreko memoria daukagula iruditzen zaio, gauza guztiak lehen aldiz balira bezala bizi ditugula deritzo eta, askotan, ez da horrela izaten.

1.329. Inaxi Etxabe (HER-092/028)

Inaxi Etxabe (Oikia, Zumaia, 1933-2020), emakume irekia eta askea. Txikitatik jokatu zuen pilotan. Garairako harrigarria bada ere, eliz giroan lortu zuen bertsotarako lekua. Bertso jarriak idazten zituen batez ere. Emakumeek gaizki egiten zituzten gauzen kontura Basarrik jarritako bertso sorta bati erantzun zion behin. Basarriren onespina jaso zuen.

1.330. Garai berriko lehen emakume bertsolariak oholtza gainean: Loidi eta Mardaras (HER-092/030)

Arantzazu Loidi eta Kristina Mardaras dira oholtzara igo ziren lehenengo emakume bertsolariak (Lore Jokoei salbuetsita). Irudiaren garrantzia, kolektiboaren gaineko eragina: Kristina Mardaras gona jantzita oholtzan. Ekarpene asko egin ditu Mardarasek.

1.331. Bertso-eskolak, bertsolaritzaren babes (HER-092/031)

Bertso-eskolak garai oso desberdin batean sortzen dira. Transmisioa, etxetik eskolara pasako da. Bertso-eskolak, bertsolaritzaren biziraupena bermatzeko modua izango dira. Bertsolaritza unibertsalizatu egingo da; neska zein mutilei aukera berdina eskainiko zaizkie bertso eskolatan. Hala ere, gizarte mailan egon daitezkeen estereotipo edo aurreiritziek presentzia handia izango dute oraindik.

1.332. Bertso-eskolako oroitzapen onak (HER-092/032)

Bertso-eskolan egon zen garaiko oroitzapen oso onak gordetzen ditu. Harremanak lantzeko eta hizkuntzari lotutako praktikak egiteko eremu ez formal paregabe bat izan zela dio. Adin eta izaera desberdineko jende osatutako taldea zen; edonork zuen lekua bertan. Jarduera bera zen garairako transgresorea.

1.333. Bertsotan eroso sentitzeko gakoak (HER-092/034)

Bertsotan ondo pasatu eta ez sufritzeko modu bat perfekzionismoa edo, ondo egin beharraren presioa uxatzea litzateke. Bertsolaritza, jardun baten moduan hartu behar da. Une batean botatako puntu eskasari bakarrik erreparatu eta aldiro gure burua gogor zigortuko bagenu, isiltzen bukatuko genukeela iruditzen zaio. Bertsotan eroso non eta norekin sentitzen zaren jabetzea ere oso garrantzitsua da bere ustetan.

1.334. "Bidea urratu duten bertsoak" bilduma (HER-092/035)

Blogetan idatzi izan du emakume bertsolariei buruz. "Bidea urratu duten bertsoak" bertso bilduma ere argitaratu zuen (Argia, 2014). Generoa ardatz hartuta, historian gertatutako momentu puntualen bertso bilduma da. Topaketak egiten ziren garai hartan. Amankomunean zeukaten baina elkarbanatu gabe zegoen iruditegi oso definitu bat zegoela gogoan dauka.

1.335. Gaur egungo bertsolaritza (HER-092/036)

Ez dira urte asko pasa "Bidea urratu duten bertsoak" liburuxka argitaratu zuenetik (Argia, 2014) baina, gizarteak aurrera egiten jarraitzen du. Emakume bertsolarien zerrenda egiten hasiko bagina, luzeagoa izango litzateke gaur egun eta haien bilakaera eta lanketa ere, ugariagoak. Gaur egungo bertsolaritza aberatsagoa, anitzagoa da.

1.336. Gai -jartzaileen erronka (HER-092/037)

Gai-jartzaileek egungo bertsolaritzara egokitzeko egin behar izan duten lanketaz. Bertsolaritzak, aldarrikapenak egiteaz gainera, egunerokotasunean gertatzen direnak salatzeko eta zirikatze balio duela iruditzen zaio. Hala ere, batzuetan oso estu har daitezke bertsotan emandako iritzi hauek.

1.337. Emakumeak bertsotan eroso sentitzeko espazioak sortzea (HER-092/038)

Politikoki zuzenak ez diren ohiko gaietatik ihes egitea (txisteak, iseka egitea, lizunkeriak ...) ez da batere xamurra izan bertsolaritzarentzat. Are gehiago emakumeentzat. Emakume eta gizonen arteko desberdintasuna estereotipo aukeraketan: emakumea, amabirjina, puta ala sorgina baino ezin zitekeen izan. Propio egindako lanketa bati esker lortu dute eroso sentitzeko espazio bat sortzea. Egun, saio motak desberdinak dauden bezala, rolak ere ugariagoak izan daitezke.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-03-01

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com